



# EUSKAL ESTATUA IRUDIKATZEN

EUSKAL ESTATUAREN AURREKO IRITZIAK ETA JARRERAK EUSKAL HERRIAN.  
AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Julen Zabalo • Ane Larrinaga • Iker Iraola • Mikel Saratxo  
Mila Amurrio • Txoli Mateos • Arkaitz Fullaondo • Uxoia Anduaga







# EUSKAL ESTATUA IRUDIKATZEN

EUSKAL ESTATUAREN AURREKO IRITZIAK ETA JARRERAK EUSKAL HERRIAN.  
AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Julen Zabalo  
Ane Larrinaga  
Iker Iraola  
Mikel Saratxo  
Mila Amurrio  
Txoli Mateos  
Arkaitz Fullaondo  
Uxo Anduaga

Ipar Hegoa Fundazioa  
Parte Hartuz Ikerketa taldea



Euskal Herria, 2016

Liburu honen edukiak Creative Commons-Aitortu-Partekatu lizentzia baten pean daude. Baldintza honek honako salbuespena du: azaleko argazkia, Argazki Press agentziarena da. Honen gaineko eskubideak jabearenak dira, haren baimenik gabe ezingo delarik ez kopiatu, banatu edota eraldatu.

Egilea: Ipar Hegoa Fundazioa eta Parte Hartuz ikerketa taldea

Azaleko argazkia: Juan Carlos Ruiz / © Argazki Press

Lege gordailua: BI-325-2016

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, beti ere ondorengo baldintzak betez:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.

Bidegurutzearen metafora ekar dezakegu gurera berriz ere, Euskal Herriak aurrez aurre duen garai politikoaren deskribapena egin asmo badugu. Frantses eta espainiar estatuen historia eta kontakizun politikoaren barnean lokaztuta izan dugu gure bide propioa marrazteko ahalmena. Azken urteotan, eztabaida politikoaren loraldia bizi dugula esan dezakegu inorren aurreko ekarpena balioetsi gabe. Faktore anitzek sortu egoera ezegonkorra bizi dugu, eta egoera hori Euskal Herriarentzat ibilbide politiko eta sozial librea nahi dugunok bizi gaitu egoera horrek.

2012. urtean Ipar Hegoa Fundazioa Euskal Estatuaren auziaren inguruko lan koral baten aterbe izan zen. Artean eztabaida batzuetan eta besteetan agertzen zen gaia, baina oraindik zentro politikoan azaldu gabe. Izan ere, urte batzuk lehenagotik ematen ari zen gogoeta baten kristalizazioa izan zen lan hura. Bizpahiru urte lehenago, testuinguru politiko eta errepresibo zailaren baitan, hasi zen eratzten eta 2012an burutu eta eman zen argitara.

*Euskal Estatuari Bidea Zabaltzen* deitu genuen lan hura eta 33 adituk osatu 26 ekarpen bildu zituen. Azterketa esparruak anitzak izan ziren, komunitate baten eguneroko bizitza egituratzen duten ahalik eta aspektu gehienei erreparatuz. Azterketaren helburua, aldiz, bikoitza: Euskal Estatuaren beharra eta bideragarritasuna aztertzea aspektu zehatz horien baitan. Eztabaida anitza eta aspaldikoa dugu Euskal Estatuaren inguruan, baina lan harekin hutsune akademikoa bete nahi izan genuen denon artean. (Eskura dituzu lan horiek lotura honetan: <http://iparhegoa.org/index.php/eu/euskal-estatuari-bidea-zabaltzen-3/8-euskal-estatuari-bidea-zabaltzen2>)

*Euskal Estatuari Bidea Zabaltzen* lanaren harira, Ipar Hegoa Fundazioaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa taldearen artean sortu konplizidade eta harremanetik dator esku artean duzun ikerketa. Euskal Estatuaren beharraz eta bideragarritasunaz harago, ikerketari jarraipena ematea adostu genuen. Emaizta, ikus dezakezunez, Euskal Estatuarekiko iritzia eta atxikimendua neurtzea izan da batetik, eta diskurtsoak aztertzea bestetik.

Aurreko lana bezala, honek ere ekarpen bat izan nahi du. Eztabaida politikoa eta soziala suspertzeko eta oinarritzeko baliabide erreal eta zientifikoak eskaintzea izan da gure xedea ikerketa osatzerakoan. Estrategiak osatzeko, ezinbestekoa da errealitatean ezagutza zehatzagoa izatea, estrategia horiek eraginkorrak izango badira. Eremu horretarako ere lagungarri izan nahiko luke lan honek. Bidegurutzearan, norabide egokia har dezagun.

**IPAR HEGOA FUNDAZIOA eta PARTE HARTUZ (UPV/EHU) IKERKETA TALDEA**

## Aurkibidea

<b>ESKERRONAK</b> .....	<b>10</b>
<b>SARRERA</b> .....	<b>11</b>
Euskal Estatuari buruzko ikerketa bat .....	11
Datuak sortzen .....	13
Datuen azterketa.....	15
<b>IKERKETA KUANTITATIBOAREN EMAITZAK</b> .....	<b>17</b>
NAZIOAZ. EUSKAL HERRIA, NAFARROA, ESPAINIA, FRANTZIA: ADMINISTRAZIO ETA IDENTITATE KONTUAK.....	19
Zer da Euskal Herria: lurraldea.....	19
Nazio identitateaz.....	22
AUZI POLITIKOA ETA ERABAKITZE ESKUBIDEA: NORK ERABAKITZEN DU?.....	25
Erabakitze eskubidez.....	25
Erreferendumaren inguruan.....	29
BALIZKO EUSKAL ESTATUAZ: ESPAINIAKO/FRANTZIAKO ERREGIO, EDO ESTATU BERRIA? .....	31
EUSKAL ESTATUARI BURUZKO JARRERAZ ETA JARRERA HORI ALDATZEKO AUKERAZ:	
ZEREN ARABERA ALDA NEZAKE NEURE IRITZIA? .....	41
Euskal Estatuaren kontra nago, baina jarrera aldatuko nuke.....	41
Euskal Estatuaren alde nago, baina jarrera aldatuko nuke.....	45
ESTATUAREN AUKERATIK AT: BESTELAKO AUKERAK EDO HARREMANAK .....	48
<b>IKERKETA KUALITATIBOAREN EMAITZAK</b> .....	<b>51</b>
EUSKAL ESTATUAREN ALDEKO HERRITARREN IRITZIAK ETA JARRERAK.....	52
Subiranotasuna heldu arteko bidez .....	52
Euskal Estatuari buruzko iritziak .....	54
Euskal Estatuaren alde, zeren arabera? .....	55
EUSKAL ESTATUAREN AURKAKO IRITZIAK ETA IRUDIKAPENAK.....	60
Nazioarteko burujabetza prozesuei buruzko iritziak .....	60
Erabakitze eskubideari buruz.....	61
Euskal Estatu bati buruzko iritziez.....	62
TARTEKO MULTZOA: EUSKAL ESTATUARI BURUZKO IKUSPEGI ALDAGARRIAK .....	68
Interesekoa ez den eta urrun ikusten den afera.....	68
Euskal Estatuari buruzko ikuspegiak .....	68
LABURBILTZEN: HERRITARREN IRITZIAK EUSKAL ESTATUARI BURUZ.....	71
<b>EUSKAL ESTATUAREN ALDEKO</b>	
<b>ENPRESABURUEN IRITZIAN SAKONTZEN</b> .....	<b>73</b>
Metodologia.....	74
EUROPAKO PROZESU SOBERANISTEN / INDEPENDENTISTEN INGURUKO EZAGUTZA ETA IRITZIA:	
BADAGO KONPARATZERIK? .....	75
Non egon litezke oztopo nagusiak Euskal Herrian halako prozesua abiarazteko? .....	75
EUSKAL ESTATUAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAZ.....	76
EUSKAL ESTATUA ABIAN JARTZEA: ARRAZIOIAK, OZTOPOAK ETA ONDORIOAK.....	77
Gaur egun Espainiaren/Frantziaren barruan egotea abantaila edo kaltea da? .....	77
Zer oztopo egongo litzateke ekonomiaren ikuspuntutik? .....	78
Euskal Estatu sortzearen ondorio ekonomikoez .....	79



ZERTARAKO EUSKAL ESTATUA? .....	80
Euskal Estatu zertarako: ekonomian, enpresa sektorean edo enpresan bertan.....	80
Zertarako Euskal Estatu? Zer eskatuko zenioke?.....	81
ENPRESABURUAK EUSKAL ESTATUAREN ALDE .....	82
Sektoreko enpresaburu jarrera Euskal Estatuaren aurrean .....	82
EUSKAL ESTATUTIK AT: ZER BOTERE MAILA BEHAR DA .....	83
Euskal Autonomia Erkidegoa .....	83
Nafarroako Foru Komunitatea .....	83
Ipar Euskal Herria .....	83
EUSKAL ESTATUA ETA EUROPAR BATASUNA.....	84
Europar Batasunaren jarrera posibleaz .....	84
EBn egotearen garrantziaz.....	84
ONDORIO GISA.....	85
<b>EUSKAL KULTURAKO ERAGILEEN IRITZIAN SAKONTZEN .....</b>	<b>87</b>
Sarrera .....	88
Metodologia.....	88
ABIAPUNTUA: DIAGNOSTIKOAK .....	89
Krisi garaia .....	89
Bi diskurtso kulturgileen artean .....	90
Eskoziaren eta Kataluniaren irakaspena.....	90
Subjektu politikoaren auzia: euskara erdigunetik desplazatuta estatu-proiektuan.....	91
Indar politiko nazionalistei buruzko mesfidantza .....	92
Eskozia eta Katalunia ezin dira Euskal Herrirako eredu izan .....	93
ESTATUAREN IRUDIKAPENAK KULTURAREN IKUSPEGITIK.....	94
Hizkuntza eta kultura erdigunean: estatu, nazio kulturalaren babeserako tresna politiko .....	95
Estatu "txikia" .....	95
Estatu, herri ekimenaren osagarri .....	96
Kulturgileen partaidetza aktiboa.....	96
Euskararen zentraltasuna lortzeko kultura- eta hizkuntza-politikak .....	97
Sektore estrategikoak estatuaren kultura-ekimenean .....	98
Integrazio linguistikoa ahalbidetu, beldurrak uxatu, herritartasuna eskaini biztanle guztiei.....	99
Estatu eredugarriak, gaur .....	101
ONDORIOAK .....	101
<b>AMAIERAKO ONDORIOAK .....</b>	<b>103</b>
Metodologiaz eta subjektu politikoaz.....	104
Euskal Estatuaz eta Erabakitze Eskubideaz.....	105
Euskal Estatuari buruzko iritziak: alde dauden enpresaburuena eta kultura-eragileena .....	106
Euskal Estatuaz administrazio lurraldeka.....	107
<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>108</b>
1. ERANSKINA. EZTABAIDA TALDEEN FITXA TEKNIKOA.....	108
2. ERANSKINA. NAFARROA GARAIA ETA SUBJEKTU POLITIKOA .....	109
3. ERANSKINA. EUSKAL ESTATUAREN INGURUKO JARRERAK, HAUTEMATEAK ETA IRITZIAK. EUSKAL HERRIA, 2014. GALDERA-SORTA .....	110
4. ERANSKINA. ENPRESABURUAK: ELKARRIZKETATUEN SOSLAIA.....	115
5. ERANSKINA. EUSKAL KULTURAKO ERAGILEAK: ELKARRIZKETATUEN SOSLAIA .....	116

## ESKERRONAK

Asko izan dira halako lan baterako eskatu behar izan ditugun laguntzak. Taldeak antolatzeko, partaideak bilatzeko, azpiegiturak lortzeko... pertsona askoren lana dago ikerketaren atzean. Horien artean, lehenengo eta behin, inkestetan, eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan parte hartu duten hainbat lagun anonimo aipatu behar dira. Eta hori dena antolatzeko, orain bai izenekin, ezin aipatu gabe utzi lagun hauek guztiak: Iñaki O'Shea, Gorme, Julian Zelaia, Gaizka Aranguren, Onintza Odriozola, Eneko Aldana, Beronike Larrarte, Alex Uriarte, Imanol Esnaola, Tasio Erkizia, Angel Oiarbide eta Ibon Arbulu. Antolaketan eta datu bilketan, bi enpresak lagundu gaituzte: Aztiker Ikerkuntzak eta CPSk. Amaitzeko, oroimen berezia ere agertu nahi dugu enpresa eta ekonomia gaietan laguntza eta aholkularitza eskaini zigun lagun baten alde: Anton Borja, 2015ean zendua.

Eskerrik asko denei.

## SARRERA

### Euskal Estatuari buruzko ikerketa bat

Globalizazioak Mendebaldeko nazio-estaturen eskumenak ahuldu ditu, eta gai horretan aditu diren gizarte zientzialarien lan askotan estatua berrasmatzeko beharraz, estatu postmodernoaz edota estatu glokalaz [glocal state] hitz egiten da (Chevalier, 2011). Ideia horiek Europako nazio-estaturen sistemari gertatzen ari diren aldaketak islatzen dituzte, batik bat. Aldaketa horien artean, zenbait estaturen lurralde mugatua hausteko eskari demokratikoak ere ageri dira, Eskozia eta Katalunia kasu. Bi nazio horiek subjektu politiko gisa agertu dira Europako eszenatokian, berezko estatua aldarrikatzen.

Euskal gizartean ere bistan da aipatutako kasu bi horien eragina: *Gure Esku Dago* Euskal Herriko erabakitzeko eskubidearen aldeko herri mugimendua, 2013ko ekainean aurkeztua, azkeneko bi urte hauetan hainbat mobilizazio burutu dituen mugimendua du. Orain herri kontsultak antolatzeke asmatan dago, herriz herri Euskal Herriko itun bat eraiki guran, herritar guztien artean zehaztu ahal izateko non, zer, noiz eta nola erabaki behar den (Arbelaitz, 2015). Halaber, erakundeen esparruan ere, ekimenak ugari dira erabakitzeko eskubidearen edota erakundetzaren inguruan, lurralde eremuaren arabera. Hala, Eusko Legebiltzarrean *autogobernu lan taldea* abian da estatus politikoaren aldaketa proposamenak egiten eta aztertzen, Nafarroako Parlamentuan erabakitzeko eskubidearen buruzko eztabaida monografikoa egin zen 2015eko azaroan<sup>1</sup>, eta garai bertsuan Ipar Euskal Herriko udalerrri gehienak Euskal Herri Elkargoaren alde agertu ziren<sup>2</sup>. Horiek guztiek jakinmina piztu dute gure inguru akademikoan, eta jakinmin horrek bere isla izan du azkenaldi honetan estatu-eraikuntza prozesuei buruz argitaratu diren hainbat iritzi eta gogoetetan.

Gogoeta horietan ildo honetako galderak planteatu dira: erabakitzeko kontsulta egitearen alde agertu daiteke Euskal Herriko populazioaren gehiengoa? Horrek Euskal Estatu sortzeko prozesua abian jartzea ekarriko luke? Nolakoa litzateke balizko Euskal Estatu? Euskal Herriko biztanleek nola irudikatzen dute balizko Euskal Estatu hori? Zein izango litzateke Euskal Estatu horren lurraldea? Galdera horiei erantzun guran jarri da abian ikerketa hau.

Hartara, *ikerketaren helburua* Euskal Herriko biztanleek balizko Euskal Estatuari buruz dituzten iritziak, jarrerak eta irudikapen sozialak aztertzea izan da. Aztergaiaren inguruan egiten den lehenengo saioa bada ere, behar besteko sakontasunarekin landu nahi izan da. Hori dela eta, ikertzaileon jarduna ez da soilik bideratu Euskal Herriko biztanleriaren esanak jasotzera; horrez gain, gizarte eremu zehatzetan, alegia, enpresaren munduan eta euskal kulturari, ari diren eragile batzuenak ere hartu nahi izan dira aintzat. Izan ere, ezaguna da gure gizartean ongizatea eta euskara garrantzi handiko gaiak izan daitezkeela Euskal Estatu baten sorreraz hitz egiten hasita. Hori dela eta, balizko Euskal Estatuari buruz bai enpresaburuek bai euskal kulturaren eragileek dituzten iritziak, jarrerak eta irudikapenak ere aztertu dira. Beraz, ikerketa honetan hiru behaketa-unitaterekin egin da lan, eta horrek azterketa aberastu duen arren, aldi berean, konplexuago bihurtu du ikerketa prozesua. Konplexutasun hori islatuta gelditu da ikerketak hartutako hiru norabideetan, aztergai berari buruzkoak izanda ere, helburu desberdinak izan dituztenak.

Aztergaia zedarritze aldera, definitu egin da darabilkigun kontzeptua, *Euskal Estatu*. Horrela, hobetsi egin da estatuaren kontzeptualizazio tradizionalaren ildotik jotzea, alegia Mendebaldeko Europako Aro Modernoan sortutako antolaketa politikorako era gisa definitzea, lehenengo estatu moderno, eta geroago, frantziar iraultzaren ostean, nazio-estatu gisa ezagutua. Nazio-estatuak lurralde zehatz baten gaineko subiranotasun politiko formala aldarrikatzen du, baita lurralde horretan bizi den 'herriak' ala 'nazioak' emandako legitimitatea ere (Mann, 1996).

Nazionalismoak, oro har, parekatu egiten ditu nazioa (herria) eta estatua; edo, bestela esanda, ezarri du nazio guztiei dagokiela estatu bat. Eta hori nazionalismo mota guztiek konpartitzen dute, hala estatuaren bila dabilen nazionalismoak nola estatu finkoa lortu duen nazionalismoak ere, baina, diferentzia batekin, Michael Billig-ek ederto erakutsi duen moduan: estatu baten jabe den nazionalismoak nazio identitatea helarazten die bere lurraldeko biztanleei eguneroko erritual eta sinboloen bidez, batzuetan oharkabean eta besteetan era nabarmenean, halako moldez non, grina handirik erabili gabe lortzen baitu herritarren kideza sentimendua eta nazioarekiko atxikimendua modu *natural* batez indartzea. Nazionalismo hutsala deitzen zaio jokaera horri (Billig, 1995), modu apalean eta kasik sen onean onarrituta lortzen baitu zabaltzea eta indartzea. Hain zuzen ere, horrela eskuratzen du zilegitasuna: bere burua nazionalizatzen ez aurkeztuta.

<sup>1</sup> Olano, Jon, "Estatus politikoa berritzeko prozesu bati ekitearen alde egin du Nafarroako Parlamentuak", Berria, 2015-11-27, [http://www.berria.eus/albisteak/117205/estatus\\_politiko\\_a\\_berritzeko\\_prozesu\\_bati\\_ekitearen\\_alde\\_egin\\_du\\_nafarroako\\_parlamentuak.htm](http://www.berria.eus/albisteak/117205/estatus_politiko_a_berritzeko_prozesu_bati_ekitearen_alde_egin_du_nafarroako_parlamentuak.htm)

<sup>2</sup> "158 herrietatik 113 Euskal Herri Elkargoaren alde agertu dira", *Kazeta.eus*, 2015-12-02, [http://kazeta.naiz.eus/es/info\\_kz/20151202/158herrietatik113euskalherri elkargoaren alde agertu dira](http://kazeta.naiz.eus/es/info_kz/20151202/158herrietatik113euskalherri elkargoaren alde agertu dira)

Hartara, nazionalismo hutsala deitu dugun eredu hori nagusitzen da Beranduko Modernitatearen garai honetan, non identitate aniztasunak eta nazionalismoak lausoturik ageri baitira. Baina, hor diraute; askok sen oneko nazionalismo gisa. Berezko ezaugarri batzuk galdu dituen arren, bistan da nazio estatua ere ez dela erabat gainditua izan egituraketa politiko gisa, gaur gaurkoz. Estatuaren ezaugarri klasikoak kolokan jarri badira ere, ez da posible estatu-eredu berri baten ezaugarriak zehaztea modu zorrotzean (Chevallier, 2011). Estatuaren definizio berrien 'zalantzen' eta segurtasun berrien formulazioen artean bizi da egungo gizartea (Granato & Oddone, 2009).

Ikerketak hartutako lehenengo norabidea Euskal Herriko biztanleriarekin egindako azterketa izan da, eta zeregin horretan honako *helburu zehatzak* lortu nahi izan dira:

1. Erabakitze eskubidearen aurreko jarrerak ezagutzea eta neurtzea.
2. Egungo abagune politikoan Euskal Herri osoa bilduko lukeen estatu baten gaineko jarrerak ezagutzea eta neurtzea.
3. Aldeko, kontrako zein tarteko jarrera horien atzean egon daitezkeen ideiak, afektuak eta jokabideak ezagutzea.
4. Gai ekonomikoen, politikoen eta sozialen gaineko iritziak ezagutzea.

Goian esan bezala, estatua lurraldeko antolaketa politikoa da, beraz, balizko Euskal Estatuari dagokion lurraldea zehazteko orduan euskal nazionalismoak irudikatutakoa erabili da, hau da, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herrialdeek osatutakoa. Hala, ikerketa eremua hori bera izan dadila erabaki da, jakin arren erabaki horrek zailtasunak ekar zitzakeela landa-lana burutzeko unean. Jakina denez, lurralde horiek bi nazio-estatutan eta hiru administrazioetan banaturik daude, gertaera horrek lurralde horien biztanleen eguneroko bizitzetan eragiten du, baita herrialdeen arteko aldeak sortu ere euskal nazionalismoaren hedapenari dagokionez. Aipatu zailtasun horien ondorioz, lanean zehar halako terminologia erabiltzea erabaki da:

- Euskal Herria kontzeptua erabiliko da, tradizionalki Euskal Herritzat jo diren zazpi herrialdeak haren barnean hartuta: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.
- Hiru barruti administratibo bereiztuko dira: EAE, Euskadiko Autonomia Erkidegoa; NFK, Nafarroako Foru Komunitatea; eta IEH, Ipar Euskal Herria.
- Batzuetan, Hego Euskal Herria (EAE gehi NFK) eta Ipar Euskal Herria (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) bereiztuko dira.

Ikerketan balizko Euskal Estatuari buruzko populazio zehatz baten iritziak, jarrerak eta irudikapen sozialak ezagutu nahi izan dira. Hiru oinarriko kontzeptu ditugu hemen. Askotan lehenengo kontzeptu biak sinonimotzat hartzen direnez, komenigarria da, lehendabizi, *iritziaren* eta *jarreraren* arteko desberdintasunak argitzea. Gizabanako baten *iritzia* gai eztabaidatuen ingurukoa izaten da, ondorioz, maila arrazionalen kokatua eta berbaz adierazia izan ohi da; ustekabekoa eta isolatua ere izan daiteke. *Jarrera*, aldiz, barrukotasun handiko elementuez osaturik egoten da (kognoszitiboak, afektiboak eta errektiboak edo jokabidezkoak). Beraz, *jarrerak* adierazteko beste modu batzuk ere baditu, berbazkoez gain. *Iritzietan* osagai kognoszitiboak afektiboak baino garrantzi handiagoa dauka, eta *jarreretan* alderantzizkoa gertatzen da. Alde horiek guztiak direla eta, jarrerak iritziak baino egonkorragoak izan ohi dira. Are gehiago, irudikapen sozialaren objektuari buruzko (gure kasuan, Euskal Estatuari buruzko) aldeko edo kontrako orientazioa adierazten du *jarrerak*, eta errepresentazio sozialetako hiru dimentsioetatik (informazioa, irudikapenaren arloa eta jarrera) sarrien agertzen den alderdia da. Horren ondorioz, objektu bati buruzko jarrera jakin bat hartu ondoren, hartutako jarreraren arabera informatzen gara objektuaz, eta haren arabera osatzen dugu objektuaren errepresentazioa. *Beraz, jarrerarik egon ezean ez dago irudikapen sozialik ere.*

Honaino helduta, aipatutako hirugarren kontzeptua azaldu behar da, alegia, irudikapen soziala. *Irudikapen sozialak* jendeak partekatzen duen ezagutza arruntean oinarrituta daude. Ezagutza aurre-erreflexibo horretatik abiatuta errepresentatzen eta ulertzen da mundu soziala, mundu horretako instituzio eta jokamoldeei buruzko irudi jakin batzuk osatuta. Ildo horretan, irudikapen sozialek izaera praktikoa dute, eta gizabanakoen egintza soziala orientatzen dute norabide jakin batean.

Ikerketaren hasierako atal honek hartutako lehenengo norabidea honako *hipotesi orokorre* bideratu dute:

1. Euskal lurraldeen administrazio-antolaketak zer ikusia izan dezake Euskal Herriko biztanleriaren iritzi, jarrera eta irudikapen sozialetan Euskal Estatuaz dauden desberdintasunekin.
2. Euskal lurraldeetan euskal nazionalismoari buruz dauden atxikimendu maila desberdinek argi ditzakete Euskal Herriko biztanleriak dituen iritzi, jarrera eta irudikapen sozial desberdinak balizko Euskal Estatuaz.
3. Euskal Herriko biztanleriak izan ditzakeen nazio identitate desberdinen arabera dira Euskal Estatuarekiko jarrerak.

Hipotesiak operazionalizatzeko honako dimentsio hauek hartu dira:

- Nazioaz: Euskal Herria, Nafarroa, Espainia, Frantzia
- Estatuaren sorrera bidea: Auzi politikoa eta erabakitzeko eskubidea
- Estatuaz: Euskal Herria, Espainiako edo Frantziako eskualdea, edo estatu berria
- Estatu eta erreferenduma: zeren arabera aldatzen da Euskal Estatuari buruzko iritzia
- Euskal Estatuaz gainerako aukerak

Dimentsio horien gaineko azterketari begira *triangelaketa estrategia* hobetsi da. Hala, gorago aipatutako helburuak lortze aldera, metodologia kuantitatiboaren ildotik galdesorta erabili da datuak sortzeko teknika gisa. Metodologia horrek dituen mugak gainditu guran, estrategia kualitatiboaren bidetik, datuak sortzeko eztabaida taldeak burutu dira. Azken horiek ikerketa prozesuaren bi une desberdinetan antolatu dira: lehenengo, inkesta egin aurretik, inkestaren diseinuaren prestakuntza laguntzeko eta ez erantzunaren eta errefusapenaren arazoei aurre egiteko. Eta, geroago, inkestaren emaitzak aztertu ondoren, emaitzak egiaztatu edota argitu guran, baita azterketa kuantitatiboak iradokitako hartuemanetan sakondu nahian ere.

Lanak hartutako gainerako bi norabideetan hobetsi den ikerketa estrategia beste bat izan da: bai Euskal Herriko enpresaburuekin bai euskal kulturgileekin, *Kasu azterketa* erabili da. Hasieran esan bezala, kolektibo horien iritzia bereziki interesgarria baita darabilkigun ikergaiarentzat. Hala, *berezko kasu azterketa* (Stake, 1995), modu *interpretatiboan* (Lijphart, in Kazez, 2009) bideratu da. Datuak sortzeko teknika sakoneko elkarriketa izan da.

## Datuak sortzen

Goian adierazi bezala, bi teknika erabili izan dira Euskal Herriko biztanleriak aztergaiari buruz dituen iritzien gaineko datuak sortzeko. Batetik, metodologia kualitatiboaren bidetik, eztabaida taldea erabili da; hau da, aldagai jakin batzuen arabera eratutako taldeekin hamahiru elkarriketa egin dira. Bestetik, metodologia kuantitatiboaren teknikaren bidez, alegia, inkestaren bidez, hainbat galdera egin zaizkio Euskal Herriko biztanleriaren lagin errepresentagarri bati.

### *Eztabaida taldeak*

Taldeekin erabili beharreko elkarriketaren gidoia diseinatzeko honako hiru gai nagusiak hartu dira aintzat: nazioarteko subiranotasun-prozesuak, erabakitzeko eskubidea eta Euskal Estatuaren gaineko jarrera. Landa lana 2015eko martxoaren eta urriaren bitartean egin da, guztira 13 eztabaida talde egin dira eta sakoneko elkarriketa bat (azken hori informatzaile esanguratsu bati egin zaio pertsona horrek duen kokapen estrategikoa dela eta, Vallés, 1997). Eztabaida talde horietatik lau, inkesta administratu aurretik burutu dira, eta beste bederatiak inkestaren emaitzak ustiatu eta aztertu ondoren. Hasierako lau taldeetatik bi Bizkaian,– Barakaldon eta Bilbon–, eta bana Donostian eta Iruñean egin dira. Azken hiri horretan *Hirukoa* egitea erabaki da (Hiruko taldeek edo talde pertsonalizatuak jarrerak gehiago dibertsifikatzea dute helburu, Vallés, 1997). Laginketa diseinuari begira, taldeen arteko zein taldeen baitako heterogeneotasuna erabili dira irizpide gisa. Hartara, partehartzaileen hautaketan honako aldagai hauek hartu dira aintzat: adina, sexua, lan-egoera eta ideologia. Taldeen arteko heterogeneotasuna bermatzeko lehenengo aldagaiari erreparatu zaio: hauteskundeetan izandako jokabideari. Aldiz, inkesten emaitzen argitara, gainerako bederati taldeen laginketa diseinuan balizko Euskal Estatuari buruzko jarrerak –alegia, aldekoak, kontrakoak eta tartekoak– izan dira taldeen arteko heterogeneotasuna ezarri duten irizpideak, eta taldeen baitako heterogeneotasuna bermatzeko aurreko urratsean erabilitako aldagai berdina baliatu dira: adina, sexua, lan-egoera eta ideologia. Bigarren urrats horretan eztabaida taldeak honako hirietan egin dira: Gasteizen, Arrasaten, Portugaleten, Iruñean, Zarautzen, Baionan, Kanbon eta Bilbon (azken hiri horretan eta Iruñean, bi izan dira egindako eztabaida-taldeak)<sup>3</sup>.

### *Inkesta*

Lehenago aipatutako kontzeptuaren dimentsioak aintzat harturik, galdesorta egituratu bat diseinatu da. Diseinu horretan kontuan hartu da Euskal Estuari eta Nafar Estuari adiera desberdinak esleiri ahal zaizkiela Nafarroa Garaian. Hala, berezitasun horri behar bezala erantzuteko, bi galdesorta erabili dira. Batean, gainerako herrialdeetan zabalduko galdesorta bera errepikatu da; baina, bestean, egoeraren arabera, 'nafar' kategoriatan sartu da 'euskal' kategoriaren ordeza<sup>4</sup>. Erabaki horrek badu bere isla datuen aurkezpenean, zenbait unetan bereizi egin baitira bi kategoriak, erakusgarri gisa. Baina, oro har, batu egin dira emaitzak, kategoriatan Espainiatik berezitasunaren egitura politikoa baten adierazpena dela ezaugarririk garrantzitsuen pentaturik.

<sup>3</sup> Eztabaida taldeen diseinuaren fitxa teknikoa 1. eranskinean ikus daiteke.

<sup>4</sup> Modu berean jokatu zuten Erramun Baxok-ek eta berarekin batera aritu ziren ikertzaileek, Euskal Herri osoan nortasunaren gaineko azterketa burutu zutela. Ikus: Baxok et al., 2006: 47. orr.

Galdesorta telefonoaren bidez administratzea erabaki da. Telefonoz izandako elkarrizketak bi urratsetan egin dira:

- Lehenik, zori sistematikoaren bidez telefonoz etxeetara deitu da, beti ere herrialde zein udalerrietako zonalde bakoitzaren pisua kontuan hartuta.
- Ondoren, etxeetan kuoten sistema aplikatu da, eta sexuaren eta adinaren arabera oreka ziurtatu da.

Unibertsoa: 18 urtetik gorako Euskal Herriko herritarrek (2.604.209) osatzen dute. Lagina 2.007 herritarrez osatu da, beraz, 2.007 inkesta egin dira Euskal Herri osoan, eta haztapan ez proportzionalak egin dira herrialdeka. Hau da, herrialde guztietan 400 inkesta egitea aurreikusi ondoren, hauek izan dira herrialde bakoitzari esleitutako kopuruak:

HERRIALDEA	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Araba	400	19.9
Gipuzkoa	402	20.0
Bizkaia	401	20.0
Nafarroa Garaia	401	20.0
Ipar Euskal Herria	403	20.1
Guztira	2.007	100.0

Horrek  $\pm 2,2\%$ ko akats tarte suposatzen du emaitzak unibertso osora estrapolatzerakoan, hau da, Euskal Herri osora,  $95,5\%$ eko konfiantza mailan,  $p=q$  denerako.

Azpi-laginei buruzko datuak orokortzean, noski, akats tarteak handiagoak izan dira, baina kasu honetan herrialdeka lagin nahikoa dago emaitza adierazgarriak eskaini ahal izateko. Herrialde bakoitzaren daturako  $\pm 5\%$ eko akats tarte suposatzen du emaitzak herrialde bakoitzaren unibertso osora estrapolatzerakoan,  $95,5\%$ eko konfiantza mailan,  $p=q$  denerako.

Laginketa diseinua polietapikoa eta estratifikatua izan da, herrialde bakoitzaren barruan konglomeratu estratifikatuak sortu dira (batetik, herrialde bakoitza eskualdeka banatu da eta, bestetik, eskualde bakoitzaren barruan herrien tamainaren arabera 5 estratu sortu dira; 2000 biztanle edo gutxiagoko herriak, 2.001-10.000 artekoak, 10.001-50.000 artekoak, 50.001-100.000 artekoak eta 100.001 baino gehiagokoak), laginketarako lehen mailako unitateak (herriak) zori proportzionalaz hautatu dira.

*Landa-lana*: 2014ko urriaren 1etik 2015eko otsailaren 20ra burutu da. Elkarrizketak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez egin dira, elkarrizketatuen nahiaren arabera. Orokorrean, Hego Euskal Herriari dagokionez ez da egon nabarmentzea merezi duen gertaera handirik landa lanean zehar. Bai, aldiz, Nafarroa Garaian. Aurreikusten zen bezala, lurralde horretan Euskal Estatu-Nafar Estatu kontzeptuen arteko zalantzak geratu dira agerian. Horien inguruan dauden hautemateak, besteak beste, inkesta betetzeko unean izan diren zailtasunen atzean egon dira<sup>5</sup>. Dena dela, kontzeptu desberdinak izan arren, sinonimotzat hartu dira lan honetan, batoren zein bestearen esangurak Espainiatik bereizitako estatu independentea adierazten duelakoan.

Ipar Euskal Herrian egoera bestelakoa izan da: elkarrizketatu asko harritu egin dira zenbait galderen aurrean, eta horrek zaildu egin du inkestazailleen zeregina. Datuetara ekarrita, inkesta administratzeko denborak Hegoaldean baino luzeagoak izan dira Ipar Euskal Herrian eta telefonoan ezezko erantzun gehiago jaso dira. Hala ere, Hego Euskal Herrian inkesta bat egiteko 9 dei egin behar izan dira, eta Ipar Euskal Herrian dei bat gehiago baino ez da egin behar izan, hau da, 10 dei inkesta bakoitzeko. Beraz, laginaren adierazgarritasuna bermaturik gelditu da.

### Sakoneko elkarrizketak: Enpresaburuak

Euskal Herriaren eremuan egindako inkesten zein eztabaida taldeen emaitzetan ekonomiari eta enpresari lotutako gaiek garrantzi handia hartu izan dute. Gainera, gai horiek balizko Euskal Estatu baten bideragarritasunarekin zerikusia dutela agertu izan da. Hori dela eta, Euskal Herriko enpresaburuengana jo eta *kasu zehatza hartu dugu: Euskal Estatu baten alde egon litezkeenak* aztertzea. Enpresaburu horiekin izandako sakoneko elkarrizketak honako gai zehatzek gidatu dituzte :

- Euskal Herriko enpresaburuaren iritzia Eskoziako eta Kataluniako subiranotasun prozesuez, eta prozesu horiek Euskal Herrian izan dezaketen eraginez.
- Euskal Estatuaren bideragarritasuna, eta estatu horren sorrerak ekar zitzakeen ondorioak ikuspegi ekonomiko batetik.

<sup>5</sup> Galdesortaren diseinuan hartutako erabakien argibideak eta galdesorta bera 2. eta 3. eranskinetan ikus daitezke.

- Euskal Estatuak izan beharko lituzkeen helburu ekonomikoak.
- Gainerako enpresaburuek izan zezaketen jarreraren gaineko hautemateak.
- Euskal Estatuaren eta Europar Batasunaren arteko harremana.

Lagina diseinatzeko *laginketa ez probabilitikoa* erabili da kasu azterketan; laginaren unitateen hautaketa *informazioak gidatuta*, alegia, eduki informatiboari buruzko espektatiben arabera (Flyvjerg, 2006) egin da. 2014ko abendutik 2015eko urrira bitartean hogeit hamar elkarriketa egin dira: hamaika Euskal Autonomia Erkidegoan, lau Nafarroan eta bost Ipar Euskal Herrian. Enpresaren sektore anitzak ordezkatu dira, eta enpresaren tamainari begira ere, familia negozio txikitik hasi eta 50 langiletik gorako enpresetara heldu gara. Jabetzari dagokionez, batzuk familia negozioak dira, diogunez, eta badira kooperatibak, sozietate mugatuak eta sozietate anonimoak ere. Elkarriketetatik, 8 euskaraz eta 12 gaztelaniaz egin dira<sup>6</sup>.

Elkarriketaren gidoia berdina izan da denentzat, lurralde bakoitzaren ezaugarriak biltzen dituen atala salbu. Erantzunak irekiak eta askeak izan dira.

### *Sakoneko elkarriketak: Euskal kulturako eragileak*

Euskal nazionalismoaren hastapenetatik eta, bereziki, mugimendu nazionalistak 60ko eta 70eko hamarkadetan egindako formulazioetatik aurrera, euskal hizkuntza eta euskaraz egindako kultura euskal nazio-identitatearen muinaren osagarritzat hartu dira. Harrez geroztik, kausa linguistikoa eta kulturala euskal nazionalismoaren aldarrikapen independentistari eta, birtualki, balizko Euskal Estatu baten sorrerari loturik agertu dira. Hori dela eta, bereziki interesgarri jo da euskararen aldeko mugimenduaren kideek eta euskarazko kulturaren eragileek sortutako diskurtsoak jasotzea eta aztertzea. Helburu nagusi hori honako helburu zehatzetan gauzatu da:

- Euskal kulturgileek Eskozian eta Katalunian buruturiko prozesuei buruz dauzkaten iritziak bildu, baita prozesu horiek Euskal Herrian izandako eraginari buruzko ikuspegiak ere.
- Euskal Estatuaren eraikuntza proiektuaz kulturgileek dituzten iritziak jaso eta estatu horren bideragarritasunari buruz agertzen duten ikuspegia eskuratu.
- Kulturaren ikuspegitik kulturgileek balizko Euskal Estuari esleitzen dizkioten eginkizunak ezagutu.
- Euskal kulturgileek balizko Euskal Estuari buruz osatzen dituzten irudikapen sozialak deskribatu.

Datuak sortzeko teknika kualitatiboak erabili dira. Alde batetik, sakoneko elkarriketak egin zaizkie euskararen aldeko mugimenduaren askotariko erakunde eta sentsibilitateetatik datozen informatzaileei. Ikuspegi kualitatiboari jarraiki, *laginketa estrategikoa* egin da ikerketan erabilitako lagina diseinatzeko. Laginaren unitateak hautatzeko erabilitako irizpideek ikuspegi aniztasuna lortzea izan dute helburu. Guztira, 13 sakoneko elkarriketa egin dira 2015eko martxoaren eta maiatzaren bitartean. Informatzaileak Euskalgintzan eta euskal kulturgintzan duten kokapen kualifikatuaren arabera aukeratu dira. Denek daukate ibilbide luzea aktibista nahiz aditu eta profesional moduan honako bost esparru hauetan: unibertsitatean, komunikazioan, kultura-industria eta argitaletxeetan, eta literaturan, hurrenez hurren<sup>7</sup>.

Elkarriketak diseinatzeko eredu estandarizatu irekia erabili da, hau da, galdera-zerrenda bera egin zaie elkarriketatu guztiei, eta erantzunak irekiak eta askeak izan dira.

Beste alde batetik, elkarriketetatik eskuratutako informazioa osatzeko, Euskalgintzari lotutako aldizkarietako eta argitalpenetako dokumentu idatziak berrikusi eta aztertu dira, baita sare sozialetatik hartutako dokumentuak ere. Jorrotutako informazioek eta gai-zerrendek ikerketarako duten garrantziaren arabera osatu da argitalpenen lagina.

## **Datuen azterketa**

### *Inkestaren emaitzak*

Galdesortaren emaitza nagusiak gaika sailkatuta aurkezten dira bost ataletan. Lehenengo hiru ataletan bi modutan ageri dira datuak. Batetik, aldagai berdinen arabera taldekatu dira herritarrak euren erantzun bateratuak agertzeko unean. Aldagai horiek honakoak dira:

<sup>6</sup> Elkarriketatuen soslai 4. eranskinean ikus daiteke.

<sup>7</sup> Elkarriketatuen soslai 5. eranskinean ikus daiteke.

- *Adin taldeak*: 18-29; 30-65; 65+.
- *Ikasketa mailak*: Ikasketarik ez eta Lehen Hezkuntza baino baxuagoak; Lehen Hezkuntzatik Batxilergora bitartekoak; Goi Ikasketak (Unibertsitatea).
- *Azken hauteskundeetan lurraldeka emandako botoa*.

Bestetik, atal bakoitzaren gaiari buruz interesgarritzat jo diren aldagaien arabera taldekatu dira herritarrak: nazioaz ari garela, nazio identitatea lurraldeen arabera; erabakitzearen eskubideari dagokionez, erreferenduma deituz gero, *nork erabakitzen du? non erabakitzen da?*; balizko Euskal/Nafar Estatuarekiko<sup>8</sup> jarrerren berri ematen dela, *jatorria, nazio identitatea, lurraldea, euskararen ezagutza maila eta bizi maila*.

Laugarren atalean, lehenengo *Euskal Estatuaren sortzearen kontra* daudenen jarrera aldatzeko aukera ageri da, eta aldaketa hori zeren arabera gerta zitekeen; ostean, *Euskal Estatuaren alde* daudenen jarrera aldatzeko aukera, eta aldaketa aitortuz gero, zeren arabera.

Azkenik, bosgarren atalean, estatuaren aukerarik ezean, euskal lurraldeen arteko bestelako harremanen gainean herritarrek dituzten hautuak ageri dira.

Datuak tauletan, goitik beherako ehunekotan aurkezten dira, zenbaitetan argigarriak izan daitezkeen grafikoez lagunduta.

Atal guztien amaieran laburbildurik ageri dira ondorio nagusiak.

### *Azterketa kualitatiboaren emaitzak*

Eztabaida taldeen bileretatik atera diren diskurtsoak hiru atal desberdinetan bildu dira. Lehenengo atal batean Euskal Estatuaren aldeko diskurtsoa deskribatzen da, bigarren batean kontrako diskurtsoa, eta hirugarren atalean, jarrera irmorik erakusten ez duten taldeen iritziak ezagutarazten dira. Amaieran ondorio nagusien berri ematen da.

### *Kasu azterketak*

Euskal Estatuaren alde dauden enpresaburuei egindako sakoneko elkarrizketen emaitzak, gidoirako erabilitako gaien inguruan antolatu dira, baita euskal kulturjileei egindakoak ere. Kasu bietan ondorio nagusiak laburbildurik ere eskaini dira atal bakoitzaren amaieran.

### *Ondorioak*

Azken ondorioetan ikerketak hartutako hiru norabideetatik lortutako emaitzak uztartu eta garatu dira, lau ataletan. Lan honetara hurbiltzen den edozein irakurleri ikerketaren ikuspegi osoa eskaintzea da amaiera horren helburua.

### *Erabilitako aipamenak*

- Arbelaitz, L. (2015). 'Herri Galdeketak orain, Euskal Herriko Ituna ondoren'. *Argia*, 2015-11-1.
- Billig, M. (1995). *Banal nationalism*. London: Sage Publications.
- Chevallier, J. (2011). *El estado posmoderno*. Bogotá: Universidad Externado de Colombia.
- Flyvberg, B. (2006). 'Five misunderstandings about Case Study Research'. *Qualitative Inquiry*, 12 (2), 219-245.
- Granato, L., & Oddone, N. (2009). 'Estado y sociedad en el mundo contemporáneo: Una aproximación desde las relaciones internacionales'. *Tendencias*, 10 (2), 1-23.
- Kazet, R. (2009). "Los estudios de casos y el problema de la selección de la muestra. Aportes del sistema de matrices de datos". *Subjetividad y procesos cognitivos*, 13 (1), 71-89.
- Mann, M. (1997). 'Has globalization ended the rise and rise of the nation-state?' *Review of International Political Economy*, 4 (3), 472-496.
- Stake, R.E. (1994). 'Case Studies'. In: N.K. Denzin & Y.S. Lincoln (eds.). *The Sage Handbook of Qualitative research*. Thousand Oaks, CA: Sage.
- Vallés, M. S. (1997). *Técnicas Cualitativas de Investigación Social*. Madrid: Síntesis.

<sup>8</sup> Inkestaren diseinuan azaldu den moduan.



**EUSKAL ESTATUAREN INGURUKO IRITZIAK ETA JARRERAK.**

**IKERKETA KUANTITATIBOAREN EMAITZAK**

Balitzko Euskal Estatu bati buruz Euskal Herri<sup>9</sup> osoan galdetzea, hori izan da gure lan honen helburua. Badaude berrikuntzak planteamenduan. Alde batetik, uste dugu lehenengoz galdetzen dela Euskal Estatuaz, eta ez independentziaz. Eta bestetik, garrantzia ematen diogu inkesta Euskal Herriko zazpi herrialdeetan egin izanari.

Aurretik ere izan dira gai hauei buruzko lan nabarmengarriak, nahiz eta desberdintasunak izan gure planteamenduarekin. Aipamen berezia merezi dutenen artean, klasikoa den Juan Jose Linzen ikerketarekin hasi behar da, Euskal Herri osorako 1970eko hamarkadaren amaierako datuak eskaintzen dizkiguna eta ibilbide luzea izan duen nazio sentimenduaren eskala proposatzen duena (Linz, 1986). Bestalde, lurraldez Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara mugaturik, baina hainbat gai politikoren inguruko datu bilketa sistematikoena eskaintzen digu Euskobarometroak eta aldiro eginiko Iritzi Publikoari buruzko ikerketak. Arlo politikotik apur bat aldentuta, euskal identitateaz eta kulturaz eginiko datu bilketarik osoena Eusko Ikaskuntzaren babespean garatutako ikerketa dugu, Euskal Herri osora zabaldua eta, gure kasuan bezala, azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa batu nahi dituen (Baxok et al., 2006).<sup>10</sup>

Ikerketa horiek kontuan harturik, eta gure gai nagusia Euskal Estatu bati buruzko Euskal Herriko biztanleen iritzia izanik, bestelako datuak ere hartu dira kontuan, gai horren azpian egon daitekeen konplexutasuna hobeto atzemateko helburuz. Era horretara, beste batzuetan ere (lurralde osoan, edo zatika) landu den Nazio Identitatearen gaia aztertu dugu, lana Euskal Herriko zazpi herrialdeetan egin behar zenez, eta aztergaiaren marko geografikoa hura zenez, inkestatuek marko horretaz zuten irudikapena jakiteko. Ondoren bi gai nagusiak aztertu ditugu. Lehenik, Euskal Estatu eraikitzeak aukera erreferendum demokratiko batean erabakitzeko eskubiderik ote dagoen aztertu da, eta bigarren, Euskal Estatuaz galdetu da. Horrez gain, iritzi horren aldakortasuna ere neurtu nahi izan dugu, eta jasotako emaitzak aldagai desberdinekin harremanetan jarri ditugu. Azken batean, gure abiapuntuetako bat da gizartearen sortzen diren halako eztabaidak prozesu gisa ezaugarritu behar direla, aldakorrek eta gorabeheratsuek direla, hortaz, faktore askoren arabera garatu ohi direnak.

Helburu horiek aintzat harturik, 2007 inkesta egin ziren Euskal Herriko zazpi lurraldeetan 2014ko urria eta 2015eko otsaila tartean. Metodologiari buruzko sarreraren esan dugunez, horrela egiteak arazo metodologikoak ekarri baditu ere, uste dugu egindako ahaleginak lagundu dezakeela gai honen aurreko irudi zehatzago bat osatzen.

Atal honetan bost bloke bereiztuko ditugu: Nazioaz, Erabakitzeak Eskubideaz, Euskal Estatuaz, Euskal Estatuari buruzko iritzi aldakortasunaz, eta euskal lurraldeen arteko harremanak izateko bestelako aukerez.

<sup>9</sup> Lanean zehar halako terminologia erabiliko dugu:

- Euskal Herria, eta Zazpi herrialdeak. Tradizionalki Euskal Herritzat jo diren zazpi herrialdeak: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.
- Hiru barruti administratibo bereiztuko dira: EAE, Euskadiko Autonomia Erkidegoa; NFK, Nafarroako Foru Komunitatea; eta IEH, Ipar Euskal Herria.
- Batzuetan Hego Euskal Herria (EAE + NFK) eta Ipar Euskal Herria (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) bereiztuko dira
- Azkenik, grafikoetan, EH laburdura erabiliko da batzuetan, Euskal Herria adierazteko.

<sup>10</sup> - Linz, Juan Jose (beste batzuekin elkarkidetzan) (1986): *Conflicto en Euskadi*. Madrid: Espasa-Calpe.

- Euskobarometro: "Estudio Periódico de la Opinión Pública Vasca", in <http://www.ehu.es/es/web/euskobarometro/oleadas>

- Baxok, E. eta al. (2006). Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearan hasieran. Donostia: Eusko Ikaskuntza.


## NAZIOAZ. EUSKAL HERRIA, NAFARROA, ESPAINIA, FRANTZIA: ADMINISTRAZIO ETA IDENTITATE KONTUAK

Euskal Herrian administrazio marko desberdinak daude, baina administrazio marko horietako bakoitza ezin zaio lotu nazio identitate bakar bati. Aitzitik, marko bakoitzean identitate bat baino gehiago agertzen zaigu. Ikus dezagun zelan ulertzen den Euskal Herria.

### Zer da Euskal Herria: lurraldea

#### 1. Zer da Euskal Herria: datu orokorrak. Galdera hauxe egin zaie inkestatuei:

*Euskal Herriaz<sup>11</sup> hitz egiten denean, zer da zure ustez Euskal Herria?*



Erantzunak ez dira erabatekoak: iritzirik zabalduenak, %46,2k, Euskal Herria euskal zazpi herrialdeekin identifikatzen du; %40,9k, berriz, EA Erekin; eta Ipar Euskal Herrian, %35,5ek Ipar Euskal Herriarekin egiten du. Euskal Herria Hego Euskal Herriarekin (EAE + NFK) identifikatzen dutenak gutxi dira, ordea.

Lurraldeka, EAEn eta Ipar Euskal Herrian zazpi herrialdeekin identifikatzea da iritzirik zabalduena, baina Nafarroan asko jaisten da (%30,9), eta aldiz, iritzirik zabalduenak Euskal Herria EA Erekin lotzen du: %57,9k uste du hori.

#### 2. Zer da Euskal Herria: Adinaren arabera. Goiko galdera bera eginda, begira dezagun adinak eraginik ote duen erantzunean.

*Euskal Herriaz hitz egiten denean, zer da zure ustez Euskal Herria? [Adinaren arabera]*

Adina	EAE	Hego Euskal Herria	Ipar Euskal Herria	Zazpi herrialdeak	Beste	Ez daki	Guztira
18-34	32,5	4,3	2,6	58,7	0,0	2,0	100
35-54	44,2	4,8	2,4	45,4	1,3	1,8	100
55+	42,6	5,6	4,9	39,6	1,3	6,0	100
Euskal Herria	40,9	5,0	3,4	46,2	1,0	3,5	100

Oro har, zenbat eta gazteagoa izan, Euskal Herria gehiago identifikatzen da zazpi herrialde historikoekin, eta identifikazio

<sup>11</sup> Euskaraz Euskal Herria terminoa erabili zen; gaztelaniaz, País Vasco; eta frantsesez, Pays Basque.

hori beherantz doa hurrengo adin tarteetan. Horrek eragina dauka beste identifikazioetan. Euskal Herriaren eta EAEn arteko identifikazioa, adibidez, baxuagoa da 18 eta 34 urtekoen artean Euskal Herriko batz bestekoa baino: %32,5ek egiten du identifikazioa, eta batz bestekoa %40,9koa da.

### 3. Zer da Euskal Herria: Ikasketa mailaren arabera. Galdera bera, baina ikasketa mailaren arabera aztertuta.

*Euskal Herriaz hitz egiten denean, zer da zure ustez Euskal Herria? [Ikasketa mailaren arabera]*

Ikasketa maila	EAE	Hego Euskal Herria	Ipar Euskal Herria	Zazpi herrialdeak	ED/EE + Beste	Guztira
Ikasketarik ez + Lehen Hezkuntza baino baxuagoak	49,7	5,0	2,5	32,8	10,0	100
Lehen Hezkuntzatik batxilergora	41,7	5,5	3,5	45,7	3,6	100
Goi ikasketak	37,8	4,1	3,4	49,9	4,8	100
Euskal Herria	40,9	5,0	3,4	46,2	4,5	100

Zenbat eta ikasketa maila altuagoa izan, jendeak gehiago identifikatzen du Euskal Herria zazpi herrialdeekin, eta alderantziz. Hala egiten du Goi mailako ikasketak dituztenen arteko %49,9k (eta %37,8k EAEn identifikatzen du); eta alderantziz, Euskal Herria EAEn identifikatzen du ikasketarik ez edo Lehenengo mailakoak baino baxuagoak dituztenen arteko %49,7k (eta %32,8k zazpi herrialdeekin). Bi aukera hauen artean dago lehia, besteak (Hego Euskal Herria edo Ipar Euskal Herria) atxikimendu gutxikoak dira eta.

### 4. Zer da Euskal Herria: Aurreko hauteskundeetan emandako botoaren arabera. Galdera bera, baina orain aurreko hauteskundeetan emandako botoaren arabera

*Euskal Herriaz hitz egiten denean, zer da zure ustez Euskal Herria? [Aurreko hauteskundeetan emandako botoaren arabera]*

#### Nafarroako Foru Hauteskundeetan emandako botoaren arabera (2011)

Alderdiak	EAE	Hego Euskal Herria	Ipar Euskal Herria	Zazpi herrialdeak	ED/EE + Beste	Guztira
PPN	85,7	0,0	0,0	0,0	14,3	100
PSN	83,3	8,3	0,0	8,3	0,0	100
NA-BAI 2011	28,9	8,9	2,2	57,8	2,2	100
Bildu	9,1	5,5	0,0	81,8	3,6	100
UPN	95,7	0,0	0,0	0,0	4,3	100
Izquierda-Ezkerra	40,0	0,0	0,0	60,0	0,0	100
Abstentzioa	74,3	6,8	1,4	14,9	2,7	100
Botoa emateko adinik ez	75,0	12,5	0,0	12,5	0,0	100
Erantzunik ez	59,8	7,6	0,0	25,0	7,6	100
Nafarroa osoan	57,9	6,5	0,7	30,9	4,0	100

Nafarroan deigarria da Euskal Herria EAEn identifikatzeko joera zabaldua hainbat aldetatik: UPN (%95,7), eta PPN, PSN, abstentzioa, eta aurrekoan botoa emateko adinik ez zutenak (beti %75etik gora). Lehenengo bien jarrerak (UPN eta PPN), gainera, ez du beste aukeratarako tarterik uzten. Beste erantzun nagusiak, Euskal Herria zazpi herrialde historikoekin identifikatzeak, ez du hain jarrera erabatekorik lortzen. Batzuetan, jarrera bat oso nagusia da: Bilduri botoa eman ziotenena (%81,8), edo Izquierda-Ezkerrari eta NA-BAlri eman ziotenena, baina beti dute kopuru esanguratsuren bat beste aukeretan. Euskal Herria Hego Euskal Herriarekin identifikatzeko joera, azkenik, ez da oso sendoa, eta aurrekoan botoa emateko adinik ez zutenen artean dator lehenik (%12,5), eta NA-Bai, PSN, abstentzioa eta Bildutik gero.

## EAEko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan emandako botoaren arabera (2012)

Alderdiak	EAE	Hego Euskal Herria	Ipar Euskal Herria	Zazpi herrialdeak	ED/EE + Beste	Guztira
PP	79,7	0,0	0,0	13,9	6,4	100
PSE	76,2	1,9	0,0	19,2	2,8	100
EAJ-PNV	32,8	9,7	0,0	53,8	3,7	100
EH Bildu	9,0	3,9	0,0	86,9	0,2	100
Ezker Anitza + EB	72,4	2,5	0,0	25,1	0,0	100
UPyD	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100
Abstentzioa	47,1	4,6	0,0	38,8	9,5	100
Botoa emateko adinik ez	27,6	7,4	0,0	65,0	0,0	100
Erantzunik ez	48,6	3,5	0,4	40,9	6,7	100
EAE osoan	41,2	5,2	0,1	48,8	4,7	100

EAEEn ez dira agertzen hain jarrera erabatekoak, baina batzuk oso nabariak dira aukera baten alde: Euskal Herria zazpi herrialde historikoekin identifikatzen du EH Bilduri botoa eman ziotenen %86,9k; eta EAerekin identifikatzen du PPEri eta PSEri botoa eman ziotenen hiru laurdenak. Baina hiru kasuetan badago kopuru txiki bat (%9-19 tartekoa) kontrakoa uste duena: EH Bilduren kasuan Euskal Herria EAerekin identifikatzen du, eta PSE eta PPEren kasuan Euskal Herria zazpi herrialde historikoekin identifikatzen du. Gainerako aukeretan (UPyD salbu) jarrerak ez dira hain argiak: EAJren kasuan, botoa eman zioten %53,8k Euskal Herria zazpi herrialdeekin identifikatzen du, baina %32,8k EAerekin egiten du, eta gutxiagok Hego Euskal Herriarekin. Amaitzeko, abstentitu zirenen eta botoa emateko adinik izan ez zutenen iritzia ez da Nafarroaren antzekoa: abstentitu zen %47,1ek Euskal Herria EAerekin identifikatzen du, eta %38,8k zazpi herrialde historikoekin; eta botoa emateko adinik ez zutenen %65ek Euskal Herria zazpi herrialde historikoekin identifikatzen du, eta %27,6k EAerekin.

## Ipar Euskal Herriko Kantonamenduetako Hauteskundeetan emandako botoaren arabera (2011)

Alderdiak	EAE	Hego Euskal Herria	Ipar Euskal Herria	Zazpi herrialdeak	ED/EE + Beste	Guztira
PS	0,0	0,0	28,6	71,4	0,0	100,0
UMP	4,3	0,0	38,3	55,3	2,1	100,0
Les Verts	0,0	0,0	14,3	85,7	0,0	100,0
EH Bai	0,0	0,0	9,1	90,9	0,0	100,0
Modem	10,0	0,0	30,0	60,0	0,0	100,0
Front de Gauche	0,0	0,0	46,2	53,8	0,0	100,0
Abstentzioa	0,0	0,0	40,0	57,5	2,5	100,0
Botoa emateko adinik ez	0,0	0,0	35,0	55,0	10,0	100,0
Erantzunik ez	0,0	0,0	39,5	54,2	5,1	100,0
Ipar Euskal Herria osoan	0,7	0,0	35,5	59,8	4,0	100

Ipar Euskal Herriko eztabaida aukera bitara mugatzen da: Euskal Herria zazpi herrialde historikoak dira, edo Ipar Euskal Herria bera, hau da, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Baina oso esanguratsua da lehen aukera hobesten dela kasu guztietan: alderdi guztietan Euskal Herria zazpi herrialdeekin identifikatzen da lehenengo aukeran. Zalantza gehiena dute Front de Gaucheri (%46,2k uste du Ipar Euskal Herria dela), UMPri, Modem-i, eta PSri botoa eman ziotenek. Abstentziora jo zutenek eta botoa emateko adinik ez zutenek ereduari jarraitzen diote.

**5. Zer da Euskal Herria: Euska raren ezagutzaren arabera.** Goiko galdera bera eginda, baina euskara jakiteak eraginik ote duen aztertuta.

*Euskal Herriaz hitz egiten denean, zer da zure ustez Euskal Herria? [Euskararen ezagutzaren arabera]*

Euskara maila	EAE	Hego EH	Ipar EH	Zazpi herrialdeak	ED/EE + Beste	Guztira
Ulertzen eta hitz egiten du euskaraz	19,3	5,0	1,3	71,6	2,7	100,0
Ulertzen du, baina ez du euskaraz hitz egiten	47,2	5,8	2,6	39,3	5,1	100,0
Ez du ez ulertzen ez hitz egiten euskaraz	55,7	4,4	5,7	28,5	5,7	100,0
ED / EE	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Guztira	40,9	5,0	3,4	46,2	4,5	100,0

Euskara maila altua Euskal Herria zazpi herrialdeekin identifikatzearekin lotu daiteke, eta ez jakitea EAerekin. Era horretara, euskaraz hitz egiten dutenek Euskal Herria zazpi herrialdeekin identifikatzen dute neurri handi batean (%71,6). Aldiz, ez ulertzen ez hitz egiten ez dutenek EAerekin identifikatzen dute bitik batek (eta laurden batek zazpi herrialdeekin, dena den). Tartean daudenek, ulertu bai, baina hitz egiten ez dutenek, tarteko jarrera ere mantentzen dute: gehiago dira EAerekin identifikatzen dutenak, baina asko dira zazpi herrialdeekin egiten dutenak.

## Nazio identitateaz


**6. Nazio identitatea, inkestatuen arabera.** Aurreko galdera sorta Euskal Herria zein lurralderekin identifikatzen den jakiteko egina bazen, hemen jakin nahi da inkestatuek zein naziori dioten atxikimendu gehien. Horretarako, behean agertzen diren aukeren artean bat hartzeko esan zaie<sup>12</sup>:

*Euskal Herritar izatearen eta espainiar / frantziar izatearen artean, nola definituko zenuke zure burua ondorengo aukeren artean? Soilik euskal herritarra sentitzen zara; euskal herritarra espainiarra / frantziarra baino gehiago; euskal herritarra eta espainiarra / frantziarra biak berdin; espainiarra / frantziarra euskal herritarra baino gehiago; ala soilik espainiarra / frantziarra sentitzen zara?*

*[Nafarroa Garaian] Ondorengo zein esaldirekin identifikatzen zara gehiago: Soilik nafarra sentitzen zara; nafarra espainiarra baino gehiago; nafarra eta espainiarra biak berdin; espainiarra nafarra baino gehiago; soilik espainiarra; nafarra eta euskal herritarra; ala soilik euskal herritarra sentitzen zara?*

Nazio identitatea	%
Soilik euskal herritarra / nafarra	31,5
Euskal herritarra / nafarra espainiarra /frantziarra baino gehiago	18,6
Euskal herritar / nafar bezain espainiarra / frantziarra	33,5
Espainiarra / frantziarra euskal herritarra / nafarra baino gehiago	5,7
Soilik espainiarra / frantziarra	4,8
Beste	4,5

<sup>12</sup> Metodologia atalean esan dugun bezala, Nafarroa Garaian batzuetan beste herrialdeetan zabalduko galdera errepikatu da, baina besteetan, egoeraren arabera, 'nafar' kategoria sartu da, eta behean agertzen den bigarren galdera egin da. Emaitzak batu egin ditugu. Berdin egin dugu beste taula batzuetan ere.



Bi sentimendu nagusitzen dira: *euskal herritar/nafar bezain espainiarra* (%33,5) da nagusia; eta oso hurbil *soilik euskal herritarra/nafarra*. Hirugarren bat ere kontuan hartzekoa da *euskal herritarra/nafarra espainiarra baino gehiago* (%18,6).

**7. Nazio identitatea, lurraldeen arabera.** Aurreko galdera, baina inkestatuaren herrialdeak kontuan hartuta (EAE, Nafarroa, Ipar Euskal Herria).

*Euskal Herritar izatearen eta espainiar / frantziar izatearen artean, nola definituko zenuke zure burua ondorengo aukeren artean? Soilik euskal herritarra sentitzen zara; euskal herritarra espainiarra / frantziarra baino gehiago; euskal herritarra eta espainiarra / frantziarra biak berdin; espainiarra / frantziarra euskal herritarra baino gehiago; ala soilik espainiarra / frantziarra sentitzen zara?*

*[Nafarroa Garaian] Ondorengo zein esaldirekin identifikatzen zara gehiago: Soilik nafarra sentitzen zara; nafarra espainiarra baino gehiago; nafarra eta espainiarra biak berdin; espainiarra nafarra baino gehiago; soilik espainiarra; nafarra eta euskal herritarra; ala soilik euskal herritarra sentitzen zara?*

Nazio identitatea	EAE	Nafarroa	Ipar Euskal Herria	Guztira
Soilik euskal herritarra/nafarra	31,7	42,3	10,8	31,5
Euskal herritarra/nafarra espainiarra/frantziarra baino gehiago	22,4	9,6	11,8	18,6
Euskal herritarra/nafarra bezain espainiarra/frantziarra	34,0	34,9	31,7	33,5
Espainiarra/frantziarra euskal herritarra /nafarra baino gehiago	4,6	4,6	17,6	5,7
Soilik espainiarra/frantziarra	2,5	4,6	24,2	4,8
Beste	4,8	4,1	3,8	4,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Inkestan EAeko biztanleek duten pisua nabarmentzen da, hango datuak eta orokorrak oso antzekoak dira eta. Bestetan, ordea, bestelako datuak agertzen dira. Nafarroan datu esanguratsua da bi aukera nagusitzen direla, eta ez hiru, datu orokorretan bezala: *soilik euskal herritarra* eta *soilik nafarra*<sup>13</sup> baturik sentimendu nagusia da. Hau da, %42,3 ez omen da sentitzen espainiar, baina hirutik bat espainiar bezain euskal herritar edo nafar sentitzen da. Aitzitik, bien arteko trantsizioa (*euskal herritarra/nafarra espainiarra baino gehiago*) EAEn baino askoz txikiagoa da (%9,6). Ipar Euskal

<sup>13</sup> Aurreko oharrean esan dugunez, taula nahasgarria ez agertzearen, ez ditugu *nafar/espainiar* datuak aparte ematen. Laburpen bat egitearren, eta ehunekoa Euskal Herri osoan inkestatutakoak direla, *nafarra eta euskal herritarra* da hobesten den aukera: %6,2 Euskal Herri osotik; ondoren, *nafarra eta espainiarra* hobesten da: %3,4; azken aukeretako bat da *soilik nafarra*: %1,3.

Herriari dagokionez, datu esanguratsuen, dudarik gabe, da *soilik frantziar* sentitzen direnen kopurua, lautik bat, beste herrialdeetan *soilik espainiarra* baino askoz handiagoa. Ez da, hala ere, aukera nagusia, ia hirutik bat *euskal herritar bezain frantziar* sentitzen da eta. *Soilik euskal herritarra*, ordea, besteetan baino txikiagoa da.

**NAZIOAZ.** Euskal Estatuaren marko geografikoa osatu behar duen lur eremua (Euskal Herria) kontzeptu eztabaidatua da gaur. Tradizio kultural batek landu, eta euskal nazionalismoak bultzatu duen zazpi herrialdeko kontzeptua da zabalduena, ia bitik batek hori uste du eta, baina ia horrenbestek uste du Euskal Herria Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoa dela, eta horrez gain, Ipar Euskal Herrian, hirutik batek uste du Euskal Herria Ipar Euskal Herria bera dela. Iritzi horretan historikoki izan diren beste tradizio batzuek eragin dute, eta ziurrenik, administrazio zati bakoitzean hobetsi den terminologiak ere.

Euskal Herria gehiago identifikatzen da zazpi herrialdeekin... zenbat eta gazteago izan, zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, zenbat eta hurbilago egon politikoki aukera abertzaleetatik, eta zenbat eta euskara gehiago jakin.

Eta marko geografikoaz adostasunik ez badago, gauza bera gertatzen da nazio identitateari dagokionez, hau da pertsona bakoitzak sentitzen duen nazio atxikimendurekin. Oso lotua egoten da aukera politikoekin, baina ez guztiz. Oro har, gatazkan dauden nazio nortasun biak batzera jotzen da, ñabar-dura desberdinekin, baina badira ere naziotasun bakarra hobesten dutenak, eta oso garrantzitsua da euren burua euskal herritartzat jotzen dutenen artean.

Oro har, hirutik bat *soilik euskal herritar* sentitzen da, eta kopuru hori askoz handiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Nafarroan ere handiagoa da euskal herritarra nafar sentitzearekin batzen badugu. Beste aldean, esanguratsua da lautik bat *soilik frantziar* sentitzen dela Ipar Euskal Herrian.

Aipatu dugunez, identitate partekatua da nagusi. Hirutik bat euskal herritar edo nafar bezain espainiar edo frantziar sentitzen da, eta asko dira ere euskal herritarrago edo nafarrago sentitzen direnak espainiar edo frantziar baino (ia bostetik bat). Guztira erdia baino gehiago sartzen da hiru kategoria misto hauetan.

Nafarroa Garaian aipatzekoa da, batzuetan kontrakoa ematen badu ere, zer jende gutxik hartzen duen bere burua *soilik nafartzat*: %1,3. Eta Ipar Euskal Herrian oso nabarmena da Frantziaren aldeko joera: %72,5 sentitzen da euskal herritarra bezain frantziarra, frantziarrago euskal herritarra baino, edo *soilik frantziarra*.




## AUZI POLITIKOA ETA ERABAKITZE ESKUBIDEA: NORK ERABAKITZEN DU?

Jendeari Euskal Estatu bati buruzko erreferenduma egiten dela pentsatzeko esan zaio, eta horri buruzko iritzia eskatu. Baina egon liteke halako erreferendumik? Nork deitu beharko luke, nori? Jendeak uste du halakorik gerta daitekeela? Galdera hauek iritzi desberdinak sortzen dituzte, ikusiko dugunez.

### Erabakitze eskubideaz

**8. Herritarrek etorkizun politikoa erabaki ahal izateari buruzko iritzia.** Etorkizuneko egituraketa politikoa erabakitze biziarentzat, erreferendumaren bidez, galdetu behar zaien eztabaidan dago, zeregin hori alderdi politikoei edo Parlamentuei mugatu behar zaiela uste baitute batzuek. Horretaz guztiaz Euskal Herrian zer pentsatzen den jakiteko, galdera zehatza egin zitzaion inkestatuei halako erreferendumik egiteko aukeraz. Hona galdera eta erantzunak:

*Euskal gizarteari ere bere etorkizun politikoa erabakitze galdeketa egitearen alde edo kontra zaude?*




Erantzuna argia da, Euskal Herri osoko inkestatuen bi heren, %66,8, etorkizun politikoa erabakitze, gizarteari galde-tzearen alde dago. Diferentzia handiz, %23,3k uste du ez zaiola galdetu behar. Eta hamarretik batek ez daki edo ez du erantzuten.

Herrialdeka ere nabariak dira aldeak, baina EAEn are nabarmenagoa bada ere (%50eko alde), Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian gutxiti egiten da, diferentzia agerikoa izanda ere: Nafarroan %57,1 galdetzearen alde dago, eta %34,9 kontra; Ipar Euskal Herrian, %52,9 galdetzearen alde dago, eta %31 kontra. Aldeko kopururik altuena EAEn dago; kontrako iritzi gehienak Nafarroan; eta Ipar Euskal Herrian, %13,9k ez daki zer erantzun galdera honen aurrean.

**9. Herritarrek etorkizun politikoa erabaki ahal izateari buruzko iritzia.** Adinaren arabera. Goiko galdera eginda, begira dezagun adinak berezitasunik adierazten digun.


*Euskal gizarteari ere bere etorkizun politikoa erabakitzeko galdeketa egitearen alde edo kontra zaude? [Adinaren arabera]*



Oro har, zenbat eta gazteago izan, etorkizun politikoa erabakitzeko galdeketa egitearen aldekotasun handiagoa adierazten da: %80,8 alde eta %12,6 kontra 18 eta 34 urtekoen artean. Diferentzia txikiagoa da 35 eta 54 urtekoen artean, eta diferentzia txikiena 55 urtetik gorakoen artean agertzen da.

**10. Herritarrek etorkizun politikoa erabaki ahal izateari buruzko iritzia.** Ikasketa mailaren arabera. Berrito galdera bera, baina orain begira dezagun galdeketaaren alde edo kontra egoteko berezitasunik ageri den ikasketa mailaren arabera.

*Euskal gizarteari ere bere etorkizun politikoa erabakitzeko galdeketa egitearen alde edo kontra zaude? [Ikasketa mailaren arabera]*



Oro har, maila guztietan galdeketa egitearen alde badaude ere, aldekotasuna handitu egiten da ikasketa maila altuekin, eta alderantziz. Horrela, ikasketarik ez edo ikasketa baxuak dituztenen %54,8 alde dago, baina goi mailako ikasketak dituztenen kasuan %71,4 dira. Era berean, kontrako iritzian, gehiago dira ikasketa maila baxua dutenak, eta gutxiago goi mailako ikasketak dituztenak.

**11. Herritarrek etorkizun politikoa erabaki ahal izateari buruzko iritzia.** Aurreko hauteskundeetan emandako botoaren arabera. Galdera bera, baina orain aurreko hauteskundeetan emandako botoari erreparatuta.

*Euskal gizarteari ere bere etorkizun politikoa erabakitzeko galdeketa egitearen alde edo kontra zaude? [Aurreko hauteskundeetan emandako botoaren arabera]*

Nafarroako Foru Hauteskundeetan emandako botoaren arabera (2011)

Alderdiak	Alde	Kontra	ED/EE
PPN	0,5	4,4	0,0
PSN	4,1	8,8	9,4
NA-BAI 2011	18,5	2,2	3,1
Bildu	24,3	0,0	3,1
UPN	3,2	28,7	0,0
Izquierda-Ezkerra	1,4	0,7	3,1
Beste	6,3	6,6	9,4
Abstentzioa	18,0	19,1	25,0
Botoa emateko adinik ez	3,2	5,1	6,3
Erantzunik ez	20,7	24,3	40,6
Guztira	100	100	100

Nafarroan, galdeketa egitearen aldeko iritzia aurreko hauteskundeetan botoa Bilduri eta NA-BAIri eman ziotenen aldetik dator gehien bat, eta baita abstentziotik ere. Galdeketa egitearen kontrako iritzia, berriz, gehien bat botoa UPNri eman ziotenen aldetik, edo aurreko hauteskundeetan abstentziora jo zutenen artetik dator, eta baita PSNtik ere. Aipatzekoa da bi iritzi kontrajarriak agertzen direla botoa PSNri edo Izquierda-Ezkerrari eman ziotenen artean, eta baita abstentzioran geratu edo botoa emateko adinik ez zutenen artean ere. Gainera, UPNri botoa eman ziotenen arteko iritzi nagusia kontsultaren kontrakoa bada ere, bada ere aldeko iritzirik; eta alderantziz, NA-BAIn nagusi da aldeko iritzia, baina bada kontrako iritzirik ere.

EAEko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan emandako botoaren arabera (2012)

Alderdiak	Alde	Kontra	ED/EE
PP	0,6	8,8	0,0
PSE	6,8	19,2	5,4
EAJ-PNV	25,1	15,3	13,1
EH Bildu	23,5	1,1	1,6
Ezker Anitza	4,1	2,4	1,2
UPyD	0,2	1,5	0,4
Beste	4,3	7,1	5,5
Abstentzioa	15,8	16,5	35,4
Botoa emateko adinik ez	3,2	1,3	2,2
Erantzunik ez	16,5	26,7	35,3
Guztira	100	100	100

EAEen, kontsultaren aldeko iritzia EAJri botoa eman zioten inkestatuena aldetik dator (%25,1), gero EH Bildutik eta on-

doren abstentziotik. Kontrako iritzian nagusi dira PSEri botoa eman ziotenak, ondoren Abstentzioan geratutakoak, eta azkenik EAJri emandakoak. EAJn, Ezker Anitza taldean, PSEn eta Abstentzioan bi iritzia agertzen dira: lehenengo bietan nagusi da aldeko iritzia, eta alderantziz PSE eta Abstentzioan. Ez daki/Ez du erantzuten zutabeen Abstentzioa agertzen da nagusi (%35,4) eta gero esanguratsua da EAJtik %13,1 etortzea. Azken alderdi honetan (eta Abstentzioan eta Aurrekoan botoa emateko adinik ez zutenen artean) hiru iritzia agertzen dira nahiko nabarmen.


Ipar Euskal Herriko Kantonamenduetako Hauteskundeetan emandako botoaren arabera (2011)

Alderdiak	Alde	Kontra	ED/EE
PS	7,3	12,2	7,8
UMP	7,8	22,0	6,3
Les Verts	3,4	2,4	6,3
EH Bai	9,7	0,0	3,1
Modem	1,5	4,9	1,6
Front de Gauche	2,4	3,3	6,3
Beste	1,9	4,9	7,8
Abstentzioa	11,7	8,9	7,8
Botoa emateko adinik ez	7,3	1,6	4,7
Erantzunik ez	47,1	39,8	48,4
Guztira	100	100	100

Ipar Euskal Herrian, lehenik eta behin, oso nabarmena eta garrantzitsua da inkestauen kopuru oso altu batek ez duela adierazi nahi zein alderdiri eman zion botoa aurreko hauteskundeetan (aldeko iritzian %47,1 da, adibidez). Horrek zeharo kutsatzen ditu galdera honen emaitzak. Kontsultaren aldeko iritzia oso banatua dago: botoa EH Bairi, UMPri eta PSri eman ziotenak, eta Aurrekoan botoa emateko adinik ez zutenak agertzen dira, eta horien gainera Abstentzioa. Kontrako iritzia, berriz, UMPtik eta PStik dator gehien bat, eta Abstentziotik ere bai. Ez daki/Ez du erantzuten zutabea ere, azkenik, oso banatua dago: PS eta Abstentzioa dira nagusi, baina %7,8arekin bakarrik.

**12. Herritarrek etorkizun politikoa erabaki ahal izateari buruzko iritzia.** Euskararen ezagutzaren arabera. Galdera berberarekin jarraitzen dugu, baina euskara jakiteak eraginik ote duen aztertuta.

*Euskal gizarteari ere bere etorkizun politikoa erabakitzeke galdeketa egitearen alde edo kontra zaude? [Euskararen ezagutzaren arabera]*




Nabaria denez, kopuru handian (%85,4), euskara maila altua duten inkestatuek erabakitzeko eskubidearen alde jotzen dute, eta maila baxuagoa dutenak ere alde daude, baina proportzio txikiagoan. Era berean, azken hauek dira kontrako jarrera argiena adierazten dutenak.

## Erreferendumaren inguruan

**13. Nork erabakitzen du: Alderdi politikoek halako erreferenduma antolatzeko aukeraz.** Estatuari buruzko erreferenduma alderdi politikoek adostua izango zela aipatu da, baina jakin behar da ea biztanleek egingarri ikusten duten. Horretarako, Euskal Herriko lurralde osoan galdera zehatza egin zaio jendeari:

*Zein neurritan uste duzu hemengo alderdien gehiengoak adostu dezakeela gure etorkizun politikoa erabakitzeko erreferendum bat? Oso posible, posible, zail ala oso zail ikusten duzu?*




Esanguratsua da zein iritzi ezkorra dagoen galdera horren aurrean: jendeak zail edo oso zail ikusten du aukera hori. Guztira, hiru laurdenak du iritzi ezkor hori, eta ez da heltzen %20ra iritzi baikorra duena.

Datuak oso antzekoak dira lurraldeka: positiboak EAEn daude, baina Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian nahiko jaisten dira. Iritzi negatiboak Nafarroan daude: %86k zail edo oso zail ikusten du halako galdera bat, eta Ipar Euskal Herrian eta EAEn ehunekoak handiak dira.

**14. Nork erabakitzen du: Erreferenduma deituz gero, non galdetu.** Erreferendumera deituko balitz, erabakitzeko esparrua adostu beharko litzateke, batzuek gaiak zuzenean eragiten dien lurraldean bakarrik galdetu behar dela uste baitute, eta besteek, aldiz, gaiak estatu horretako biztanleria osoari eragiten diola, eta estatu osoak erabaki behar duela. Horren inguruan jakiteko, galdera hau egin zaie:


*Euskal/Nafar Estatu baten inguruan erabakitzeko erreferendum bat egiten bada, Espainiako estatuko herritar guztiei galdetu beharko litzaieke? (Ipar Euskal Herrian ez da galdetu)*



Erantzuna oso antzekoa da Hego Euskal Herrian: oro har, bi herenek EAEko eta Nafarroako esparrua hobesten dute, eta heren batek gaia Espainian ebatzi behar dela uste du. Lurraldeka, Nafarroan jaitzi egiten da bertan erabakitzeak kopurua, eta handitu Espainian erabaki behar denekoa.

**15. Nork erabakitzen du: Erreferenduma deituz gero, zein litzateke emaitza onargarria.** Estatu berriak sortzeko erreferenduma deitzen direnean, eztabaida izaten da zein den emaitza onargarria, %50 edo zerbait gehiago. Hori jakiteko, galdera egin zaie inkestatuei:

*Balizko erreferendum edo galdeketaren emaitza edozein dela ere, zure ustez emaitza onargarria izateko nahikoa litzateke %50 gainditzea, edo gehiago beharko litzateke? (Ipar Euskal Herrian ez da galdetu)*



Adostasuna ageri da Hego Euskal Herrian gai honetan, antzeko emaitzekin eremu administratibo bietan. Erdiak baino gehiagok uste du %50 baino gehiago handiagoa beharko litzatekeela, eta heren batek uste du nahikoa litzatekeela %50 gainditzearekin.

**ERABAKITZEKO ESKUBIDEAZ.** Bizitza normalaren hainbat arlotan bezala, gero eta gehiago, hartzen diren erabakietan esku hartu ahal izatea eskatzen dute herritarrek, eta geure lanean ea Euskal Estatu baten alde edo kontra gauden adierazteko, galdeketa bat antolatzeak aukeraz galdetzen denean, erantzunak argi uzten du puntu hau: gehiago handiz Erabakitze Eskubidearen alde agertzen dira inkestatuak. Horrela erantzuten du inkestatutako jendearen bi herenek. EAEn handiagoa da ehunekoa, eta baxuagoa Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, baina kasu guztietan erditik gorakoa da beti.

Erabakitze eskubidearen aldeko jarrera handiagoa da... zenbat eta gazteago izan, zenbat eta ikasketak maila handiagoa izan, zenbat eta hurbilago egon politikoki aukera abertzaleetatik, eta zenbat eta euskara gehiago jakin.


Hala ere, inkestatu gehienek zail edo oso zail ikusten dute halako erreferendumik antolatu ahal izatea. Antolatuz gero, Euskal Herriko biztanleei galdetu beharko litzatekeela uste da (ez estatuko guztiei), eta emaitza onargarria izateko ez litzateke nahikoa izango %50 baino gehiago lortzea, eta aitzitik, hortik gorako langa jarri beharko litzateke.

## BALIZKO EUSKAL ESTATUAZ: ESPAINIAKO/FRANTZIAKO ERREGIO, EDO ESTATU BERRIA?

Ohikoa izan da Euskal Herrian jendearen nazio sentimenduaz galdetzea, lan honetan bertan egin dugun bezala, baina Eskozian eta Katalunian izandako prozesu subiranistek oihartzun handia izan dute gurean, eta horrek askoz galdera zuzenagoa egitera bultzatu gaitu. Kasu honetan ez diegu galdetuko inkestatuei zer sentitzen diren, baizik eta nola ikusiko luketen balizko Euskal Estatu baten sorrera.

**16. Euskal/Nafar Estatu bati buruzko iritzia. Oso galdera zehatza egin zaie inkestatuei, Euskal, edo Nafar, Estatu baten sorreraz erabakitzeke balizko erreferendumera deituko balitz, zer jarrera hartuko luketen jakiteko. Hona galdera eta erantzunak:**

*Demagun Euskal Herrian alderdi politiko guztiek edo gehienek adosten dutela Euskal/Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Euskal/Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?*




Ikusten denez, Euskal Herriko datu orokorretara bagoaz, emaitzek diote Euskal Herriko inkestatu gehienak Euskal/Nafar Estatuaren alde leudekeela, %40,7, baina oso hurbil geratuko lirakeela estatuaren kontrakoak: %35,3. Datu orokorrekin jarraituta, oso esanguratsua da ere inkestatuetako bostetik batek ez dakiela zer erantzun, edo ez du erantzun nahi, edo abstenitu egingo litzatekeela. Nolabait laburtzearren, inkestatuak hiru herenetan bana genitzake: lehenengo herena (zerbait gehiago) euskal edo Nafar Estatuaren alde legoke; bigarren herena kontra legoke; eta azken herenak (zerbait gutxiago) ez dauka erabakita.

Lurraldeka, aldeko iritzia antzekoa da EAEn eta Nafarroan, baina Nafarroan batu behar dira Euskal Estatuari eta Nafar Estatuari baietza ematen diotenak (ikus hurrengo puntua). Aldekotasuna baxuagoa da Ipar Euskal Herrian, nahiz eta guztiaren laurden batetik pasatu: %28,3. Edozein modutan, kasu honetan, eta baita Nafarroan ere, azpimarragarriena da kontra daudenak gehiago direla alde daudenak baino. Gainera, Ipar Euskal Herrian tarte nabarmena dago kontrako eta aldekoen artean.

Datu guztietatik, kopururik altuenak hauexek dira: alde daudenena, EAEn, %42,5; kontra daudenena, Ipar Euskal Herrian: %46,2; eta erabaki gabeko iritzi kopururik handiena, azkenik, EAEn berriro, %18,4.


**17. Euskal/Nafar Estatu bati buruzko iritzia: Nafarroako datuak.** Sarreran esan dugunez, Nafarroako kasuan Euskal Estatuaz ere galdetu zen, baina Nafar Estatuaren aukera ere azaldu zen. Gorago datuak ematean, batu egin ditugu bi emaitzak, iritzi berekoak direla pentsatuta.<sup>14</sup> Hala ere, zehatzago adierazteko, hona Nafarroako datuak.



Nafarroako datu absolutuak hartuta, Euskal Estatu edo Nafar Estatu bati buruzko erreferenduma egongo balitz, zer erantzungo luketen galdetuta, inkestatuen %25,6 Euskal Estatuaren alde dago, eta %14,4 Nafar Estatuaren alde: biak batuta, inkestatuen %40,0 alde legoke. Eta bestalde, bai bata edo bai bestearen kontrako emaitzak gehituta, inkestatuen %41,8 Euskal edo Nafar Estatuaren kontra agertzen da. Apur bat gehiago, beraz.

**18. Euskal Estatu bati buruzko iritzia.** Adinaren arabera. Balizko erreferendum horretan, begira dezagun adinak eraginik izango lukeen. Gorago ikusi dugun galdera egitean, beraz, hona berezitasunak adinaren arabera.

*Demagun Euskal Herriari alderdi politiko guztiek edo gehienek adosten dutela Euskal/Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Euskal/Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke? [Adinaren arabera]*



Oro har, esan dezakegu zenbat eta gazteagoa izan Euskal Estatuarekiko atxikimendua handituko litzatekeela, eta alderantziz. Horrela, 18 eta 34 urtekoen artean agertzen da bai aldekoaren kopururik altuena, eta baita kontrako iritziarekiko alderik handiena ere bai. Zalantza gutxien duen adin taldea da, gainera, abstenituko liratekeenak eta ez dakitenak edo erantzuten ez dutenak kontuan hartuta. Hurrengo adin tarteak Euskal Estatuaren aldeko jarrera mantentzen du, gutxiatik. Azken adin tartean, berriz, kontrako jarrera nagusitzen da. Talde horretan (eta aurrekoan ere antzera) lautik batek baino gehiagok (%26,9) ez daki edo ez du erantzuten, edo abstenitu egingo litzateke.

<sup>14</sup> Metodologiari buruzko sarreran azaldu dugu batzuetan *Euskal Estatuaz* eta besteetan *Nafar Estatuaz* galdetzearen arrazoiak. Bereizketa beharrezkoa ez denean, aurrerantzean *Euskal Estatuaz* hitz egingo dugu, erantzun biak baturik, uste baitugu, oro har, gai nagusia dela Espainiatik haratago estatu independente bat osatzeko borondatea egotea edo ez.





Lurralde administratiboei erreparatuta, Nafarroa Garaian, Euskal edo Nafar Estatuaren aldeko jarrera aurreko hauteskundeetan botoa Bilduri edo NA-BAlri eman zioten inkestatuetatik, edo abstenitu zirenetatik, etorriko lirerateke (baina NA-BAlko batzuek uko egingo liokete Euskal Estatu bati). Kontrako boto gehienak, aldiz, UPNko inkestatuetatik eta, berriro, aurreko hauteskundeetan abstentziora jo zutenen artetik etorriko lirerateke. Nabarmenezkoa da PSNren barruan batzuek Euskal/Nafar Estatuaren aldeko iritzia mantentzea; PPN eta UPNren barruan Euskal Estatuaren alde inor ez egotea, baina bai, aldiz, Nafar Estatuaren alde; eta gai horren aurrean abstentziora joko luketela esaten dutenen artean abstentziotik datorren jende asko egotea, logikoa izan daitekeenez, baina baita PPN, UPN eta, proportzionalki deigarriena, Izquierda-Ezkerratik datozenak ere.

#### EAEko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan emandako botoaren arabera (2012)

Alderdiak	Alde	Kontra	Abstentzioa	ED/EE
PP	0,0	5,5	0,0	1,4
PSE	0,5	23,1	6,5	5,4
EAJ-PNV	28,1	19,2	3,1	18,3
EH Bildu	37,5	0,9	1,9	4,0
Ezker Anitza	1,8	4,1	0,0	5,4
UPyD	0,0	1,2	0,0	0,0
Ezker Batua	0,2	0,0	0,0	0,6
Beste	1,4	7,3	2,2	8,5
Abstentzioa	13,1	16,4	52,1	23,3
Botoa emateko adinik ez	4,2	1,9	0,0	1,6
Erantzunik ez	13,2	20,4	34,2	31,6
Guztira	100	100	100	100

EAEko datuetan, aldeko iritzia botoa EH Bilduri eta EAJri eman zioten inkestatuetatik dator batez ere. Baina kontrakoa PSEtik eta EAJtik berriro. Azken alderdi honetako asko ez daki/ez du erantzuten zutabeen ere ikusten dugu (zutabe honetan agertzen den %18,3). Azkenik, galderaren aurrean abstentziora joko luketen erdia (%52,1) abstentziotik dator.

#### Ipar Euskal Herriko Kantonamenduetako Hauteskundeetan emandako botoaren arabera (2011)


Alderdiak	Alde	Kontra	Abstentzioa	ED/EE
PS	1,8	15,6	6,1	2,1
UMP	2,7	18,3	10,2	10,4
Les Verts	3,6	3,8	0,0	6,3
EH Bai	17,9	0,0	0,0	4,2
Modem	0,9	4,3	0,0	2,1
Front de Gauche	0,9	4,3	4,1	4,2
Beste	6,3	3,2	4,1	4,2
Abstentzioa	10,7	4,8	20,4	18,8
Botoa emateko adinik ez	11,6	1,6	4,1	4,2
Erantzunik Ez	43,8	44,1	51,0	43,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Ipar Euskal Herrian, lehenengo datu esanguratsua dugu botoa nori eman dioten erantzun nahi ez duten inkestatuen kopuru handia, beste galdera batzuetan ere ikusi dugunez. Aldeko iritziari dagokionez, oso argia da EH Bai botoa eman zioten inkestatuen ekarpena, eta ondoren deigarria da ikustea aurrekoan botoa emateko adinik ez zutenak eta Absten-

tziora jo zutenak doazela. Kontrakoa, berriz, botoa UMPri eta PSri eman zioten inkestuetan biltzen da, gehien bat, baina nabarmentzekoa da kasu bietan aldeko iritzia adierazten duten inkestuak ere badaudela, eta antzeko zerbait, baina kopuru txikiagoetan, gertatzen da Front de Gauche eta Modemekin. Les Verts ere bietan agertzen da, baina antzeko ekarpena egiten dio iritzri bakoitzari. Amaitzeko, esan dugunez, deigarria da aurrekoan botoa emateko adinik ez zutenek baietzari egiten dioten ekarpen handia.

**21. Euskal Estatu bati buruzko iritzia. Jatorriaren arabera.** Galdera bera berriro, baina kasu honetan inkestatutako jendearen jatorria hartu da kontuan, horrek Euskal/Nafar Estatu bati buruzko iritzian eraginik ote duen jakiteko.

*Demagun Euskal Herrian alderdi politiko guztiek edo gehienek adosten dutela Euskal/Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Euskal/Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke? [jatorriaren arabera]*



Bost maila bereiztuko ditugu: 1. Inkestatua eta guraso biak Euskal Herrian jaiोक dira; 2. Inkestatua eta guraso bat Euskal Herrian jaiोक dira, baina beste gurasoa Espainian edo Frantzian; 3. Inkestatua Euskal Herrian jaiोक da, baina guraso biak Espainian edo Frantzian; 4. Inkestatua eta guraso biak Espainian edo Frantzian jaiोक dira; 5. Inkestatua eta guraso biak Euskal Herria, Espainia edo Frantziatik at jaiोक dira. Horiek denak Euskal Herriko datu orokorrekin alderatuko ditugu.

Oso nabarmena da lehen mailaren eta besteen artean dagoen aldea, hau da, inkestatua eta gurasoak Euskal Herrian jaiोक direnean Euskal Estatuaren aldeko jarrera oso handia da, Euskal Herriko batez bestekotik gora: %56 (%40,7 oro har Euskal Herrian). Beste modu batera esanda, inkestatua eta gurasoak Euskal Herrian jaiोक direnean, bitik bat Euskal Estatuaren alde dago. Horrek markatzen du diferentzia nagusia: aldeko iritzian, hura bakarrik dago batez bestekotik gora (eta beste maila guztiak batez bestekotik behera, ordea); eta kontrako iritzian, hura bakarrik dago batez bestekotik behera (eta beste maila guztiak, gora).

Horren ondoren, beste mailetan graduazioa dago: aldekotasun handiagoa dago inkestatua eta guraso bat Euskal Herrian jaiोक direnean, bi gurasoak Espainian edo Frantzian jaiोक direnean baino. Baina ondoren haustura dago graduazioan, 4. mailak (Inkestatua eta guraso biak Espainian edo Frantzian jaiोक dira) ematen baitu Euskal Estatuaren kontrakotasunik handiena eta aldekotasunik txikiena: Euskal Estatuaren alde daudenen %14,8; eta kontra daudenen %53,8. Ziur aski berriagoak diren etorkinak, berriz, (5. maila) gehiago ikusten dira kontrako iritzian aldekoan baino, baina gehiago hurbiltzen dira aipatu dugun graduaziora, 4. mailak dakarren hausturara baino.


22. Euskal/Nafar Estatu bati buruzko iritzia. Nazio identitatearen arabera. Inkestatutako jendeak adierazi duen nazio identitatea hartzen da orain kontuan, horrek Euskal Estatu bati buruzko iritzian zein motako eragina duen jakiteko (bildu egin dira Euskal eta Nafar Estatuari buruz emandako datuak).

Demagun Euskal Herrian alderdi politiko guztiek edo gehienek adosten dutela Euskal/Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Euskal/Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke? [nazio identitatearen arabera]

Nazio identitatea	Alde	Kontra	Abstenzioa	ED/EE	Guztira
Soilik euskal herritarra / nafarra	82,2	6,5	0,8	10,5	100,0
Euskal herritarra / nafarra espainiarra/frantziarra baino gehiago	46,2	22,6	4,7	26,4	100,0
Euskal herritar / nafar bezain espainiarra/frantziarra	13,6	56,6	6,9	22,9	100,0
Espainiarra/frantziarra euskal herritarra / nafarra baino gehiago	8,0	73,8	2,8	15,3	100,0
Soilik espainiarra/frantziarra	6,8	72,1	9,1	12,0	100,0
Beste	12,5	45,0	5,8	36,7	100,0
Guztira Euskal Herrian	40,7	35,3	4,3	19,7	100,0

Nabarmena denez, *Soilik euskal herritar* edo *Soilik nafar* sentitzen diren inkestatu gehienak Euskal Estatuaren alde daude (%82,2), eta beste aldean, *Soilik espainiar/frantziar* eta *Espainiarra/frantziarra euskal herritarra/nafarra baino gehiago* sentitzen direnetatik ia hiru laurden estatuaren kontra dago. Edozein modutan, esanguratsua da maila bakoitzean beti agertzen dela ehuneko txiki bat kontrako iritziarekin (%6-8koa). Tartean bi kategorია geratzen dira: *euskal herritarra/nafarra espainiarra/frantziarra baino gehiago* sentitzen direnak gehiago daude Euskal Estatuaren alde, kontra baino; eta, aldiz, *Euskal herritar/nafar bezain espainiar/frantziar* sentitzen direnak gehiago daude Euskal Estatuaren kontra.

Ondoko koadroan datu berberak ikusten ditugu, eta hobeto atzeman dezakegu Euskal Estatuaren aldeko edo kontrako graduazioa nazio sentimenduaren arabera.



Berrri ikusten dugunez, Euskal Estatuaren aldeko jarrera *Soilik euskal herritar* edo *nafar* sentitzen direnetatik dator, gehien bat, baina baita *euskal herritarra/nafarra espainiarra/frantziarra baino gehiago* kategoriatik ere bai; eta kontrako iritzia, berriz, sentimendu hauetatik: *Soilik espainiarra/frantziarra*, *Espainiarra nafarra baino gehiago*, *Espainiarra/frantziarra euskal herritarra baino gehiago*, eta *nafarra bezain espainiarra*.

**23. Euskal/Nafar Estatu bati buruzko iritzia. Nazio identitatearen eta lurraldearen arabera.** Inkestatutako jendeak adierazitako nazio identitatearekin jarraituko du, baina orain administrazio lurraldeka aztertuko du.

Demagun Euskal Herrian alderdi politiko guztiek edo gehienek adosten dutela Euskal/Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Euskal/Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke? [nazio identitatea eta lurraldearen arabera]

#### Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

Nazio identitatea	Alde	Kontra	Abstentzioa	ED/EE	Guztira
Soilik euskal herritarra	83,1	5,5	0,7	10,7	100,0
Euskal herritarra espainiarra baino gehiago	48,9	19,0	4,3	27,9	100,0
Euskal herritarra bezain espainiarra	12,4	55,3	7,2	25,2	100,0
Espainiarra euskal herritarra baino gehiago	5,8	77,0	0,0	17,2	100,0
Soilik espainiarra	12,0	76,5	1,5	10,0	100,0
Beste	14,6	42,3	5,6	37,5	100,0

EAEko inkestatuek Euskal Herriko eredia errepikatzen dute -aurreko grafikoan azertua- inkestan duten pisu handiagoari jarraiki.

#### Nafarroa Garaia (NFK)

Nazio identitatea	Alde	Kontra	Abstentzioa	ED/EE	Guztira
Soilik euskal herritarra / nafarra	79,2	8,9	1,2	10,7	100,0
Euskal herritarra/nafarra espainiarra baino gehiago	21,1	57,9	0,0	21,1	100,0
Euskal herritarra/nafarra bezain espainiarra	12,3	65,9	2,9	18,8	100,0
Espainiarra euskal herritarra/nafarra baino gehiago	0,0	88,9	5,6	5,6	100,0
Soilik espainiarra	5,6	66,7	5,6	22,2	100,0
Beste	6,3	50,0	6,3	37,5	100,0

Aurreko puntuarekin (22) dagoen alderik nabarmenena *euskal herritarra/nafarra espainiarra baino gehiago* kategorian egon liteke. Izan ere, Euskal Herri osoan eta EAEn kopuru handia ematen dio aldeketasunari, eta benetako etena hurrengoan gertatzen da, *euskal herritarra/nafarra bezain espainiarra* kategorian, alegia. Nafarroan, aldiz, *soilik euskal herritarra/nafarra* kategorian gordetzen da aldeketasuna, hurrengo kategoria, *euskal herritarra/nafarra espainiarra baino gehiago* ez baitago estatu berriaren alde.


#### Ipar Euskal Herria

Nazio identitatea	Alde	Kontra	Abstentzioa	ED/EE	Guztira
Soilik euskal herritarra soilik	88,4	9,3	0,0	2,3	100,0
Euskal herritarra frantziarra baino gehiago	53,2	12,8	19,1	14,9	100,0
Euskal herritarra bezain frantziarra	27,0	44,4	14,3	14,3	100,0
Frantziarra euskal herritarra baino gehiago	17,1	58,6	7,1	17,1	100,0
Soilik frantziarra	3,1	70,8	16,7	9,4	100,0
Beste	6,7	60,0	6,7	26,7	100,0

Ipar Euskal Herriko datuek Euskal Herrikoak (eta EAEkoak, hortaz) errepikatzen dituzte, oro har.

**24. Euskal Estatu bati buruzko iritzia. Euskararen ezagutza mailaren arabera.** Euskal Estatuari buruzko jarrera berberarekin jarraiturik, harremanetan jarriko dugu orain inkestatuak adierazitako euskararen ezagutza mailarekin, iritzian eraginik ba ote duen jakiteko.

*Demagun Euskal Herrian alderdi politiko guztiak edo gehienek adosten dutela Euskal/Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Euskal/Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke? [euskararen ezagutza mailaren arabera]*




Hiru maila bereiztu ditugu: 1. Inkestatuak ulertzen eta hitz egiten du euskaraz; 2. Inkestatuak euskara ulertu bai, baina ez du hitz egiten; 3. Inkestatuak ez du ez ulertzen ez hitz egiten euskaraz. Horiek denak Euskal Herrirako ateratako batez bestekoarekin jarriko ditugu harremanetan.

Mailaketa horren arabera, argia da harremana: euskararen ezagutza zenbat eta handiagoa izan, handiagoa da Euskal Estatuaren aldeko iritzia, eta alderantziz. Horrela, inkestatuak euskara ulertzen eta hitz egiten duenean, Euskal Estatuaren aldeko jarrera %67,5ekoa da, Euskal Herriko batez bestekotik nahiko gora (%40,7); eta inkestatuak ez duenean ez ulertzen ez hitz egiten euskaraz, kontrako iritzia oso handia da, %52,1, Euskal Herriko batez bestekotik gora ere bai, %35,3. Beste modu batera esanda, euskaraz ulertzen eta hitz egiten dutenetatik hirutik bi (2/3) Euskal Estatuaren alde dago, eta ulertzen eta hitz egiten ez dutenen artean, bitik bat (1/2) kontra dago. Tartean geratzen da azken maila, ulertu bai baina euskaraz hitz egiten ez dutenena. Kasu hori nahiko hurbiltzen da Euskal Herriko batez bestekora, baina apur bat gehiago dira kontra daudenak alde daudenak baino.

**25. Euskal Estatu bati buruzko iritzia. Euskararen ezagutza mailaren arabera (2).** Aurreko datuak eta harremana gordez, beste modu batera antolatu dira hemen emaitzak, ardatza Euskal Estatuaren alde edo kontra egotea izanik.


*Demagun Euskal Herrian alderdi politiko guztiek edo gehienek adosten dutela Euskal/Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Euskal/Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke? [euskararen ezagutza mailaren arabera]*



Euskarari dagokionez aurreko hiru mailak berriro hartuta, nabaria da harremana, baina argi geratzen da ere zutabe guztietan agertzen direla euskarari dagozkion hiru mailak proportzio esanguratsuetan. Hau da, Euskal Estatuaren aldeko jarrerari, adibidez, gehiengo zabala dira euskaraz ulertzen eta hitz egiten dutenak (%57,5), baina besteen ekarpena ere kontuan hartzekoa da. Eta antzeko zerbait, baina alderantziz, gertatzen da kontrako jarrerari: gehiengoa euskaraz ulertzen eta hitz egiten ez dutenek osatzen dute (%58,9), baina besteak ere esanguratsuak dira. Amaitzeko, euskarari buruz ezartzen ari garen harremana hobeto ulertzeko, azkeneko zutabearen ikus dezakegu inkestatuek aitortzen duten euskararen ezagutza maila.

**26. Oro har, zelan biziko ginatke Euskal Estatu batean?** Euskal Estatuari buruzko serie honekin amaitzeko, inkestatuen pertzepzio intuitiboa eta Euskal Estatuari buruzko inpresio orokorra jakin nahi zen, eta horretarako, euren ustez estatu berriak izango zuen ongizate maila erlatiboaz galdetu zitzairen:

*Aurretik esandakoa laburbilduz, Euskal/Nafar Estatu propioa sortuko balitz, orokorrean, hobeto, berdin edo okerrago biziko ginatkeela uste duzu?*



Iritziak oso berdindurik ageri dira. Oro har, inkestatuek uste dute Euskal Estatu sortuko balitz, hobeto biziko liratekeela (%34,9), baina %22,3k uste du berdin biziko litzatekeela, %20,2k okerrago, eta %22,6k ez daki edo ez du erantzuten.

Lurraldeka, Hego Euskal Herrian hobeto biziko dela uste da, baina Ipar Euskal Herrian, aldiz, berdin biziko dela. Okerrago biziko dela Nafarroan uste da gehien (%24,4).

Nabarmendu behar da, azkenik, ez dakitenen edo erantzuten ez dutenen kopurua beste galderetan baino handiagoa dela. Nafarroan eta EAEn bigarren jarrera da, eta hirugarrena Ipar Euskal Herrian.

**EUSKAL ESTATUAZ.** Administrazio barruti desberdinak egoteak jarrerak zenbatzea eta zehaztea zailtzen badu ere, euskal nazionalismoak erreibindikatzeko dituen zazpi herrialdeetan egin dugu galdera, balizko Euskal Estatuaren inguruko erreferenduma egingo balitz, inkestatuek zer erantzungo luketen jakiteko. Leku guztietan galdera zehatz bera egin da, inkestatuetako gehienek Euskal (edo Nafar) Estatuaren alde egingo lukete: %40,7. Hala ere, inkestatutakoen 1/3 kontra legoke, eta geratuko litzateke oraindik kopuru handi bat (inkestatutako guztien laurdena) abstentziora joko lukeena, edo galderaren aurrean ez dakiela edo ez duela erantzun nahi dioena.

Nafarroan Euskal Estatuaz eta Nafar Estatuaz galdetu zen, sarreran esan dugunez. Datu zehatzak emanda, inkestatuen %25,6 Euskal Estatuaren alde dago, eta %14,4 Nafar Estatuaren alde. Esan dugunez, batu egin ditugu datuak, eta hortaz, %40,0 izango litzateke guztira. Aitzitik, biak baturik, inkestatuen %41,8 Euskal edo Nafar Estatuaren kontra dago. Ipar Euskal Herrian, azkenik, nahiko gehiago dira kontra daudenak, alde daudenak baino: %46,2 kontra dago, eta %28,3 alde legoke.

Euskal Estatuaren aldeko jarrera handiagoa da... zenbat eta gazteago izan, zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, zenbat eta hurbilago egon politikoki aukera abertzaleetatik, zenbat eta euskara gehiago jakin, eta zenbat eta, nazionalki, euskal herritarrago edo nafarrago sentitu. Era berean, jarrera handiagoa da inkestatua eta guraso biak Euskal Herrian jaioak badira, eta txikiagoa guraso biak eta inkestatua Espainian edo Frantzian jaio badira (ez, ordea, beste estatu batean jaio badira –etorkin berriak).

Amaitzeko, inkestatutako gehienek uste dute halako Euskal Estatu batean hobeto biziko liratekeela: heren batek uste du hori. Ipar Euskal Herrian, aldiz, gehienek uste dute berdin biziko ginatekeela.



## EUSKAL ESTATUARI BURUZKO JARRERAZ ETA JARRERA HORI ALDATZEKO AUKERAZ: ZEREN ARABERA ALDA NEZAKE NEURE IRITZIA?


Askotan, identitateari eta nazioari buruzko gaiak aldaezintzat aurkezten dira, nahiz eta horiei buruz eskuratzen ditugun datuak aldakorrak izan denboran zehar. Aldakortasuna are argiago agertuko zaigu estatuaz hitz egiten denean, bertan jartzen den interesa agian nazioan jartzen dena baino iragankorragoa izan daiteke eta. Edozein modutan, gure inkestako parte-hartzaileei galdetu zitzaizen ea zelako sendotasuna ematen zioten euren jarrerari, eta ea alda zitekeela uste zuten. 1-5 graduazioan, inkestatutako %55,8k muturrera (5era) eraman zuten alda ezintasuna, eta %1,5ek bakarrik onartu zituen aldatzeko aukera handiak (1). Datu horiek jarraian agertuko ditugun datuekin kontrastatzea ariketa interesgarria izango litzateke. Atal honetan, hortaz, jakin nahi dugu zein punturaino inkestatuen jarrera finkoa den, eta zergatik edo zeren arabera aldatuko luketen. Horretan sakontzeko helburuaz, inkestatuei aukera batzuk agertu zitzaizkien, haien arabera botoa aldatuko luketen ikusteko.

### Euskal Estatuaren kontra nago, baina jarrera aldatuko nuke...

Lehenengo, Euskal Estatuaren kontra daudenak aztertuko ditugu. Kontra zeudela adieraztean, jarraian datozen galderak egiten zitzaizkien, estatu berriak berarekin egoera hobea ekarriko zuelako itxaropenak euren boto asmoa aldatuko ote lukeen jakiteko.

#### 27. Jarrera aldaketa. Euskal Estatu sortzearen kontra daudenen botoa aldatzeko aukera: politika sozial hobek ekarrita. Galdera hau Euskal Estatuaren kontra agertzen zirenei bakarrik egin zitzaizen:


*Euskal/Nafar Estatuaren sorrerak gaur egungoak baino politika sozial hobek ekarriko balitu (hezkuntzan, osasungintzan, pentsioetan...), zer erantzun zenuke erreferendumean?*



Gizarte politika hobeen itxaropenak zer pentsatu ematen die kontra zeuden inkestatuei, halako moldez non %43,9 prest bailegoketako aldeko botoa emateko Euskal Estatuak arlo hori hobeto babestuko balu. Kopuru hori handitu egiten da EAEn (inkestatuetako ia bitik batek aldatuko luke iritzia), antzekoa da Ipar Euskal Herrian, eta nahiko jaisten da Nafarroan, non ez baita heltzen heren batera. Beste alde batetik, beti dago %30-40 inguru horrela ere aldatzeko prest ez legokeena (eta Nafarroan gehiago lirateke aldatu nahiko luketenak baino).

**28. Jarrera aldaketa. Euskal Estatuaren sortzearen kontra daudenen botoa aldatzeko aukera: demokrazia mailaren arabera.** Galdera hau Euskal Estatuaren kontra agertzen zirenei bakarrik egin zitzaion:


*Euskal/Nafar Estatu gaur egungoa baino demokratikoagoa balitz, hau da, Espainiakoak/Frantziakoak baino funtzionamendu gardenagoa eta parte hartzaileagoa baleuka, zer erantzuko zenuke erreferendumean?*



Antzeko datuak aurkitu ditugu estatu berriak funtzionamendu demokratikoagoa (gardenagoa, parte hartzaileagoa...) ziurtatuz gero. Oro har, datuak apur bat txikiagoak dira aurreko koadroan baino: %43 prest legoke iritzia aldatzeko (gehiago EAEn eta Ipar Euskal Herrian, eta %27,3 Nafarroan), eta %40 inguruk horrela ere ez luke aldatuko botoa (Nafarroan gehiago dira aldatzeko prest daudenak baino).

**29. Jarrera aldaketa. Euskal Estatuaren sortzearen kontra daudenen botoa aldatzeko aukera: bizikidetzaren mailaren arabera.** Galdera hau Euskal Estatuaren kontra agertzen zirenei bakarrik egin zitzaion:

*Euskal/Nafar Estatuak gaurkoa baino bizikidetzaren maila hobea ziurtatuko balu euskal gizartean, zer erantzuko zenuke erreferendumean?*




Bizikidetzari ere garrantzia ematen zaio Euskal Herrian, eta horrela, antzeko datuak aurkitu ditugu berriro estatu berriak bizikidetzaren maila hobea ziurtatuz gero. Oro har, datuak apur bat txikiagoak dira aurreko bi koadroetan baino: %41,3 prest legoke iritzia aldatzeko (gehiago EAEn, oso antzera Ipar Euskal Herrian, eta %29 Nafarroan), eta %40

inguruk horrela ere ez luke aldatuko botoa (Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian gehiago dira azken horiek aldatzeko prest daudenak baino) .

**30. Jarrera aldaketa. Euskal Estatuaren sortzearen kontra daudenen botoa aldatzeko aukera: egoera ekonomikoaren arabera.** Galdera hau Euskal Estatuaren kontra agertzen zirenei bakarrik egin zitzaien:


*Euskal/Nafar Estatuaren sorrerak orain Espainian/Frantzian dagoena baino egoera ekonomiko hobea ekarriko balu, zer erantzuko zenuke erreferendumean?*



Agian pentsa litekeenaren kontra, egoera ekonomiko hobearen itxaropena ez da inkestatuek gehien baloratzen dutena euren botoa aldatzea erabakitzeko. Kasu horretan heren bat (%37,1) prest legoke aldeko botoa emateko Euskal Estatuari (gehiago EAEn, apur bat txikiagoa Ipar Euskal Herrian, eta nahiko txikiagoa -%22,4- Nafarroan). Beste aldetik, gehiago dira botoa aldatuko ez luketenak: kontra zegoen %40-50 inguru ez dago prest horrela ere bere kontrako boto hori aldatzeko.

**31. Jarrera aldaketa. Euskal Estatuaren sortzearen kontra daudenen botoa aldatzeko aukera: Europar Batasunean jarraitzea bermatuta.** Galdera hau Euskal Estatuaren kontra agertzen zirenei bakarrik egin zitzaien:

*Euskal/Nafar Estatuak Europar Batasunaren barruan egoteko aukera izango balu, zer erantzuko zenuke erreferendumean?*



Europar Batasunean jarraitzeak interes apur bat gutxiago pizten du aurreko baldintzek baino: heren bat inguru prest legoke aldeko botoa emateko baldintza horrekin, baina Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian nahiko gutxiago izango lirarteke. Beste alde, botoa ez aldatzeko erabakia argiagoa da kasu horretan, eta bitik batek horrela ere ez luke aldatuko.

**32. Jarrera aldaketa. Euskal Estatuaren sortzearen kontra daudenen botoa aldatzeko aukera. Laburpena.** Ikusi dugunez, inkestan Euskal Estatuaren kontra zeudenei beste galdera batzuk gaineratzen zitzaizkien, botoa aldatzeko zegoen aukera aztertzeko eta neurtzeko. Horren laburpena aurkezten da orain, eta beste dimentsio bat gaineratzen da, datuak harremanean jarriko baitira inkestatuek adierazitako nazio nortasunarekin.

HASIERAN EUSKAL ESTATUAREN KONTRAKO IRITZIA IZANIK,  
ALDEKO BOTOA EMATERA PASA LITEZKEENAK, NAZIO IDENTITATEAREKIN KONBINATURIK

Aldatzeko arrazoia	Soilik euskal herritarra	Euskal herritarra espainiarra/frantziarra baino gehiago	Euskal herritar bezain espainiarra/frantziarra	Espainiarra/frantziarra euskal herritarra baino gehiago	Soilik espainiarra/frantziarra	OROKORRA
Politika Sozialak	47,3	56,9	43,4	46,8	30,1	43,9
Demokrazia	47,3	55,6	43,2	39,7	32,6	43,0
Ekonomia	42,4	49,3	36,4	44,3	27,3	37,1
Europar Batasuna	38,3	40,4	31,0	28,3	21,5	30,3


Oro har, ikusten da Euskal Estatuaren ezetzatik baietzara pasatzeko arrazoi nagusiak politika sozial hobeen (%43,9) eta maila demokratiko hobeen itxaropena direla, eta apur bat gutxiago ekonomia bera, eta gero Europar Batasunean jarraitzea. Edozein modutan, hautatu ditugun kasuetatik agian azpimarragarriena da Euskal Estatuan hobeto bizitzeko itxaropenak haren kontra zegoen gutxienez hirutik bat (eta gehiago) mugiarazten duela. Horrez gain, nazio identitatearekin konbinatuta, ikusten da euskal herritarrago sentitzen direnekin aldatzeko aukerak handitzen direla (berdez adierazi dira batez bestekotik gorako emaitzak; gorriz, batez bestekoaren azpitik geratzen direnak). Hau da, hasiera batez Euskal Estatu baten kontra egonik, aldaketa esanguratsua aginduz gero, *Soilik euskal herritar* eta *euskal herritarra espainiarra/frantziarra baino gehiago* sentitzen direnak errazago pasatzen dira aldeko botorak bestelako nazio identifikazioak dituztenak baino. Kontrako muturrean, *Soilik espainiar* edo *frantzar* sentitzen direnek gogo gutxiago erakusten dute botoa aldatzeko, aldaketa interesgarriak aginduta ere.

Euskal Estatuaren alde nago, baina jarrera aldatuko nuke...

Hurrengo puntuetan Euskal Estatuaren alde daudenak aztertuko ditugu. Alde zeudela adieraztean, jarraian datozen galderak egiten zitzaizkien, Euskal Estatuak egoera okerragoa ekartzearen perspektibak euren boto asmoa aldatuko ote lukeen jakiteko.

**33. Jarrera aldaketa. Euskal Estatu sortzearen alde daudenen botoa aldatzeko aukera: Europar Batasunetik at gelditzea.** Galdera hau Euskal Estatuaren alde agertzen zirenei bakarrik egin zitzaien:


*Euskal/Nafar Estatuak Europar Batasunetik kanpo geratuko balitz, zer erantzungo zenuke erreferendumean?*



Euskal Estatuaren alde egonik ere, inkestatuak botoa aldatzeko joera erakusten dute hainbat faktorearen arabera. Horien artean inkestatuak gutxien mugiarazten dituen Europa Batasuna da, kontrako norabidean ere ikus genezakeen bezala. Oro har, inkestaturen laurden batek kontrako botoa emango luke Euskal Estatu berria Europar Batasunetik kanpo geratuko balitz (Ipar Euskal Herrian %42,1). Kontrako aldean, erdiak baino gehiagok horrela ere jarraituko luke aldeko botoa ematen.

**34. Jarrera aldaketa. Euskal Estatu sortzearen alde daudenen botoa aldatzeko aukera: egoera ekonomikoaren arabera.** Galdera hau Euskal Estatuaren alde agertzen zirenei bakarrik egin zitzaien:


*Euskal/Nafar Estatuaren sorrerak orain Espainian/Frantzian dagoenaren antzeko egoera ekonomikoa, edo txarragoa, ekarriko balu, zer erantzungo zenuke erreferendumean?*



Egoera ekonomiko hobetik ez izateak ere ez du eragin erabatekorik Euskal Estatuaren alde daudeneztat: %28,3k botoa aldatuko luke kasu horretan (apur bat gutxiago EAEn, eta apur bat gehiago Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian). Kontrako aldean, oso nabarmena da %60 inguruk horrela ere ez lukeela botoa aldatuko.

**35. Jarrera aldatuta. Euskal Estatuaren alde daudenen botoa aldatzeko aukera: politika sozialetan hobekuntzarik ez balego.** Galdera hau Euskal Estatuaren alde agertzen zirenei bakarrik egin zitzaien:


*Euskal/Nafar Estatuaren sorrerak gaur egungoen antzeko politika sozialak, edo mugatuagoak, ekarriko balitu (hezkuntzan, osasungintzan, pentsioetan...), zer erantzungo zenuke erreferendumean?*



Gizarte politikena gai garrantzitsuagoa da aurreko biak baino, nahiz eta ez izan aurreko seriean (kontra egotetik alde egotera pasatzea) beste indar. Era horretara, ikusten da inkestatuaren heren bat baino gehiago (gutxiago EAEn, gehiago Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan) prest dagoela iritzia aldatzeko hori ziurtatzen ez bada. Kontrako aldean, ia bitik batek horrela ere ez luke botoa aldatuko (aldatzeko prest daudenak baino gehiago).

**36. Jarrera aldatuta. Euskal Estatuaren alde daudenen botoa aldatzeko aukera: gaztelania/frantsesa euskararen ginetik babestea.** Galdera hau Euskal Estatuaren alde agertzen zirenei bakarrik egin zitzaien:

*Euskal/Nafar Estatuak gaztelania/frantsesa babestuko balu euskararen ginetik, zer erantzungo zenuke erreferendumean?*



Koadroan oso nabaria denez, aukera honek Euskal Estatuaren alde zeuden inkestaturen alarma gorria pizten omen du, eta euren botoa aldatzeko arrazoi nagusia da: bi herenek botoa aldatuko luke euskara nahiko babesturik ez balu ikusiko (eruditik gora Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan, eta %72,8 EAEn). Kontrako aldean, bostetik batek bakarrik eutsiko lioke aurreko baietzari.

**37. Jarrera aldaketa. Euskal Estatu sortzearen alde daudenen botoa aldatzeko aukera. Laburpena.** Ikusi dugunez, inkestan Euskal Estatuaren alde zeudenei beste galdera batzuk gaineratzen zitzaizkien, botoa aldatzeko zegoen aukera aztertzeko eta neurtzeko. Horren laburpena aurkezten da orain, eta beste dimentsio bat gaineratzen da, datuak harremanean jarriko baitira inkestatuek adierazitako nazio nortasunarekin.

EUSKAL ESTATUAREN ALDEKO JARRERA IZANIK, KONTRAKO BOTOA EMATERA  
PASA LITEZKEEN INKESTATUAK, NAZIO IDENTITATEAREKIN KONBINATURIK

Aldatzeko arrazoa	Soilik euskal herritarra	Euskal herritarra espainiarra/frantziarra baino gehiago	Euskal herritar bezain espainiarra/frantziarra	Espainiarra/frantziarra euskal herritarra baino gehiago	Soilik espainiarra/frantziarra	OROKORRA
Euskara	71,4	66,9	49,3	75,0	100,0	67,8
Politika Sozialak	31,4	54,4	47,3	45,1	60,1	38,6
Europar Batasuna	22,2	37,5	47,8	14,7	28,9	28,3
Ekonomia	18,5	36,0	49,8	64,7	63,8	26,8

Datuak begiratuta, ikusten da apur bat zailagoa dela Euskal Estatuaren baietatik ezetzara pasatzea aurreko seriean ikusi dugun ezetatik baietzara baino. Edozein modutan, oro har, gutxienez inkestaturen laurden bat edo heren bat prest azaltzen da bere botoaren norabidea aldatzeko. Hala ere, kasu honetan bada guztiz nabarmentzen den datua: euskararen aldeko politikak kalteturik ikusiz gero, inkestatuetako hirutik bik bere botoa aldatuko luke, eta estatu berriari ezetza emango lioke. Horrez gain, eta aurreko seriean ez bezala, esan liteke zenbat eta espainiarrago edo frantziarrago sentitu, *errazago* aldatzen dela baietatik ezetzarako botoa, euskararen kasuan izan ezik (berdez adierazi dira batez bestekotik gorako emaitzak; gorritz, batez bestekoaren azpitik geratzen direnak).

**EUSKAL ESTATUAREN AURREKO BOTOA ALDATZEKO ARRAZOA.** Jendeak iritzi oso sendo eta egina, alda ezina, duela dioten arren, errealitateak kontrako datuak ematen ditu. Horrela, argi ageri da Euskal Estatuaren aldeko edo kontrako jarrera aldagarria izan daitekeela faktoreen arabera.

Zehatzago, Euskal Estatuaren kontrako jarrera erakutsi duten inkestatuak prest leudeke aldatzeko, eta Euskal Estatuari baietza emateko, esate baterako, gaur egun Espainian edo Frantzian eskaintzen direnak baino gizarte politika hobekak edo demokrazia gehiago ziurtatuko balira (hala dio ezetza eman dutenen ia erdiak). Neurri txikiagoan (%40 inguru), aldaketa ere proposatzen dute oraingoa baino egoera ekonomiko hobea edo Europar Batasunaren barruan jarraituko dela ziurtatuko balitz.

Alderantzizko norabidean, Euskal Estatuaren aldeko botoa eman duen jendea prest legoke aldatzeko, eta Euskal Estatuari ezetza emateko, batez ere, euskararen alde nahikoa ez dela egiten pentsatuko balitz. Aldeko botoa eman dutenen bi herenek horixe dio. Neurri baxuagoan, estatu berriak ez balitu ziurtatuko gizarte politika eraginkorrak, Europar Batasunaren barruan jarraitzea, eta egoera ekonomikoa hobetzea %30-40 inguruk botoa aldatuko luke.


Adierazgarria da kasu guztietan beti dagoela pertsona kopuru esanguratsua, laurdenaren ingurukoa, abstenitu egingo litzatekeena edo ez dakiena/erantzuten ez duena)

## ESTATUAREN AUKERATIK AT: BESTELAKO AUKERAK EDO HARREMANAK

Estatu berria proposatzeak agian sor ditzakeen beldur edo jakin ezatik at, interesgarria ere izan daiteke aztertzea zer beste aukera ikusten duten inkestatuek politikoki edo administratiboki antolatzeko. Galderak ez dira bateraezinak estatuaren alde egotearekin, eta hortaz, herrialde administratiboetan banatuta, inkestan parte hartu zuten guztiei egin zitzaizkien, tarteko neurri modura ulertuta.

**38. Hego Euskal Herrirako autonomia bakarraren aukera.** Euskal edo Nafar Estatu osatzetik at, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako inkestatuei Hego Euskal Herriak Espainia barruko Autonomia bakarra osatzeko aukeraz galdetu zitzaien:


*Euskal/Nafar Estatuaren aukera alde batera utziko bagenu, EAE eta NFKren artean autonomia bakarra (Espainiaren barruan) sortzearen alde ala kontra egongo zinateke?*



Datu absolutuei erreparatuta, argi dago inkestatuen erdiak baino gehiagok (%53,2) autonomia bakarra nahiko lukeela, kontrako iritzitari (%29,9) alde handia aterata, gainera: 23,3 puntu. Hala ere, nabarmena da diferentzia bi erkidegoen artean: EAEen %58k autonomia bakarra nahi du, eta %23,8 bakarrik legoke kontra; Nafarroan, aldiz, datuak oso bestelakoak dira, kontrako iritzia baita nagusi (%51,1), aldekoak asko badira ere (%36,7). Ez dakite edo erantzuten ez dutenen kopurua ere baxuagoa da Nafarroan EAEen baino.

**39. Hego Euskal Herriko Autonomia Erkidegoen arteko harremana zabaltzeko aukera.** Aurreko gaiarekin jarraituta, eta Autonomia bakarra osatzeko aukeratik at, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako inkestatuei Hego Euskal Herriko autonomia erkidegoen arteko harremana estutu beharko litzatekeen ere galdetu zitzaien:

*EAE eta Nafarroak, betiere orain arte bezala bakoitzak bere autonomia erkidegoan jarraituta, bien artean harreman gehiago izatearen alde ala kontra zaude?*




Kasu honetan datuak nahiko antzekoak dira erkidego bietan: lautik hiruk (%77,2) harremanak estutu nahiko litzuzke (%79,1 EAEen eta %72,8 Nafarroan), eta oso gutxi dira kontra leudekenak (%5,8). Handiagoa da, ordea, ez dakite edo erantzuten ez dutenen kopurua.



**40. Euskal Herri osoa Europar Batasunaren barruko Euro-eskualde bat izateko aukera.** Euskal Herria politikoki nolabait batuko lukeen beste formula bat ere aurkeztu zaie Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako inkestatuei, Europar Batasunaren barruan euro-eskualde bat osatzea:

*EAEk, NFK eta IEHk Europaren barruan Euroerregio bat osatzearen alde ala kontra zaude? (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan bakarrik galdetu da)*




Hego Euskal Herrirako Autonomia bakarra osatzeko aukeran gertatzen zenaren antzeko zerbait ageri da erantzun horretan: oro har, aldekoak gehiago dira (%52,4) kontrakoak baino, baina EAEn bien arteko diferentzia nabarmena da (35 puntukoa), eta Nafarroan alderantziz gertatzen da, bertan kontrako iritzia gailentzen baita (%44,6).

Nolanahi, galdera horretan garrantzi handiagoa hartzen du ez dakite edo erantzuten ez dutenen kopuruak, aurreko galderetan baino handiagoa da eta. Oro har, %20,9k ez dauka argi bere jarrera.

**41. Ipar Euskal Herriak Hego Euskal Herriarekin izan beharko lituzkeen harreman instituzionalez.** Estatu desberdinetan egonda, Ipar Euskal Herriko inkestatuei galdera orokorra egin zaie Hego Euskal Herriarekin izan nahiko lituzketen harreman instituzionalez:

*Ipar Euskal Herriak Landak eta Bearnoa ditu mugakide alde batetik, eta EAE eta Nafarroa beste aldetik. Zein erlazio instituzional nahiko zenuke azken hauekin? (Ipar Euskal Herrian bakarrik galdetu da)*



Erantzuna nabarmena da, inkestatuen erdiak harremana estutu nahiko luke Hego Euskal Herriarekin. Laurden batek, ordea, uste du nahikoa dela gaur egun dagoen harremanarekin, eta ia inork ez du harreman gutxiago nahi (%1,2). Handia da, bestalde, ez dakite edo erantzuten ez dutenen kopurua (%22), eta oso interes gutxi erakusten da euro-eskualdearen aukeraz.

**ESTATUTIK KANPOKO BESTE AUKERA BATZUK.** Amaitzeko, Euskal Estatua sortu gabe ere, oraingo egoerari erantzungo lioketen beste alternatiba batzuen inguruan galdetu zitzaien inkestatuei, bai herrialdeen arteko harremanei begira, bai egituraketa-politiko modu berriei begira ere. Hona emaitzak.

Autonomia bakarra Hego Euskal Herrian. Tradizio handiko erreibindikazioa XX. mende osoan, abertza-leentzat batez ere. Halako aukera baten inguruan galdetuta, emaitza kontrajarraia jaso da: EAEn oso helburu desiatua da (inkestatuen erdia baino nahiko gehiago prest legoke), Nafarroan ez, ordea (erdia kontra legoke, eta heren bat alde). Hala ere, autonomia bakarraren aukerara pasatu gabe, ea bi erkidegoen artean oraingoa baino harreman sendoagoa beharko litzatekeen galdetuta, erkidego bietako 3/4ek begi onez ikusiko luke.

Euskal euro-eskualdea. Aukera horretaz galdetu zen, Hego Euskal Herrian bakarrik, eta EAEn erantzun positiboa jaso zuen, baina Nafarroan negatiboa.

Ipar Euskal Herrian, azkenik, Hego Euskal Herrian izan beharreko harremanez galdetuta, ia erdiak harreman gehiago izan nahiko lukeela dio.

**EUSKAL ESTATUAREN INGURUKO IRITZIAK ETA JARRERAK.  
IKERKETA KUALITATIBOAREN EMAITZAK**

Atal kuantitatiboan ikusi ahal izan dugu nolako jarrerak dauden euskal gizartean Euskal Estatuaren inguruan. Inkesten bidez lortutako ikuspegi horietan sakonduko dugu ondoren, alegia, ikerketaren alderdi kualitatiboa garatuko dugu, balizko Euskal Estatu batez lortutako iritziak hobeto ulertzeko asmoarekin. Ezagun da teknika kualitatibo deiturikoek jendearen iritzietan, jarreretan eta irudikapenetan sakontzea dutela helburu eta ez dutela bilatzen, beraz, zenbatekoak zehaztea. Herritarrek uste edo sentitzen dutena interesatu zaigu, erreparatu gabe nolako portzentajeak egon litezkeen iritzi edo sentimendu horien atzean.

Euskal Estatuari buruzko iritziak hiru multzotan bereizi ditugu. Lehen multzoan daude estatu horren aldeko iritzia erakutsi duten herritarrak. Bigarrenean, horrelako estatu bat eraikitzearen kontra ageri direnak. Eta hirugarrenean aurreko bi multzoetan sartzeko zailak ziren profilak bildu ditugu, askotan jarrera aldakorra erakusten zutenak. Izan ere, eta ikerketaren atal kuantitatiboan ikusi den moduan, inkestatu ugari erakutsi dute jarrera aldatzeko joera gaiaren arabera.

Hiru multzo horietako bakoitzean azpimarratu ditugu eztabaida-taldeetan nagusitu diren gaiak, eta gai horiei jarraituta eraiki dugu multzo bakoitzaren kontakizuna. Horrela, Euskal Estatuaren aldeko iritzi ildoan jarrera politiko argi samarra duten herritarren ikuspegiak ditugu. Gehienbat, independentziaren –edo estatus politiko berri baten- aldekoak dira; hau da, abertzaletasunari lotutako ikuspegietatik iritsitakoak. Oro har, multzo horrek erakusten du Euskal Estatuari buruzko iritzirik landuena. Bigarren multzoan, berriz, Euskal Estatuaren aurkako iritziak biltzen dira. Gaiari buruzko urruntasunak edota nazio identitateak (frantziarra edo espainiarra) eragiten dute estatu berri baten kontra agertzea. Eta, azkenik, aurreko bi profiletatik aldentzen den hirugarren multzoan iritzi zehaztugabeagoak edo lausoak topatu ditugu; hots, gaiaz jarrera argirik edota interesik ez duten herritarrak daude hemen. Hain zuzen ere, azken multzo horretako hizlariak, oro har, konforme daude egungo antolaketa politiko-administratiboarekin eta ez dute sentitzen Euskal Estatuaren inguruko gaia euren arazoa denik.

Edozelan ere, ez da ahaztu behar hiru multzo horiek aldagarriak direla. Esan nahi baita, unean uneko testuinguru sozialaren eta politikoaren arabera alda daitezkeen herritarren profilak eta iritzi multzoak ditugu hemen, gure ustez. Herritarrek ederto islatzen dituzte momentuko eztabaida sozialean eta politikoan erabiltzen diren argudioak euren jarrera justifikatzeko. Horiek horrela, pentsatzekoa da Euskal Estatuari buruzko diskurtsoaren ildoak, aldekoak nahiz kontrakoak, neurri esanguratsuan ere alda litezkeela abaguneak horretarako aukera eskainiko balu.

## EUSKAL ESTATUAREN ALDEKO HERRITARREN IRITZIAK ETA JARRERAK

Euskal Herrian subiranotasun prozesua gauzatzearen alde dauden herritarren iritziak bildu ditugu hemen, atal metodologikoan azaldu bezala, lau eztabaida taldeetan eta elkarrizketa batean esandakoa baliatuta. Nortzuk dira? Nazio identitatea tarteko, Euskal Herriari buruzko atxikimendu sendoa erakusten dutenak, Espainiaren edo Frantziaren aurretik, eta politikoki alderdi abertzaleekin identifikatzen direnak, oro har. Horrek, ordea, ez du esan nahi Euskal Estatuaren alde baldintzarik gabeko baietza emateko prest daudenik, halaberharrez. Izan ere, oso zail izaten zaie, batzuetan, Euskal Estatu zer izango litzatekeen irudikatzea; eta, zenbait kasutan, gizartean eztabaida hori zabaltzea ere ez dute egoki ikusten; oraingoz, bederen. Komunean dute Euskal Herriak duen estatus politikoaz ez daudela pozik, eta desio modura balitz ere, gehiago nahiko luketela, burujabetzan aurrera egitea eta sakontzea, alegia; edozein delarik ere sakontze horren zehaztapena. Hartara, batzuen ustez, independentzia da irtenbide bakarra eta Euskal Estatuaren beharraz hitz egiten dute biribiltasun osoz. Beste batzuen iritzia da, ordea, presazkoena dela, momentuz, eskumen autonomikoen maila handitzea edo aitorten administratibo jakin bat lortzea, eta estatu batez jabetzea, hortaz, epe luzeko zeregin modura irudikatzen dute. Eta badira murur bi horien artean mugitzen diren iritziak. Tradizioz, euskal nazionalismoaren baitan garatu diren ikusmoldeak aurkitzen ditugu hemen, funtsean, *abertzale* gisa hitz egiten baitute herritar horiek; *abertzale kontserbadoreak* eta *ezkerreko abertzaleak* deitu ditugu. Hortaz, Euskal Estatuaren *aldekotzat* jo ditugu, egin beharreko ñabardurak eginda. Hain zuzen ere, ñabardura horiek xehatzea da atal honen helburua, alegia, jakin nahi izan dugu nola irudikatzen duten herritar abertzaleek, ikuspuntu desberdinetatik begiratuta, Euskal Herriaren etorkizuna.

### Subiranotasuna heldu arteko bidez

Balizko Euskal Estatuaren alde agertzen den jende askok bereziki Katalunian hasitako subiranotasun prozesua jarraitu du gertutik eta, neurri txikiagoan Eskoziak oa. Inbidiaz begiratzen diote Katalunian independentismoa irabazten ari den atxikimendu sozialari baina, aldi berean, badago nolabaiteko mesfidantza hango mugimenduz: kataluniarrak arrazoi ekonomikoengatik hurbildu omen dira subiranotasun eskarira; hartara, haien sakoneko motiboak ez dira benetakoak, iraunkorrak edo sendoak. "Katalunian gehiengo ez da,

berez, nazionalista edo abertzalea. Baina bertan batu dira hainbat faktore eraman dutenak independentziaren aldeko hautua egitera" (3.T-Donostia).<sup>15</sup> Eta hautu horrek erraz huts egin lezake egoera soziala edo ekonomikoa aldatuz gero. Are gehiago, susmoa ere azaltzen da "...ez ote ari diren hori egiten nolabait gero Espainiarekin negoziatzeko eta autonomia handiagoa lortzeko" (3.T-Donostia).

Inbidia hori nabaria da prozesuaren bilakaera sozial eta politikoari erreparatuta, euskal herritar horien uste orokortua baita Katalunian gertatzen ari dena gizartetik sortu dela, gizarteak aurrera hartu diela alderdi politikoei eta erakunde autonomikoei ere eta, are garrantzitsuagoa dena, lortu dela independentista ez diren herritarrak batzea: "Nire ustez Katalunian lortu dute ilusioa piztea gizarteko sektore ezberdinetan, baita ere katalanak ez diren batzuegan... gai izan dira Asanblada Nazional bat deitzeko eta erakartzeko edozein pertsona, markatuta ez dagoena" (6.T-Zarautz).

Hala ere, gorago esan bezala, ñabartu beharko litzateke inbidia hori, zenbaiten ustez, Euskal Herrian bizi den subiranotasun prozesua sakonagoa baita Kataluniakoarekin edo Eskoziarekin alderatuz gero, onerako eta txarrerako. Onerako, zailago ikusten dutelako jendeak oztopen aurrean amore ematea; eta txarrerako, ez delako erraza izango subiranotasunaren kontra daudenak erakartzea:

*"(...) Katalunian daukatenak ez du zerikusirik gurearekin. Gurea da askoz indartsuagoa. Gurea ez da folklorea... Nik Eskoziako erreferenduma egin zenean begiratzen nuen ordu batzuk lehenago eta oraindik ere bazeuden bata besteari botoak kentzeko beldurrarekin. Hori hemen ezinezkoa da" (6.T-Zarautz).*

Euskal Herrira begira jarrita, arriskutsu ikusten dute batzuek "hobeto biziko direlako" argudioan ipintzea indar guztia, Katalunian eta Eskozian egin omen den bezala, baina, aldi berean, "(...) edozein pertsonak pentsatzeak independenteak izanda hobeto biziko direla ilusioa ematen du" (6.T-Zarautz).

Izan ere, ilusioa eta itxaropena dira Euskal Estatuaren aldeko jendeak aipatzen duen eragin nagusia, Hego Euskal Herrian bereziki. Zerbait subjektiboa, beraz, maila emozionalari dagokiona. Ez dute uste prozesu sezesionista horiek eragin objektiborik edo zuzenik izango dutenik Euskal Herriko gizarte zabalean edota arlo politikoan. Nola edo hala, Euskal Estatuaren aldekoen artean sentipen orokor xamarra da bide luzea geratzen zaiola Euskal Herriari Kataluniarekin edo Eskoziarekin parekatu ahal izateko, eta zenbait lekutan, bidea are luzeagoa da. Adierazgarriak dira, ildo horretan, Ipar Euskal Herriko abertzale honen berbak: "Nik uste dut Eskozian edo Katalunian zerbait lortzen bada, epe batean Hegoaldean zerbait egingo dela. Beharbada urteak beharko dira, baina ziurrenik zerbait gertatuko da Hegoaldean. Iparrean beste egoera ezberdin batean bizi gara, eta ez dut itxaropen handirik" (13.T-Kanbo).

Geroago ikusiko dugunez, hamaika oztopo irudikatzen dira subiranotasunera bidean: iragan politikoa eta, nagusiki, alderdi abertzaleen arteko batasunik eza dira aipatuenak.

Besterik gertatzen da erabakitze eskubidea hizpide delarik. Deigarria da nolako zilegitasun maila erakusten duen egindako eztabaida talde guztietan. Balizko Euskal Estatuaren aldeko herritarrek tolesdurarik gabe hitz egiten dute hartaz, ozen adierazten dute Euskal Herriari dagokion eskubide demokratikoa dela eta seguru agertzen dira, denbora pasatu ahala, praktikan jarriko dela, "hori da, finean, jendeak nahi duena" (14.T-Bilbo). Horren inguruko ahobatezkotasuna osoa da, euskal nazionalismoaren espektro guztian. Horrela azaltzen dute, hurrenez hurren, EAJko kide batek: "Espainiak zer izan nahi dugun erabakitze eskubidea eman beharko liguke, eta ez digu ematen. Hori ez da demokrazia! Nik hala ulertzen dut, antidemokratiko hutsak dira. Niretzat, orain bertan, demokraziak ez du existitzen Espainian" (14.T-Bilbo); eta Ezker Abertzalearen inguruko beste batek: "Gaur egun, demokrazia terminoetan, ez dugu erabakitze eskubiderik" (6.T-Zarautz). Sendotasun berarekin, ordea, adierazten dute bertakoen artean lortu beharreko kontua dela, ezin dela pentsatu Espainiako eremuko arlo politikotik etorriko dela irtenbidea: "Nik uste dut estatuko alderdiek ez digutela gure borondatez aukeratzen utziko" (14.T-Bilbo).

Edozelan ere, aipagarria da sarritan nahastu egiten dela erabakitze eskubidea independentziaren lorpenarekin; hau da, segurutzat jotzen da eskubide hori bermatuz gero, emaitza baietzaren aldekoa izango litzatekeela, ezinbestean. Ez da aurreikusten ezezkoak irabaztea. Erabakitze eskubidea, horrela, euskal estatu baterako urrats gisa ulertzen da eta gero, gerokoak: "Estatua falta zaizunean zein da lehenbiziko helburua? Lehenago erabakitze eskubidea da eta gero eredu sozialarekin konponduko gara" (3.T-Donostia).

Ipar Euskal Herriari dagokionez, ordea, irudikapena da autodeterminazioaren bidean egon badaudela, azkenengo urteotan eskubide hori gauzatzen ari direla lurraldearen estatus politikoaren inguruan eraiki duten adostasun zabala dela medio. "(...) prozesu hori martxan dago jada" (5.E-Hazparne), diosku ezker abertzaleko kide batek.

<sup>15</sup> Taldeetako kideen aipamen guztiak euskaraz emango dira bertsio honetan. 1. Eranskinean ikus daiteke zein izan zen talde bakoitzaren hizkuntza.

## Euskal Estatuari buruzko iritziak

Gorago esan bezala, Euskal Estatu baten alde berez dauden herritarrei kostatu egiten zaie hura irudikatzea, paradoxikoa badirudi ere. Hamaika aldiz errepikatuko dugu ideia hori atal honetan zehar, atera beharreko ondorio nagusietako bat da eta. Hala ere, galdetu diegu ea posible ikusten duten Euskal Estatu bat sortzea eta non irudikatzen dituzten oztoporik handienak. Eta erantzuten saiatu dira.

*Egingarritasuna. Aukera posible gisa ikusten da?*

Batzuetan, baikortasunez hitz egiten da etorkizunari buruz, larregi zehaztu barik antolamendu politiko jakin batek ekar lezakeenaz: *"Nire ustez independenteak izateko eskubidea eskuratu dugu, hainbeste urteren buruan, nazio gisa. Onerako edo txarrerako, aurrera aterako ginateke..."* (14.T-Bilbo). Independentziari buruz, hala, sarritan eta naturaltasun osoz hitz egiten dute eta, mundua nazio-estatuetan banatuta dagoen arren, ez diote esleitzen independentziari berarekin batera letorkeen antolaketa politiko-administratiborik. Euskal Estatuaren kontzeptua gizartean oso zabaldua ez dagoen seinale da hori, jakina. Horrela, behin baino gehiagotan, independentzia, autodeterminazio eskubidea eta euskal estatua parekagarri modura erabiltzen dute, funtsean, Euskal Herriaren askatasuna nahi dutelako, baina ez dakite desio hori kontzeptu politiko zehatz batez janzten. Hala ere, esan behar da zailtasun hori areagotu egiten dela EAJtik hurbil dagoen jendearen artean, zeren eta Ezker Abertzalearen inguruko herritarrentzat kontzeptua ez baita arrotza. Hala, agerikoa da haietako asko gai direla estatu *klasiko* bat irudikatzeke, horrek dakarren guztiarekin. Ikuspegi arrazional eta oso politizatu horren arabera, estatua ez da paradisua, nazio gisa irauteko ezinbesteko baldintza baizik: *"Nik nahi dut estatu bat beste edozein lekutan daukatenean antzekoa, eskubidea dugulako horretarako, besterik gabe"* (6.T-Zarautz) eta kontziente dira, esan bezala, balizko Euskal Estatu batek desiatu gabeko ondorioak ere ekar ditzakeela: *"Nik hori eskatuko nioke Euskal Estatu bati, ejertzitorik gabekoa izatea ere bai"* (6.T-Zarautz).

Balizko subiranotasun prozesu baten amaiera irudikatu ezinik, herritar abertzaleek Euskal Estatua lortu arteko bideaz hitz egiten dute batez ere eta hura zinez luzea irudikatzen dute, gainditu beharreko aldi desberdinak baitaude: *"Nire ustez asko borrokatu behar da; aurrenik konpetentzia guztiak eskuratzeko eta ondoren autodeterminazioruntz edo independentziaruntz jateko"* (14.T-Bilbo). Are gehiago, EAJko gogaide batzuen kasuan, espainiar arlo politikitik datozen oztopoak dira ia gainditu ezinako murrua, estatu bat eraikitzeke ez ezik, autodeterminazio eskubidea bera indarrean jartzeko ere: *"Nire dudak dauzkat, erabaki ahal izateko espainiar konstituzioari lotuak gaudela uste baitut, eta orain Katalunian gertatzen dena oso zail dago hain zuzen antikonstituzionala delako..."* (14.T-Bilbo). Hori ez da, ordea, abertzale gehienek aipatzen duten oztopoa, erreala eta objektiboa izan arren. Askoz ere zalantza *sofistikatuagoak*, landuagoak, adierazten dira sarritan. Oro har, esan liteke ideologizazio edota politizazio maila aldagai esanguratsua dela oztopo jakin batzuek jabetzeko. Bestela esanda, zenbat eta hausnartuago izan gaia, are eta kontzienteago agertzen dira herritarrek Euskal Estatua lortu arteko zailtasunez.

*Herrialde osoa batera, ezin*

Zein lurraldek osatuko luke balizko Euskal Estatua? Galdera hori egiten denean, euskal herritar abertzaleek zalantza izpirik gabe erantzuten dute *zazpi herrialdeek* egingo luketela, baina eztabaidak aurrera egin ahala, berehala azaleratzen dira zalantzak. Bereziki malkartsua irudikatzen dute bidea, besteak beste, ez delako argi ikusten nor izango lukeen autodeterminaziorako eskubiderik: *"ba, une honetan ez da oso errealista. Subjektua ere ez dakigu oso ondo zein den; subjektua EAE da? Eta Nafarroarekin zer gertatuko da? Eta Iparraldearekin zer esanik ez!"* (3.T-Donostia).

Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian euskal nazio identitatea eta nazionalismoa bera nagusi ez diren neurrian, Euskal Autonomia Erkidegoa da kolokan jartzen ez den lurralde bakarra. Euskal Estaturantz doan bideak EAEn izango luke abiapuntua, ezinbestean. Hona hemen, adibide modura, Bilboko EAJren inguruko jendeaz osatutako taldearen eztabaidaren zati bat:

*"-Bai, zazpi probintziekin./ -Eta zazpiak ezingo balute egon, ba Hegoaldeko laurak./ -Hori da, hemengo laurak. / - Baina zazpiak izan beharko lukete gizona, zazpiak baitira euskaldun. / - Bai baina beste estatu bati dagozkio. / - Bai, baina diot Euskadiren independentziaren alde borrokatzen baduzu...Euskadi zazpi probintzia dira, ez dira lau. / -Behin independente izanik borrokatu liteke.../ -Eta besteak ordu arte baztertzen ditugu, ezta?/ -Ez, haiek erabaki nahi izan arte. Nafarroako gizarteak ere erabakiko du. Erabakitze eskubidea guztiontzako dago."* (14.T-Bilbo).

Euskal Estatuaren eraikitzearen prozesuari Ipar Euskal Herria gehitzea da zailen ikusten dena, zalantza barik. Ipar Euskal Herriko abertzaleen artean uste sendoa da beste *abiadura* bat eraman behar dela lurralde horretan. Pozik agertzen dira azkenaldian lortutako emaitzez eta gizartearen atxikimenduaren hazkundeaz –euskararen eta Laborantza Ganbararen inguruan, adibidez-, baina oso argi dute abertzaletasuna gutxiengoan dagoela eta, hortaz, biztanle gehienak ez liratekeela agertuko independentziaren alde, horretarako aukera egonez gero. “Agian joan behar da helburu txiki batzuekin gehiengo lortzeko” (13.T-Kanbo). Lurralde horretako Ezker Abertzaleko kide baten hitzetan, epe motzean ez da izango posible: “... *egitura politiko-instituzionala garrantzitsua da baina ez da dena, eta niretzat ez gaude estatu baten fasean Iparraldean...*” (E.1-Hazparne). Horren inguruko eztabaida zabaltzea ere ez du ikusten egokia, askatu gabe baitago, haren irudiko, –Ipar zein Hego Euskal Herrian– *lurraldetasunaren korapiloa*.

Esan nahi baita, abertzaleek argi dute Euskal Estatuaren zeinek osatuko lukeen, baina lurralde administratibo bakoitzaren egoera sozio-politikoaren ezaugarriez jabeturik ageri dira; eta, nola edo hala, *epeka* gauzatu beharko litzatekeela iradokitzen dute, gogoz kontra bada ere. Hala, nabarmentzekoa da, gure ustez, abertzaleen diskurtsoan iritzi horrek hartzen duen lekua, azkenaldian euskal nazionalismoaren sektore batzuen baitan egondako bilakaeraren erakusle. Berriro diogu, gogoz kontra bada ere: “... *beraiek [katalanek] errendizioa ere egin dute, Valentzia eta abar... Guk Nafarroarik gabe ezin dugu egin, eta ez gara ausartzen.*” (3.T-Donostia).

### *Abertzaleak zatikatuta, ezin*

Abagunearen arabera indar desberdinez bada ere, abertzale guztiek batera jardun beharko luketelako ideia ez da berria euskal nazionalismoaren diskurtsoan. Balizko Euskal Estatu baten lorpenari begira, ordea, ezinbesteko baldintzat jotzen da. Abertzaleen arteko zatiketa oztopo nagusietako gisa agertzen da behin eta berriz, batez ere, Ezker Abertzalearen inguruko jendearengan. Nazionalismoaren ildo horren eta EAJren arteko borroka kaltegarria da. Iragan politikoaren eraginez ulergarria bada ere “...*gure lastrea dira presoak, eta borroka armatua nolabait itxi gabe dago hortik...*” (3.T-Donostia). Etsipen ukitu batez, zalantza agertzen da ea maila politikoan benetan lantzen ari ote diren aukera berriak.

Kataluniak erakutsi digu bidea, diote herritarrek, ezkerrearen eta eskuinearen arteko gatazka gaindituta. “*Kontraesanak egon daitezke baina momentu honetan guztiak daude [Artur] Masen atzetik. Hemen ez*” (3.T-Donostia). Eta ez hori bakarrik, zeren eta Kataluniako prozesutik irakaspen bat baino gehiago atera baitaiteke herritar batzuen ustez, jakin izan baitute gizartearen sektore ustez ez-independentista zirenak erakartzen. Horixe uste dute batzuek, alegia, Kataluniako prozesuaren arrakasta gizartearen mobilizazioan datzala, alderdi politikoaren jardunetik harago. *Herrigintza* landu dute, *demosa* eraiki dute, gizarte zibil indartsua daukate, euskal gizartearen ez bezala, euskal arlo politikoaren eragile nagusiak nolabait gutxietsita horrela. Baina, beste batzuek, ordea, argi eta garbi diote gakoa arlo politikoan datzala:

*“Nire ustez Katalunian ere partiduek erabaki dute noiz zen momentu ona. Egia da Katalunian mugimendua partiduetatik harago joan dela, eta hori bada nire ustez daukaten abantaila handi bat diskurtsoari dagokionez. Baina jokia, nire ustez, alderdi politikoena da, hemen bezala eta Eskozian bezala”* (6.T-Zarautz).

Eta, hala, saihestu ezin ez ezik, oinarritzko bihurtzen da alderdi politiko nazionalisten arteko batasuna abertzale ez direnak, alegia, prozesuaz guztiz konbentziturik ez daudenak, irabazteko orduan: “*Nola erakarriko dituzu... tartean egon daitezkeenak, gure artean ere, gauzak argi ditugunok ere, elkartzeko gauza ez bagara?*” (3.T-Donostia).

### **Euskal Estatuaren alde, zeren arabera?**

Euskal Estatuaren aldekoak izanik, aldekatasun hori zehazteko eskatu zaie herritar abertzaleei: Euskal Estatuaren, zertarako? alegia, eskatu zaie irudikatzeke ea, haien ustez, balizko Euskal Estatu batean egoera ekonomiko hobea egongo litzatekeen, estatu demokratikoago eta gardenagoa litzatekeen, politika sozial zuzenagoak ipiniko liratekeen indarrean, euskara bermatuago legokeen, edota, orokorrean, herritarren arteko bizikidetzaren sendagorik garatuko litzatekeen. Hona iritziak.

### *Aldaketa handirik ez, ekonomiara begira*

Orokorrean hitz eginda, argudio ekonomikoak ez du pisu handirik erakutsi egindako talde eztabaidetan. Ipar Euskal Herriko abertzaleen artean nabarmendu da gehien bat eta horrek, gure ustez, erakusten du nolakoa den, besteak beste, lurralde horretan estatus politiko-administratibo berriak lortze aldera herritarrek engaiatzeko erabiltzen ari den argudio sorta nagusia. Balizko

nazio-askapen prozesu baten alderdi sozioekonomikoaz arduratuta agertzen dira dimentsio politikoei nolabait gailenduta: *"niretzat estatua ez da totem bat, niretzat egiazko kontzeptua da burujabetza, eta iruditzen zait horrek badituela deklinazio oso aberatsak arlo ekonomiko-sozialean"* (E.1-Hazparne).

Uste dute egoera ekonomiko hobea eskaintzen duen egitaraua aurkezteak Euskal Estatuaren aldeko atxikimenduak areagotuko lituzkeela.

*"Tokiko ekonomia eta garapenari buruz hitz egingo duen egitaraua. Herritarrei azaldu ahal izango zitzaizkien gure estatua izanez lanpostuetan eragina duen Frantzia estatuko deslokalizazioa bukatuko zela. Funtzionario bat ez bazen gure herritik mugitu behar izango, alde batetik, bere familiarik gertu egongo zen eta, beste alde bateatik, gure herriaren garapen ekonomikoari laguntzen dio... osasun eta hezkuntza arloak indartuko ziren"* (13.T-Kanbo).

Gaiak arreta txikia jasotzen du, ordea, Hego Euskal Herrian egindako taldeetan, nahiz eta langabeak eta maila sozioekonomiko desberdineko herritarrak ere egon diren bertan. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko jendeak, eta bereziki EAJren inguruko sektoreek, argi dute lurralde horretan krisi ekonomikoak eta ustelkeria politikoak (sarritan batzen dituzte ideia biak) askoz leunago ageri direla Espainiarekin alderatuz gero. Pozik agertzen dira *hemen lortutakoak*; harro ere bai, askotan; antolaketa autonomikoak lurralde horretan irabazi duen zilegitasun mailaren erakusle. Ez dute esaten ekonomia hobeto joango denik, baina txarrago ere ez. Galdetuta ekonomiarentzat kaltegarri izan litekeen Euskal Estatu, horrela erantzuten dute: *"Nik ezetz pentsatzen dut. Ze ate dauzkagu itxita? Ni Bielorrusiarekin lanean nabil oraintxe. Eta lankide dudan andrazkoa Ameriketako Estatu Batuekin egon liteke lanean, edo beste edozein herrialderekin. Eta ez dut haiekin zer ikusirik, baina ez dago arazorik."* (14.T-Bilbo).

Uste dute *Euskadin* ondo bizi garela, *gauzak ondo egiten ditugula*, beraz, zergatik biziko ginateke txarrago estatu bihurtuko bagina? Hala, ohartzen dira Euskal Estatuan ere desberdintasun sozioekonomikoak egon litezkeela, baina ez diote ematen balizko estatu horri ahalmen handirik maila ekonomikoaren gorabeherak bideratzeko edo zuzentzeko. *"(...) hori ekonomiak eta norberak duen kapitalak emana dator, bizi zaren auzoak..."* (14.T-Bilbo).

Ezker Abertzalearen inguruko sektoreetan ere ez da ageri inolako grinarik kontu ekonomiko hutsak aipatzen direnean; apur bat gehiago, ordea, politika sozialak eta horrelakoak sortzen direnean; alegia, ekonomia justizia sozialarekin harremanetan ipintzen denean, geroago ikusiko dugunez. Herritar horiek ere *ondo bizi garelako ideari* eusten diote, eta, beraz, *hobeto bizitzea* ez da Euskal Estaturantz abiatzeko aipatzen den arrazoi nagusietakoa; ez, bederen, maila ekonomiko hutsari begiratuta: *"... [Euskal Estatu batek] euskal herritar guztion zoriona bermatuko luke"* (6.T-Zarautz).

Hori esanda, ordea, argitu behar da argudio ekonomiko delako horrek baduela eraginik abertzale batzuen artean, baina, etzabaida taldeetan gutxiengoa izan dira horrelako iritziak adierazi dituztenak. Prozesuaren arrakastaz mesfidati direnek, batez ere, *albo kalteak* aipatzen dituzte, gure ustez, arlo ekonomikoari loturik lihoazkeenak. Zenbaitetan, argiro adierazten dute beldur hori: *"... independentzia horrela hartuta ... une honetan ez dut ikusten, uste dut ekonomikoki mozkinak baino galera gehiago izango genituzkeela"* (14.T-Bilbo).

### *Iraultzarik ez gizarte politiketan*

Euskal Estatuaren alde dauden herritar batzuek, EAJren inguruan koka daitezkeenak, ez dute berebiziko zeregintzat jotzen balizko estatu horrek politika sozial zuzenagoak edota eraginkorrakoak eragitea. Gorago genioen bezala, zinez uste dute Hego Euskal Herrian (eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoan) garapen eta ongizate maila esanguratsua lortu dela, hala hezkuntzan nola osasungintzan. Diogun berriro, pozik daude ustez gizartean lortutakoak, *"(...) bertan asko eta ongi lan egiten da"* (14.T-Bilbo), eta, ondorioz, politika sozialak aldatzea ez da oinarritzko argudio bat egituraketa politiko berriaren alde egiteko.

Besterik da, ordea, Ezker Abertzalearen inguruko sektoreetan pentsatzen dena. Alde batetik, uste orokortua da Euskal Estatu bat eraikitzekotan ez dela izango iraultza sozialista baten emaitza edota estatu hori bera ez dela sozialista izango:

*"Euskal Herrian ez dugu iraultza egingo, eta eredu soziala... ni ezkerrekoa naiz eta hortik nator... Baina hemen zerbait konpontzekotan gure artean adosten duguna izango da. Guk iraultza sozialista ez dugu egingo... guri gainean etorriko zaiguna da Europako eredu"* (3.T-Donostia).



Euskal Estatuak, hortaz, gainerako europar estatuaren ezaugarrietara moldatuko da, ezinbestean. *Europar bizi gara* eta politika sozial orokor horietara makurtu beharko du Euskal Estatuak. Baina, bestetik, badago iritzi bat aukera ideologiko abertzaleen arteko desberdintasuna nabarmentzen duena, eta, beraz, eskaera planteatzen duena: Euskal Estatuaren bestelako kudeaketa bat egon beharko da haren alde egin dezagun. Eta, horretan, ez dago euskal nazionalismo osoa ados ipintzeko aukerarik:

“Gauza bat da estrategia nazionala adostea, eta hor ni konbentzituta nago alderdi nazionalisten arteko adostasuna ezinbestekoa dela. Baina kudeaketarako, eta gure herrian badaukagu kudeatzeko hainbat erakunde eguneroko politika publikoetan erabakitzen dutenak... kudeaketarako EAJren eredia eta Ezker Abertzalekoa ezberdina da!” (3.T-Donostia).

Baina, kasu guztietan, nolabaiteko fedea eta borondatea agertzen da Euskal Estatuaren gauzak hobeto egingo direlakoan. Eta herritarren sakrifizioa eskatuko duela horrek: “*Ni prest nago. Niri sozialismoaren kontzeptua ez zait gustatzen, baina justizia sozialean sinesten dut, eta uste dut euskal gizartea eraiki ahal dela beste era batera*” (6.T-Zarautz). Are gehiago, zenbaitetan, garrantzi eskerga ematen zaio arlo horri, baina ez dirudi landuta edo helduta ikusten denik Euskal Estatuaren balizko politika sozialen eredu berri bat; nolabaiteko gabezia eta hortik ondorioztatuko ezinegona soma daiteke abertzale honen hitzetan: “*Nik ez dut nahi egotea eztabaidatzen egun santu osoan auzi nazionalaren inguruan, ze uste dut auzi soziala garrantzitsuagoa dela. Eta nik hor izan nahi dut alternatiba...*” (3.T-Donostia).

### Hizkuntza, kezka iturri

Euskal Estatuaren aldeko herritarrek badute zer esan galdetzen zaienean zein izango litzatekeen etorkizuneko egitura politiko hartan egingo litzatekeen hizkuntza. Izan ere, gaiak ez du inor hotz uzten eta, jakina, harremanetan dago euskal gizartean eta, bereziki, sektore abertzaleetan, euskarak irabazi duen ukazineko protagonismoarekin. Sarritan, euskararen egoera tamalgarriaz dagoen ardua azaleratzen da beren-beregi egindako galderarik egon gabe eta, normalean, eztabaida iturri bihurtzen da berehala. Esan dezagun bi gogoeta multzo bereiz ditzakegula Euskal Estatu eta hizkuntza harremanetan daudela. Eta bi diskurtso mota ere ikus daitezke Ezker Abertzalearen eta EAJren artean bereizita. Ikus dezagun Ezker Abertzaleari dagokiona.

Lehenengo kezka iturria da gaur egun euskarak bizi duen egoera eta zein punturaino lagun ziezaiokkeen estatu batez jabetzeak. Eraginortasuna aitortzen diote Hego Euskal Herriko ezkerreko abertzaleek Euskal Estatuari, argi eta garbi: euskara babestea, Euskal Herriaren bereizgarri delako; eta egun jasaten duen erasoari galga ipintzea: “... batez ere da hizkuntza eta identitatea bereizten gaituena. Hori ez desagertzea bermatu ahal duen bakarra Euskal Estatu da...” (6.T-Zarautz). Hala, ziurtzat jotzen da bestelako egoera linguistikoa egongo dela egitura horren eraikuntzaren ondorioz, guztiz zehazten ez bada ere zertan datzan hori, horrenbestearaino non “*Niri Euskal Estatu egiten denean, karneta bost axola zait; ez nau euskaldunago egingo, baina euskaldun bezala bizi ahal izateak, bai*” (6.T-Zarautz).

Bigarren gogoeta multzoa zerak osatzen du, alegia, balizko Euskal Estatu batean zein izango litzatekeen hizkuntza ofiziala. Hemen aldaketa nabaria sumatzen da, desirak albo batera utzita, euskararen benetako errealitateaz jabetzen baitira herritar abertzaleak. “*Euskal Herrian dauden hiru hizkuntzak [izan behar dira ofizialak]... Gauza bat da nahiko genukeena eta beste bat da errealitatea*” (6.T-Zarautz). Dagoena dago, eta, ondorioz, aldi desberdinak irudikatzen dira balizko Euskal Estatu baten hizkuntza politikan, zeren eta “*langile publikoek, euskaraz ez dakitenak, denbora bat beharko dute euskara ikasteko, ez ditugu kanporatuko euskara ez dakitelako, ez?*” (3.T-Donostia). Antzerako iritziak azaleratzen dira Ipar Euskal Herriaren egindako taldean. Hizkuntzari garrantzia eskerga eman arren “... herri bat sortzeko bertako jendeak (...) hizkuntza eta kultura partekatu behar du...” (13.T-Kanbo), uste dute euskara ezin litekeela izan hizkuntza ofizial bakarra: euskarak eta frantsesak izan beharko lukete ofizialak; are gehiago, inposizio kutsua saihestu gura da: “... nik uste dut guk ez dugula egin behar frantsesek gurekin egin dutena; hau da, hizkuntza inposatzea” (13.T-Kanbo).

Errealitateaz jabetzeaz gain, zenbaitetan zalantzan ere ipintzen da euskara izatea Euskal Herriko berezko hizkuntza bakarra, baina, saihestu ezinezko ikusten da Euskal Estatuak berea, hau da, euskara, lehenestea. Horixe da estatu guztiek egiten dutena:

“*Hasieran derrigorrez hirurak. Erdara gurea da ere. Frantsesa ez hainbeste baina erdara [gaztelania] bai. Hasieran hirurak, baina estatuak jotzen dute beren integrazioa, beren homogenizazioa... eta horretarako zuk bultzatuko duzu zurea. Nik uste dut ondarea dela erdara eta frantsesa, baina azkenean zurea bultzatu behar duzu*” (3.T-Donostia).

Hartara, sarritan agertzen da nolabaiteko tentsioa errealitatearen eta nahiaren artean, islatuta geratzen dena etorkizuneko Euskal Estatuan egon beharko lirakekeen hizkuntzen arteko harremanak hizpide direlarik. Hiru hizkuntzak ofizial izanez gero, zalantzakorra omen da euskarak bizirik irautea, zenbaiten iritziz. Eta, are gehiago, zer dela eta arduratu beharko litzateke Euskal Estatu gaztelaniaz edo frantsesez egiten dutenen egoeraz? Ez omen da zuzena euskal hiztunekiko eta ez omen da ere *benetako* estatu batek egingo lukeena: *"Badirudi guk izan behar dugula munduko guayenak... egunen batean baldin badaukagu estatu bat, euskarak izan behar du bertako hizkuntza. Nik ez dut inor zapaldu nahi, nik nahi dut Euskal Estatu bat besteen antzekoa"* (6.T-Zarautz).

Bestelakoak dira, oso, EAJren inguruko jendearen artean azaleratzen diren iritziak eta jarrerak. Euskararen kontra, inor ez, jakina; baina, asko erlatibizatzen da norberaren betebeharra ere, nola ez balizko Euskal Estatu batena. Hartara, ez dago, inondik inora, Ezker Abertzaleko jendearen artean soma daitekeen ezinegona euskararen geroa irudikatzeko orduan: *"Dudan adinarekin behar bada ez nuke euskaltegi batean izena emateko gogorik izango. Agian beste kontu batzuetan igaro nahiko nuke nire aisialdia. Eta euskaldun izateari dagokionez ez dut beste inor baino gutxiago naizenik sentituko"* (14.T-Bilbo).

Euskara ez baita jotzen euskalduntasunaren ezinbesteko osagai, posible omen da *euskal balioak*, hau da, Euskal Herriarekiko maitasuna, euskaraz ez beste hizkuntza batean helaraztea:

*" Ez zait bidezkoa iruditzen profesional bikaina den norbaitek, euskara ez jakite hutsagatik, edozein delarik ere horren arrazoia, publikoan ezin lan egitea. Pertsona batek, euskaraz ez badaki ere, balio euskaldunak %100 transmititu ditzakeenean."* (14.T-Bilbo).

Ez da, alta, gehien errepikatzen den jarrera, logikoa denez. EAJren planteamenduetatik hurbil eta Euskal Estatuaren alde dauden abertzale askok ere euskara jotzen dute euskal identitatearen ezaugarri nagusia eta ados ageri dira euskararen alde *presio* egiteaz. Jarrera hori oso nabaria da Ipar Euskal Herriko abertzaleen artean: *"Hizkuntza da gehien bultzatu beharko litzatekeena... Bai, hizkuntzak nortasuna ematen baitu"* (13.T-Kanbo). Irlandan gertatu zena gerta liteke eta; alegia, independentzia lortu arren eta gaelikoa hizkuntza ofiziala izan arren, ez da erdietsi hura berreskuratzea. Hala ere, sentimendu orokortua da gai arantzatsua izan daitekeela: *"Nik uste hori dela independentziaren inguruan dagoen gairik korapilatsuena... Gertatzen dena da herri baten identitatea gehien markatzen duen gauzatariko bat hizkuntza dela, beraz..."* (14.T-Bilbo).

Deigarria da Hego Euskal Herrian egindako taldeetan elebitasuna aipatzen dutela, edo hizkuntza biak ofizial izatea, *desideratum* bat bezala eta ez dutela inolako erreferentziarik egiten Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen lege-egoeraz, nahiz eta sarritan aipatzen duten EAEko hezkuntza sistematik pasatzen diren ikasleak euskaldundu egiten direla. Eta, berriro ere, balizko Euskal Estatu bateko hizkuntza ofizialaz hitz egitean, Hego Euskal Herria baino ez dute irudikatzen: *"Gaztelania mundu guztiak jakingo luke hitz egiten. Euskarak identifikatzen gaitu, ezagutu beharko genuke"* (14.T-Bilbo).

### *Demokratikoagoa izango da*

Abertzale kontserbadoreei kostatu egiten zaie Euskal Estatu gardenagoa izango den galderari erantzutea eta, modu orokorrean, etorkizuneko politikariak bestelakoak izango direla aipatzen dute; ustelkeria gutxiago egongo dela eta abar. Ustelkeria desagertzea *denbora pasatu ahala* etorriko den zerbait da; ez, berez, Euskal Estatuari esleitzen dioten ezaugarria.

Ezker Abertzaleko herritarrek, aldiz, harreman estua adierazten dute Euskal Estatuaren eta demokraziaren artean, besteak beste, espainiar estatu antidemokratikotzat jotzen dutelako, *inperio baten emaitza*. Ez da, ordea, euskal gizartearen kasua: *"Hemen jendea oso partizipatiboa da, oso komunitarioa eta... kultura politiko hori hemen badago ... tradizio bat da"* (3.T-Donostia). Horrez gain, Euskal Herria herrialde txikia izanda, baldintza onak ditu jardun demokratikoa gauza dadin. Beraz, neurri batean bederen, Euskal Estatu *per se* izango da demokratikoagoa, edozein delarik ere estatu bultzatzen duen proiektu politikoa eta etorkizunean egon litezkeen antolamendu desberdinak albo batera utzita, egoera antidemokratiko batetik abiatzen delako eta euskal gizartearen herritarren parte hartzea, dagoeneko, handia delako. Konbentzimendu osoa agertzen da, horrela, etorkizuneko Euskal Estatu demokratikoa izango dela eta demokraziaren bidetik lortuko dela:

*"... pentsamendu demokratikoa daukat eta demokrata naiz, beraz, nik uste dut Euskal Estatu demokraziaren bidetik irabazi behar denez, eta demokraziak behar duenez antolamendu demokratiko bat bermatuko duena gure artean, ondo biziko garela... ba Euskal Estatu lortzekotan askoz ere egoera demokratikoagoan egongo garenez de fakto, elkarrekin bizitzeko aukera gehiago izango dugu"* (6.T-Zarautz).

*Estatukideak eta naziokideak: nor izango da euskal herritar?*

Eztabaidaren ildo honekin gauza bi aztertu nahi izan dira. Bata, zelako lekua betetzen duten identitateari loturiko gaiak, euskaraz gain, Euskal Estatuaren aldeko iritzian. Eta bestea, nola irudikatzen duten abertzaleek nazio identitate desberdineko herritarren arteko bizikidetzak. Nolabaiteko ariketa egiteko eskatu zaie, horrela, nazioa eta estatua bereiz zezaten; esan nahi baita, erantzun zezaten espainiar (edo frantziar) sentitzen den herritarrak nolako lekua izango lukeen balizko Euskal Estatu batean.

Agian Ipar Euskal Herriko abertzaleak izan dira galderari modu zehatzenean erantzun diotenak. Nor izango da euskal herritarra? *"Betiko galdera... nire ustez hemen bizi dena"* (13.T-Kanbo).

Alabaina, oro har, herritar abertzaleek identitateari loturiko osagaiak nabarmentzen dituzte Euskal Estatuaren alde daudela justifikatzeko. Euskal nazioko kide izatea; hots, sentimendu bat, gutziz zehaztu gabea, aipatzen dute: *"Nik beti buruan izan dudana izan da ni ez naizela espainola, eta independentzia nahi dudala euskalduna naizelako..."* (6.T-Zarautz).

Ezkerreko nazionalismoari lotutako gure hizlarien artean, bereziki, nabari da gaiaren inguruko gogoeta egin dela; hau da, ez dela gutziz berria haientzat. Ildo horretan, diskurtso politizatu landua erakusten dute. Iritzi-ildo bi bereiz daiteke abertzaleekin egindako taldekideen adierazpenetan. Lehena, sentimendua –nazio identitatea, alegia– eta herritartasuna gutziz lotzen dituena, nazio-estatu klasikoan antzera: *"Nik uste dut identitateak ematen diola Euskal Herriari estatu gisa antolatzeke eskubidea. Orduan, euskaldun sentitzen den oro Euskal Estatuaren kide izan beharko litzateke..."* (6.T-Zarautz). Gure ustez, ez da aurreikusitako nahi euskaldun sentitzen ez den herritarrik egongo denik, besteak beste, ez delako oztoporik jarri nahi. Egon litekeen korapiloa saihestu egiten da, horrela, ustezko jarrera ireki baten eskutik. Herritartasunarekiko erlazioa ez ezik, lurraldearen eta nazio identitatearen arteko lotura estua ere azaleratzen da: *"(...) nik, gaurkoz, zazpi lurraldeek eskubidea daukatela argi daukat, euskal identitatea daukatelako"* (6.T-Zarautz). Deigarriak dira horrelako adierazpenak; eztabaidaren beste momentu batzuetan gutziz jabetuta agertu dira euskal nazio sentimenduen indarra ez dela bera zazpi herrialdeetan eta, horretan oinarrituta, behin baino gehiagotan azaldu da ezinezkoa izango dela lurralde guztiak batera joatea. Baina, galdetu zaienean zer egiteko prest zeuden Nafarroako Erriberako jendea, adibidez, erakartzeko, hona zer erantzun duten: *"Erriberakoei azaldu beharko litzateke Euskal Estatu batean emango zaiela askatasuna beraien identitatea libreki aukeratzeko, orain ez duten askatasuna."* (6.T-Zarautz). Nazio identitatean oinarritutako iritzi-ildo hori irmoa da eta zalantzarako tarte txikia uzten du, identitatea herritar gutzietan eta lurralde guztietan esleitzen zaielako, salbuespenik gabe.

Euskal nazionalismoan identitate argudioak nagusitu dira historikoki. Badago taldekide bat horretaz hausnarketa egin duena eta euskal nazionalismoaren baitan garatzen ari diren gogoeten hariari jarraitu diona. Hona hemen bere hitzak:

*"Orain dela gutxi arte estatua identifikatzeko bazeuden bi era: identitateari lotuta dagoena, alemana, eta bestea frantsesa, kontratu bat adierazten duena. Eta guk beti alemanarekin jolastu egin dugu, eta oso berandu hasi gara pentsatzen agian bi argudioak uztartzen hasi behar dugula"* (6.T-Zarautz).

Bi iritzi ildo bereiz zitezkeela esan berri dugu. Hala, bigarren iritzi ildoan kokatzen ditugun taldekideak gutziz jabetzen dira nazio identitate desberdinak egon litezkeela balizko Euskal Estatuan eta, batzuetan, nola edo hala, nazio identitatea eta herritartasuna bereizten dira. Edozelan ere, mota askotako irudikapenak aurki ditzakegu adierazpen horien artean. Jarrera bat da normaltasunez hartzea: gatazka politikoa konponduta badago, arazorik gabe garatuko dira herritar guztien arteko harremanak. Leundu nahi da identitateen arteko gatazka, haien ustez, gatazka hori arlo politikoan batez ere garatu delako, ez gizartean. *"Hemen ez dago bi komunitate... Ez dago konfliktorik gizartean, konfliktua dago politikoa, Estatuarekin... Eta nire ustez hor daukagu gatazka. Ez jendearekin, ez gizarte mailan... horregatik nik ez dut ikusten problemarik"* (3.T-Donostia).

Esan bezala, alta, beste batzuen ustez, normaltasunaren barruan ere sartuko litzateke euskal nazio identitateari ez dutenak Euskal Estatuaren jardun politikora moldatu behar izatea, gaur egun abertzale direnek egin behar izaten duten modu berean. *"Ba orain gurekin gertatzen den gauza bera. Gu ere ez gara espainiar sentitzen eta... gurea sentitzen ez dugun estatu batean bizi gara"* (3.T-Donostia). Egun bizi den egoera, besterik gabe eta hausnarketa handirik gabe, lekualdatzen da etorkizunera: *"Independente izan nahi dugunok gehiengo bagara, onartu beharko dute. Alderantzikoa gerta litekeen moduan. Ni independentista naizen heinean, isildu eta onartu beharko nuke"* (14.T-Bilbo). Hala, nazio sentimendu desberdinak egon arren, denok izango ginateke berdinak Euskal Estatuan. Euskal herritarra, horrela, nahi duena izango da, diote Ipar Euskal Herriko abertzale batzuek; eta, argiago hitz eginda *"(...) bi nazionalitate onartu ahalko lirateke"* (13.T-Kanbo).

Bizikidetzaren bera hobea izango da. Ez da sumatzen inolako etsipenik nazio identitate desberdinak elkarren ondoan bizi izan beharko lirakeelako: "(...) espainolek jarraituko dute espainolak izaten Euskal Herrian eta frantsesak, eta abar. Orduan, hori da nire ustez eraiki behar den diskurtsoa, ziurrenik espainolak ere zoriontsuagoak izango direla Euskal Herri independente batean" (6.T-Zarautz).

Etorkizuna, eta gaia bera, ilun eta gatazkatsu ikusten dute beste batzuek. Arduratuta agertzen dira iritzi hori mantentzen dutenak gaur egun gertatzen ari dena ez ote den berriro errepikatuko, hain zuzen ere. "Nik espero dudana da, besterik gabe, guk inoiz gobernatuko bagenu, ez egitea frantsesek eta espainolek gurekin egin dutena" (3.T-Donostia).

Euskal Estatua irudikatzea zaila dela esan dugu behin baino gehiagotan eta, horren ondorioz, zaila ere da antolaketa horri legokiokeen estatus politikoa irudikatzea, herritartasuna, alegia, nazio identitateaz husturik. Hain da zaila ariketa hori, nazionalismo kontserbadorearen zenbait kidek immigrazioa ekarri dutela hizpidera, nola edo hala, irudikatu ezinik bertakoen artean estatus politikoa desberdinak egon litezkeela. Gaia aterata, biribila da jarrera: Euskal Herrian onartu egiten dira etorkinak; etorkizunean ere bai, beraz. "Nire familia Extremaduratik etorri zen 59an eta han ezer ez zuelako etorri zen. Hemen egin dute haien bizitza osoa eta... nire gurasoak EAJ-PNVkoak dira. Beti izan dira ederto onartuak..." (14.T-Bilbo).

Euskal Herria (edo Euskadi, haien arabera) jatorri askotako jendez osatua dago eta bizikidetzaren ona dago. Immigrazioaren erabilera politikoa ere salatzen da, espainiar nazionalismoari loturiko erakunde politikoen aldetik: "Estatuko alderdiak dira kanpokoak baztertuta izango delako ideia indartzen dutenak. Eta hemen ez da inor kanporatzen" (14.T-Bilbo).

## EUSKAL ESTATUAREN AURKAKO IRITZIAK ETA IRUDIKAPENAK

Ondoren, Euskal Estatuaren aurkako iritziei eta irudikapenei erreparatuko diegu datozen orrialdeetan. Horretarako, zortzi eztabaida taldeetan oinarritu gara. Euskal Estatu baten aurkako iritzia duten pertsonak edota jarrera argirik ez dutenak osatu dituzte talde horiek, modu eta proportzio desberdinetan taldearen arabera. Beraz, hizlari mota desberdinek adierazitako iritziez arituko gara oraindik aurrera; eta, iritzi horien artean, Euskal Estatu baten aurka nagusitu diren ikuspegiak azpimarratu ditugu. Esan bezala, oro har, gaiari buruzko interes berezirik ez duten hizlariek ari gara: gehienetan gustura daude egungo antolaketa politikoa-administratiboarekin, edota ez dute estatu berri baten aldeko inolako gogorik bederen, eta Euskal Estatuaren gaia mesfidantzaz ikusten dute. Herritar horientzat, Euskal Estatua ez da egingarria eta, aukera hipotetikotzat hartuta ere, arazoak ikusten dizkiote nagusiki: adibidez, iritzi ildo horretan, oso nabarmena izan da Euskal Estatua ezintasun ekonomikoarekin lotzea. Egingarritasun ezarekin eta desegonkortasun ekonomikoarekin batera, halaber, identitate nazionala eta euskara ere izan dituzte beren kezken artean. Horrenbestez, Euskal Estatuaren aurka azpimarratzen diren gaiak eta argudio ildoak –edota testuinguru sozialaren arabera indar handiagoa har dezaketen beste batzuk– behatuko ditugu atal honetan.

### Nazioarteko burujabetza prozesuei buruzko iritzia

Aztertu ahal izan ditugun iritzietan Katalunia aipatzen da, ia aho batez, burujabetzaren nahiz estatu berrien sorrerari buruzko prozesuen adibidetzat. Askoz txikiagoa da Eskoziako edo bestelako kasuen aipamena (Krimia, Korsika...). Euskal Estatuaren aurkako iritzi- eta diskurtso-ildo horietan, Espainiako ikuspegia da nagusi Hego Euskal Herriari dagokionez. Hori dela eta, Kataluniako burujabetza prozesua ia besterik ez da aipatzen Hego Euskal Herrian egindako eztabaida taldeetan. Eskoziako kasua –ikerketan egiten ari den garaian ere hedabideetan hizpide izan zena– urrunago ikusten da, nabarmen. Aldiz, Ipar Euskal Herriko elkarrizketatuei dagokionez, alderantziz gertatzen da, azken horiek ezagutza handiagoa erakusten baitute Eskoziako prozesuaz Kataluniakoaz baino.

Dena den, talde solasean agertzen denean, oro har, Kataluniako baina kutsu baikorragoarekin aipatzen da Eskoziako prozesua, "iraganean independenteak izan zirelako". Kataluniari dagokionez, berriz, ikuspegi ezkorra ageri da eta, oro har, kataluniar independentismoaren kutsu taktikoa edo faltsua azpimarratzen da. Horrela, Eskoziako burujabetza prozesua historiarekin lotzen den bezala, Kataluniako ekonomiarekin erlazionatzen da.

Nolanahi ere, nabarmendu behar da bi prozesuei buruzko aurkakotasuna (baita aipatzen diren beste prozesu bakanei buruzkoa ere) gailentzen dela, argi eta garbi, Euskal Estatuaren aurkako iritzia adierazi dutenen diskurtsoetan. Jarrera hori

hainbat modutara adierazten da, hizlarien ezagutza politikoaren, ideologizazioaren eta maila soziokulturalaren arabera, besteak beste. Horrela, Kataluniako prozesuaz ari direla, batzuek Espainia ezin dela zatitu adierazten dute, identitate diskurtso batean oin harturik; beste batzuek "eredu federal" baten alde egiten dute, eta abar. Baina, egindako proposamenen gainetik, Kataluniako independentzia prozesua "elkartasun ezarekin" lotzen da: "*Nik uste azkenean auzi ekonomikora mugatzen dela guztia, eta afera katalanean askoz gehiago. Azkenean bilatzen dena, hemen dagoen erregimen fiskalaren antzekoa edukitzea da*" (2.T-Barakaldo).

Ondorioz, ondorengo puntuan ikusiko dugun bezala, independentziaren aurka dauden hizlarietako dagokienez, Kataluniako edo Eskoziako kasuak zein burujabetza prozesuak, oro har, ez dira gai garrantzitsutzat hartzen (ez dute ezagutza handirik ere erakusten afera horiei buruz); eta, aipatu prozesuak elkarriketan agertzen direnean, modu ezkorrean adierazten dira, gatazkekin eta arazoekin lotuta. Horren adibide, agian Kataluniako prozesua gutxiesteko asmoarekin, bertako independentisten jatorriari buruz egiten den aipamena:

*"... Kataluniakoaren inguruan, Bartzelonan urte betez bizitutakoa naiz eta esan dezaket han dagoena gaizki egokitze baten sindromea dela, Katalunian %10-a baino ez da katalana, gehientsuenak gailegoak, andaluzak edo murtziarrak dira. Gertatzen dena da hara iritsitako asko inor baino katalanago eta erradikalago egiten dela gizartean integratzeko"* (8.T-Iruñea).

Ildo berean, prozesu independentistak jendearen manipulazioarekin lotzen dira. Hari horretatik, Kataluniako independentismoak espainiar sentimenduko herritarrak haren proiektura erakartzeko gaitasuna izan duela ere adierazten den arren, nahasmena eta engainua jotzen dira erakarpen horren iturri:

*"Nahasmena sortzen ari da talde independentisten aldetik. Oso katalana sentitzen ez den gehiengoa nahasten ari dira. Nik uste jendea nahasten dabilzala eta, hain zuzen, horregatik atera da independentziaren alde agertu den gehiengo bat... Beraz, uste dut ez dela erreala, uste dut jendea nahasten dabilzala katalana eta espainiarra izatearen eta independentista izatearen artean".* (9.T-Bilbo).

Burujabetza prozesuek Euskal Estatuaren aurka agertu diren taldeen eta hizlarien artean sortzen dituzten erreakzioekin amaitzeko, eztabaida taldeetan jarrera lausoagoak ere topatu ditugula aipatu behar da. Nagusiki ezkerreko joerei loturik dauden jarrera ildo horietan, ez da ageri-agerian erakutsi Kataluniako nahiz Eskoziako prozesuei buruzko aurkakotasuna; aitzitik, haiei buruzko urruntasuna azpimarratu da. Baina, aldi berean, urruntasunezko jarrera horretara mugatu gabe, nolako edo halako aurkakotasun biguna ere azaldu da mota horretako kontakizunetan, burujabetza-prozesu horiek –eta independentismoa nahiz nazionalismoa, oro har– klase *menperatzaileekin* lotzean:

*"Ez zait Kataluniako prozesua bereziki interesatzen. Independentzatu nahi dutela? Ba egin dezatela! Berdin zait! Ez baitiete utziko eta! Utziko ez dieten mundu batean bizi garelako. Eta maila ekonomikoan egingarria edo posiblea denik ere zalantzan jartzen dut... (...) Uste dut direla oso prozesu... kasu hartan eta bertokoa [Nafarroa edo Hego Euskal Herriari buruz]... uste dut oso burgesak direla, klaseari dagozkionak, hori dela eta ez zaizkit interesatzen"* (4.T-Iruñea)

### *Euskal Herriarekiko loturez*

Burujabetza prozesu horiek Euskal Herriarekin izan dezaketean loturei dagokienez, Euskal Estatuaren aurka agertu diren taldeek eta hizlarietako azpimarratzen duten ideia da Kataluniako prozesua Euskal Herrikoa baino garrantzitsuagoa dela: ekonomikoki lurralde garrantzitsuagoa omen da Katalunia, bertako independentzia prozesua afera aurreratutzat hartzen da, eta abar. Jarrera hori nagusia izan da ildo honetako taldeetan. Salbuespen gisa Nafarroa Garaikoa nabarmenduko genuke. Azken lurralde horretako taldean, Eskoziako eta Kataluniako prozesuek Nafarroako errealitate politikoan eraginik ez dutela azpimarratzen da eta, loturak egitekotan, Eskoziarekin egiten dira. Izan ere, ikusiko dugunez, estatu propio baten aurkako iritzietan argudio historikoak edo historizistak pisu handia izan du Nafarroa Garaian, eta, hain zuzen ere, Eskoziako kasua ikuspegi historizista batetik azaltzen da bertan; hala, Eskozian erreferendum bat egin daitekeela defendatzen da, lurralde hori iraganean Estatu burujabea izan zelako.

### **Erabakitze eskubideari buruz**

Euskal Estatuaren aurka agertu diren taldeetan nabarmendu den ikuspegiak da erabakitze eskubidearen auzi hori ez dela lehentasuna beraientzat, ezta, oro har, intereseko gaia ere: "*Niretzat eskubidea da, baina bigarren mailako eskubidea, badira*

askoz garrantzitsuagoak direnak" (7.T-Gasteiz). Hala ere, horrekin batera, taldeotan zabaldua dago erabakitzeo eskubidearen aldeko ikuspegi abstraktua. Abstraktua diogu, izan ere, printzipio orokor moduan ez baita haren aurka jotzen; zehaztapenak egiten hasteko unean, ordea, aurkakotasuna mahaigaineratzen da, nabarmen. Horrela, batzuetan, erabakitzeo eskubidearen aldeko jarrera teorikoa erakutsi ostean, balizko eskubide hori gauzatzearen aurkako jarrera zehatza erakusten da: "*Eta nik uste dut herri guztiek dutela erabakitzeo eskubidea, baina ñabardura batzuekin: erreferendum batean ezin diozu jendeari independentziaren alde botoa eman dezan eskatu, baldin eta independentziak izan ditzakeen ondorioak zeintzuk diren aurretik azaldu ez badiozu (...)*"(8.T-Iruñea). Badirudi, horrela, aurka dagoenak ere zailasunak dituela maila sozialean onartuta dirudien kontzeptu baten kontra egiteko; edo, bederen, aurkakotasun hori adierazteko diskurtso argirik ez duela.

Beraz, Euskal Estatuaren aurka agertu diren hizlarien artean, oro har, erabakitzeo eskubidea zehaztu beharra aldarrikatzen da:

*"gustatuko litzaidake jakitea horretaz gain zer dioten erabakitzeo eskubidearen inguruan... nire ustez marketing slogan bat besterik ez dena... jakin nahiko nuke zer den esan nahi dutena, eta Europarekiko nola egon nahi duten, eta zer dela eta Espainiatik ateratzeko behar hori"* (2.T-Barakaldo).

Aldi berean, iritzi hori dutenek azpimarratzen dute –eta hori da garrantzitsuena haientzat– ez dagoela erreferendumerako beharrik Euskal Herrian, eta eginez gero ez litzatekeela Euskal Estatu baten aldeko emaitzarik aterako:

*"Nik uste justuena hori dela. Eskubide horren baitan, erreferendum batean, gehiengo batek esango balu Euskal Herriarekin batera independente izan behar dugula, niri isildu eta onartzea baino ez litzaidake geldituko. Baina izan ere, hemen, Nafarroan, hori ateratzea hain nekeza ikusten dut..."* (8.T-Iruñea).

Baina, gabezia horrekin batera, Euskal Estatuaren aurka agertu diren taldeen diskurtsoan legediaren eragozpenari heldu zaio arrazoiketari. Horrela, legeak ez duela halako eskubiderik aitortzen azpimarratu da. Eta garrantzitsua gertatu da argudio hori erabakitzeo eskubidearen aldeko jarrera teorikoa zehazterakoan: "*Konstituzioa aldatu gabe erabakitzeo eskubidea ezartzea bidera ezina da*" (8.T-Iruñea). Hortaz, eskubide hori gauzatzeko beharrezkoa litzatekeela Espainiako eremuko lege aldaketa defendatzen da. Azkenik, aurkakotasun espliziturik agertu gabe, baina aldi berean erabakitzeo eskubidea zalantzan jarrita, Nafarroa Garaiko taldeetan historia izan da hizpide, bereziki. Ildo horretan, herritarren erabakiaren edota borondatearen gainetik, bestelako arrazoi batzuk ere badaudela nabarmendu da. Ondoko hizlariak horrela laburtu zuen ideia hori:

*"oso desberdina da borondate hutsaren gainean, eta ez dut borondatea epaitzen, ezer sortzea boluntarismotik... eta oso hurbilekoa den zerbait berreskuratzea [Kataluniari buruz ari da lehen kasuan, Eskoziaz bigarren]. Hori garrantzitsua da, jendearen borondatean soilik oinarritu behar badugu, ikusi beharko litzateke gehiengoaren afera eta lurraldearen gaia nola zehazten diren"* (4.T-Iruñea).

## Euskal Estatu bati buruzko iritziez

Aztergai ditugun talde horietan orokorra da Euskal Estatuaren aurkako iritzia, eta argudio desberdinak erabiltzen dira kontrakotasun horri eusteko. Arrazonamendu batzuk ideologikoak dira, hots, burujabetza prozesuak eta estaturik gabeko nazionalismoak berez txarrak direla uste dute taldeetako parte-hartzaileek direnak: "*Badakizu zer gertatzen den subiranotasunekin? Bereizketa sortu, mugak jarri, pertsonak diskriminatzeaz gain?*" (7.T-Gasteiz). Argudiatze horiekin batera, dena den, bestelako ikuspegiak ere defendatzen dira, jarraian ikusiko dugunez.

### *Egingarritasuna: Euskal Estatu ez da posible*

Eztabaida taldeetan Euskal Estuari buruzko aurkakotasuna funtsatzeko adierazitako argudio nagusietako bat estatu horren egingarritasun eza izan da. Iritzi hori askotariko faktoreei loturik azaldu da: eskaera sozialik eza, estatuaren aldeko erreferendum bat irabazteko ezintasuna, edo estatu horren gaineko bestelako hertsapenak: Europar Batasunak ez luke onartuko, Espainiako edo Frantziako legeek ez dute aukera hori aitortzen, eta abar: "*nire buruari galdetzen diot erreferendumak zein forma eduki beharko lukeen, izan dadin konstituzionala eta oinarri juridikoak izan ditzan, beti ere nazio hori nazionalki eta internazionalki onartua izan dadin*" (12.T-Baiona). Oro har, Euskal Estatuaren aurka agertzen direnek ez dute estatu hori posible ikusten: "*Niretzat [Euskal Estatu] politika fikzioa da!*" (9.T-Bilbo).

Euskal Estatu egingarria ez dela defendatzerakoan, gure taldeetan nabarmendutako iritzia izan da Euskal Herriko gizarteak ez duela halako proiekturik nahi, nahiz eta, aldi berean, erreferendum bat egiteko aukerak daudela adierazten den: *“Euskal Estatu independente bati dagokionez... nik erreferendum bat bai ikusten dudala. Orain... zer aterako litzatekeen? Nik uste orain bertan ezezkoa aterako litzatekela”* (2.T-Barakaldo). Talde horietan “nazionalisten” gaitzat hartzen da Euskal Estatuaren proposamena, eta ez jende “normalaren” edo euskal nazionalista ez direnen kontutzat; beraz, ezinezkotzat jotzen dute: *“Nik uste orain bertan bidea moztua duela, bidera ezina ikusten dut”* (7.T-Gasteiz). Ideologia zehatz bat duen jende-talde baten asmoa da Euskal Estatu haien ikuspegian (“euskal nazionalistak”, “abertzaleak” edota “haitetako batzuk” aipatzen dituzte solasaldian proposamen horren eroale direnak izendatzeko), baina ez jende arruntarena.

Iritzi horrekin batera, Nafarroako taldeetan esanguratsua izan da estatu propioaren eztabaida Nafarroako errealitatetik at ikustea (kasu bakanetan izan ezik, Nafar Estatuaz ere ez dute hitz egin ikertzaileak aipatu arte). Ikuspegi horren arabera, Euskal Estatu bati buruzko eztabaida Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren afera da; eta gaia Nafarroan mahaigaineratuko balitz, aurrera ez lukeela egingo defendatzen da, irmo: *“Apustu egingo nuke eskua, eta behatz guztiak mantenduko nituzke, Nafarroan erreferenduma egingo balitz Euskal Herriarekin batera estatu egin nahi dugun galdetuz, erruz ezezkoa aterako litzatekeela”* (8.T-Iruñea). Dena den, estatu propioaren aurkakoek gai hori Nafarroako errealitatetik kanpo hautematen dutela adierazten duten arren, aldi berean, leku oso handia izan du euren eztabaidan abertzaletasunak Nafarroan duen balizko indarrak.

Bestalde, Ipar Euskal Herriko arrazonamendua aldendu egiten da ildo nagusi horretatik. Euskal Estatu bat sortzea ezinezkoa dela esatean, arrazoi demokratikoetan oin hartzen baitu gehien bat hango solaskideen diskurtsoak. Zehazki, erreferenduma inoiz egitekotan, emaitza zilegia eta loteslea izateko, indarrean dagoen Konstituzioari men egin beharko liokeela, eta beraz, Frantzia guztiak parte hartu beharko lukeela arrazoitzen dute. Frantziako legedia abiapuntu hartuta, Frantziako herritarrek behar lukete izan, ezinbestean, prozesu demokratiko horren subjektu politikoa: *“Horren aurka nago ni. Nik uste prozesua denon prozesua dela. Frantziar guztiez ari naiz. Eta konstituzioari dagokiola erreferenduma eta erreferendum horretatik ateratako emaitza, herritar guztien engaiamenduaren emaitza dela, herritarren botoena, frantziar guztiena”* (12.T-Baiona). Kasu horretan ere, Euskal Estatu lortezin jotzen da, baina Frantzia osoaren parte hartzearekin ezezkoa aterako litzakeelako.

Beraz, herritarren gehiengoaren nahiei erreferentzia egiten diete iritzi ildo horiek, gizarteak halako proiekturik ez duela nahi defendatzean. Are gehiago, hizlarietako batzuei bitxia ere egiten zaie Euskal Estatuaren proposamena. Nolanahi ere, balizko estatuaren egingarritasun eza argudio nagusi bilakatu da talde horien diskurtsoan, beste arrazoiketa ildo guztien gainetik; eta argudio demokratikoa (jendearen gehiengoak estatu hori nahi ez izana) bigarren mailan geratu da.

Balizko Euskal Estatu bideragarriezina denaren ideia indartzeko arrazoi politikoa eta ekonomikoa mahaigaineratu dira, besteak beste. Arrazoi ekonomikoa garrantzitsu jo dira. Izan ere, motibo ekonomikoen Euskal Estatuaren aurkako argudio-ildo zentraletako bat osatu dute talde horien kontakizunetan. Horrela, *“Nik uste Eskozian, Katalunian eta Euskal Herrian ez litzatekeela bideragarria, inbertitzaileek ez zaituztelako babestuko, eta babesik ematen ez badizute galduta zaudelako, Greziaren pareko zaude.”* (9.T-Bilbo). Arrazoi politikoei dagokionez, talde batzuetan abertzaleen arteko batasun eza aipatzen da, edota EAJK proiektu hori ez duela bultzatuko, besteak beste.

Ildo berean, Euskal Estatuaren bideragarritasuna zalantzan jartzeko arrazoibide funtsezkotzat jo da estatu sortu berria Europar Batasunetik kanporatua izango litzatekeela eta, hori gertatuko ezean ere, Espainiako estatuak haren aurkako jarrera gogorra erakutsiko lukeela; *“estatu independente gisa azaltzen zaren momentutik EBtik ateratzen zara, horrek dakarren on eta txar guztiarekin”* (8.T-Iruñea). Oso zabala izan da iritzi hori Euskal Estatuaren aurkako ikuspegia erakutsi duten herritarren artean, baita Euskal Estuarekin buruzko aurkakotasun argirik ez dutenen artean ere:

*“baina ulertuta dudanez, estatu berri bat eginez gero EB-ean sartu nahi duten herrialdeen zerrendaren amaieran jartzen zara. Alegia, independente bilakatuz gero, egun ezinezkoa da EB-ean automatikoki sartzea”* (10.T-Portugalete).

*“Edozer erabaki genezake, arazoa ondoren dator, horrek ekar ditzakeen ondorioetan. Espainiatik banatuz gero, nola sartuko gara gero EB-ean? Izan ere EB-ekoak izan ezean ezin dugu ezer egin”* (11.T-Arrasate).

Azken diskurtso horietan iduri du Euskal Estatu eraikitzeke ezintasuna herritarren borondatearen gainetik dauden instantzietan kokatzen dela, bai Europar Batasunari erreferentzia eginda, bai Frantziako edo Espainiako legee erreferentzia eginda: *“Nazio frantsesaren zatiketa egingo duzun heinean, konstituzioan bermatua dagoen lurralde osotasuna aldatzera zoazen heinean, nik ez dut ikusten Euskal Herri mailan egin nahi den erreferendumari zilegitasuna emango dion inolako oinarri juridikorik dagoenik”* (12.T-Baiona).

### *Euskal Estatu, arazo iturri: ekonomia okerrera*

Esan dugun bezala, Euskal Estatuaren aurka agertu diren hizlariak garrantzi handia eskaini diote ekonomiari. Bi argudio-ildo nagusi bereizi daitezke zergati ekonomikoaren barruan. Batetik, estatu baten presentziak egoera ekonomikoan hobekuntzarik sorraraziko ez lukeela aditzera ematen duena. Esaterako, Baionako elkarrizketatuek azaldu dutenez, Euskal Estatu bat sortzeak ez du bermatzen ekonomikoki independente edo burujabe izatea, besteak beste, bankuek duten elkar menpekotasuna desagerraraztea utopiatzat jotzen dutelako: *"baina ze oinarriekin? (...) gaur egun jakinik bankuek banku amerikarren menpe daudela, proposamen utopikoa iruditzen zait"* (12.T-Baiona). Arrazoi horrek estatu propio bat izateak abantaila ekonomikorik ekarriko ez lukeela pentsatzera daramatza elkarrizketatuak, eta hobekuntza ekonomikorik ez egotea, hots, ekonomikoki orain arte bezala jarraitzea, bada aski arrazoi estatuaren alde ez egoteko, haien ustetan. Bestetik, egoera ekonomikoa berdintsu mantentzetik urruti, okertu egingo litzatekeela defendatzen duen ildo diskurtsiboa ere agertu izan da. Izan ere, Euskal Estatu batekin ekonomiak okerrera egingo lukeelako iritzia nabarmena izan da hainbaten artean: *"hondamen ekonomikoa izango zela sinetsita nago"* (7.T-Gasteiz). Ideia hori modu sinplean aipatu da, sakondu gabe, baina badirudi Euskal Estatu egonkortasun ezarekin eta gatazkarekin lotzen dela taldeotan, eta aldagai horiek ekonomia okertzearekin erlazionatzen direla: *"Egia da dirua falta denean asko sumatzen dela, gatazka guneetatik alde egiten du eta orduan..."* (9.T-Bilbo).

Ekonomiaren okertzearen ikuspegi hori estatu berriaren egingarritasun ezarekin loturik dago, beraz. Izan ere, estatuaren aurkako iritzi ildokoek etorkizun ekonomiko iluna marrazten dute estatu berrian. Nahiko zabaldua izan da ikuspegi hori gure hizlarien artean –Euskal Estatuaren aurkako iritzia dutenen artean, beti ere–; eta independentziaren kontrako argudio nagusia izan da batzuetan. Horrela, ekonomiak txarrera egingo duenaren ustea sentimenduen gainetik (nazio identitateari erreferentzia eginez) ipini izan da, eta esparru arrazionalerako argudiotzat erabili da: *"Niri, gaur egun Europa dagoen moduan ikusita (...) ez zait iruditzen banaketarako momentu egokia denik. Maila emozionalean ikusten dut, baina maila ekonomikoan eta politikoan erruleta errusiarra dela iruditzen zait"* (9.T-Bilbo).

Motibo ekonomikoaren barruan, beste zenbait gai indartsu azpimarratzen dira, gizarte segurantzarena eta pentsioena, esaterako. Hala, Euskal Estatu batean pentsiodunen egoera okertu egingo litzatekeela adierazten da, batzuetan (Eskoziako erreferendumaren testuinguruan gai horrek izan zuen garrantzia gogorarazita, zenbaitetan), edo ez liratekeela pentsioak kobratuko esaten da, beste batzuetan: *"Baina hau banatzen bada, gizarte-segurantza bertan behera gera daiteke. Eta pentsioa kobratzen dutenek, behar bada, ez lukete gehiago kobratuko (...) Hots, [Euskal Estatuaren] ideia horrekin [oraingo] maila ekonomikoa pikutara joango litzateke"* (9.T-Bilbo). Euskal Estatuaren aurkako argudio nabarmena da ekonomiaren okertzea, beraz; eta okertze hori herritarren bizi mailaren apaltzearekin lotzen da, oro har. Dena den, badira zalantzak horren inguruan, eta informazio eza ere maiz aipatzen da:

*"Euskadik asko esportatzen du ere, baina uste dut argitu beharko beharko luketela nola hornituko garen eta abar. Datu asko falta zaizkit"* (9.T-Bilbo).

Aurkako jarrera nagusi den taldeetan, beraz, iritzi hedatua izan da Euskal Estatuaren sorrerarekin batera euskal ekonomiak txarrera joko lukeela. Dena den, eta kontraesaneko bada ere, Euskal Estatu batean egoera ekonomikoa hobea izango balitz, jarrerak aldatuko litzuketela adierazi dute hizlariak. Areago, jarrera aldatzekotan, hobekuntza ekonomikoaren bermeak bultzatuta aldatuko luketela adierazi dute hainbat taldetan. Hala ere, ez dute ideia horretan gehiegi sakondu, ezta baieztapen sendorik eman ere. Izan ere, lehen esan dugun bezala, Estatu berriaren ideia "nazionalisten" kontutzat hartzen dute:

*"(...) bestelako produkzio sistema bat sortuko dela saltzeko gai bada inor, berria eta originala dena, behar bada denak pozik geundeke, eta ni aurrenekoa. Bizi naizena baina hobe biziko nintzakeela erakusten badidate..."* (9.T-Bilbo).

*"Bermatzen badidate, gertatuko denik uste ez dudana, independentzia bozkatzuz etorkizun sozioekonomiko hobea izango dugula, ni naiz baiezkoa bozkatzan aurrena"* (7.T-Gasteiz).

### *Ondo bagaude, zertarako aldatu?*

Balitzo Euskal Estatu baten ekonomiaren irudikapen ezkorra egiteaz gain, Euskal Estatuaren aurka posizionatzeko unean edo, bederen, Euskal Estatu hori beharrezkoa ez dela adierazterakoan, konstatazio oso nabarmena da gaur egungo egoera sozialaren balorazio positiboa egiten dela aztertzen ari garen herritarren artean. Hau da, gaur egun gizartearen gehiengoak dituen bizi baldintzei buruzko ikuspegiak askotarikoak izan badira ere (Euskal Herrian "ondo bizi garela" dioen ideia nagusitu da, denen



artean), Hego Euskal Herriko taldeetan iritzi orokortua izan da Espainian baino hobeto bizi garela. Ideia hori, baina, ez da independentziaren aldeko argudio gisa erabiltzen; aitzitik, gaur egungo egoeraren balorazio baikorra Euskal Estatuaren aurkako argudio garantzitsu bilakatzen da: ondo bagaude, zertarako aldatu?

Oro har, azken urteetako autonomien egitura politiko-administratiboek euskal gizartean utzitako arrasto sakonaren isla agertzen zaigu hain zabaldua dagoen ideia horretan. Izan ere, egoera sozialaren eta ekonomikoaren ikuspegi baikor horretatik abiatuz, Hego Euskal Herriko egungo egitura autonomikoaren onurak azpimarratzen dira eztabaida taldeetan, Nafarroako Foru Komunitatean nahiz EAEn. Horrela, Euskal Herriko lurraldeetan –talde bakoitzean eremu autonomiko jakin batez mintzo dira, noski– gaur egun badaudela eskuduntza oso zabalak azpimarratzen da, arlo ekonomikoan batez ere. Hortik ondorioztatzen da Euskal Estatu ez dela beharrezkoa; edo zalantzak agertzen dira balizko estatu horrek ekarriko lituzkeen onurez. Eta, azken batean, proiektuaren beharra ukatzen da. Ondoko bi pasarteak dira iritzi-ildo indartsu horren erakusgarri:

*“Nik uste Espainia izan beharko lukeela [Nafarroak], Espainiaren baitan ongi baitago bere foruekin eta abarrekin”*  
(8.T-Iruñea).

*“Guk gure diruarekin nahi duguna ezin dugula egin badiogu, horrez gain ez dakit independentziak zer esan nahi duen”*  
(8.T-Iruñea).

*“ [EAE] autonomia independenteetariko bat da”* (9.T-Bilbo).

Horrenbestez, funtsezko agertu dira ondoko gogoetak aurkakotasunaren diskurtsoetan: EAEn Espainian baino hobeto bizi gara, han baino ustelkeria gutxiago dago, hemen kudeaketa hobea egiten da, eta antzekoak. Ideia horiek ikerketarako osaturiko hainbat taldeetan agertu dira. Hala ere, Euskal Estatu baten aurkako jarrera dutenen artean ikuspegi hori ez da lotu independentziaren beharrezkin edo justifikazioarekin; bai erabili da, aldiz, egungo marko autonomikoa goraiatzeko. Beraz, Euskal Estatu baten beharra ukatzeko arrazoi bilakatu dira arrazoiketa horiek: *“hemen egoteaz harro nago, hemen jaio izanaz eta gauzak beste lekuetan baino hobe egiten direla ikusteaz, baina testuinguru autonomiko horretatik at ez diot bideragarritasunik ikusten”* (9.T-Bilbo).

Arlo ekonomikoa aipatu gabe, antzeko zerbaitek gertatu da taldeotan Euskal Estatuaren izaera demokratikoaren auziari dagokionez ere. Ikertzaileak galdetuta mahaigaineratu da gaia, gehienetan (gai hori ez baita garrantzitsua gertatu talde horietan). Eta informatzaileek ez dute uste izan balizko Euskal Estatu baten sorrerak aldaketa esanguratsurik ekarriko lukeenik politikaren demokratizazioa: *“Ez dut uste politikoen eta herritarren artean hurbiltasun gehiago egongo litzatekeenik”* (2.T-Barakaldo). Demokratizazioak garrantzia hartzen duenean, gatazka politikoari loturik egiten du, zehazki, bizikidetzaren arazoak aipatzen direnean, aurrerago ikusiko dugunez.

*Euskara: normaltasunaren eta mesfidantzaren artean*

Euskarari dagokionez, ikuspegi desberdinak aurkitu ditugu Euskal Estatuaren aurka agertu diren taldeen eta hizlarien artean. Bi multzotan sailka ditzakegu iritzi horiek, Euskal Estatuak taldeotan sortzen dituen irudikapenei dagokienez. Alde batetik, hizkuntzaren gaiari garrantzirik aitorzen ez diotenak ditugu eta, beraz, Euskal Estatu bateko egoera soziolinguistikoa gaur egungo egoeraren jarraipen huts gisa ikusten dutenak. Beste alde batetik, euskara “inposizioarekin” lotzen dutenak ditugu. Azken ildo horretan, gaur egungo balizko ezarpena azpimarratzen dute batzuek, eta etorkizuneko Euskal Estatu batek ekarriko lituzkeen arazoak, beste batzuek.

Zein ideietan gauzatzen da lehenengo jarrera? Talde gehienetan naturaltasunez baieztatzen da Euskal Estatu batean bi hizkuntza –euskara eta gaztelania– izango liratekeela ofizial; aitzitik, frantsesa ez da aipatzen Hego Euskal Herriko taldeetan, agian EAeko hizlarietako Erkidegoa dutelako buruan, eta Nafarroakoek Foru Erkidegoa. Ipar Euskal Herriaren euskara eta frantsesa aipatzen dira, baina bi hizkuntzen arteko oreka lortzea zaila izango dela argi utzita. Bateko, frantsesaren nagusitasunak jarraituko lukeela sumatzen dutelako solaskide batzuek, eta besteko, euskara inposatuko litzatekeela eta, ondorioz, frantses hiztunetako eskubideak galduko lituzketela ziurtzat ematen dutelako besteek.

Hortaz, Euskal Herriaren –edo Euskal Autonomia Erkidegoaren eta, gutxiagotan, Nafarroaren– elebitasuna defendatzen da, herrialdearen ezaugarri gisa; eta Euskal Herria herrialde soilik euskalduntzat hartzea gaitzesten da: *“uste dut nire aberria elebiduna dela eta beti izan dela, historiaurreko garaia kenduta (...) Ez dago arazorik”* (9.T-Bilbo). Horrelako iritzia gailendu dela dirudi, hau da, euskarari garrantzirik aitorzen ez diona, eta euskara urruneko errealitatetzat bizi duena.

Gorago esan den bezala, bigarren jarrera bat ere ageri da euskarari buruz. Hala, beste talde batzuetan balizko Euskal Estatu batean euskara hizkuntza ofizial bakarria izango litzatekeela adierazi da. Eta egoera horri buruzko aurkakotasun irmoa erakutsi da. Batzuek uste dute administrazioan, gutxinaka, euskara soilik erabiltzeko joera garatuko litzatekeela, baina gizartean gaztelaniak nagusi izaten jarraituko lukeela: *"Gaztelania ez litzateke kaleko edo familia arteko hizkuntza gisa galduko, baina ofizialtasunean galduko luke"* (2.T-Barakaldo).

Maila horretara iritsi gabe, hala ere, Euskal Estatu batean hizkuntzari lotutako "arazoak" areagotu egingo liratekeela iritzen da zenbaitetan (euskara gaur egun baino gehiago bultzatuko litzatekeelako, adibidez), baina ez da ideia horretan sakontzen. Hari beretik, Euskal Estatuaren aurkako herritarrek hizkuntzari buruz dituzten iritzietan esanguratsua da askotan aipatzen dela Katalunia, herrialde hartan katalana "inposatzen" dela adierazteko. Euskal Herriarekin alderaketa eginda, batzuen ustea da EAEn ez dela halakorik gertatzen (9.T-Bilbo). Baina, beste batzuetan euskararen inposizioaren arriskua azaleratzen da diskurtsoan eta, horrekin batera, euskararen baliagarritasuna ipintzen da zalantzan: *"euskaraz ez badakizu eta inposatzen badizute... Ingelera balitz, 800 milioi pertsonen hitz egiten dutena... baina euskara jakiteak ez dizkizu hemendik at lanpostuak eskaintzen"* (8.T-Iruñea).

Azken finean, euskarari buruzko iritzi ezkorra Euskal Estatu baten irudikapenarekin baino gehiago lotzen da gaur egungo eztabaidekin, aztertzen ari garen diskurtsoan (administrazioan euskara eskatzea aipatzen edo salatzen da, adibidez). Diskurtso orokortua osatu gabe aurkitu badugu ere, etorkizuneko Euskal Estatu batean euskarak bete beharreko paperari buruzko mesfidantza ugari atzeman dugu hizlarien adierazpenetan: *"[Abertzaleei buruz] Haien konstituzioa egingo lukete, euskara hizkuntza ofizial gisa inposatuko lukete eta... demokratikoki kanpora begirako aldetatxoren bat besterik ez (...) gustatzen ez bazaizu, joan zaitez Espainiara"* (2.T-Barakaldo).

### *Identitateak eta bizikidetzak, Euskal Estatuaren ahulgune*

Euskal Estatu baten ideiak aurkako jarrera duten elkarrizketatuen artean sortutako erreakzioetan sakondu nahian, bestelako argudiatze ildoak ere atzeman ditugu. Dagoeneko adierazi dugu talde horietan estatuaren aldarrikapena euskal nazionalisten gaitzat edota gai identitariotzat hartu dela (biek ala biek modu ezkorrean ulertuta, oro har). Inolaz ere ez da jotzen beraiei edo abertzale ez direnei dagokien auzi moduan. Horiek horrela, independentziaren aldeko motibo bakarrak nazionalismoa bera eta nazio identitatea direla adierazten da elkarrizketatuen kontakizunetan, eta argi baieztan da ez dagoela bestelako arrazoirik Euskal Estatu bat eskatzeko. Kontuan hartuta taldeetan gai ekonomikoek nahiz egoera sozialak hartu duten zentraltasuna, iritzi hori Euskal Estatuaren aldarrikapenaren ahulgune gisa har daiteke. Izan ere, herritar horiek beren diskurtsoan garrantzitsutzat hartu dituzten gaietatik eta interesetatik urrun ikusten dute Euskal Estatuaren erreibindikazioa. Batzuek beren espainiartasunetik eraiki dute aurkako iritzia (frantziartasunari buruzko aipu zehatzik ez da egin); eta beste batzuek, espainiartasuna nahiz frantziartasuna azpimarratu gabe –are, ukatu gabe ere–, independentziaren aurkako ikuspegi bera mantendu dute: *"ni ez naiz behin ere espainiar sentitu (...) baiezkotan pentsatzeko gustatuko litzaidake sentipen [euskal] nazionalista duten pertsonen aski argudio eman liezadaketela"* (8.T-Iruñea).

Azken finean, sentimenduarekin eta identitatezko gaiekin lotzen da Euskal Estatuaren aldarrikapena. Hala ere, arlo diskurtsiboan, identitate espainiarrean oinarritu beharrean, batzuetan, *nazionalismoari* buruzko ustezko urruntasunean ere oinarritu da Euskal Estatuaren aurkako kontakizuna herritar horien artean. Aurkako iritzi horiek, praktikan, espainiar nazionalismoarekin eta, areago, haren aldaera hutsalarekin dute lotura. Izan ere, nazionalismo hutsalak ezkutatu egiten ditu nazioari buruzko loturak eta identifikazioak, eta herritarren inkontzientearen esparrura eramaten ditu osagai horiek. Ildo horretan, pertenez sentimenduz hitz egitean, hizlari batzuek euren espainiartasuna azpimarratu dute eta, beste batzuek, hura ukatu eta toki identitatea nabarmendu dute. *"Ni ez naiz espainiar ikusten, ni bilbotar sentitzen naiz (...) eta europar. Baina espainiar edo euskaldun izatearen artean, aukera ez dut argi"* (9.T-Bilbo). Eta den-denek azaldu dute Euskal Estatuaren aurkako iritzi argia.

Identitateaz eta kidesan sentimenduz ari garela, azpimarratzekoa da herritartasuna, oro har, ez dela argudio garrantzitsua izan Euskal Estatuaren aurkako hizlarien artean. Orokorrean, ez da zalantzan jartzen gaur egun ofizialki Euskal Herriko lurraldeetako biztanleak diren herritarrek izango luketela herritartasuna Euskal Estatu batean. Ikertzaileak galdetuta soilik aipatu da gaia, eta zalantza orokorrak besterik ez ditugu eskuratu, estatuen herritartasuna jaiolekuari guztiz lotzen zaiolako: *"Ni bertokoa naiz bertan jaiotako, baina Salamancan jaiotako nire gurasoak, immigranteak izango ziren?"* (11.T-Arrasate). Areago, abertzaleen artean ere Euskal Herriko kanpo jaiotakoak badaudela azpimarratzen da, *"Bilduko askok [Espainiako] hegoaldeko abizena dute"* (8.T-Iruñea); eta, hartara, euskararekin ez bezala, ez da arlo horretan mesfidantza eranguratsurik atzematen.

Hain zuzen ere, mesfidantza herritartasunaren balizko ukapenari loturik baino Euskal Estatu batean irudikatzen duten bizikidetzari loturik doa. Aipatu dugunez, Euskal Estatuaren aurkako diskurtsoaren gakoetako bat da proiektu hori gatazkarekin eta arazoekin erlazionatzen dela. Eta, beraz, Euskal Estatu baten aurkako iritzietan sustraituta dagoela estatu horretan bizikidetzak okerrera egingo lukeenaren ustea. Hala, batzuen ustez, gatazka nazionala ez litzateke amaituko Euskal Estatu batekin, *“etorkizunean balizko euskal estatu bat egongo balitz (...) behar bada Espainiarekin anexioa eskatzen hasiko lirateke hainbat”* (9.T-Bilbo). Eta, beste batzuen ustez, gizartea zatitzeko arriskua handia litzateke:

*“Printzipioz, ni ez nago nafarrek erabakitzeko eskubidea edukitzearen aurka, baina gerta daiteke Nafarroa bitan zatitzea (...) Herritarrek estatu independentea izatea erabakitzen badute, estatu independente izango gara. Baina egun hori iristen bada, Nafarroan arazo handia izango dugu. Dialektikatik harago joango ginake”* (8.T-Iruñea)

### Nafarroako ikuspegiez

Nafarroa Garaian bertako errealitateari lotutako diskurtso eta irudikapen berezkoak aztertu ahal izan ditugu. Izan ere, Estatu propio baten aurkako hizlarien artean, irmo adierazten da Nafarroa Euskal Estatu batetik at geratu beharko litzatekeela, nahiz eta iritzi hori justifikatzeko unean argudio desberdinak erabiltzen diren. Horien artean pisu handia hartu dute arrazoibide historikoek. Salbuespena izan dira Nafarroako taldeak argudiatze mota horren erabilera. *“Nafarroa Espainia baino lehenagokoa da eta uste dut Nafarroak ez lukeela Euskal Herria izan behar”* (8.T-Iruñea).

Gure ikerketaren alderdi kuantitatiboan, Nafarroan eginiko inkestetetan galdetu da ea nola ikusiko luketen EAren eta lurralde horren arteko harremanak sakontzea eta ea ontzat joko luketen Hego Euskal Herria bilduko lukeen autonomia erkidego bakar bat. Aztergai ditugun Euskal Estatuaren aurkako talde horietan oso argia da era horretako autonomia egitura baten aurkako iritzia. Iritzi hori oinarritzeko arrazoi historikoak azpimarratu dira, batik bat; eta, horiekin batera, Nafarroako gizartean ez dagoela halako eskaerarik, eta Nafarroa lau herrialdetako erkidego batean diluiturik geldituko litzatekeela:

*“Nik uste Nafarroako biztanleriaren gehienak ez duela nahi [lau herrialdeetako autonomia erkidegoaz ari da]. Bigarren, bakarrik egotea hobe delako erabaki guztiak beste lauekin batera partekatzen ibili ordez, hurbileko lehengusu-lehengusinak badira ere. Beraz, bide horrek gure gaitasunak urrituko litzuzke eta zaildu egingo luke egoera instituzionala.”* (4.T-Iruñea).

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako herrialdeentzako autonomia erkidego bateratuaren aurkako iritziekin batera, oro har, EAerekin harremanak trinkotzearen aldeko jarrerarik ere ez da atzeman estatu propioaren aurkako hizlarien artean. Izan ere, lau herrialdeen arteko harremanak estutzea etorkizuneko asmo politikoei lotzen da, are gehiago, independentziarekin, eta horrek aurkako jarrera hauspotzen du, salbuespenak badaude ere: *“Nik uste positiboa litzatekeela harreman ona edukitzea baina independentziaren gaian sartu gabe”* (8.T-Iruñea). Era berean, EAerekin harremanak indartzea ongi ikusten denean, Nafarroarekin muga egiten duten beste lurralde batzuen pareko jotzen dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, eta ukatu egiten da *Euskal Herriaren kontzeptua –edo bere adiera politikoa– une oro. Haiekin harreman ona edukitzea “[EAeri buruz] ... zergatik ez? Eta Aragoirekin zergatik ez?”* (8.T-Iruñea).

Horrenbestez, Euskal Estatuaren ideia ukatuta, Nafar Estatu bati buruzko jarrera ere izan da aztergai. Kontzeptu hori ikertzaileak proposatutakoa izan da, eta behin bakarrik aipatu du hizlari batek bere kabuz. Kasu horretan, Nafar Estatu Euskal Estatuaren sinonimotzat jo da, Euskal Herriaren ikuspegi nafarzaleari jarraiki. Baina, Estatu propioaren aurkako hizlarien artean, Nafar Estatuaren kontzeptua Nafarroa Garaian estatu independentea sortzeko proposamen gisa ulertu da. Eta gaiari buruzko ikuspegi nagusia izan da Nafarroan ez dagoela halako eskaera sozialik. Ikuspegi horretan ez dira aipatu Nafarroako euskal abertzaleak: *“Gertatzen dena da hemen ez dagoela nafarrik erreferenduma egin behar dela esanez”* (8.T-Iruñea).

Euskal Autonomia Erkidegoan independentzia prozesu batek aurrera egingo balu, Nafarroa gabe izanda ere, Nafarroarentzat kaltegarri litzatekeela irizten da taldeotan. Herrialdeko egoera desegonkortu egingo litzatekeela uste da, eta arazo ugari sortuko liratekeela, tartean kantonalizazioaren arriskua (Nafarroako udalerri batzuek estatu berria sartu nahi izango luketelako, adibidez). *“Nik uste hemen eragina izango lukeela lortuko balute [Euskal Estatu bat egungo EAEn], nahiz eta ezinezkoa dela uste dudana, ez baitira erabakitzeko ahalmena duen subjektu. Baina lortuko balitz, ezegonkortasun egoera izugarria zabalduko litzateke”* (4.T-Iruñea).

## TARTEKO MULTZOA: EUSKAL ESTATUARI BURUZKO IKUSPEGI ALDAGARRIAK

Euskal Estatu baten proposamenaren inguruan herritarren artean eraikitzen diren aldeko eta aurkako iritzia, irudikapenak nahiz diskurtsoak behatu ostean, hirugarren multzo batean jarriko dugu arreta jarraian. Hirugarren multzo hori askotarikoa da eta, hartara, zaila definitzen. Izan ere, haren izaeraren oinarria zehazgabetasuna da. Euskal Estatuari dagokionez, aldeko edo aurkako iritzietan modu hertsian sailkatu ezin izan diren iritziez eta hizlariez ari gara; eta, hartara, Euskal Estatuari buruzko erdibideko iritzi ildoak osatzen dutenez. Esparru horren garrantzia nabarmendu da dagoeneko ikerketa honen alderdi kuantitatiboan, hain zuzen ere, jarrera eta iritzien aldakortasunerako aukerak dituztelako bertan kokatzen diren herritarren taldeek. Horregatik jarrera zalantzakorra eta definitu gabea duten sektoreetara hurbiltzeko ahalegina egin nahi izan dugu ikerketaren alderdi kualitatiboan ere. Helburu hori hartuta, hasiera batean, identitate politiko zehaztugabea zuten hizlariak bilatu genituen. Ondoren, Euskal Estatu bati buruzko iritzi zehatzik erakusten ez zutenak. Hizlarion artean politikari buruzko interes eza nabaritu dugu askotan. Arazo publikoak urruntasunetik ikusten dituzte multzo horretan kokatutako herritarrek eta ardua gutxi erakusten dute nazio auziaz ere. Axolagabetasun horren harira, uste dugu esanguratsua dela hizlarion kokapen soziala aintzat hartzea. Bada, gizarte-eta kultura-maila apalek eragiten dute sarri politikari buruzko interes eza baita, behin baino gehiagotan, politikari buruzko ezjakintasuna ere. Faktore horiek guztiak hartu behar dira kontuan jarraian aztergai ditugun jendearen ikuspuntuak ulertzeko. Ildo beretik, adierazgarria iruditu zaigu eztabaida talde horietan hitzik ere esan ez duen parte-hartzaileen kopurua. Besteetan baino handiagoa izan da, nabarmen. Gaiari buruzko urruntasun osoaren erakusle da hitzik eza, eta jatorri sozialarekin nahiz generoarekin loturik agertzen da. Izan ere, gai batzuei buruzko isiltasuna (iritzi jakin bat sortzeko eta hura berbaz adierazteko gaitasun eza) are handiagoa da emakumezkoen artean eta jatorri apaleko pertsonen artean.

Labur esanda, Euskal Estatu baten aldeko edo aurkako argudio sendorik ez duen herritarren multzo batez ari gara, eta horrek esan nahi du alde batera edo bestera mugi dezaketela iritzia edo, gutxienez, balizko erabakia herritarrok, nora eta, gizartean une jakin batean nagusi den ikusmoldera, gehienetan. Nolanahi ere, egon dira erdibideko jarrera islatu duten eztabaida taldeetan gai eta auzi zehatzei buruzko interesak adierazi dituztenak ere. Puntu horiek guztiak aztertuko ditugu xeheago.

### Interesekoa ez den eta urrun ikusten den afera

Aurreko taldeekin alderatuta, beste herrialdeetako burujabetza prozesuei buruzko ezagutza eza orokorra da aipatu taldeetako hizlarion artean. Talde horietan ez dira kasu zehatzak ezagutzen eta, prozesuren bat aipatzekotan, Kataluniakoa aipatzen da, oso azaletik. Are gehiago, politikari buruzko urruntasuna eta interes falta nagusia izanik, ez zaizkie beste herrialde batzuetako erreferendumak edota independentzia eskaerak interesatzen: *"Niri bost, egin dezatela nahi dutena, ni ez naiz hor sartzen. Nik haietaz eta besteetaz paso. Nik politikaz ez dut iritzirik ematen"* (10.T-Portugalete). Ildo horretan, prozesu horiek Euskal Herrian izan dezaketen eraginari buruz ere iritzi argirik ez dago taldeotan, baina, nolabait, jarrerak zehazterakoan ikuspegi ezkorra nagusitzen da Euskal Herrian halako prozesu batek dituen aukeren inguruan: *"hemengoak bigarren plano batean uzten ari da. Ez dut ikusten garai batean bezainbeste gogo independentziarako. Gauzak asko hoztu dira"* (11.T-Arrasate). Izan ere, independentziaren eskaera gatazkarekin lotzen da, eta gatazka giroa gutxitu egin dela uste dutenez, halako ikuspegiak mahaigaineratu dira.

Aitzitik, erabakitzeko eskubideari dagokionez, printzipio gisa hartuta, aldeotasuna erabatekoa izan da talde horietan. Printzipio demokratiko moduan ikusten da, jende gehiena alde dagoela ulertzen da, eta ez da aurkakotasunik adierazten: *"Nik uste gehiengook autodeterminazioaren alde gaudela. Ez dakit independentziari baiezkoa edo ezekoa emango niokeen"* (1.T-Bilbo). Ideia hegemonikoei buruzko atxikimendu horrez gain, dena den, erabakitzeko eskubidea zehazterakoan mota guztietako iritzia aurki daitezke talde horietan: erabakitzeko eskubidea Espainiari lotzen dioten usteetatik abiatuta, eskubide hori Euskal Herriko zazpi herrialdeena dela diotenetara arte. Printzipio orokor moduan bai, baina zehaztapenik gabe, beraz.

### Euskal Estatuari buruzko ikuspegiak

Esan dugunez, talde eta iritzi ildo horietan urruna zaie hizlariari Euskal Estatuaren gaia. Ez dute interes handirik erakusten, eta ez dute gaiari buruzko jarrera zurrunik eta definiturik. Ondorioz, Euskal Estatuaz adierazten dituzten ikuspegiak, oro har, aldagarriak dirudite: gizartean –edota beren gizarte eremuetan– nagusi diren ikuspegiak adierazten dituzte, baina konbentzimendu gehiegirik gabe, gehienetan.

Horiek horrela, Euskal Estatuari buruz galdetuta, ez da oso aukera errealistatzen hartzen; hau da, taldekideek ez dute

eskaintzen Euskal Estatuaren egingarritasunari buruzko ikuspegi baikorrik. Nola edo hala, talde horiek estatu propioaren aurkako diskurtsoetatik hurbil daude arlo honetan, eta zalantzan jartzen dute Euskal Estatuaren egingarritasuna: *"nik hemen ez dut bideragarria ikusten, merkatua isten ari baitira, horrela (...) hemen dugunaz ezin gintezke bizi, kanpora atera behar gara, eta iturria isten badigute... Argitu behar den aurreneko afera ekonomikoa da, eta gero egingo dugu borroka"* (10.T-Portugalete). Ikuspegi ildo horrek, orokorra ez den arren, Euskal Estatuari buruzko zalantzazko iritzia erakutsi duten taldeek eta hizlariak arlo ekonomikoari eskaini dioten zentraltasuna islatzen du. Iritziak aldekotasunera nahiz aurkakotasunera lerratu, auzi ekonomikoak, politika sozialak eta bizi mailari buruzko ikuspegiak izan dira garrantzitsuak taldeotan, modu oso nabarmenean.

### *Euskal Estatuaren aldeko iritzia*

Euskal Estatuaren aurkako jarrera irmorik erakusten ez duten taldeak ditugu hizpide atal honetan; eta, aldi berean, beren burua abertzaleztat edota independentistatzen ez dutenak. Urrunekoak dute Euskal Estatuaren gaia. Gainera, gure hizlarien jarrera horri politikari buruzko interes eza eta ezagutza eza gehitu zaizkio, nahiko modu argian.

Euskal Estatuaren aldeko iritzia ere azaleratu dira talde horietan, hala ere. Baina haien ezaugarriak direla eta, aldeko iritzi horiek ez dute oin hartu nazio identitatean edota ideologian. Aitzitik, planteamendu pragmatikoak azaldu dituzte, eta ildo horretan, gai ekonomikoek eskuratu dute zentraltasuna. Gai horiei loturik, hala ere, aldeko nahiz aurkako iritzia islatu dira; ekonomia oso garrantzitsua gertatu dela baieztatu dezakegu, baina iritzien norabidea (estatu propioaren alde edo kontra) zalantzazkoa izan da.

Aldekotasunari dagokionez, Euskal Estatu batek herrialdeko baliabideak gertutik kudeatzea ekarriko lukeela defendatzen da, modu lausoan beti ere: *"baietz uste dut [hobe biziko ginateke] dirua hemen geratuko litzatekeelako. Gauza gehiago egin genitzake, lanpostu gehiago sortuko lirateke"* (1.T-Bilbo). Baina, ez da adierazten, zehatz, zergatik egingo ote lukeen hobera Euskal Estatuan ekonomiak edo jendearen bizi mailak, eta badirudi ildo horretan diskurtsoa garatzeko zailatasunak daudela.

Hala ere, esan dugunez, ekonomiari eta bizi mailari lotutako interesak nazio identitateari buruzko kezken gaineratik jarri dira talde horietan, modu argian gainera:

*"Niretzat ekonomikoa funtsezkoa da. NAN-a espainiar banderarekin beharrean ikurrinarekin eraman behar dudala esaten badidazu, niri bost. Baina lan aukera gehiago izango ditudala esaten badidazu, non sinatu behar den galdetuko dizut"*(10.T-Portugalete).

*"Euskal Herri independentean hobe bizi badaiteke, bertan geratuko da espainiarrena dena ere"* (10.T-Portugalete).

*"Aintzat ematen dut tradizioa eta kultura sartuko direla. Baina uste dut garrantzitsuena patrika dela."* (11.T-Iruñea).

Hortaz, iritzi aldagarria gailentzen da talde horietan. Eta egoera ekonomikoa eta bizi maila hobetu egingo direla ziurtatuz gero, gehiengoak estatu berriaren alde egingo lukeela adierazten da. Baina, indar berarekin azaltzen da aurkako iritzia ere: bizi mailak okerrera eginez gero, herritar zalantzi horiek ez lukete inolaz ere Euskal Estatuaren alde egingo. *"Lana egongo dela esaten badidate sinatzen dut, argi dut, nire interesarengatik"* (11.T-Arrasate). Aldi berean, adierazgarria izan da Euskal Estatuaren aurkako iritzi sendoa erakutsi duten taldeen kasuan ere bizi mailak eta ekonomiak garrantzia hartu dutela, eta Espainiak –Hego Euskal Herriaren kasuan– okerrera egingo balu (batzuetan aukera hipotetiko gisa hartzen bada ere), independentziaren alde egingo luketela talde horietako parte-hartzaileek: *"Espainiak %100ean hondoa joko balu, ez nuke Espainiaren baitan jarraitu nahi"* (8.T-Iruñea).

Ekonomiaren arloa alde batera utzita, talde horietan egungo marko autonomikoaren balorazio positiboa gailentzen da Hego Euskal Herriari dagokionez. "Hemengo" zerbitzu publikoak modu positiboan baloratzen dira, eta Espainiako instituzioak urrun ikusten dira: *"ospitale onenak bertan daude (...) Espainiarekin egiten dugun gauza bakarra NANA berritzea da"* (10.T-Portugalete). Aldeko taldeetan argudio horiek Euskal Estatuaren egingarritasuna defendatzeko erabili dira, eta aurkakoen kasuan egungo egoera politiko-administratiboa aldatzeko beharrik ez dagoela azpimarratzeko. Hartara, tartean gelditzen diren taldeoi dagokionez, balorazio positibo hori garrantzitsua da, baina, ez da Euskal Estatu baten aldeko jarrera batekin lotzen.

Azken finean, Euskal Estaturi buruzko posizio irmorik ez duten taldeotan ikuspegi pragmatikoa gailentzen da, beste orenen gaineratik. Ekonomiaren eta, batez ere, bizi mailaren hobekuntza jotzen da gai garrantzitsuen. Horrekin batera, beste interes batzuk ere aipatzen dira, baina modu oso lausoan, bigarren maila batean bezala. Horien artean, Euskal Estatu baten txikitasuna

gai positibo gisa ikusten da, eta erakunde politikoen gertutasuna aipatzen da: *"Nik uste estatu txikiagoa izanik, gauzak hurbilago egongo liratekeela"* (1.T-Bilbo). Baita Euskal Estatuaren errepublika izango litzatekeela ere: *"independizatzeko bagara, ez da monarkiarik egongo, hori positiboa da"* (11.T-Arrasate). Baina, aldeko iritziak agertu diren era berean, aurkakoei ere beren lekua izan dute taldeotan.

### *Euskal Estatuaren aurkako iritziak*

Aztergai ditugun talde horietan nagusi izan da auzi politikoei buruzko interes falta; eta, ondorioz, Euskal Estatu baten proiektuaren inguruko ardura eza nabarmendu da diskurtsoan. *"Erreferendum horretan bozkatu beharko banu, txanpona airera bota eta leon-kastillo aukeratuko nuke"* (11.T-Arrasate). Gaiak ez die interesik sortzen taldekideei; eta egungo egoeraren aldaketa (are gehiago, haustura, batzuentzat) dakarrenez, horrelako taldeetan aurkakotasuna gailendu da estatu propioarekiko aldekatasunaren gaineratik. Izan ere, egoera aldatu nahi duenak (eta Euskal Estatuaren alde egitea normalitatearen aurka egitea da, hein batean) horretarako arrazoiak zabaldu behar ditu gizartearen barruan, egoera dagoen bezala mantendu nahi duenak ez bezala. Horrela, *"jendeari ongi bizitzea interesatzen zaio. Ez zaio inporta (...) ez Espainia, ez Euskadi, ez Katalunia..."* (1.T-Bilbo). Gainera, hizpide dugun gaiari dagokionez, estatu berri bat aldarrikatzeak jarrera politikoa eskatzen du, kontzientea, are gehiago, nazionalistatzat hartu ohi den jarrera. Egungo estatuan jarraitzea proposatzen duenak, berriz, ez du halakorik egin behar, eta bere nazio proiektua eta nazionalismoa ikusezin geratu ohi dira.

Interes gabezia horretatik abiturik, hortaz, Euskal Estatuari buruzko aurkakotasuna atzeman dugu taldeotan. Aurkakotasun hori beldur bati lotzen zaio, batik bat: uste da ekonomiak okerrera egin lezakeela egoera berrian. Beraz, talde horiei dagokienez, errepikatu egiten dira Euskal Estatuaren aurkako iritzi ildoak, baina, oraingoan askoz ere intentsitate baxuagoarekin eta zalantza gehiagorekin planteaturik. Hortaz, Euskal Estatuaren ideia arazo ekonomikoekin lotzen da: *"hasiera gogorra izango da, hori argi dago [ekonomiari erreferentzia eginez]. Eta nik uste hori dela jendea atzerantz bultzatzen duena"* (10.T-Portugalete). Eta horrek aurkakotasuna elikatzen du, nolabait: *"Nik uste independente izanik urte asko beharko genituzkeela gutxiengoko ongizate bat lortzeko (...) Bozkatu behar dudala esango balidate estualdian jarriko nindukete"* (11.T-Arrasate).

Okertze ekonomikoarekin eta hari lotzen zaion bizi mailaren jaitsierarekin batera, taldeotan nabarmendu den aurkako beste argudio esanguratsu bat hauxe izan da: Euskal Estatuak jende xehearen bizitzetan inolako eraginik izango ez lukeela pentsatzen da. Izan ere, "politikariekin" eta beraiek bezalako "jende normala" ez direnen interesekin lotzen dute estatuaren proiektua herritar horiek. Proiektu horrek beren bizitzetara aldaketa garrantzitsurik ekarriko ez lukeenez (badirudi nazioarekin eta identitatearekin elkartzen dutela Euskal Estatu horren aldeko interesa), ez dute haren aldekatasunerako motiborik ikusten eta, praktikan, aurkako jarreraren lerratzen dira: *"Argi dagoena da gu [jende xeheari erreferentzia eginez] ez garela ezinbestekoak. EB-ak dioenak ez du ezertarako balio eta independentziarekin berdin. Guk ez dugu zer esanik."* (11.T-Arrasate). Gauza bera gertatzen da estatu berriaren demokrazia mailari edo antolaketari dagokienez: *"Demokrazia berdintsua izango da. Dauden alderdien arabera alda liteke, baina nik uste denek lapurtzen dutela"* (10.T-Portugalete).

Beraz, Euskal Estatu batek ez luke aldaketa handirik ekarriko, hizlarion ustez; eta, zentzu horretan, ez dute aurreikusten identitate talkarik ere. Estatu berrian identitate arazorik sor daitekeen galdetuta, hauxe izan da erantzuna: *"egiazki, zer da aldatzen dena? [Euskal Estatu batean] espainiar estatuaren parte zarela edo ez, ez besterik"* (10.T-Portugalete). Ildo berean, euskarari ere ez zaio garrantzi handirik aitortzen, eta ez da arazo gisa ikusten ere (Euskal Estatuaren aurkako argudio ildo batzuetan ez bezala). Dena den, batzuetan bai adierazi da agian hizkuntza ofizial bakarra euskara izango litzatekeela, baina, gehiegi problematizatu gabe: *"[Euskal Estatu batean] euskara izango da hizkuntza ofizial, baina herriarentzako hizkuntza ofiziala gaztelania izango litzateke"* (1.T-Bilbo). Jarrera hori nagusitu arren, mesefidantza batzuk ere adierazi dira, diskurtsoan guttiz nagusitu ez direnak:

*"-(...) euskara nahikoa inposatzen dute, herri independente izanik... ez dut behartua izango litzatekeenik esango, demokrazia bat izango litzatekeelako, baina kontuan hartu beharreko auzietako bat hori litzateke"*

- Eta denborarekin gehiagora joko luke

- (...)

- Nik ezetz uste dut, hemen ez zaio gaztelania hitz egiteari utzi" (10.T-Portugalete).

Auzi linguistikoari dagokionez, pentsa liteke herritarrak bizi direneko eskualdean euskarak duen egoerak eragina izan

dezakeela hizkuntzari emandako garrantzirik ezean. Horrela, eskualde euskaldunagoetan bestelako iritziak ere topatu ditugu, euskara diskriminazioarekin lotzen dutenak: “*Hau independentea balitz euskara hitz egingo litzateke etengabe. Eta ez badakizu?*” (11.T-Arrasate). Baina, esan bezala, taldeotan estatuaren aurkako jarrera ez da hizkuntzaren eta identitatearen inguruan eraikitzen.

## LABURBILTZEN: HERRITARREN IRITZIAK EUSKAL ESTATUARI BURUZ

Bildu ditzagun ondoren balizko Euskal Estatu baten inguruan molde askotako herritarrek adierazitako iritzi ildo nagusiak.

Independentzia eta erabakitze eskubidea aipatzen dute maiz gure hizlariak eztabaidetan, eta ez hainbeste estatuaren kontzeptua. Oro har, esan daiteke zailtasun handiak daudela balizko Euskal Estatu irudikatze, ezkerreko nazionalismoaren inguruko hizlari batzuen artean izan ezik.

Bestalde, erabakitze eskubideak garrantzi handia hartzen du Euskal Estuari buruz adierazitako iritziaren. Badirudi zilegitasun eskerga eskuratu duela euskal gizartean, mota guztietako taldeetan adostasun handia egon baita hura eskubide demokratikotzat jotzean. Hain zuzen ere, Euskal Estatu bidean dagoen lehenengo urrats gisa irudikatzen da estatu hori eraikitzearen alde daudenen artean. Euskal Estatuaren aurkako artean ere aipatzen da eskubide demokratiko moduan, baina, ez dago argi eskubide horren subjektua nor izan litekeen, alegia, nor izango lukeen bozka emateko eskubiderik balizko erreferendum batean, eta gaiaren inguruan ageri den zehaztasun eza salatzen da.

Estatuaren egingarritasunari dagokionez, epe luzeko kontu gisa ikusten da, oro har; oztopoz jositako bidea irudikatzen da. Alde daudenen ikuspegian, arazoak arlo politikoari dagozkio, gehienbat. Oztoporik aipatuena abertzaleen arteko batasun falta da, Euskal Estatu, batik bat, abertzaleen proiektutzat hartzen den neurrian. Baina, badira ere bestelako zailtasunak. Espainiako eta Frantziako gobernuen jarrera, adibidez, ez da, inondik inora, lagungarri ikusten, alderantziz baizik. Indarrean dagoen legeriari aurre egitea zail ikusten da, harresi moduko bat da. Eta ezkortasun horretan bat egiten dute aldeko jarrera dutenek eta Euskal Estatuaren alde ez daudenek. Izan ere, azken horientzat gainditu ezina da delako legeria.

Euskal Estatuaren bideragarritasuna dela eta, estatu berriaren alde dauden herritarrak, abertzaleak gehien bat, ez dira agertzen kezkatuta haren eraikuntzak ekar litzakeen arazo ekonomikoak; alegia, ez dute zalantzan ipintzen balizko Euskal Estatu bat bideragarria izango dela, munduan zehar dauden gainerako estatuak bezalaxe. Oro har, ez dute sentitzen beharrik horren inguruan diskurtso landurik eraikitze, estatu batez jabetzea euren eskubide *logiko* gisa ikusten dutelako. Euskal Estatu baten bideragarritasuna zalantzan ipintzen duten herritarren artean, aldiz, arrazoi nagusiak ekonomiari dagozkio. Etorkizunaren beldur ageri dira: Europako Batasunetik kanpo geratuko ginateke eta ez genuke nahikoa baliabiderik izango herritarren ongizatea bermatzeko, diote. Ideia hori indartsu ageri da Euskal Estatuaren eraikuntzarekin bat ez datozen herritarren artean, eta erabakigarria da balizko prozesu horren aurrean aldeko jarrera irmorik ez eta zalantzak dituztenen artean ere. Azkenean, bi iritzi multzo horietan, Euskal Estatu arazo iturri ikusten da, eta ikuspegi horretatik abiatzen dira haren aurkako iritziak.

Euskal Estatu zergatik eta zertarako? Abertzale direnek nazio gisa irauteko urrats logikotzat irudikatzen dute Euskal Estatu. Identitatean oinarritzen dute eskubidea: *nazio bat gara; beraz, estatu bat izateko eskubidea dugu*. Euskal Estatuak euskaldun gisa irautea bermatuko du. Eta hori eskaera guztiz demokratikoa dela gaineratzen da. Hortaz, Euskal Estatuaren beharra identitateak eta demokraziak justifikatzen dute. Ipar Euskal Herrian, bestalde, abertzale direnek eta ez direnek berdin pentsatzen dute, baina, kasu horretan, uste dute gaur egun ez dela egokia horrelako eztabaidari ekitea, oinarritzkoagoak diren urrats politikoak gauzatu behar baitira lehenago.

Euskal Estatuaren kontrako iritziaren ere agertzen zaigu identitatearen eragina, espainiarra edo frantziarra, eztabaida taldea dagoen estatuaren arabera. Nafarroari dagokionez, gainera, euskalduntasuna –edota Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko harremanak– ukatzeko leku esanguratsua eskuratu du argudio historikoak. Baina, identitateaz gain, etorkizun ekonomikoari beldurra nagusitzen da Euskal Estatuaren aurkako iritziaren: *txarrago biziko gara*. Eta, azkenik, omen gainditu ezinezko oztopoa argudiatzen dute, legeria; alegia: *ez digute utziko*.

Zeren arabera alda liteke iritziak? Estatuaren aldeko ildora batuko lirateke, itxura denez, egoera ekonomikoak edo bizi mailak hoberantz egingo lukeelako nolabaiteko bermea ikusiko balute herritar zalantziatik. Arlo politikoaren norabideaz indiferentzia da nagusi sektore horietan; baina, badirudi egoera ekonomikoaren hobekuntza aurreikusteak Euskal Estatuaren aldeko

mugimendua eragingo lukeela haiengan. Are gehiago, gaur egun Euskal Estatuaren aurkako jarrera dutenetako batzuek ere, estatu berrian egoera ekonomikoak eta bizi baldintzek hobera egingo balute, haren alde egingo lukeetela adierazten dute.

Salbuespenak salbuespen, herritar gehienek lekuz aldatzen dute gaur egun bizi den egoera soziala eta kulturala etorkizuneko Euskal Estatu batera. Esan nahi baita, estatu berria ez da errotikako aldaketa baten ondorio gisa aurreikusten. Lehenik eta behin, etorkizuneko estatuko hizkuntzari dagokionez, zenbait sektoretan euskarari lehentasun osoa eman arren eta beste batzuetan euskara mehatxu gisa ikusi arren, iritzi orokortua da euskara, gaztelania eta frantsesa izango lirakeela Euskal Estatuako hizkuntza ofizialak, egoerak hala eskatuta. Bizikidetzak kulturala, beraz, ez da ageri arazo nagusi moduan.

Elkarren ondoan biziko dira nazio identitate desberdineko herritarrak? Orokorrean hitz eginda, ez da gatazka handirik aurreikusten bizikidetzari dagokionez. Euskal herritartasuna bizilagun orori esleitzen zaio, oro har hitz eginda, eta ez da irudikatzen egunerokotasunean erabateko aldaketarik sumatuko denik. Hemen ere, orainaldia etorkizunera aldatzen da eta gure inguruko estatuen antzerako jarduna irudikatzen da. Abertzaleen ikuspegitik, espainiar edo frantziar sentitzen direnak herritar osoak izango dira, baina ez da argi geratzen nolako ondorio politikoak ekar litzakeen horrek. Euskal Estatu baten kontrako iritzia adierazten dutenen aburuz, ordea, gerta liteke nolabaiteko gatazka politikorik egotea, baina estatu berriaren aurkako argudio nagusia ez da hori, balizko ahuldade ekonomikoa baizik.

Izan ere, sarritan egiten da egungo egoeraren irakurketa baikorra. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean lortu den ongizate maila ona erabiltzen da balizko Euskal Estatu baten bideragarritasunari zilegitasuna emateko eta kentzeko, aldi berean. Herritarren arteko uste orokortua da Espainian baino hobeto bizi direla EAEko nahiz Nafarroako bizilagunak; eta, batzuen iritziz, horrek bermatzen du etorkizunean ere, estatu bihurtuta, ondo ere bizi daitezkeela. Beste batzuen ustez, ordea, ondo bizi izate horrek zentzurik gabe uzten du bestelako egituraketa politiko bat eskatzea.

Eskuratutako ongizate mailaz gain, euskal nazionalismoak lortzen duen atxikimendu sozialak justifikatzen du, sarritan, Euskal Autonomia Erkidegoari ematen zaion zereginaren garrantzia. Hala, herritar askoren iritzia da Euskal Estatura bideak EAEn izango duela abiapuntua, ezinbestean. Ipar Euskal Herrian, batez ere, argi dute *beste abiadura bat eraman behar dutela*. Nola edo hala, beraz, epeka gauzatuko den proiektu gisa irudikatzen dute Euskal Estatuaren alde dauden herritarrek eta prozesu horrek EAEn izan lezake hasiera.

Euskal Estatu eraikitzearen kontra jotzeko, are agerikoagoa da EAEn protagonismoa: Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko herritar batzuek, balizko Euskal Estatuaren kontrakoek, EAEkoen arazotzat jotzen dute gai horrekin harremanetan dagoen guztia.



**EUSKAL ESTATUAREN ALDEKO  
ENPRESABURUEN IRITZIETAN SAKONTZEN**

Orain arteko datuak begiratuta, azterketa kuantitatiboan konturatu ahal izan gara inkestatutako herritarrek ez dutela oso bideragarri ikusten Euskal Estatuaren sortzea (batez ere, alde politikotik). Azterketa kualitatiboan, berriz, Euskal Estatuaren aurkako jarrera dutenek uste dute ekonomikoki hondamendia litzatekeela, ez lukeela etorkizunik izango, eta estatuaren alde daudenek ez diote garrantzi gehiegirik eman nahi gai ekonomikoari, askotan lehenetsuna ematen baitiote estatua bera lortzeari. Bideragarritasun ekonomikoarekin jarraituta, eta datu bakarra gaineratzearen, gure ikerketaren denboran egiten ari zen beste azterketa mugatuago batean, EAEko ekonomisten artean landutako inkesta batean, %58,9k uste zuen Espainiatik kanpoko EAE independente batean egoera ekonomiko okertu egingo litzatekeela.<sup>16</sup> Eskoziako eta Kataluniako kasuek erakutsi duten bezala, estatu-erakuntza prozesuetan ekonomiaren inguruko hika-mikak eztabaida politikoaren lehen lerroan kokatzen dira nahi eta nahi ez. Halakoetan, ekonomiak eta enpresa munduak garrantzi berezia hartzen dute balizko estatu berrien sorreraren inguruko eztabaidetan, eta horregatik, era guztietako iritziak eta hipotesiak sortu ohi dira enpresaburuek balizko egoera horretan hartuko luketen jarreraren inguruan, gehienetan interesatuen beraien benetako iritzia jakin gabe.

Horretaz jabeturik, eta enpresaburuek talde oso heterogeneoa osatzen dutela jakinda, haietako batzuekin batu gara. Oso lagin zehatza hartu dugu: *Euskal Estatu baten alde egon litezkeenak*. Eta haiekin batera, alde egoteko arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen aztertu dugu. Halako laginari ez diogu, noski, inolako balio kuantitatiborik eman nahi, eta ez dugu iradoki nahi Euskal Herriko enpresaburuen jarrera orokorra hauxe bera denik; ez da hori helburua. Baina egin beharreko ariketa irudituz zaigu, egin ditugun inkestetan eta antolatu ditugun taldeetan ekonomia eta enpresa gaiek hainbesteko garrantzia hartzen dutela ikusita.

Era horretara, Euskal Herri osoko enpresaburuak elkarrizketatu ditugu (jabeak batzuetan, eta beti goi karguak), balizko Euskal Estatu baten inguruan dituzten iritziak eta jarrerak zuzenean jasotzeko, eta enpresa munduan izan litzakeen ondorioez galdetzeko. Oro har, Euskal Estatu baten alde leudekeela esan digute, baina ez zehazki haien enpresei onura zuzena ekarriko liekeelako, politikoki horrela sentitzen dutelako baizik. Hala ere, helburu politikoa izanda ere, ez dute uste Euskal Estatu batean egoera ekonomikoak okerrera egingo lukeenik, eta bai, aldiz, hobera, eta jendea hobeto biziko litzatekeela. Azter dezagun hau dena zehatzago.

## Metodologia

Esan dugunez, Euskal Estatuaren alde egon litezkeen enpresaburuak elkarrizketatu dira. Horrela, 2014ko abendutik 2015eko urrira bitartean, hogeitau elkarrizketa egin dira: hamaika Euskal Autonomia Erkidegoan, lau Nafarroan eta bost Ipar Euskal Herrian. Enpresa sektore anitzak ordezkatu dira, eta enpresaren tamainari begira ere, familia negozio txikitik hasi, eta 50 langiletik gorako enpresetara heldu gara. Jabetzari dagokionez, badira familia negozioak, kooperatibak, sozietate mugatuak eta sozietate anonimoak. Elkarrizketak euskaraz (8) eta gaztelaniaz (12) egin dira.

Elkarrizketa gidioa berdina izan da denentzat, lurralde bakoitzaren ezaugarriak biltzen zituen atala salbu. Erantzunak irekiak eta askeak izan dira. Zehatzago, gure azterketaren gai nagusiak hauexek izan dira:

- Eskoziako eta Kataluniako subiranotasun prozesuek eraginik ote duten Euskal Herrian.
- Elkarrizketatutako enpresaburuen eta euren enpresen ikuspuntutik, ea uste duten balizko Euskal Estatu ekonomikoki bideragarria izango ote zen, eta nolako ondorioak ekarriko litzatekeen.
- Elkarrizketatutako enpresaburuek Euskal Estatuari jartzen dizkioten helburuak, eta zelako jarrera izango luketen gainerako enpresaburuek.
- Euskal Estatuaren eta Europar Batasunaren arteko harremana.

<sup>16</sup> %25,2k, berriz, egoera hobetuko litzatekeela uste du, eta %15,9k berdin geldituko litzatekeela (2014an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ekonomisten Elkarteko kide batzuei egindako inkesta. *Ekonometroa*, 2014 abendua, in Ekonomista, Ekonomisten Euskal Elkargoa)

## EUROPAKO PROZESU SOBERANISTEN / INDEPENDENTISTEN INGURUKO EZAGUTZA ETA IRITZIA: BADAGO KONPARATZERIK?

Sarrera modura erabili den gai hau ondo ezagutzen dute elkarrizketatutako enpresaburuek, eta interesa piztu du haiengan, Euskal Herrian ere kontuan hartzekoa delakoan, beste esperientzietatik ikasteko asmoz. Era horretara, Eskoziari buruz, batek dio "gauzak ondo egiteko eredu" gisa hartu behar dela, eta Kataluniari buruz, "herritik sortutako prozesua" izan dela (EE-1).<sup>17</sup> Beste batek, aldiz, Europar Batasunaren arazoa agertzen du Kataluniako prozesuari lotuta, beldur baita han independentzia prozesu bat burutuko balitz, baina akordiorik gabekoa, Kataluniaren hondamena eragingo lukeela (EE-9). Kataluniako kasuan, adostasunerako dagoen arazoa azpimarratzen dute askok, Espainiako gobernuaren *itxikeriak* eraginik beti. Horren aurrean, demokrazia handiagoa aldarrikatzen dute, Espainiako gobernu herriari galdetzeko bide guztiak ixten ari dela uste baitute.

Baina, zer eragin eduki lezakete prozesu horiek Euskal Herrian? Iritzi desberdinak jaso ditugu, baina eragin posiblerik airtortzen dutenek ere uste dute errealitate desberdinak direla Eskoziakoa eta baita Kataluniakoa ere, eta zuhurrak izan behar dugula horren aurrean. Zalantzak daude, hortaz, eta zalantza horiek iturri desberdinak dituzte. Ekonomiaren aldetik datoz batzuk. Horrela, elkarrizketatutako batek argi du Kataluniako prozesua oso lotuta dagoela egoera ekonomikoarekin: "ez hainbeste Espainiaren kontrako sentimendu bategatik, baizik eta banatuta egonda aberatsagoak izango direla uste baitute" (EE-11). Baina, bere ustez, Euskal Herrian ez dago hain zabaldua sentimendu hori, besteak beste "guk ekonomiari dagozkion tresna gehienak ditugulako: badugu kontzertu ekonomikoa, ogasunak..." (EE-11). Beste batek ere aldagai ekonomikoa aipatzen du independentziaren ezintasuna adierazteko: "Hainbeste inpaktu ekonomiko izanda, ez dut uste hemen egin ahalko denik (...) eszenatoki ideal batean izugarria izan liteke, baina ez dut uste hori gertatuko denik" (EE-9).

Alde ekonomikotik at, arrazoi politikoak ere inportanteak dira Eskoziak eta Kataluniak Euskal Herrian izan lezaketen eraginaz zalantza egiteko. Sentsazioak ez dira onak, arrazoi desberdinak direla eta. Batek euskal herritarren arteko konfiantza falta aipatzen du, baita erabakitze eskubidearen alde egon daitezkeen aldetik ere, azken 50 urteetako gatazkak eraginik. Era horretan, ezintzat jotzen du eskubide horren alde langileak eta zuzendariak batera publikoki agertzea. Alde horretatik, Eskozian eta Katalunian askoz giro sozial lasaia goa eta aldekoagoa izan dutela uste du (EE-6). Azken batek ondo laburbiltzen du egoera Katalunia eta Euskal Herria alderatzean: atsekabe maila desberdina ikusten du leku batean eta bestean. Katalunian altuagoa da maila, eta hori bere ustetan beharrezkoa da prozesua abiarazteko: Euskal Herria aurreko fase batean omen dago oraindik, baina epe ertainera egoera alda liteke (EE-10).

### Non egon litezke oztopo nagusiak Euskal Herrian halako prozesua abiarazteko?

Iritzi desberdinak agertu dira, baina bi oztopo nagusi nabarmendu daitezke: kanpotik begiratuta, espainiar estatuaren jarrera itxia eta borondate falta; eta Euskal Herriatik begiratuta, gizarteak oro har, eta alderdiek bereziki, elkarrekin lan egiteko duten gaitasun eta interesik eza.

Espainiaren borondate falta oztopo nagusizat hartzen dute batzuek. Batek oso ondo laburbiltzen du, hitz gehiegirik gabe: "Estatu Espainiarrean (...) hor dago oztoporik handiena" (EE-15). Jarrera horretan interes ekonomikoek garrantzi handia dute berriro: "ziurrenik Espainian ez dute nahi izango zu independente izatea (...) Uste dut, beste faktoreen gaintik, faktore ekonomikoa dela eragingarriena independentzia prozesu bat burutu ahal izateko" (EE-9). Aurrekoarekin lotuta, energiaren sektoreko enpresaburu batek dioenez, Espainiarentzat Euskal Herriko eta Kataluniako industria oso garrantzitsuak dira, eta horrek guztiz baldintzatzen du Espainiaren jarrera (EE-5).

Interes ekonomikoez gain, jokaera politikoak eta marko juridikoa aipatzen dira Espainiaren jarrera itxia azaltzeko orduan. Britainia Handiko eta Espainiako gobernuak konparatzen dira askotan, eta ez da ikusten inolako aukerarik Espainiakoak errepika dezan Britainia Handikoak Eskoziako prozesuarekin hartutako jarrera. Elkarrizketatu batek uste du Espainiaren zuhurtzia politiko falta mendeetakoa dela, eta horri ez dio laguntzen Europar ikusten duen kalitate demokratiko baxuak (EE-13).

Bigarren oztopo multzoari dagokionez, Euskal Herriatik bertatik sortzen direnei, gatazka politikoa agertzen da, jakina: "guztiz ezabatu ez den historia bat daukagu, oraindik ere badago oso uzkurra den jendea" (EE-13). Elkarrizketa batzuetan

<sup>17</sup> Sarreran esan dugunez, elkarrizketatuen anonimotasuna gordetzearen, ez dugu egingo identifikazio zehatzik. Batzuetan, elkarrizketatuen sektorearekin eta lurraldearekin identifikatuko ditugu haiek esandakoak. Bestalde, elkarrizketatuen aipamen guztiak euskaraz emango dira bertsio honetan. 4. Eranskinean ikus daiteke zein izan zen bakoitzaren hizkuntza.

asko errepikatzen da orain arteko gatazka armatua eta ETAre jarduerarena, eta oztopo nagusi modura ere seinalatzen dute elkarrizketatuek: *"Uste dut ETA disolbatu arte hori ezin izango dela planteatu"* (EE-7). Kontrako aldetik, batzuek EAJri leporatzen diote aurrera ez egitea, gaur egun ez baitu borondaterik agertzen halako prozesuetan laguntzeko. Alderdien eragina nabaria da, ikusten denez. Batek argi dio: *"prozesuen eragina alderdien bultzadaren araberakoa izango da. Egungo egera kontuan izanik, uste dut hori urrun dagoela"* (EE-7). Egoera horrek independentziaren aldeko prozesua abiarazteko aukerak ahuldu egiten dituela uste dute gehienek, eta horregatik, alderdien nagusitasun horren aurrean, batzuek gizarte mugimenduen protagonismo handiagoa beharko litzatekeela diote, Katalunian gertatu den bezala.

Iritzi horiek oso konpartituak dira elkarrizketatutako enpresaburuen artean, hots, balizko Euskal Estatuaren alde egon daitezkeen mugimenduek eta alderdiek elkartu eta oinarri komun bat izango lukeen proiektu erreal bat ezarri beharko luketela horrelako prozesu bat abiatu ahal izateko. Hala ere, elkarrizketatutako hiru enpresaburuk (EE-3; EE-1; EE-12) bat egiten dute benetako oztopoa euskal jendarteak gaur egun horretarako duen borondate falta dela baieztatzeko orduan.

Azken oztopo garrantzitsua falta da oraindik, lurraldetasunarena. Ipar Euskal Herriko elkarrizketatu batek uste du EAEn posible dela halako prozesua abiaraztea; zalantza du Nafarroa Garaia buruz; eta Ipar Euskal Herrian ez omen du egun aukerarik ikusten. Hala ere, oso positibotzat joko luke Hego Euskal Herrian prozesua abiaraztea, zeren *"horrek eragina izango luke Iparraldean ziur."*

## EUSKAL ESTATUAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAZ

Bestelako faktoreak etengabe gurutzatzen badira ere, elkarrizketatuei esan zaie ahalegin berezia egin dezatela Euskal Estatu baten aukera ekonomiaren ikuspuntutik aztertzeko, ea bideragarria ote litzatekeen. Independentzia prozesuetan eztabaida handia sortzen duen gaia da bideragarritasun ekonomikoarena, Eskozian eta Katalunian ederki frogatu denez. Aurreiritzi eta interes handiak daude eztabaidan, noski, eta hori dela eta, gai horretan kualifikazio berezia dutenei galdetzea ezinbesteko ariketa iruditu zaigu, balizko egoera horretan irabazteko edo galtzeko asko baitute Euskal Herriko enpresaburuek.

Oro har, adostasun handia dago balizko Euskal Estatuaren bideragarritasun ekonomikoari dagokionez, eta hala erakusten dute jasotako iritzi gehienek, egoera positiboa eta baikorra marrazten baitute: *"ez bakarrik bideragarria, nire ustez aterabide bikaina izango litzateke"* (EE-13). Iritziari eusteko, elkarrizketatutako enpresaburu gehienek uste dute Euskal Herriak (EAEk kasu batzuetan) badituela ezaugarri ekonomiko eta enpresarial egokiak estatu bat sortzeko, ekonomikoki bideragarria izango litzatekeena: *"gutziz bideragarria. Europako herri aberatsenatarikoa izateko enpresa eta giza gaitasuna daukagu"* (EE-11). Argudio objektibo zein subjektiboak erabiltzen dira, ikusiko dugunez.

Datu objektiboak aipatzen dira batetik: egungo adierazle ekonomikoek horixe frogatuko lukete. Oro har, bizitza kalitateari dagokionez, euskal gizarteak Europako, eta baita munduko, adierazle altuenetakoak ditu (EE-10). Zehatzago, aholkularitzan ari den enpresaburu batek Euskal Herriko garapen industrialari zein langabezi tasari dagozkien adierazleak aipatzen ditu, Euskal Herriaren abantaila-posizio hori seinalatzen dute eta. Finantzen sektoreko beste enpresaburu batek uste du Euskal Herriarentzat (EAErentzat ulertu behar da) Europa mailako laguntza ekonomiko zuzenak diru sarreren %5 baino gutxiago izateak bere gaitasun ekonomikoa erakusten duela, eta, aldi berean, horrek balizko Euskal Estatu ekonomikoki bideragarria izan litekeela frogatzen duela pentsatzen du, kanpoko diru-laguntzen menpekotasunik ez dagoelako (EE-10). Diru laguntzen gaiarekin jarraituz, beste batek ere argudiatzen du Euskal Herria ez dagoela kanpoko laguntzen zain aurrera egiteko: *"ez dugu Espainiako edo Europako diru-laguntzen menpekotasunik bizirauteko, are gehiago, estatu independente batekin dirua irabaziko genuke kupoa ordaindu behar ez genukeelako (...). Ekonomikoki ezingo ginatete okerrago egon, apur bat hobeago egongo ginatete. Errekurtso gehiago eta gastu gutxiago izango genuke. Ezezaguna litzatekeen aldagai bakarra besteen erreakzioa litzateke"* (EE-11).

Baina zein izan liteke besteen erreakzioa? Puntu horretan aldagai garrantzitsu bi aipatu behar dira. Alde batetik, globalizazioarena, kasu horretan modu positiboan eragingo lukeena. Izan ere, globalizazio aroak ekarri dituen aldaketak direla eta, estatuaren muga geografikoak aise gainditzen dira, eta ikuspuntu horretatik, Espainiak eragin lezakeen presio negatiboa nahiko erraz oreka liteke munduko beste estatuaren harreman egokiak gordeta, eta gaineratzen dutenez, horretan ez dago kontra egiterik, munduaren norabidea hori da eta. Ideia horretan oinarrituta, ogasuneko ordezkari honek baieztatu du bere iradikazioa ematen dio gaiari: *"ez dut inolako arrazoi objektiborik ikusten pentsatzeko Euskadi ezingo dela bideragarria izan epe erdi horretan"* (EE-11). Horrez gain, enpresa munduaren logika ere aipatu behar da, eta horrek ere laguntzen du. Honako kide honek dioenez,

*“zuk abantaila baldin badaukazu onura ekonomikoak eragingo lizkieketen produktuak garatzeko, zure inguruko herriek zuri ez erosteko arrazoirik ez dago” (EE-2).*

Beste arazo bat, askotan aipatzen dena, estatuaren tamainarena da, baina objetiboki ere begiratuta, horrek ez luke oztopo izan behar, munduan asko baitira Euskal Herriaren tamainako estatuak. Hala pentsatzen du elkarrizketatu batek (EE-16). Are gehiago, beste batek dioenez, Europako herri aberatsenak txikiak dira (EE-13). Beste batek Holandako herrialdea dakar adibide gisa, Euskal Herriko ezaugarri demografikoekin konparagarria dena. Haren ustez, Euskal Herria bezalako estatu txikiak ahalmen handiagoa izan ohi dute beraien gaitasun ekonomiko eta enpresariala kontrolatzeko, eta hori faktore positiboa da (EE-1).

Euskal Herriaren alde jokatzeko duen beste faktore bat biztanleen prestakuntza da. Enpresaburuek garrantzi handia ematen diote faktore horri. Kasu batzuetan orain arteko politiken egokitasuna aipatzen da eta, oro har, enpresaburuek gai horri ipinitako arreta. Ondorioz, kide honen iritziz, Euskal Herria ondo prestatuta dago bere bide propioa egiteko, bai kanpoko inbertsioak erakartzeko, bai munduan lehiakor aritzeko. Horretarako, Euskal Herriko jendarteak prestakuntza egokia omen dauka, eta ekimen berriak sortzeko gaitasuna erakusten du (EE-6).

Aurreko argudio guztien osagarri gisa, adierazle subjektiboak ere oso garrantzitsuak dira, eta asko aipatzen dira. Gaitasuna badago: *“nahiko serioak gara oraingo egoeran baino hobeto biziko ginatekeen estatu independente bat sortzeko” (EE-13). Eta horrek ondorioak uzten ditu: “hemen gauzak beste era batera egin dira, eta ekonomikoki Espainian baino hobeto gaudela ikusten da (...) epe luzeko begirada egon da, eta hori ekonomian eta enpresa munduan ezinbestekoa da” (EE-8). Hori dela eta, enpresaburu askok harrotasunez diote Basque Country marka ondo ikusita eta baloratuta dagoela gure mugetatik haragoko enpresetan, batez ere European, eta industria eta teknologia sektoreetan. Are gehiago, Energiako ordezkari honek dioenez, “momentu honetan nire ustez eragozpena egiten ari zaigu. (...) gu kanpora joaten garenean (...) beti saltzen ditugun gauzetako bat da gu euskaldunak garela. (...) industrialki behintzat, alemanekin parekatzen gaituzte: jende serioa, teknologia altukoak, langileak, hitza emanda mantentzen dutenak...” (EE-5).*

Hala ere, ez dezagun pentsa ikuspegi positibo hori akritikoa edo triunfalista hutsa denik. Gehienek errealismoz jokatzeko beharra gaineratzen dute, eta batez ere politikari egiten diote erreferentzia. Hau da, ea Euskal Estatu ekonomikoki bideragarria izan zitekeen zen galdera, eta ia aho batez, baietz erantzuten dute, baina zalantzak politikaren eremutik sortzen dira. Lehenik eta behin, batzuek zer estatu motaz hitz egiten ari garen ohartarazten dute, eta zalantzarik ez dute oraingo eskemari jarraituko liokeen batez hitz egin beharko genukeela. Kasu horretan sartuta, gehienek aldetik (batzuek ez dute aipatzen), ezinbestekoa jotzen da estatuaren sorrera modu ordenatuan egitea, hots, Espainiar (edo Frantziar, bere kasuan) Estatuarekin adostua, Eskoziako eredurantz jota. Erabakitze eskubidearen beharra azaltzen da, hortaz (EE-6). Prozesu zail horretan, kide batek nazioarteko sostengua aipatzen du, bi estatuen aurrean indarra hartzeko eta banaketa onartzera presionatzeko edo, horrek huts egingo balu Espainiak (edota Frantziak) ez duelako nahi, nazioartean babesia izateko (EE-7). Izan ere, Espainiaren kontrako jarrera ziurtzat jotzen da guztien aldetik. Kide baten ustez, jarrera horrek, gutxienez, mesfidantza sortuko luke nazioarteko hainbat estatutan eta enpresetan Euskal Herriarekin akordio ekonomikoak edo politikoak sinatzeko, eta erabat mugatuko luke Euskal Estatuaren bideragarritasuna (EE-9).

Amaitzeko, oztopoak oztopo, eta estatu berriak aurrera egingo balu, ohartarazten da hainbat egokitzapen egin beharko dela. Batek sektore publikoarena aipatzen du, adibidez, eta horren berrantolaketa exijitzen du (EE-10). Beste batek salatzen du gaur egun azpiegitura batzuk ez daudela behar bezain garatuta eta, bere ustetan, hori zuzentzea ezinbestekoa izango litzateke estatu berrian (EE-6).

## **EUSKAL ESTATUA ABIAN JARTZEA: ARRAZOIAK, OZTOPOAK ETA ONDORIOAK**

Bideragarria izanda ere, zer bilatzen du enpresa sektoreak Euskal Estatu independentean? Zerbait irabazi edo galduko luke? Lehenengo eta behin, jakin beharko litzateke oraingo egoera onuragarria den eurentzat.

### **Gaur egun Espainiaren/Frantziaren barruan egotea abantaila edo kaltea da?**

Denak guztiz bat etorri ez arren, iritzi gehienek edo harreman kaltegarriaz hitz egiten dute, edo bestela eraginik gabeko harremanaz, hau da, ez abantaila ez kalte. Ostalaritza sektoreko enpresaburu batek (EE-15), adibidez, kaltea baino ez du ikusten,

Espainiak ez baitu politika ekonomiko berezirik garatu bere sektorean eta mailan (enpresa txikia da). Harreman kaltegarriekin jarraituta, erabaki ekonomikoak eta politikoak hartzeko orduan dagoen urruntasuna aipatzen dute faktore garrantzitsu gisa. Izan ere, elkarrizketatu baten ustez independente izanda, *“Euskal Herriak oraingoak baino ongizatea eta aberastasuna sortzeko gaitasun handiagoak izango lituzke. Hurbiltasun handiagoa izango genuke, politika zehatzak garatzeko ahalmena, eta erabaki ekonomikoetan kanpoko injerentzia txikiagoa ere bai”* (EE-1). Gainera, gaur egun *España* markak nazioartean duen fidagarritasun eskasa arrazoi bat gehiago da bereiztea eskatzeko (EE-2; EE-13). Hari kontrajarrita, Euskal Herria kalitatezko zein fidagarritasunezko erreferentzia bilakatzen ari omen da (EE-2).

Enpresaren mundu zehatzetik at, finantza orokorragoei dagokienez, kide honek ere argi du desabantaila dela: *“urtero kupoa ordaindu behar izatea desabantaila garbia da, baita enpresa munduaren eta ekonomiaren gaien inguruko erabakiak ezin hartzea ere”* (EE-8).

Hortik aparte, esan dugunez, nahiko dira estatuaren eragin ia neutroaz hitz egiten dutenak, bai Espainiari dagokionez: *“nire sektorean eta nire enpresan uste dut ez dela oztopoa, baina onuragarria ere ez”* (EE-14), eta bai Frantziari dagokionez ere: *“Nire enpresarentzat ez dakit abantailarik duen. Diru-laguntzak jadanik Europako araudietan behar dira kokatu, beraz, ezin dira diru-laguntza ezberdinak izan”* (EE-16). Beste enpresaburu honek gakoa enpresatik at jarri behar dela dio: *“Egia esan, uste dut enpresentzat nahiko berdina dela estatu batean edo beste batean egotea. Benetako galdera da askotan planteatzen dena: jubilatuen pentsioekin zer gertatuko litzatekeen, edo gizarte segurantzaren nolakoa litzatekeen eta gauza horiek”* (EE-19).

Baina, bestalde, badira abantailak ikusten dituztenak Espainiaren edo Frantziaren barruan egonda. Horietako baten ustez, Espainiak duen *statu quo*ari esker lortu ahal izan dira finantziario oso inportanteak azken urteotan, eta Euskal Estatu bat sortuko balitz merkatuaren konfiantza baxuagoa izango litzateke (EE-9). Halaber, Ipar Euskal Herriko enpresaburu batek abantailak aitortzen ditu kontratuak lortzeko. Hego Euskal Herriko batek argi dio abantaila edo kaltea zeren arabera izango den: *“kanpora saltzen baduzu ez, [baina] Estatu Espainolean saltzen baduzu, eduki lezake eragin negatiboa, hasieran behintzat”* (EE-4). Azken batek abantaila sozialak ikusten ditu Frantziar estatuan, *“baina Euskal Herria independentea izanda, Frantziak sozial mailan dituen gauza batzuk egin litezke ere bai. Agian hastapenean zaila izango litzateke, ze Euskal Herria estatu txikia izango litzateke, baina denbora batean uste dut egin litekeela”* (EE-20).

Nafarroa Garaian beste iritzi bat agertzen da, abantaila EAerekin lotzen duena, eta ez Espainiarekin. Herrialde horretan elkarrizketatutako enpresaburuek harreman ekonomiko handia aitortzen dute EAerekin, eta Euskal Estatu begi onez ikusiko lukete: *“Nik oso gutxi saltzen dut Espainian, beraz, nire esperientziatik esan dezaket bizitza eman didana Euskadi izan dela”* (Nafarroako enpresaburua).

## Zer oztopo egongo litzateke ekonomiaren ikuspuntutik?

Oro har, ez da pentsatzen nazioartean arazorik sortuko lukeenik balizko Euskal Estatuak. Egotekotan, noski, Espainiak eta Frantziak jarritako oztopoak egongo lirateke, eta horrez gain, zailtasun handiagoa izango lukete Espainian edo Frantzian bezero asko duten enpresaburuek. Hala ere, elkarrizketatutako kide askok ez du uste Euskal Estatu abian jartzeko oztopo handiegirik aurkituko luketenik, beraien negozioetan menpekotasun txikia baitute Espainiatik edo Frantziatik: *“%80 edo %90 kanpora bidaltzen dugu, orduan guretzako aukera gehiago izango genuke. Guk ez daukagu galtzerik”* (EE-4).

Arlo ekonomikoan (arlo politikoan besterik litzatekeela diote) trabarik ez dutela aurkituko arrazoitzeko, argudio bat baino gehiago erabiltzen da. Enpresa munduaren logika aipatzen da askotan, eraginkortasunari lotua, eta ez hainbeste ideologiari. Marka handien hornitzaile den automobilgintzako enpresaburu honek dioenez, *“marka horiek ez diete horrelako gaien begiratzen. (...) begiratzen dena da prezioa, kalitatea eta zerbitzua”* (EE-3). Horri loturik enpresa handien eta multinazionalen interesak zeintzuk diren agertzen da: *“haiei, berez, berdin zaie gu independenteak izatea ala ez. Guk zerbitzu, produktu edota prezio hobeak eskaintzen badizkiegu erosiko digute, guk haiei ere erosiko diegulako”* (EE-8). Multinazionalak, hortaz, ez omen lukete presionatutako estatu berriaren kontra.

Beste arrazoi bat estatuaren izaerari dagokio, aldatu egin dena, alegia: honezkero ez dago estatu subiranorik; interdependentzia ekonomikoa da nagusi (EE-2). Azkenik, bada arrazoi subjektibo bat ere, Euskal Herriaren txikitasuna munduan. Horren arabera, Euskal Herria garrantzi handirik gabeko herria da munduan, guk horrela pentsatu ez arren: *“jendeak munduan ez daki Euskal Herria non dagoen edo zer den. Orduan, munduarentzat Euskal Herria zer den edo zer ez den ez da arazoa, ezta kezka ere.”* (EE-5)

Baina, beste aldetik, badira oztopo ekonomikoak egon daitezkeela aitortzen dutenak, eta hortaz, bezeroak Espainian edo Frantzia dituzten enpresaburuentzat eragin ekonomiko negatiboa izan lezake Euskal Estatu baten sorrerak, hasiera batean behintzat. Kasu argi bat Ipar Euskal Herriko enpresaburu honena da: *“nire enpresarentzat ziur aski ez litzateke izango positiboa, ze hemen baditugu bezero batzuk Frantziako administraziokoak direnak, orduan frantsesak ez bagara ez digute lanik enkargatuko”* (EE-17). Galeraren perspektiba hori garrantzitsua izan daiteke enpresaburuaren jokabidean, tamainaren arabera, agian. Kide honek dioenez, *“enpresaburu batengana baldin bazoaz esanez independentea izanda bere merkatu osoaren %20 osatzen duen Espainiako merkatua galduko duela, ezetz esango dizu”* (EE-7).

Oztoporik handiena, edozein modutan, politikoa izango omen litzateke, Espainiak eta Frantziak sortua. Espainia indartsuagoa da, noski, Euskal Herria baino, eta pentsa daiteke Espainiak egoera hori baliatuko lukeela Euskal Estatu baten kontra jokatzeko (EE-11). Horren barruan, asko errepikatzen da Euskal Herriaren eta euskal produktuen kontrako boikotaren aukera, Espainiako sektore batzuek bultzatua. Are gehiago, batek aitortzen du aurretik ere arazoak izan dituela Espainian arrazoi politikoengatik (EAEko enpresaburua). Boikota maila desberdinetan gauza litekeela uste dute: zuzenean, merkatuan Euskal Herriko produktuak alboratuta; maila altuagoan, enpresetako bezero izateari utzita; edo hemengo jendeak eta enpresek (multinazionalak edo ez) Euskal Herriatik alde eginda (EE-1; EE-8; EE-11). Beste batzuek, hala ere, zalantzan jartzen dute boikotaren aukera, eraginkorra ez litzatekeelako izango (EE-15; EE-19), eta edonola ere, aldi baterako izango zela gaineratzen dute.

Amaitzeko, kide batek alde emozionala ere aipatzen du, kontuan hartu beharrekoa: *“hasieran bai espainolentzat baita euskaldunentzat ere shock bat izango litzatekeela ulertzen dut”*, baina gero gauzak bere onera itzuliko liratekeela uste du (EE-15).

## Euskal Estatu sortzearen ondorio ekonomikoez

Zeintzuk dira aukerak eta zeintzuk mehatxuak? Aukeren artean, gorago ere aipatu dugu askotan errepikatzen den bat: hurbiltasunarena. Hurbiltasuna baliabideak banatzeko eta zerbitzuak emateko, baita kanpoko injerentziak saihesteko ere (EE-10; EE-2). Izan ere, enpresaburu askoren ustez, ekonomian eta enpresa munduan eragina izan dezaketen erabakiak Euskal Herrian hartuta, igo egingo litzateke eraginkortasuna, egungo egoerarekin alderatuta. Atalka aztertuta ere, abantailak agertzen dira. Finantza sektoreko enpresaburu batek aipatzen duenez, gaur egun EAEn diru-sarreraren eta gastuen arteko balantze hobea dago Espainiakoarekin alderatuta, eta aldi berean, Euskal Herriko industria sektorea indartsua izanda, balizko Euskal Estatuaren ekonomiarako motor garrantzitsu bat eratuta dago honezkerok (EE-10). Nekazaritzan ere abantaila ikusten da, bertoko produktu gehiago kontsumituko litzatekeelako (EE-12). Azken ondorioa da Euskal Herria aberatsagoa eta ongizate handiagoa izango litzatekeela (EE-2).

Beste batzuek ez dute ikusten ondorio berezirik. Gauzek antzera jarraituko lukete, orain arte bezala, merkatuaren logika estatuetatik at agertzen delako, eta orain arteko dinamika egokia izan bada, aurrerantzean ere izan beharko lukeelako: *“baliteke Espainiako bezeroren bat erortzea, ez dut uste (...) Nik ez dut uste enpresek erabat nabaritutako luketenik”* (EE-6). Hortaz, ez abantaila izugarririk ez hondamen erabatekorik: *“berdin ez nuke esango, baina abantaila izugarri gehiago ere ez genuke izango. Esan nahi dut: guri ez litzaziguke mila aldiz hobeto joango independenteak izanda, ezta mila bider okerrago ere ez”* (EE-5). Eta antzera diote beste askok.

Zerbait aldatzekotan, kide batzuen ustez, hobera izango litzateke, orain arte gauzak ondo egin direlako, eta estatu propioa izanda, pentsatu behar da estatuak ez lukeela joko dinamika horren kontra (EE-7). Edo beste honek dioenez, *“bakarrik egongo litzateke aldaketa bat, gu aberatsagoak izango ginatkeelako. (...) Aukera gehiago izango genuke enpresa aberasteko, teknologikoki eta humanoki ere bai”* (EE-3). Are gehiago, aukera berriak ere ireki litezke zenbaitentzat: *“egoera horretan, ziurrenik merkatu aukera berriak izango genituzke, Euskadiren irudia kanpora saldu beharko litzatekeelako. Beraz, egian esan, uste dut nire sektorearentzat egoera positiboa izango litzatekeela, lan-karga garrantzitsua emango digulako”* (EE-8). Eragin positiboa, bestalde, handiagoa izango omen litzateke enpresa txikientzat handientzat baino, azken horiek egonkorragoak direlako (EE-12).

Badira, azkenik, ondorio negatiboak aipatzen dituztenak. Hasteko, kide honek dioenez, enpresaburuak egonkortasuna maite du, hortaz, edozein aldaketak arriskua dakar (EE-8). Beste aldetik, Euskal Estatu batek zor publikoa eta pentsioak ordaintzeko izango lukeen gaitasunaz kezkatuta agertu dira enpresaburu batzuk. European pisu espezifikoak galtzearen arriskua ere aipatzen da, eta hori garrantzitsutzat hartzen da, hainbeste aldatzen ari den munduan (EE-10).

Mehatxu horien inguruan, gehienek oso argi dute estatu berriak Europar Batasunaren barruan egon beharko lukeela, baita euroaren barruan ere, eta ahalegin guztia egin behar litzatekeela independentzia prozesua Espainiarekin era adostuan egiteko.

Hala ez egiteak ziurgabetasuna ekar lezake nazioartean eta, ondorioz, kanpo finantziarioa lortzeko zailtasuna gerta liteke: *“inor ez da joaten 10.000 milioi petrolio upel erostera eta eskudirutan ordaintzen ditu, hor bakoitzak egin dezakeen negoziarioa sartzen da, eta zuri agian Espainiari kostatzen zaiona baino lau bider gehiago kostatzen zaizu, zuk haiek baino segurtasun txikiagoa eskaintzen diezulako”* (EE-9). Are gehiago, enpresa handiren baten deslokalizazioa ere eragin lezakeela aipatzen da (EE-11). Hortaz, askok uste du kanpoko aliantza sendoak behar direla halako prozesu batean sartzeko.

Laburbilduz, elkarriketatutako enpresaburuen aburuz, Euskal Estatuaren sortzeak aukerak bai, baina mehatxu ekonomikoak ere ekar litzake. Aukeren artean oraingoa baino estatu hurbilagoa izatearen abantailak azpimarratu dira, besteak beste, euskal ekonomian eragina duten erabakiak bertan hartu ahal izateko eta eraginkortasun enpresariala hobetzeko. Mehatxuen artean, ordea, Espainiako edo Frantziako sektore batzuek bultzatu ahalko luketen boikota eta nazioartean sor lezakeen mesfidantzaren kezka ikusten dira.

## ZERTARAKO EUSKAL ESTATUA?

Elkarriketatutako enpresaburuek ez dute aitortzen, oro har, enpresa interes berezirik Euskal Estatuaren alde egoteko. Horretaz galdetzen zaienean, pentsakor geratzen dira askotan, haien interes nagusia ekonomiatik edo enpresa helburuetatik at egongo balitz bezala. Zerbait diotenean, ekonomia orokorrari lotzen diote gehiago, zeharka batzuetan. Aldiz, bestelako arrazoi afektibo, politiko, ideologiko edo identitarioak ere aipatzen dituzte. Esan daiteke ez dutela oso diskurtso landurik gai horretan, eta hortaz, ideia komun gutxi agertzen da. Begira ditzagun arrazoi horiek guztiak.

### Euskal Estatuaren zertarako: ekonomian, enpresa sektorean edo enpresan bertan

Elkarriketatutako kide batek (EE-8) helburu ekonomikoak ipini dizkio Euskal Estatuari: enpresentzako pizgarri fiskalak bultzatzea, eta pentsioak eta zerbitzu publikoak bermatzea. Horrez gain, plangintza ekonomiko bideragarri baten beharra azpimarratzen du, lehen lehenik, sektore estrategikoak kontuan hartuko litzukeena. Beste kide honek helburu orokorrak ere markatu nahi ditu, eta estatuari zeregin zehatza jartzen dio: *“uste dut herri batean inportantea litzatekeela oreka bat sortzea sektore guztien artean, eta lana ordaintzea merezi duen prezioan (...) Gizarte osoaren interesak defendatu behar dira, eta horretarako puntu bat da lana eta gauzak bere egiazko prezioan saltzea”* (EE-20).

Hortik aparte, aurretik ere komentatu denez, oso argudio errepikakorra da hurbiltasunarena, gehien entzuten dena, agian, elkarriketatutako enpresaburuen artean. Estatu txiki batek eskain dezakeen abantaila bat jendearekiko eta erabakiak hartzeko hurbiltasuna da. Horrek osagai desberdinak ditu: hurbiltasun geografikoa, alde batetik. Ostalaritzako enpresaburu batek uste du Euskal Estatu batek hobeto atzemango lukeela bere sektoreak Euskal Herrian zer behar duen, uste baitu Espainia barruan egonda, eguzkia eta hondartza bakarrik eskaintzen direla kanpora begira (EE-15). Beste aldetik, hurbiltasunak bertokoa hobeto babestea ere ekar lezakeela aipatzen da. Metaleko ordezkariak, adibidez, aipatzen du Frantziak kalitatea bermatzeko ziurtagiriak exijitzen dituela, kalitate gutxiago kanpoko lehiakidetasuna murrizten duena, baina hori ez du ikusten bere inguruan, eta ondorioak jasaten ditu, askoz kalitate gutxiagoko enpresak berdin berdin aritu daitezkeela esanez, prezio merkeagoa ipintzen dutela baliatuta (EE-14). Azkenik, hurbiltasunari garrantzia ematen zaio bertokoa hobeto baloratua izan dadin, alde batetik, nolabaiteko aitortza egon dadin ondo egindako lanarena (EE-14), eta bestetik, bertoko enpresa horiek hemen jarraitu ahal izateko politikak zehazteko (EE-4).

Bestelako banakako iritziak ere agertu dira, baina pertsona bakar baten gogoeta izaten da, birena gehienez. Hori dela eta, gogoeta horien aurkezpena egingo dugu, interesgarria delakoan, baina bestelako pretentsiorik gabe. Hona zer dioten.

Aurretik esandakoan salbuespen bakarra dago, nahiko aipatua baita lkerketa eta Garapenari dagokiena. Esparru horretan gehiago inbertitu beharko litzatekeela aipatzen da. Nahiz eta orain EAEn Espainian baino gehiago inbertitu, oraindik gutxi omen da, Europan gehien inbertitzen dutenek bi halako egiten dute eta (EE-10). Sektore publikoa ere agertzen da: modernoa eta eraginkorra izatea eskatzen du lehengo kide berak, ekonomian parte hartze txikiagoa izan behar duena, bere ustez. Beste batek euskal ogasun bakarra proposatzen du, gaurko egunetara egokitua, ez baitu zentzurik herrialde bakoitzak bereari eusteak (EE-11). Kide berak udalen egitura aldatuko luke, hau ere zaharkiturik dagoelako; bere ustez, ez du zentzurik herrialde berean zerbitzu desberdinak jasotzeak bizilekuaren arabera (EE-11). Eta azken batek errentaren banaketan oreka berria bilatu beharko litzatekeela uste du, eta horretarako ezinbestekotzat hartzen du politika fiskalak bideratzea (EE-2). Hego Euskal Herriko beste enpresaburu bat kezkatutik agertzen da gure herriaren egitura demografikoak arazoak ekarri ahal dizkigulako gerora pentsioak



kobratu ahal izateko. Pentsioekin jarraituta, beste kezka bat agertzen da: ea zer gertatuko litzatekeen Espainiak ordaindu nahi izango ez balitu Espainian kotizatu baina Euskal Estatuan geratu diren pertsonen pentsioak (EE-8). Gizarte Segurantzaren arazo bat izan liteke, gaur egun egoera defizitarioan dago eta. Beste batek dio Euskal Estatuak Espainiaren zorraren zati proportzionala hartu beharko lukeela banatzean, eta zama hori kudeatzen jakin beharko lukeela (EE-11). Azken batek uste du Euskal Herriak zabalgarri eta interesgarri diren gauza asko dituela ekonomia esparruan (Kooperatibak, kasu), baina ez dela egiten nahikoa hori dena zabaltzeko. Hori dela eta, Euskal Estatuak horren ardura hartu beharko lukeela dio: *“nik marketin kanpaina handi bat egingo nuke elementu horiekin, eta uste dut oso positiboa litzatekeela Euskal Herriko negozio guztientzat”* (EE-13). Horrez gain, *Basque Country* marka indartu behar dela uste du.

## Zertarako Euskal Estatu? Zer eskatuko zenioke?

Aurrerago esan dugunez, Euskal Estatuari buruz enpresaren eta ekonomiaren ikuspuntutik hitz egiteko eskatu zaie enpresaburuei, ahalegin berezia egiteko hortik bideratzeko erantzunak. Baina, batzuetan zeharka bada ere, ezinbestean agertu da beste gai batzuei buruzko erreferentzia. Izan ere, zenbaitetan ematen du Euskal Estatuaren erakitzearen alde egoteko arrazoi nagusiak enpresa eta ekonomia ikuspuntutik at daudela. Hona batzuk.

Zuzenean edo zeharka (elkarrizketa formala amaitzean, batzuetan), Euskal Estatuari zeregin berezia ematen diote enpresaburu askok: euskararen alde egitea. Noizbehinka, zentzu instrumentalean ulertzen da eginkizun hori: euskararen ezagutza zabaltzea eta ahalik eta gehien erabiltzea. Baina hortik haragoko zentzua ere hartzen du, *komunitatea egitea*. Elkarrizketatu baten ustez, Euskal Estatuak adierazi beharko luke: *“komunitate homogeneous osatzen dugula, Espainiakotik eta Frantziakotik desberdina...”* (EE-6).

Era berean, badira kontzeptu batzuk nahiko erabiliak enpresaburuaren aldetik, eta ematen du ildo beretik doazela: komunitatea, herria, nortasuna... Estatuak Euskal Herriko biztanleen arteko lotura hori landu beharko lukeela aipatzen da askotan, modu agerikoan edo zeharka. Kide batek *“proiektu sinesgarri bat sortu behar dugula”* dio, eta gaineratzen du: *“Nire ustez, Euskal Estatuak guk geuk bizirauteko balio beharko du”* (EE-16). Antzeko helburua jartzen du beste kide honek: politika ekonomikoan eragin behar duela uste du, eta arrazoi gisa aipatzen du, besteak beste, *“horrek laguntzen du herri bat aurrera joateko”* (EE-4). Herria edo komunitatea eraiki egin behar direla uste dute batzuek eta, hortaz, euskal herrialdeen arteko elkatasun ekonomikoa bultzatzen dute. EAEko enpresaburu batek hiru administrazio barrutien (EAE, Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria) interesak batuko litzuzkeen elkarlana proposatzen du: *“elkar elikatzen duten elementu asko dugula uste dut. Horrela, gu indartzeaz gain, masa kritikoa lortuko genuke, eta ikuspegi globala eduki ahalko genuke”*. Hori dena lortzeko, hezkuntza gai garrantzitsu gisa agertzen da, agian zeregin nagusietakoa. Diotenez, hezkuntzak bi helburu desberdin eta garrantzitsu bermatu behar dizkio euskal gizarteari. Alde batetik, maila orokorrean hartuta, *herri modura iraunarazten lagundu beharko luke*. Beste alde batetik, prestaketa zuzena eman behar lioke gizarteari, gazteak momentu horretako sare ekonomikoan integratu daitezkeen. Zentzu horretan, batek uste du Euskal Estatuak unibertsitateen, ikerketa zentroen eta enpresen arteko elkarlana sustatzeko dinamikak areagotu beharko litzuzkeela (EE-10). Beste batek Eskandinaviako adibidea aipatzen du Euskal Herrian jarraitu beharreko eredu gisa hezkuntza eta ikerketa arloetan. Hari beretik, batek galdetzen du: *“Eskandinaviak zergatik ditu hainbeste marka teknologiko oso aurreratuak? Ba igual ez industrialki, baina independentzia horrekin landu dutelako gehien bat hezkuntza, niretzat klabe handi bat hori da. Orduan, beraien izateko era egiten du jende sortzailea izatea”* (EE-5). Ikerketarena beste batzuek ere aipatzen dute (EE-13; EE-19), gorago ikusi dugunez. Elkarrizketatuko beste kide batek dimentsiook laburbiltzen ditu: *“Hezkuntza sistema propioa behar dugu, etorkizunari begira iraunkorra izango dena, eta nazioarteko murgilketarako zein aberastasuna sortzeko gaitasuna izango duten pertsonak heziko dituen... Eta aberastasuna esaten dudanean, ez naiz bakarrik aberastasun ekonomikoaz ari; aberastasun kulturala, soziala...”* (EE-6).

Hezkuntzak beste estatuetatik bereiztu behar gaitu. Hezkuntza sistema propioa behar dugu, *“Espainiarenetik ezberdina izango dena”* (EE-6). Hala egingo bagenu, LOMCE legea [Espainiakoa] ez genuke aplikatuko, eta orduan gure seme-alabek jasoko luketen hezkuntzak beste bide bat izango luke, eta hemendik 25 urtetara beste gaitasun batzuk izango litzuzketela dio Hego Euskal Herriko kide batek. Halaber, hezkuntzaren barruan ere, baina zehatzago, batzuek uste dute garrantzi berezia eman beharko litzaikeela Lanbide Heziketari, oso garrantzitsua baita industriak aurrera egin dezan (EE-14; EE-18).

Amaitzeko, helburu orokorragoa ipintzen dio azken kide batek, demokraziaren alde egitea, alegia: *“nire ustez euskal gizarteak irabaziko luke euskal estatu batekin. Uste dut estatu txiki batekin demokrazia indartsuagoa izango litzatekeela”* (EE-19).

## ENPRESABURUAK EUSKAL ESTATUAREN ALDE

Elkarrizketatu ditugun ia enpresaburu guztiak, ñabarduraz ñabardura, Euskal Estatuaren alde egon litezke. Hori horrela da, guk hala antolatu nahi izan dugulako, jakina, gure interesa Euskal Estatuaren alde egon daitezkeen arrazoiak bilatzea da eta. Hala ere, ez dute uste ezer berezirik egin behar dutenik enpresaburu modura estatu horren alde, bai ordea, herritar modura, kasu batzuetan. Badira anonimotasuna gorde nahi dutenak, badira ere halako jarduera baterako kualifikazio berezirik ez dutela uste dutenak (eurak enpresaburuak baitira), eta badira zerbait egiteko prestasuna erakusten dutenak, baita bidean zerbait galtzeko prest daudenak ere.

Kasu batzuetan nolabaiteko baldintzak ipintzen dira hala gerta dadin. Europar Batasunaren barruan jarraitzea, adibidez, ezinbesteko baldintza da batzuentzat. Horri loturik, baina gutxiago aipatua, moneta komunean ere jarraitzea agertzen da. Gehienek ere *banaketa adostua* nahiko lukete estatuaren aldeko dinamikan inplikatzeko. Era berean, batzuek Euskal Estatuaren inguruko alde aurreko plangintza erreal bat eskatzen dute. Aurrekoaz gain, Nafarroako ordezkari batek denbora ere eskatzen du, Nafarroan oztopo handiagoak egongo direlakoan. Eta bada, azkenik, Euskal Estatuaren alde egonda ere, momentuz *hirugarren bidea* nahiago duenik, *Ibarretxe Planaren* ildotik joango litzatekeena. Estatu Asoziatua sortzea izango litzateke asmoa, eta uste du Espainiak, kostata ere, onar lezakeela, banaketa osoa ez dakarrelako. Bide horren alde egiten du, uste duelako "independentzia" terminoak oraindik beldurra sortzen duela eta biztanle asko espainiar sentitzen dela. Ekonomikoki denontzako onuragarria izango litzatekeela uste du (EE-11).

Hala ere, iritziak iritzi, enpresaburu horiek ez dute ordezkatzeko Euskal Herriko enpresaburu guztien iritzia eta, hortaz, gainerako enpresaburuez galdetu diegu, sektoreko gainerako enpresaburuez, gutxienez.

### Sektoreko enpresaburuen jarrera Euskal Estatuaren aurrean

Izandako elkarrizketetan nabari da Euskal Estatuaz hitz egitea ez dela oso gai jorratua enpresaburuen artean, baina oro har, elkarrizketatuek uste dute sektoreko gainerako enpresaburuek ez dutela Euskal Estatu defendatzen, agian gizartean dagoen inpresio orokorragatik, zehaztapenak eskatuta ez baitira gai gehiegi esateko. Euren ustea azaltzen dute, bestelako daturik gabe: "Nik uste dut gehienak kontra daudela..." (EE-16); "Uste dut beharbada gehiago egongo liratekeela kontra" (EE-19); "agian ez denek baina bai gehienek (...) ez lukete begi onez ikusiko halako prozesu bat" (EE-20).

Arazoietan apur bat sakonduta, ohikoa da enpresaburuari ausardia eta zuhurtzia, biak batera, eskatzea, kontraesankorra ematen badu ere. Lehen beharrezkoa da aurrera egiteko, bide berriak jorratzeko, eta bigarrena beharrezkoa da eusteko, eta egindako apustueta dena ez galtzeko. Hala ere, Euskal Estatuaren alde jartzeko, ematen du zuhurtziak gehiago jokatuko lukeela ausardiak baino (EE-4). Izan ere, politikari dagokionez, "nahiago dute gauzak ez aldatzea. Enpresaburuak normalean politikatik ihes egiten du, ez ikusiarena egin nahi du, eta nahikoa du eragozpenik ez badio eragiten" (EE-13). Arlo horretan, Hego Euskal Herriko beste kide batek uste du gazteak ausartagoak izan daitezkeela, aurreko belaunaldikoek bizipen latz eta gogorak izan dituztelako, eta garaiak ere ezberdinak direlako.

Enpresaburuek zuhurtziaz jokatzeke beste arrazoi bat izango litzateke halako prozesuek sortzen duten jakineza, eta hori oso normala izaten da. Hala ere, zuhurtzia berberaren izenean, eta kide batek dioenez, jende arrazionala delako (EE-14), ezetza ez litzateke izango hain erabatekoa, agian. Hala ere, dirua jokoan dagoenean errealitatearen gainean egoteko beharra ere aipatua da: "nik uste dut lehenengo erreakzioa zuhurtziarena izango litzatekeela. Dirua, inbertsioak, eta moneta-fluxuak ez dira inorekin ezkontzen, eta ez dute ez arimarik ezta sentipenik ere. Diruak mugitzeko dituen arrazoiak dira errentagarritasuna, hobekuntzarako aukerak..." (EE-10).

Hortaz, elkarrizketatu ditugun enpresaburuek ez dute itxaropen handirik enpresa sektoreko kideen inplikazioan. Lehenik eta behin, nahiko argi dute sektoreak, berez, ez duela eraginik, eta atxikimendua pertsonala izango litzatekeela, eta hori gehiago dago sentimenduan oinarritua arrazoi ekonomikoetan baino. Izan ere, sentimenduek asko eragiten dute gai honetan, interes ekonomikoek baino gehiago, kide honen ustez, eta berdin alde batean zein bestean: "ziur aski espainiar sentitzen dena urduri jarriko da independentziaz entzutean, baina ez dut uste egoera horretan bere negozioa arriskuan legokeela pentsatuko duenik" (EE-15).

## EUSKAL ESTATUTIK AT: ZER BOTERE MAILA BEHAR DA

Euskal Estatuaren aukeratik at, norberaren administrazio lurraldean botere maila handiagoa beharko litzatekeen galdetuta, zalantza gutxi erakusten dute baietz erantzuteko: *“zenbat eta botere edo subiranotasun handiagoa izan, hainbat eta aukera gehiago dugu guri dagokigun eta guretzat egokiak diren politikak aurrera eramateko”* (EE-4). Esaldi horrek argi laburtzen du elkarrizketatutako enpresaburuaren iritzi orokorra. Hala ere, gai horren inguruko iritziak bat etorri arren, ñabardurak ikusten dira Euskal Herriko barrutiaren arabera:

### Euskal Autonomia Erkidegoa

Batzuek uste dute Eusko Jaurlaritzak Gernikako Autonomia Estatutuak batzen dituen eskuduntza guztiak bere gain hartuko balitu, Euskal Estatuaren lortzeko erdibideko urrats positiboak litzatekeela: *“beharbada murgiltze handiagoko fase batean sartu beharko dugu autogobernuan, eta lehen aipatu dizudan herri proiektu komun hori sortu”*; eta beste batek dio *“euskal autogobernua guztiz bete behar da”*. Beste batzuek, aldiz, nahiz eta negatibotzat ez hartu, independentzia ez den beste erdibideko formula politikoek eragin handirik, ekonomikoa behintzat, izango ez dutela diote: *“horren kontra ez nago, baina nik uste dut hori ez dela gure helburua”*. Beste batzuek EAEko instituzioek azken hamarkadetan izandako eragin eta planteamendu orokorra goraiatzeko, autonomiaren alde positiboak nabarmenduta, eta estatu propioa lortzeko abiapuntu eraginkortzat hartuta.

### Nafarroako Foru Komunitatea

Elkarrizketatutako NFKko enpresaburu guztiek uste dute EAEn buruzko harreman politikoak eta ekonomikoak indartu beharko liratekeela. Baten ustez lotura instituzionala egon ez arren, enpresa munduan banatze administratiboa, neurri batean, gaudituta dago: *“nik uste dut badaukala; nahiz eta instituzionalki ez izan, enpresentzat badu (lotura EAEn). Guretzat Gipuzkoan saltzea oso erraza da, alboan dugu eta.”* Balizko independentzia prozesu bat EAEn bakarrik abiatuko balitz galdetuta, ordea, iritzi ezberdinak aurkitzen ditugu. Bati, adibidez, ez zaio gustatzen EAEn eta NFKren arteko ezberdintasunak egitea, berak Euskal Herria bakartzat ulertzen baitu, eta horregatik ez du aukera hori onartzen. Beste baten aburuz, ordea, Nafarroak denbora gehiago beharko luke estatugintza prozesu batean murgiltzeko, eta beraz, ez luke gaizki ikusiko independentzia prozesua EAEn bakarrik abiatuko balitz lehenengo fase batean: *“Nafarroa alde batera utzita uste dut jadanik egin litekeela. Nafarroan zailagoa izan daiteke. Nafarroa aldaketa prozesu batean dago, baina agian goizegi da bertan planteatu ahal izateko... uste dut hemen astiroago joango dela.”* Bere ustez, halako prozesu batek ez lioke eragin negatiborik ekarriko Nafarroari, eta eraginik izatekotan hura positiboak litzateke Nafarroako enpresentzat. Beste batek autonomiaren eraginkortasuna gobernu zentralaren izaeraren arabera ulertzen du, eta hor kokatzen ditu bere mugak: *“Gobernu begirunetsua duen herri serio batean egongo bagina, autonomia elkarbizitzarako formula egokia izan liteke. Ez litzateke izango estatu independentearen formula ideala, bere irudia sortzen duena, baina nahiko ondo legoke”*.

### Ipar Euskal Herria

Oro har, Ipar Euskal Herrian elkarrizketatutako enpresaburuak begi onez ikusiko lukete Ipar Euskal Herriak egitura administratibo eta politiko propioak izatea. Hala ere, egitura horrek beteko lukeen benetako funtzioaz iritzi ezberdinak topatzen ditugu. Baten ustez, Ipar Euskal Herriak autonomia bereganatuko balu, Hegoaldeari buruzko harremanak indartu ahalko lirateke, eta horrek eragin politiko eta ekonomiko onak ekarriko lituzke Ipar Euskal Herriarentzat. Beste batzuek, aitzitik, egitura autonomoa sortzeak izan litzakeen mugak azpimarratzen dituzte, batez ere ekonomiaren arloan: *“Nik ez dut uste eskatzen ari den horrek aldatuko lukeenik gauza askorik ekonomiaren ikuspuntutik. Kulturaren arlotik bai, baina ekonomikoki ez.”* Enpresaburu honek ere uste du EAEn independentzia prozesu bat abiatuko balitz, bere enpresari dagokionez, ez lukeela aldaketa handirik eragingo. Erdi bideko iritziak ere topatzen ditugu Ipar Euskal Herriko egitura autonomoen inguruan; adibidez, ingeniari sektoreko enpresaburu batek uste du egitura autonomoak izatea onuragarria izan litekeela hasiera batean, baina epe luzera begira zalantzak agertzen ditu. Horrez gain, ñabardurak ñabardura, guztiek uste dute oraingo egoera administratiboa ez dela onuragarria Ipar Euskal Herriko enpresentzat, hurrengo esaldiak laburtzen duenez: *“oraingo martxan ez dut ikusten garapenik gure inguruan. Beraientzat [Frantziarentzat] gu zonalde berde bat gara, eta ez dute asko inbertitu hemen”*.

## EUSKAL ESTATUA ETA EUROPAR BATASUNA

Europar Batasunak protagonismo handia hartzen du askoren elkarriketetan, eta kasu batzuetan ezinbesteko baldintza bihurtzen da bertan jarraitzea Euskal Estatuaren alde egoteko, baina EBk hartuko lukeen jarrera ere aztertu behar da, eta hori egingo dugu orain.

### Europar Batasunaren jarrera posibleaz

Iritzi batzuk enpresaburuaren ikuspuntutik eginak dira, ez hainbeste ikuspuntu politikotik, eta horrela begiratuta, ez dute arazo handirik ikusten gai horretan. Hau da, uste dute Europar Batasunak ez lukeela hartuko jarrera jakin bat Euskal Estatuaren aurrean, eta gutxieneko demokratikoak ziurtatuta, onartu egingo lukeela estatu berria. Horrela pentsatzen duten kideen ustez, EB interes ekonomikoek gidatzen dute gehienbat, eta interes horiei begiratuko lieke halako kasu batean.

Antzeko iritzia dute beste batzuek, baina Espainiak eta Frantziak egin lezaketen presioa kontuan hartzen dute. Hori dela eta, hasiera batean zailtasunak, eta baita EBren kontrako jarrera, egongo lirakeela uste dute, baina logika ekonomikoak estatu berria onartzera eramango luke, iritzi horien ustez: *“denborak konpontzen du hori”* (EE-3). Kasurik txarrena gertatuko balitz, bitarte horretan negozioak mantenduko lirakeela uste du beste batek: *“agian politikoki Espainiaren alde kokatuko dira, baina termino ekonomikoetan gure enpresek prezio eta produktu hobek eskaintzen badizkiete, ziur nago negozioak egingo genituzkeela”* (EE-8). Azken honen ustez ere, edozein modutan, independentzia prozesua abiatuko balitz, ezinbestekoa izango litzateke bideragarritasun plan errealista bat osatzea hasierako garaietarako, lehengaiei eta energiari garrantzi handia emango liekeena.

Beste iritzi batzuek, aldiz, garrantzi handiagoa ematen diote alde politikoari, eta orduan zailtasunak biderkatu egiten dira. Batzuen ustez, Espainiak eta Frantziak ezetz esango balute, Europak ere ezetz esango luke, halako aldatetarako arriskuak izan daitezkeelako (EE-13). Bide erraza dute horrela izan dadin, Espainiak eta Frantziak ez balute bereizketa ontzat emango, itunek hala ahalbidetuko luketelako. Horren aurrean, eta beste arrazoi batzuegatik ere aipatu dugun bezala, Espainiarekin edo Frantziarekin irtenbide adostua bilatzea izango litzateke gakoa, eta kasu horretan EBn jarraitzea posible izango litzateke, bestelako arazorik gabe. Beste batzuek, Espainiaren eta Frantziaren oniritzia ezina izango delakoan edo, kanpoko aliantzak ziurtatu behar direla diote, eta hori antzeko ezaugarriak dituzten estatuekin bilatu liteke; Finlandiaren, Danimarkaren edo Eskoziaren moduko herri edo estatu ez oso handiak. Helburua ez litzateke izango elkarte berria osatzea, baizik eta elkartasuna sendotzea herri horien artean (EE-6). Beste batek halako aliantzak proposatzen ditu, baina estaturik gabeko herrienak, EBren aurrean baturik agertzeko (EE-13).

### EBn egotearen garrantziaz

Elkarriketatutako pertsona bakarra dago esaten duena, berez, Europar Batasunean egotea edo ez bere sektoreari berdina antzean diola (EE-15). Gainerakoek, aldiz, garrantzi handia edo oso handia ematen diote EBn egoteari, eta argi adierazten dute komenigarritasuna: *“ez dut dudarik EBn sartu beharko lukeela”* (EE-19), edo derrigorrezkotasuna: *“uste dut bai Euskal Herriarentzat eta baita Kataluniarentzat ez dela posible Europatik alde egitea”* (EE-20).

Behar hori, lehenik eta behin, ikuspuntu politikotik dator, estatu propio bideragarria nahi bada, Nazioarteko Komunitatean onartua izan beharko delako: Nazio Batuen Elkartearen eta Europar Batasunean, besteak beste. Iritzi horri beste batzuek elementu subjektiboagoa gaineratzen diote, Europar Batasunak, edo nazioarteko beste erakundeek, estatu izateko ospea ekar diezaioketela estatu berriari: *“ni erosoago sentituko nintzateke barruan, baina ez menpe, baizik eta elkarkide bat bezala. Nire ametsa litzateke Euskal Herria EBren barruan egotea”* (EE-5).

Baina gehiago interesatzen zaigun arlo ekonomikoan ere, enpresaburu gehienek ezinbestekotzat jotzen dute sortzen den estatu berria bazterturik ez geratzea komunitate ekonomiko nagusitik, eta hori EBn egonda konpon liteke. Europak merkatuak ziurta ditzake, eta EBtik at aukera gutxi aurreikusten diote estatu berriari enpresaburuek, eta horrek, noski, jakineza sortzen die. Horrela izango balitz, kide honek dioenez, *“uste dut sektore ekonomiko eta enpresarial batzuen aldetik Euskal Estatuaren kontrako jarrera areagotuko litzatekeela, baita gizartearen aldetik ere”* (EE-8). Iritzi horretan bat datoz ere beste enpresaburu batzuk, hau adibidez: *“ikuspegi orokor batetik uste dut beldur sententzia sortuko lukeela Europatik alde egiteak, eta ez litzatekeela izango oso lagungarria guretzat”* (EE-4).

Monetaren inguruan ez da nabari horrenbesteko urgentziarik, eta bada eurotik kanpoko ibilbidea egiteko prest dagoena, egoerak hala exijituko balu. Baina derrigorrezkotasun maila bera ematen ez badiote ere, komenigarria (beharrezkoa, batzuek) ikusten dute gehienek *euroaren esparruan* jarraitzea, hortik alde eginda, bizitza kalitatea jaitsi egingo litzatekeelako, besteak beste, kide honen ustez (EE-9). Kide berak dioenez, esportazioetan arazoak sortuko lirateke, eta arantzelak handituko lirateke. Finantzetako beste ordezkariak antzeko iritzia du, eta gaineratzen du moneta berria sortzeak arrisku handiak ekarriko litzukeela. Horrela ikusita, *"nire ustez eurotik ateratzea edo bestelako abentura bat arriskutsuegia izango litzateke"* (EE-10).

## ONDORIO GISA

Elkarrizketatu ditugun enpresaburuek, oro har, Euskal Estatuari baietza emateko duten argudio nagusia euskal nazio sentimendua da. Euskal Estatuaren alde daude, ez uste dutelako euren negozioetarako onuragarria izango litzatekeela, baizik eta independente izatea gustatuko litzatekeelako, ikuspuntu politiko batetik. Sentimendu horrez gain, arrazoi ekonomikoak ematen dituzte, noski, bai abantaila orokorrak bilatzeko, eta baita ustezko kalteak ezeztatzeko ere.

Bigarren ildo horretan, elkarrizketatutako enpresaburu guztien ustez, Euskal Herriko enpresa mundua osasuntsu dago, eta hortaz, Euskal Herri independentea ekonomikoki bideragarria litzateke, zalantzarik gabe, eta ez luke zertan arazorik izan behar nazioartean aritzeko. Horretarako arrazoi nagusia da globalizazio aro honetan Espainiaren eta Frantziaren (baita Europaren ere) dependentzia ekonomiko zuzena gutxitzen doala, eta horrela, independentzia prozesu bat ez litzateke izango lehen bezain traumatikoa. Hau da, uste dute Euskal Estaturako prozesua zabalduz gero, euren enpresa ez legokeela arriskuan ez Espainian edo Frantzian, ezta nazioartean ere. Edozein modutan, eta aurrekoari loturik, enpresaburu gehienek prozesu eroso, lasaia eta Espainiarekin eta Frantziarekin adostua nahiko lukete, aldekarreko independentzia arriskutsua ikusten dutelako.

Euskal Estatu bideragarria izango litzateke, hortaz, eta sortzeko helburu nagusia politikoa litzateke, gehienek ez baitute uste independentziak eraginik (ez positiborik eta inola ere ez negatiborik) izan lezakeenik euren sektorean, hasierako fasean arazoak sor daitezkeen arren. Baina estatu hori eraikitzeke oztupo nabariak ikusten dituzte, eta nahiko zehaztuta omen daude eurentzat. Kanpora begira da haietako bat, nabarmena: Espainiaren eta Frantziaren borondate falta horrelako prozesua aurrera eramateko. Eta bi gehiago zehazten dituzte barrura begira: alde batetik, Euskal Herriko alderdiek akordioetara heltzeko duten gaitasun eza; eta, bestetik, gaur egun ez dagoela halako prozesu bat eskatzen duen sektore sozial adierazgarririk.

Elkarrizketatutako enpresaburuek zertarako nahi dute, orduan, Euskal Estatu? Oro har, uste dute Espainiarekin edo Frantziarekin baino hobeto moldatuko litzatekeela Euskal Herri independentea, eta garapena eta aurrerapena bermatuko lukeela. Abantailak asko izan litezke: alde batetik, hurbiltasuna edo demokrazia sendoagoa izatea; beste aldetik, hezkuntza eta formazio lanean aritzea; eta horren guztiaren gain, komunitatearen iraunkortasuna bermatzea. Azken ideia hori askotan agertzen da: *herri ikuspuntua* garatu eta landu behar dela uste dute.

Hori dena esanda, Euskal Estatuaren alde dauden enpresaburuek nahiko bakarrik egotearen sententzia dute, nahiz eta ez den behar bezala kontrastatutako datua, gai horretaz gehiegi ez direla mintzatzen aitortzen dute eta. Aitzitik, uste dute enpresaburuak ez liratekeela gehiegi inplikaturik, iritzi orokorra delako enpresaren mundua bigarren maila batean gelditu behar dela halako prozesuetan (baina elkarrizketatutako asko prest legoke zerbait egiteko maila pertsonalean). Enpresaburu horiek nahiago lukete alderdien arteko akordioa gertatuko balitz.

Euskal Estatuak, halaber, Europar Batasunean egon beharko luke, eta euroan jarraitu, iritzi gehienek ustez, baina hori dena ezin da ziurtatu, eta hasiera batean ziurgabetasuna gerta litekeela onartzen dute, baita Europar Batasunean jarraitzeko ere. Espainiak eta Frantziak horixe bilatuko lukete, baina epe erdian merkatuak oreka berreskuratuko lukeela uste dute.

Herrialdeka, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian uste da prozesua EAEn hasiko dela, eta hori bera positiboa izango litzatekeela haientzat, harremanak sendotuko liratekeela uste dute eta.



**EUSKAL KULTURAKO ERAGILEEN IRITZIETAN SAKONTZEN**

## Sarrera

Euskararen alde eta euskarazko kulturgintzan diharduten kulturgileek balizko Euskal Estatu bati buruz dituzten iritziak eta jarrerak jaso nahi izan dira atal honetan. Izan ere, euskal gizartearen barruan kulturaren eragileek sektore esanguratsua osatzen dutela hartu da kontuan ikerketan. Kulturgileei azterketan emandako garrantzia hori ez dator kulturak berak eta kulturgintzan aritzen diren pertsonak berez edozein gizaratan daukaten toki pribilegiatutik soilik, euskal gizartearen euskarazko kulturak eta euskal politikak, biek ala biek, euskararen aldeko defentsan erakutsi duten loturatik baizik.

Hala da, Euskal nazionalismoaren hastapenetatik eta, bereziki, mugimendu nazionalistak 60ko eta 70eko hamarkadetan egindako formulazioetatik aurrera, euskal hizkuntza eta euskaraz egindako kultura euskal nazio-identitatearen muinaren osagarritzat hartu dira. Harrez geroztik, kausa linguistikoa eta kulturala euskal nazionalismoaren aldarrikapen independentistari eta, birtualki, balizko Euskal Estatu baten sorrerari loturik agertu dira. Euskararen inguruan berariazko herri-mugimendu esanguratsua garatu da azken 50 urteetan, askotariko adierazpen eta moldeetan gauzatu dena eta, orokorrean, *Euskalgintza* izenez ezagutzen dena. Mugimendu horretatik euskararen eta euskaraz egindako kulturaren alde burututako egintzak eta diskurtsoak eta euskal nazionalismoak nazio-eraikuntzan egindako hainbat urrats sintonia berean egon dira, eta, behin baino gehiagotan, batzuen eta besteen eginkizunek elkar elikatu dute. Hartara, euskal kulturgintza politikagintza nazionalistari loturik egon da luzaroan.

Hori guztia aintzat harturik, arreta berezia eskaini zaie *Euskalgintzako* eragileei Euskal Estatuari buruzko ikerketa honetan. Ondorengo orrialdeetan *Euskalgintzako* eta euskal kulturgintzako hainbat kideri egindako elkarrizketen emaitzak jasotzen dira.

## Metodologia

Atal honen helburu nagusia euskararen aldeko mugimenduaren kideek eta euskarazko kulturaren eragileek sortutako diskurtsoak jasotzea eta aztertzea da. Helburu nagusi hori honako azpi-helburuetan gauzatu da:

- Euskal kulturgileek Eskozian eta Katalunian gauzaturiko burujabetza prozesuei buruz dauzkaten iritziak eta prozesu horiek Euskal Herrian izandako eraginari buruzko ikuspegiak bildu.
- Euskal Estatuaren eraikuntza proiektuaz kulturgileek dituzten iritziak jaso eta estatu horren bideragarritasunari buruz agertzen duten ikuspegia eskuratu. Posible al da Euskal Estatu baten eraikuntza? Zeintzuk dira horretarako ezinbesteko baldintzak eta baldintzaak? Zein helburu izan behar luke?
- Kulturaren ikuspegitik kulturgileek balizko Euskal Estatuari esleitzen dizkieten eginkizunak ezagutu. Zertarako estatu kulturaren perspektiba eta interesetatik abiatuta? Zeintzuk izango lirakeke estatuak garatu beharreko premiazko politikak? Zeintzuk lehentasunak?
- Euskal kulturgileek balizko Euskal Estatuari buruz osatzen dituzten irudikapen sozialak deskribatu. Modu ideal batean, zer nolako estatu imajinatzen dute euskal kultura esparruaren ordezkariak? Zeintzuk dira beren ustetan jarraitu beharreko estatu-ereduak? Nola txertatu beharko litzateke orain arte gauzatutako ekimen kulturala egitura politiko berriaren testuinguruan?

Gai horien inguruan galdetuta, proiektzio ariketa bat egitea eskatu zaie kulturgileei, aztertzeko zer nolako esanahiak esleitzen dizkieten balizko Euskal Estatu bati aldarrikapen linguistikoa eta kulturalaren interesetatik abiatuta.

Datuak sortzeko teknika kualitatiboak erabili dira. Alde batetik, sakoneko elkarrizketak egin zaizkie euskararen aldeko mugimenduaren askotariko erakundeetatik eta sentsibilitateetatik datozen informatzaileei. Ikuspegi kualitatiboari jarraiki, laginketa estrategikoa egin da ikerketan erabilitako lagina diseinatzeko. Laginaren unitateak hautatzeko erabilitako irizpideek ikuspegi aniztasuna lortzea izan dute helburu. Guztira, 13 sakoneko elkarrizketa egin dira 2015eko martxoaren eta maiatzaren bitartean. Informatzaileak *Euskalgintza* eta euskal kulturgintza duten kokapen kualifikatuaren arabera aukeratu dira. Denek daukate ibilbide luzea aktibista nahiz aditu eta profesional moduan honako bost esparru hauetan: unibertsitatean, komunikazioan, kultura-industrian eta argialetxeetan, eta literaturan, hurrenez hurren.

Elkarrizketak diseinatzeko eredu estandarizatu irekia erabili da, hau da, galdera-zerrenda bera egin zaie elkarrizketatu guztiei, eta erantzunak irekiak eta askeak izan dira. Elkarrizketetuei zuzendutako galderak lau gai nagusiren ingurukoak izan dira: hizkuntza eta kultura Europako oraintsuko burujabetza prozesuetan (Eskozia eta Katalunia), hizkuntzaren eta kulturaren eginkizunak estatu eraikuntzan, estatuaren zeregina kulturaren garapenean eta balizko estatu baten hizkuntza politikak, hurrenez hurren.



Beste alde batetik, elkarrizketetatik lortutako informazioa osatzeko *Euskalgintzarekin* lotutako aldizkari eta argitalpenetatik jasotako dokumentu idatziak berrikusi eta aztertu dira, baita sare sozialetatik hartutako dokumentuak ere. Jorrotutako informazioek eta gai-zerrendek ikerketarako duten garrantziaren arabera osatu da argitalpenen lagina. Izan ere, ikerketak berak ere oihartzuna izan du *Euskalgintzaren* kideen artean eta ondorioak eragin ditu euskal esparru publikoan. Hala, gaiari buruzko eztabaidak sortu dira euskal kulturaren munduan erreferentziakoak diren zenbait argitalpenetan, eta hitzaldiak edo ikastaroak ere antolatu dira gai hori *Euskalgintzaren* ikuspegitik aztertzeko<sup>18</sup>. Batu diren dokumentuen analisiaren bitartez, balizko Euskal Estatuari buruzko eztabaidaren nondik norakoak identifikatu nahi izan dira.

## ABIAPUNTUA: DIAGNOSTIKOAK

### Krisi garaia

Euskal kulturgileek ingurune sozial eta politiko jakin batean kokatzen dituzte beren iritziak eta usteak. Ildo horretan, hainbat eragile bat datoz ideia batean: euskal gizarteak ziklo amaiera bat bizi duela hautematen dute. Halaz ere, garai baten itxiera horren diagnostikoa faktore askoren eraginari egozten zaio. Politikari dagokionez, zenbait gai aipatzen dira garai jakin baten amaieraren sintoma modura, besteak beste, ETaren osteko egoera berria, autonomiaren garaia bukaera Hego Euskal Herrian, eta Espainiak bizi duen krisi larria (ekonomikoa eta soziala ez ezik, espainiar nazio-proiektuaren gainbehera ere badena). Horrekin batera, ikusten da gizartearen aldetik ere emantzipazio gogo bat dagoela. Nazioartean, berriz, Eskoziako eta Kataluniako prozesu politikoak aurrekarizat jotzen dira eta uste da Euskal Herrian garatzen ari diren burujabetza-bide berrietan eragina izan dezaketela.

Baina, euskal politikagintzan bakarrik ez, euskal kulturaren alorrean ere amaitutzat jotzen da euskararen aldeko jardunaren aro bat. Horren seinale da, adibidez, orain arte gauzatutako hizkuntza politiken agortzea. Politika horiek eman ei dute eman beharrekoa eta dagoeneko ez ei dira eraginkorrak, kulturgile euskaltzaleen ustetan. Ezinbesteko ikusten dute, beraz, beste ildo politiko eta kultural batzuk jorratu beharra. Bestalde, politika linguistikoaren ezarraz harago, *Euskalgintza* eta euskal kulturgintza bera krisian daudelako sentipena ere zabaldua dago elkarrizketatuen artean. Ildo horretan, *Euskalgintzak* ez duela garai berriei aurre egiteko baliabide egokirik irizten da. Behinolako mobilizazioak eta gizartearen parte-hartze aktiboa apaldua geratu dira azken urteotan. Ez omen dago aurrera egiteko eguneratutako diskurtsorik ere. Nora eza gailendu da, hartara, ziklo politiko eta linguistiko honen amaieran.

*Euskalgintzan askotan esaten da 50 urtetako zikloa amaitu dela, orain dela 50 urte sortu zelako euskara batua, ikastolak eta abar. Politikan, akaso, 30 urtetako zikloa ere igaro da, erakunde autonomikoak sortu zirenetik. Ziklo horiek erakutsi dute eman dituztela gauza batzuk, eta muga batzuk ere erakutsi dituzte. Zoru bat jarri da, baina sabaia ere ikusten da egunero. Uste dut hori errebisatu behar dela, bai Legebiltzarrean, Nafarroako aldaketa, ... Uste dut sintoma batzuk daudela posible egiten dutenak. Sintoma asko daude zerbait ezberdin egozten hasten ari dela ikusteko, eta uste dut horrek kointziditzen duela, alde batetik, orokorrean, krisiak egin duen jendartearen suspertzearekin, hau da, "gauzak dauden moduan uzten baditugu amildegira joan gaitzeko". Eta baita kointziditu du Espainiaren proiektua bere momenturik eskasenean dagoela aspaldiko partez (EK-13).*

Krisiaren diagnostikoan antzekotasunak dauden arren, haren ondorioetan ez dago iritzi bateraturik. Krisi horretan, aukera ikusten dute kulturgile batzuek, batez ere aldaketa politikorako; zehazkiago esanda, Eskozian eta Katalunian hasitako ildoari jarraiki, independentziara eta Euskal Estatu baten sorrerara eramango lukeen aldaketa sozial eta politikorako, sezezionismoaren bidetik. Ildo berean, nabarmen dute gizarte zibilean ere badagoela emantzipazio gogo. Beste batzuek, ordea, ez dute hautematen aldaketarako aukerarik, are gutxiago, euskararen galera birbideratzeko. Iritzirik muturrenekoenean, egoera linguistikoa eta kulturalaren endekapena itzulezinezko jotzen dute.

<sup>18</sup> 2015eko Ekainaren 25ean "Euskara, estatugintza eta nazioagintzaren erdian" izeneko jardunaldia antolatu zuten Udako Euskal Unibertsitateak eta Jakin aldizkariak UEUren ikastaroen artean. Bestalde, Jakin aldizkariak ale monografikoa argitaratu zuen 2015eko 208. zenbakian, honako izenburuaren inguruan: "Herria, nazioa, estatua. Eta euskararekin zer?".

## Bi diskurtso kulturgileen artean

Jasotako adierazpen kontrajarriek bi diskurtso-ildo zirriborrotzen laguntzen dute. Biek ala biek jotzen dute euskara euskal nortasunaren osagarri oinarritzotzat eta, ondorioz, lehenetsi egiten dute kulturgileen helburuen artean euskararen berreskurapenak eta euskal kulturaren sustapenak egon behar dutela. Baina, bereizgarri nabarmenak ere badituzte. **Lehenengo diskurtsoak** kutsu politikoagoa dauka eta uztartu egiten ditu, batetik, euskal kulturgileen proiektu linguistiko eta kulturala –eta hari lotuta, euskal “nazio kulturalaz”<sup>19</sup> egiten duten defentsa- eta, bestetik, burujabetzarako proiektu politikoak, nolana horien zehaztapena: independentzia, estatua... Bestela adierazita, lehen pentsamendu-ildo horrek bateragarri ikusten ditu kulturgileen proiektu linguistiko eta independentziaren eta balizko estatuaren proiektua, hau da, nazio kulturalaren eraikuntza eta estatu politikoaren eraikuntza. Esate baterako, diskurtso mota hori adierazten dutenek ilusioz ikusten dituzte Gure Esku Dago ekimena eta antzekoak, eta horietako batzuek modu aktiboan parte hartzen dute aipatu iniziatiban. Euskarak eta euskal izaerak etorkizuneko proiektu politikoetan ahalik eta pisurik handiena izan dezaten ahalegintzen dira partaidetza horren bitartez.

*Ikusten da European estatuak sortzea ez dela aparteko problema (...) Gizartearen aldetik emantzipazio gogo bat piztu egin da azken urteotan (...) Nazio kulturalaren garapena askoz luzeagoa da (...) erritmo desberdina dauka. Kontua litzateke jakitea badaudela bi arrisku, nire ustez. Bat da bata bestearen menpean jartzea. Eta bigarrena, bata bestearen kontra. Eta nire ustez ez daude ez menpe, ez kontra. Bide paraleloak jarraitu behar dituzte, baina bide osagarriak izanda. Ezin da euskararen normalizazioa edo gure nazio kulturalaren garapena utzi independentziaren menpe. Hau da, “orain independentzia eta gero gerokoak” esaten den hori ez da ona. Helburu kulturalak helburu politikoen menpe jartzea ez da batere ona guretzat. Baina, ezin da esan ere independentziaren alde doanak euskararen kontra egiten duela, edo halakoak. Nik uste dut independentziak lagundu dezakeela euskararen garapenerako, ez da seguru baina lagundu diezaioke euskarari. Orduan, goazen era paraleloan, eta osagarriak diren ekintzetan kointzidituko dugu (EK-13).*

Beste kulturgile batzuek, aldiz, eszeptizismoz eta, zenbaitetan, susmoz ikusten dituzte Euskal Herrian sortu berri diren ildo horretako ekimenak. Izan ere, **bigarren diskurtsoaren** arabera, proiektu politikoek -independentzia politikoa eta Euskal Estatua, besteak beste- prozesu kulturalaren menpekoak izan beharko lukete. Diskurtso horren argudiatze-ildoan, euskararen eta euskal kulturaren berreskurapena eta defentsa goiburua hartuta, euskal nazio kulturalaren eraikuntzari, eta hari soilik, eman behar zaio lehentasuna. Hartara, inoiz sortzekotan, Euskal Estatua euskal nazio kulturalaren gain sortu beharko litzateke eta euskal nazio hori babesteko helburuarekin, ez beste ezertarako. Inplizituki onartzen da diskurtso horretan gaur egunean Euskal Estatua ezin izango litzatekeela nazio kulturalaren gainean eraiki, euskararen egoera soziolinguistikoaren ondorioz. Gainera, euskal kulturgile guztiak aipatzen duten konpondu gabeko auzia dago lurraldetasunean. Ageri denez, euskal hiztunen lurralde guztiak barnean hartuko ez litzuzkeen estatu proiektu batek, euskal hiztunen komunitatearen banaketa lekarke. Horrenbestez, lehendabizi euskalduntze prozesuan eta euskal nazio kulturalaren eraikuntzan egin behar dela ahalegina adierazten dute ikuspegi honetan lerratutako kulturgileek, hizkuntzaren aldeko aldarrikapena bestelako helburu batzuen aurrean diluitzeko arrisku bizi dagoelakoan.

*Gure Esku Dago-ren eta alderdi politikoen jendeak badauka erantzukizun handia hizkuntza-komunitatea erdigunean jartzeko (...) Baina, kontua da zer jartzen dugun aurretik. Gure subjektua edo objektua zein da? Nik oso argi daukat momentu honetan ez dela estatua. Nazio kulturala da. Estatuaren aurretik (EK-12).*

*Orain Gure Esku Dago-ren planteamendua piztu da, eta agian esango dute: “gu pre-politikoak gara, identitatearen kontua alde batera utzi, eta elkartu gaitezen”. Gure Esku Dago-k oso ondo adierazten du hori. Beraiek konturatu dira hemen indarrak batzeko era bakarra maila politiko-folklorikoan egin behar dela (EK-6).*

## Eskoziaren eta Kataluniaren irakaspena

Oso desberdinak izan arren, Eskoziako eta Kataluniako burujabetza esperientziek irakasgai bera ekarri dute, kulturgileen ustetan. Alde batetik, agerian utzi dute identitatezko edukiei buruzko ikuspegi aldatu egin dela burujabetza prozesuetan, eta nortasun ikur gisa hizkuntzak behinola izan zuen pisua ahuldu egin dela. *Euskalgintzaren* barruan erdiguneko kokapenak ez daukaten

<sup>19</sup> “Nazio kulturala” kulturgileek beren adierazpenetan hitzetik hortzera erabili duten kontzeptua da. Funtsean, hizkuntzan (euskarari) oinarritutako nazioaz mintzo dira: euskal hiztunen komunitateak osatuko luke delako nazio kultural hori. Baina, kontzeptuaren barruan lurraldetasuna ere hartzen dute aintzat, hau da, euskal hiztunak daudeneko lurraldeak ere barnean hartzen ditu kontzeptuak, euskal kulturgileek erabili duten adieran. Hemendik aurrera, “nazio kulturalaren” kontzeptua elkarriketatuek eman dioten esanahiarekin agertzen da testu honetan.

kulturgile batzuek identitateari buruzko ikuspegi malgua erabiltzen dute, hau da, ez dute identitatea hizkuntzari loturik ikusten, ezinbestean. Horien aburuz, identitatea bera ulertzeko moduak ere aldatu egin dira globalizazioaren garaian. Hala, iritzi horien ustez, talde nortasunak osatzeko moduak linguistikoak ez ezik bestelakoak ere badira gaur egun: kultura elementuen ordez zenbait unetan ezaugarri politikoez, ekonomikoek baita historikoek ere garrantzia hartu dute. Independentziaren aldarrikapena bera nortasun mugimendu bilaka daiteke une jakin batean. Halaz ere, argi diote kulturgile horiek beren hautua hizkuntzan eta kulturaren oinarritutako nortasunaren aldekoa dela euskal gizarteari dagokionez. Zergatik kulturaren ahulezia gaur egungo nortasunen eraikuntzan? Kulturak ere aldatu egin direlako, ez dira dagoeneko sistema itxiak, lehen ziren bezala. Gizarte berean kultura jarioak eta askotariko hizkuntzak biltzen dira. Eta zailagoa da nortasun finkoak eraikitzea hizkuntza eta kultura baten gainean. Dena den, diote, globalizazioak kultur identitateak desegiten ditu baina kultur identitateen aldeko mugimenduak ere sorrarazten ditu.

Beste alde batetik, Eskoziako eta Kataluniako prozesuek agerian utzi dute demokraziari buruzko diskurtsoek identitatezko diskurtsoen lekua hartu dutela, neurri handi batean, eta nazio identitateari buruzko ideiarene ordez legitimazio demokratikoa bilatzen dela gaur egungo burujabetza prozesuetan. Kulturgile batzuen ustez, lerratze berri hori itxurazko aldaketa izan da. Adibidez, pentsatzen dute Katalunian kulturak eta hizkuntzak beti eduki dutela politika soberanistak baino askoz indar handiagoa. Aldiz, beste batzuen ustetan, aldaketa hori egiturazkoa da. Are gehiago, Euskal Herrira ere iritsi da, *Gure Esku Dago* eta antzeko ekimenen bidetik. Arazoa da, aldaketa horrek talka egiten duela orain arte euskararen eta euskal kulturgintzaren munduan nagusi izandako helburuekin. Gainera, politikari abertzale batzuk tren hori galduko ote den beldurrez dabilzala uste dute kulturgileek. Ondorioz, gauzak arinegi egin nahian dabilzala iritzen diote.

Hain zuzen ere, Euskal Herrian aurreko fase politikoan gailendu zen aldaketarako eredu politiko klasikoa haustera etorri dira Eskoziako eta Kataluniako esperientziak, kulturgile batzuek nabarmentzen duten bezala. Orainsu arte, diote, uste izan da egunen batean negoziazio bat lortuko zela borroka armatuaren presioz, autodeterminazioaren aukera zabalduko zela eta, horrela, Euskal Herriko lurraldeen (edo lurralde batzuen) estatus juridikoa aldatuko zela. Baina, Kataluniako esperientziaren ostean ikusi da, alde batetik, estatuaren oniritzirik gabe gauzatu daitezkeela independentzia prozesuak, bide demokratikoa erabilita. Horren eraginez, gaur egun Euskal Herrian ere erabakitzeko eskubidearen inguruko diskurtsoa garatu da. Beste alde batetik, ikusi da identitateari baino garrantzia handiagoa eman zaiela beste elementu batzuei independentzia prozesuetan, besteak beste ongizateari, abantaila ekonomikoari, jendearen nahiri eta eskubideei. Kulturgileek aldaketa horien kontzientzia dute eta, aldi berean, argi daukate beraiek euskara eta euskal kultura zaintzeko nahi dutela estatusa. Baina, jakin badakite hori ez dela gaur egungo diskurtso nagusia eta gauzatutako aldaketa, alegia, printzipio demokratikoen aldeko aldaketa, sakonekoa dela. Izan ere, diskurtso berri horretan subjektua dagoeneko ez da ezaugarri kultural, etniko edo arrazazko batzuk dituen nazioa, bere borondatea adierazten duen gizartea baizik. Eta planteamendu horrek arrisku handia dakar euskal kulturgileen interesentzat, euskaldunak gutxiengoa liratekeelako balizko Euskal Estatuan eta, hartara, egoerak Euskal Herri independente erdaldunaren aukerak zabalduko lituzkeelako, kulturgileon ustetan.

*Batetik, taktikoki eta konbenientziaz, egoki ikusten dut ikuspuntu aldaketa. Baina, bestetik, ohartzen naiz ez dela aldaketa taktiko bat bakarrik, baizik eta aldaketa sakonago bat dela. Eta, hain zuzen ere, lehen aipatu dugun erabakitzeko eskubide horri lotuta dagoena. Alegia, printzipio demokratiko bat da. Beraz, protagonista ez da nazio abstraktu bat, ezaugarri kultural, arrazial edo etniko batzuk dituen eta dituelako, baizik eta nolabaiteko jendarte batek eta bere nahiek izan behar dutela gidari. Eta esango nuke, taktiko bakarrik ez, funtsean ere bat natorrela horrekin. Hala ere, horrek arrisku bat izan lezake nire ikuspuntutik, eta nire interesen aldetik. Eta arrisku hori da niri ez litzaidakeela interesatuko Euskal Herri independente erdaldun bat (...). Funtsean, nire interesen aldetik, berriz diot, independentzia ez da independentzia formala edo jendarte baten nahiak edo ongizatea, baizik eta badela euskal kulturaren eta, batez ere, euskararen biziraupena ziurtatzea (EK-8).*

## Subjektu politikoaren auzia: euskara erdigunetik desplazatuta estatu-proiektuan

Euskal kulturgileen artean bi diskurtso orokor identifikatu direla aipatu da arestian. Lehen diskurtsoan kokatu daitezkeen kulturgileek, oro har, ontzat ematen dute burujabetza diskurtsoetan printzipio demokratikoen alde egindako jauzia. Are gehiago, uste dute independentziak eta estatuak lagundu dezaketela euskararen garapenean. Ñabarduraz azaltzen dute beren jarrera. Argi uzten dute euskararen normalizazioa ezin dela independentziaren menpe utzi eta helburu kulturalak ezin direla helburu politikoaren pentzuan egon. Baina, horrekin batera, ez dute ulertzen estatuaren aldeko proiektu demokratikoak, berez, euskararen kontra egiten duenik. Aitzitik, kulturgileen presentzia aktiboa aldarrikatzen dute zenbait ekimenetan (*Gure Esku*

Dago ekimenean, esaterako), euskarak eta euskal kulturak ere pisua izan dezaten bertan. Zeharka baldin bada ere, subjektu demokratikoaren onespenean bat dago diskurtso honetan. Euskal kulturgintzan arituta ere, *Euskalgintzari* dagokionez esparru periferikoetan (unibertsitatean, adibidez) diharduten kulturgile batzuei dagokie diskurtso-ildo hori, baita kulturgintzan aritzeaz gain jarduera "politikoagotan" parte hartzen duten kulturgileei ere (*Gure Esku Dago* ekimenean, adibidez).

**Bigarren diskurtsoan** kokatzen diren kulturgileek, ordea, ez dute zalantzarik estatu eraikuntzaren subjektua euskal nazio kulturalak izan beharko lukeela. Ikuspegi horretatik, uste da nazioa "hustu" egin dutela gaur egun sortzen ari diren estatu proposamenek. Horrenbestez, gaur egungo eztabaiden aurrean, "estatu zertarako" galderaren inguruko gogoeta egin behar da, haien ustetan. Eta ez da nahikoa estatu hori demokratikoagoa izango dela erantzutea. Hori esatean, baztertu egiten da hizkuntzaren auzia. Areago, alde batera uzten dira euskaldunak, estatuaren aldeko gehiengoak irabaztearen truke. Lehen, hizkuntza zegoen proiektu politikoaren zentroan. Orain, ez. Eta ez dute nahi estatu edozein baldintzetan eta edozertarako, euskara bultzatzeko ez bada.

*Nondik uste duzu etor daitekeela euskal kulturgintzarako esperantza? (...) Nazio linguistikoa edo kulturaletik, edo estatu politikotik? Nik ez daukat zalantzarik. Nazio kulturala lehentasunez jotzen dut (EK-12).*

*Guri esaten zaigu irabazi behar dela jendea, pentsatuz besteak direla eta guk sakrifikatu behar dugula. Aldi berean, suposatzen du onartzea euskaltzale guztiak independentziaren alde daudela edozein modutan eta, behar bada, ez da horrela (...) Lehen, hizkuntza zegoen zentroan eta, orain batera ez, eta halako aldaketek harritu egiten naute (EK-5).*

Bide beretik doaz hainbat kulturgileen adierazpenak, batzuetan kontzeptu desberdinak erabiltzen dituzten arren. Kulturgile baten hitzetan, euskararen nazio bat eraiki behar da, zentzu kulturean eta zentzu politikoan. Beste baten esanetan, ekimena hizkuntza komunitateak hartu behar du eta horrek agindutakoa egin beharko lukete alderdi politikoek [alderdi abertzaleek]. Hartara, lehendabiziko zeregina hizkuntza komunitatea antolatzea da, eta hortik eraiki behar da hizkuntzaren geroa. Nazio kulturalak lehentasuna izan behar du. Iritzirik muturrekoetan, zalantzan jartzen da estatu batek epe laburrean hizkuntza komunitateari mesede handirik egingo liokeenik. Aitzitik, uste da botere politiko gutxien egon den garaian aurreratu duela gehien hizkuntza komunitateak, eta, aldiz, instituzionalizazio politikoaren ondorioak kaltegarriak izan direla, neurri batean, gizartearen desaktibazioa ekarri dutelako.

*Nazio kulturala lehentasunez jotzen dut eta beste hori [estatu] laguntzera dator. Beraz, niretzako bitartekoa da estatu, eta subjektua hizkuntza komunitatea da. Eta ikusten dudana da planteamendu osoan subjektua bihurtzen dela estatu, eta hizkuntza komunitatea dela ekonomia edo beste edozein aldagai bezalakoa. Nik ez dut termino horietan pentsatzen (EK-12).*

Bigarren diskurtso-ildoan lerratzen diren kulturgileak *Euskalgintzaren* muineko instituzio edo elkarteetan kokatuta daude, eta *Euskalgintzaren* eledun legitimatuztat dituzte beren buruak. Harreman-sare eta zirkulu sozial berberetan jarduten dutenez, trinkotasuna ez ezik erabilitako argudiatze-ildoen antzekotasun handia ere agertzen du haiek adierazitako arrazoibideak. Diskurtso horren bereizgarriak nabarmenak dira: lehenengo diskurtsoa baino askoz ere zurrunagoa da nortasuna ulertzeko moduetan (euskal nortasuna hizkuntzaren gainean oinarriturik ulertzen da, ez beste ezaugarri batzuetan), euskararen zentraltasunaren interpretazioan, eta kulturgintzaren eta egintza politikoaren logikak zorrozki bereizteko eran, besteak beste.

## Indar politiko nazionalistei buruzko mesfidantza

Euskal Herrian sortzen ari diren estrategia politiko berriei buruzko ikuspegi ezkorra eta eszeptikoa ezin daiteke ulertu politikagintzari buruz euskal kulturgintzan nagusi den iritzirik kritikoa aintzat hartuta ez bada. Izan ere, politikari eta, bereziki, politikariei buruzko mesfidantza handia dago euskal kulturgintzan. Areago, politikari abertzaleei buruzkoa.

Alde batetik, euskal kulturaren diskurtsoetan euskal gizarte politikaren eta politikarien menpeko gizarte-mota gisara irudikatzen da, batik bat oraintsura arte gizarte horretan bizi izan den gatazka politiko bortitzaren ondorioz. Eskoziaren eta Kataluniaren aldean Euskal Herriko gizarteak dituen bereizgarrien artean kultura politikoa aipatzen da, gehien bat, kulturgileen artean. Haien iritziz, Euskal Herrian oraindino gatazkak eztabaida politikoa kutsatzen du. Euskal Herrian ez bezala, Katalunian gizarte zibil indartsua dago, alderdi politikoetatik autonomia maila handia duena. Aldiz, Euskal Herrian gizarte zibila alderdi politikoaren satelitea da, jende asko alderdien menpe dago, oso politizatuta (alderdikeriaren zentzuan) eta alderdiekiko

lerratuta. Alderdi politikoek interes endogamikoak dauzkate beti. Horien aurrean gizarte zibil autonomia, autogestionatua eta herri ekimenetan antolatua eskatzen da euskal kulturaren esparrutik. Eta, gizarte eredu horren barruan, kulturarentzako leku garrantzikoena aldarrikatzen da.

Indar politiko abertzaleei dagokienez, elkarrizketatuen adierazpenetan sumatzen da garai batean kulturgintzak indar nazionalistekin helburu batzuk partekatu zituela, besteak beste, euskararen eta euskal kulturaren defentsa, eta biak etorri zirela bat hizkuntzan oinarritutako euskal nazioaren aldarrikapenean. Baina, kulturgileek ikusten dute indar nazionalistek azken urteetan euskarari buruzko jarrera anibalentea agertu dutela, *de facto*, eta ez diotela euskarari zentraltasunik eman beren helburuetan. Ildo berean, euskal kulturgintzaren eta indar politiko abertzaleen arteko arrakala gero eta handiagoa hautematen dute. Orain, 50eko hamarkadako eztabaida berbera dagoela Euskal Herrian gogorarazten dute batzuek, Txillardegiren hitzak egungo egoerara ekarrita ("Ez dakigu euskarak iraungo duen estatuarekin, baina estaturik gabe seguru ezetz"). Hala ere, uste da orduko politikariek (gaur egungoek ez bezala) eta kulturgileek argi zeukatela borroka politikoa eta hizkuntzaren borroka batera zihoazela. Eta estatua zela bien helburua. Gaur egun ez da horrelakorik gertatzen, hainbaten iritzi.

*Uste dut euskal abertzaletasunak euskararekiko daukan jarrera praktiko anibalente hori oso nabarmena da (...) batzuetan euskarari zentralitatea ez emanda (EK-4).*

Abertzaletasunari buruzko azken diskurtso kritiko hori modu erradikalean agertzen da zenbaitetan, *Euskalgintzaren* erdigunean kokatuta dauden eledun batzuen adierazpenetan islatzen den bezala. Kulturgile horien ustetan, badago euskal kulturgintzaren inguruan gune trinko bat, non jendea euskal kulturarekin eta identitatezko jarduekin engaiaturik dagoen. Euskal Herriko elite politikoari, ordea, arrotz izan zaio mugimendu hori. Eztabaida politikoetan kulturgintzak toki oso txikia izan du beti. Elite politiko abertzaleak ez die behar bezalako garrantzia ematen euskalgintzari eta kulturgintzari. Une honetan naziogintza oinarri identitario eta kulturalaz gabetu behar dela planteatzen ari dira politikariak. Horrek kultura gaelikoaren ildoan jartzen du Euskal Herria, Irlandan (eta gaelikoaren beste lurralde batzuetan) ere errenuntzia nabarmena egin baitzitzaie kulturari eta hizkuntzari. Horrenbestez, *Euskalgintzaren* zeregintzat jotzen dute batzuek euskara eta euskal hiztunen komunitatea erdigunean jartzea, alderdien eta aukera politikoen gainetik. Izan ere, pentsatzen dute alderdikeriak eta alderdien arteko gatazkek min handia egin diotela euskarari.

*Uste dut (...) elite politiko abertzaleak ez diola behar bezalako indarririk eta garrantzirik eman kulturgintzari. Beraz, momentu batean planteatzen baldin bada naziogintza gabetu behar dela oinarri identitario eta kultural horietatik, nik ez dut uste eragozpen oso handirik ikusiko zutenik (EK-1).*

Indar politiko nazionalistak jomugan hartuta, zorrotz agertzen dira euskal kulturgintzako eragileak EAJ-PNVren nahiz Ezker Abertzalearen aurrean. Batek baino gehiagok parekidetu egiten dituzte bi indar politikoak, besteak beste, biek izan dituztelako antzeko hizkuntza politikak beren inguruko hedabideetan. Horrek zalantzak eta susmoak sortzen dizkie Euskal Estatu batean izango luketen jarrera linguistikoari buruz. Halaz ere, are suminagoak dira *Euskalgintzako* erdiguneko kulturgile batzuek Ezker Abertzaleari eta Sortu alderdiari egindako kritikak, azken aldian euskararen defentsan amore eman izana egozten dietelako proiektu politiko baten mesedetan. Aldaketa hori *Euskalgintza* isolaturik uzten duen aliantza historiko inplizitu baten haustura moduan interpretatzen dute.

*Lehen ere [60 eta 70eko urteetan] egon ziren halako jarrerak, baina haiek espainolistak ziren eta hauek ez, nahiz eta beraien praxi linguistikoan eta kulturalean hala diren (...) Kezkagarria da mugimendu berri hau. Abertzaletasunetik bertatik datorkigu euskara Euskal Estatu bat sortzeko oztopo izan daitekeenaren ideia. Hau berria da! PNV etor dakizuke hori esaten, baina SORTUtik etortzea hori! (...) Korronte horren aurrean, zer egin behar dugu euskaltzaleok? Hau da, euskaraz bizi nahi dugunok eta euskara arazo bitala dugunok? (EK-6).*

## Eskoziak eta Katalunia ezin dira Euskal Herrirako eredu izan

Ildo kritiko berean, kulturgile batzuek ez dute ulertzen Eskoziak eta Kataluniak izan behar dutenik Euskal Herriarentzat eredu. Horien ustetan, Eskoziako prozesua eredu bilakatu da demokratikoa eta konfrontaziorik gabekoa izan delako. Eta (formalki) arrakastatsua. Baina, aldi berean identitateari (identitate kulturalari) batera garrantzirik eman gabeko prozesua izan denez, ez dute ulertzen eredutzat har daitekeenik Euskal Herrian, are gutxiago *Euskalgintzaren* eta kulturgintzaren ikuspegitik begiratuta.

*Niri paradoxa bat sortzen zait: bada ideia Eskoziatik eta Kataluniatik datorrena, independentista izateko ez da zertan abertzale izan behar. Izan zaitezke independentista abertzale izan gabe (...) Nik oraindik disoziazio hori ..., ulertzen dut, baina ez zait iruditzen disoziazio finko bat. (...) Azkenean, independentziaren banderarekin geratuko dira abertzaleak direnak eta kulturarekin lotura dutenak. Nazionalista izan gabe, estatua? Agian koiunturalki, momentu konkretu batean ... (EK-5).*

Euskalgintzako eta euskal kulturgintzako kideek askotariko argudio-ildoak erabiltzen dituzte Kataluniako eta Eskoziako esperientziak, eta Euskal Herriko egoera bereizteko. Modu adierazgarrian, "nazionalismo utilitaristaren" kontzeptua aipatzen du kulturgile batek gaur egun, Eskoziako eta Kataluniako esperientziei jarraiki, Euskal Herriko Ezker Abertzalea bultzatzen ari den estrategia izendatzeko. Izan ere, haren ustetan, nazionalismo ekonomiko, pragmatiko eta instrumental baten ekimena ikusten ari gara euskal gizartean. Independentziara egoera ekonomikoa hobetzeko hurbiltzen direnak erakarri nahi dituen. Baina, uste du horrela erakarritakoen jarrera ezegonkorra eta behin behinekoa dela, eta haien iritziak eta botoak berehala alda daitezkeela. Izan ere, nazionalismo mota horrek ez dauka identitatezko nazionalismoaren sendotasunik. Aipatu ikuspegiak auzi sozialaren menpean jartzen du auzi nazionala, eta baztertu egiten du asmo politikoetatik kulturgileen helburu nagusia, alegia, euskararen berreskurapena.

Hainbaten ustetan, politikari batzuk Eskoziako eta Kataluniako esperientzia Euskal Herrira ekarri nahian dabilzan arren, Euskal Herrian ez dago antzeko prozesurik. Politikarien simulazioa besterik ez da hemen dagoen saioa. Izan ere, alderdi politiko nazionalistek ez dute benetako diskurtso independentista bat Euskal Herrian. Ez dakite zer egin lurraldetasunaren auziarekin. Alderdikeria da nagusi euskal esparru nazionalistan, eta alderdiak interes nagusi baten mende daude: hauteskundeetan botere kuotak irabaztea. Hala, Kataluniarekin antzekotasun gutxi dagoela azpimarratzen dute. Euskal Herrian alderdi politiko jakin baten ekimena da estatu proiektua. Katalunian, aldiz, gizarte zibilaren proiektua izan da, nabarmentzen dute kulturgile batzuek. Gainera, Kataluniako gizarte zibilaren barnean, *Omnium* eta antzeko elkarte kulturelek berebiziko protagonismoa eta erreferentzialtasuna izan dute. Kataluniako gizarte zibilak lortu du, hartara, alderdi politikoak beren alde jartzea, eta ez alderantziz. Bestalde, Kataluniako gizartea katalan zalea da eta, kasu gehienetan, katalan hiztuna. Eta ezaugarri hori duen gizarteko kideek, hain zuzen ere, bideratu dute burujabetza prozesua.

*[Hemen] ez dago antzik daukan ezer. Ez dago holakorik Euskal Herrian. Simulakroren bat egongo da, baina ez dauka zer ikusirik Kataluniako egoerak hemengoarekin konparatuta. Nire ustez, ez dago mugimendu independentistarik Euskal Herrian (...) [eragile independentista batzuk] bai, Ezker Abertzalearen tapadera direnak. "Independentistak Sarea" edo "Gure esku Dago" bera, iruditzen zait. Baina, ez dut uste independentziarako inolako planik daukanik ez bata eta ez besteak. Botere politikoaren ..., disimulatzeko tresna batzuk dira, "zerbait egiten ari gara" esateko. Simulakro bat (EK-10).*

*Kontzeptualki, nik uste dut traslado zuzena egin dela. Gertatzen dena da horren arrazoiak ezberdinak direla. Eta horren arrazoiak dira, batetik, ezintasuna. Hau da, hemen ez da ikusten beste modurik (...) Ideia hauek etorri zirenean, ezintasuna zegoen, gehiengo soberanista bat eraikitzeo aukerarik ez zen ikusten. Eta, gainera, gauzak arin egin nahi ziren. Eta, nire ustez, hor akats izugarria dago, ze prozesu politikoak ezin dira arin egin, eta ezin da esan "trena galduko dugunaren" metafora. Zeren gu gatoz gatozen lekutik. Eta gatoz gatazka biolento batetik (EK-1).*

*Eskoziako (...) gizarte oso dinamiko bat daukate, kulturalki oso potentea, profesionala eta abar. Katalunian ere gizarte oso potente bat zeukaten (...) Eta gizarte zibil hori independentea izan da, alderdietatik aparte egon delako. Gure kasuan gizarte zibila satelite hutsa da. Alderdiena. Eta, alderdikeriaren biktima da (EK-9).*

## ESTATUAREN IRUDIKAPENAK KULTURAREN IKUSPEGITIK

Gizabanakoek eta talde sozialek eguneroko bizitzako gertakariak eta ingurune sozialeko ezaugarriak zelan eskuratzen eta ulertzen dituzten erakusten digute irudikapen sozialek. Irudikapen sozialak jendeak partekatzen duen ezagutza arruntean oinarrituta daude. Ezagutza aurre-erreflexibo horretatik abiatuta errepresentatzen eta ulertzen da mundu soziala, mundu horretako instituzioei eta jokamoldeei buruzko irudi jakin batzuk osatuta. Ildo horretan, irudikapen sozialek izaera praktikoa dute, eta gizabanakoen egintza soziala orientatzen dute norabide jakin batean.

Zer nolako irudikapenak daukate euskal kulturgileek estatuari buruz? Zehazkiago, zelan imajinatzen dute euskal kulturgileek balizko Euskal Estatua? Zer ezaugarri- eta eginkizun-mota esleitzen diote? Eta zer toki ematen diete beren buruei estatu horretan?

## Hizkuntza eta kultura erdigunean: estatua, nazio kulturalaren babeserako tresna politiko

Euskal kulturgileen iritzi eta, batez ere, sentipenez, Euskal Estatu batek eginkizun etnista argia izango luke. Bestela adierazita, Euskal Estatu baten helburu nagusia hizkuntzan oinarritutako nazio kulturalari babes politiko-instituzionala ematea izango litzateke. Babes edo bultzada horren norainokoari buruzko ikuspegi desberdinak eta ñabardurez betetako zehaztapenak daude, hala ere.

Oro har, kulturgileentzat estatua euskararen eta euskal kulturaren alde egiteko bitartekoa da. Kulturgile askok nabarmentzen dute Euskal Estatua nortasunetik eraiki behar dela, alegia, hizkuntzatik. Izan ere, hizkuntza minorizatuaren etorkizuna ez dute ikusten egitura politiko horretatik aparte. Egitura hori bermatu ezker, kulturgile horiek prest leudeke beste estatu batzuen aje berberak jasateko Euskal Estatu batean. Hari beretik, estatua identitate bat babesteko tresna politiko hutsa da, erresistentziarako baliabide indartsu bat. Iritzi hori muturrera eramanez, batzuek argi adierazten dute ez zaiela estatu proiekturik interesatzen herri euskalduna ez dena garatzeko baldin bada. Estatuak bitarteko soila izan behar du. Izan ere, kulturgileak ez dira, berez, estatu zaleak. Aitzitik, ideologia estatalisten aurka agertzen dira eta ez dituzte partekatzen, estatua helburu nagusi hartuta, hizkuntza (ekonomiaren edo beste gai batzuen parean) estatuaren mendeko aldagaitzat hartzen duten ikuspegi politikoak. Ildo horretan, behin eta berriro azaleratzen da "Irlandako sindromea" dei daitekeen beldurraren zantzua ere, helburu kulturalak lehenesten ez badira Euskal Estatuan ere gerta litekeen egoeraren erakusgarri.

*Euskal Estatua bai. Estatua beharrezkoa da, estatuak bermatzen duelako nazio kultural baten ondarea (...) Kontua da estatua behar dugula, baina euskal nazioaren mesedetan nahi dugu. Euskaraz funtzionatuko duen gizarte nazional bat artikulatzeko behar dugu boterea, eta botere hori estatuak ematen digu, nahiz eta burujabetza erlatiboa izan (...) Baina, beti nazio euskalduna erdigunean jarrita, zentralitatea naziotasunari emanda (...) Baina, hemen justu-justu alderantziz egiten ari da (EK-6).*

*Nire belaunaldikoentzat, edo nire herentzia intelektual berdintsua duen belaunaldiarentzat beldur handiena ematen diguna holako egoera batean da Irlanda. Hau da, independentzia lortu baina kili-kolo dagoen hizkuntzaren egoerak gora egin ordez behera egitea (EK-8).*

## Estatu "txikia"

Estatua ezinbesteko jotzen den arren, estatuari buruzko etengabeko mesfidantza azaleratzen da behin eta berriro elkarrizketatuen adierazpenetan. Euskararen eta euskal kulturaren garapenari dagokienez, estatuari esleitutako zereginak handiak dira baina, halaz ere, estatu "minimo" bat aldarrikatzen da, makinaria administratibo gisa gizartearen gainerako esparruetan ahalik eta presentziarik gutxien izango duena. Hartara, euskal kulturgileek ez dute estatu ahalguztiduna nahi, ezta makro-estatua ere. Estatuari ez zaizkio ardura guztiak utzi behar, haien aburuz. Delegazioak muga argiak izan behar ditu. Modu esanguratsuan, ikuspegi hori elkarrizketatutako kulturgile guztiek partekatzen dutela esan daiteke. Alde batetik, jarrera "anti-instituzionalista" nabarmena dago, eta euskararen eta euskal kulturaren borrokaren historiak azaltzen duen gizarte- edo herri-ekimenaren aldeko jarrera argi bat, oso barneratua. Gizarte ekimenak kontentzio bat izan behar du estatuaren aurrean. Are gehiago, batzuen ustez, estatuak berak bultzatu behar luke ekimen hori. Beste alde batetik, estatuari buruzko fidagaitasuna politikariei buruzko susmoan ere oinarritzen da. Ez baita sinesten kulturgileen interesen arabera estatu-eredua eraiki dezaketenik politikariek (hau da, estatu euskalduna), haien esku utzi ezker prozesu guztia.

*Eta nik ez dut nahi estatu ahalguztidun bat, eta estatuari dena uztea, Euskal Estatua bada ere (EK-4).*

*Ni ez naiz oso estatalista, nik estatuari ematen diot funtzio subsidiario bat. Estatuak ez du zertan denetik asko egin behar (EK-13).*

Beste alde batetik, globalizazioari buruzko gogoetak ere sostengatzen du estatu murrizari buruzko ezinbesteko ikuspegia. Gaur egun botere asko estatuetatik at daude. Estatua tresna bat da globalizazioaren aurrean, bai, gizarteari bere kultura garatzeko aukerak ematen dizkiolako. Baina, iraganeko estatua baino tresna ahulagoa da egungoa, eta bere txikitasunean aritu behar du.

*Guk momentu honetan mantendu behar dugu estatu potentzial txiki hori. Pragmatikoki uste dut estatu txikiak interesgariagoak eta bideragariagoak direla (EK-11).*

*Estatuek badituzte tresnak, baina lehen baino ahulagoak dira. Eta nik uste dut guk estatu bat nahi badugu eraiki, horren kontzientek izan behar dugula. Ezin dugu pentsatu eraikiko dugula XIX. mendeko estatu bat. Kultura politikari dagokionez, hizkuntza politikari dagokionez, ekonomiari dagokionez, eta abar, baldintzak asko aldatu dira. Bai uste dut, zentzu horretan, atzera begiratuta, galdu ditugula hamarkada batzuk oso inportanteak. Hau da, estatuak botere handia zeukanean, kultura bideratzeko eta antolatzeke guk ez geneukan estaturik (...) Orain tresnak ez dira lehen bezalakoak (EK-2).*

## Estatua, herri ekimenaren osagarri

Estatu "murrizari" buruzko irudikapen horiek kulturgileen esperientzia militantean hartzen dute sustrai. Euskal kulturgileak mugimendu baten kide sentitzen dira; kulturgintzaz eta euskalgintzaz hitz egiten dute etengabe. Subjektutzat hartzen dute beren burua. Kulturgileen aburuz, sektore euskaltzaleen aktibazioak eta partaidetza gogotsuak bermatuko dute estatu-eraikuntza beren intereseko norabidean joango dela. Izan ere, estatuaren botereak eta legeek ez dute bideragarritasunik gizarte kontzientziatua ez baldin badago. Gizartearen desaktibazioak Irlandara eraman gaitzake. Gainera, berrikuntzak eta eraldaketak ez dira inoiz estatutik etortzen, eta bai gizartetik. Beraz, estatuaren egintzak bidelagun izan beharko du beti gizarte mobilizatu baten partaidetza euskararen aldeko ekimenean. Biak osagarri egin daitezke, besteak beste, gobernantza-modu berriak abian jarrita. Iniziatibek gizarte zibilean egon behar dute prozesu parte-hartzaileen bitartez. Horrela, estatuaren erabakitze-ahalmena demokrazia zuzenago eta ez-delegazionistan gauzatu litzateke maila guztietan, baita kulturaren arloan ere. Estatuaren presentzia minimoaren osagarri da mugimendu sozialen esperientzia parte-hartzaileei lekua uztea. Ez bakarrik kulturgileei iritzia eskatuta, baita erabakiguneak estatu-erakundeetatik kanpo aterata ere.

*Badago jendea horretaz teorizatzen eta praktikatzan gobernantza modu berriak. Iniziatiba jendarte zibilean egon dadila, prozesu parte-hartzaileen bitartez, nolabait, erabakitze ahalmen hori askoz demokrazia zuzenago eta ez-delegazionista baten bitartez egin beharko litzatekeena. Eta hori plano guztietan. Baina, kulturari begira, batzuetan ematen du oso estatualista naizela, edo sobietarra, baina beste zenbait kontutan estatuaren presentziak minimoa izan beharko luke. Utzi dezala gizarte mugimenduek egin dezatela beraien lana, eta horri lagundu, azpiegiturak jarri, diru-baliabideak eman ... Baina, prozesu parte hartzzaileen bidez, erabakitzeko non edo zertan inbertituko dugun diru hori. Ez bakarrik iritzia eskatu, baizik eta erabaki-guneak erakundeetatik kanpo atera. Nik holako modelo bat gustuko dut (EK-5).*

*Ni nator ideologia autogestionariotik, eta nire ibilbide sozialak, batez ere, kooperatibetan eta herri mugimenduetan izan dira (...) Nik jarraitzen dut sinesten gure etorkizuna izango dela uztartzea gizartearen ekimena eta erakundearen ahalmena, hortik etorriko da. Eta hori da, gainera, berezitasun bat gu indartzen gaituena gizarte moduan (...) Orduan, estatu bat bai, baina horrelakoa baldin bada, hau da, herri ekimena eta nazio kulturala suspertzeko balio duena (...) Azken 30 urteetan euskararen alde egin izan den guztia eginda estaturik eduki barik. Horregatik, ezinbestekotasunik ez dago. Beste gauza bat da lagungarri izan daitekeela. Arrisku bat ere badauka, eta erakunde propio bat baldin badugu, eta erakunde horretan oso ideologia estatualista duten pertsonak baldin badaude, pentsa dezaketela egin ditzakeela gauza guztiak. Nik hori bai uste dut arrisku bat izan daitekeela (EK-13).*

## Kulturgileen partaidetza aktiboa

Aipaturiko lankidetzazko bide horietan kokatzen dute kulturgileek beren burua eta egitekoa ere. Kulturgileek kulturaren autonomia aldarrikatzen dute. Haatik, uste dute partaidetza aktiboa izan behar dutela estatu-eraikuntzan (nahiz eta "aldameneko karrilean joan") eta, ondoren, estatua eraturik dagoen garaian ere. Batetik, parte hartze hori beharrezkoa ikusten dute estatuak kulturaren interesak aintzat hartu ditzan. Izan ere, kultura- eta hizkuntza-politikek eragina izango dute kulturgileen jardunean. Hala, estatuaren kultura-politikak kulturgintzan inplikaturik dauden sektore guztien konpromisoarekin diseinatu beharko lirateke. Bestetik, parte hartzea komenigarria da beren interes politikoak ere adierazi nahi dituztelako, eta estatugintza "nazioaz kutsatu" nahi dutelako, kulturgile baten hitzetan. Estatuaren egintzen deszentralizazio beharra eta kulturgileen autogestioa aipatzen dituzte eragile kultural batzuek, bai diruen kudeaketari dagokionez, bai politika publikoen diseinuari dagokionez. Partaidetza aktibo hori eskatzean, bestalde, kulturgileek euskal kulturgintzak gaur egunera arte herri ekimenean oinarritutako tradizioaren jarraitasuna aldarrikatzen dute. Eurentzat, estatua proiektu bat besterik ez da gaur gaurkoz, eta, hura sortu bitartean, edo hura sortu ezik ere, euskal kulturgileek etengabeko eguneroko egintzaren aldeko aldarria egiten dute, uste dutelako ezin direla egon proiektua besterik ez den zerbaiten esperoan. Gauzak gaur eta hemen egin behar dira.



*Ni ekintzailea naiz. Epe luzeko gogoetan ez nago sartuta (...) Bestetik, ni ez nago balizko estatuaren zain, eta agian horregatik ez nago hainbeste pentsatzen estatu horretaz (...) Euskal kulturagintzaren erakundeetako zuzendaritzan parte hartzen dut, eta poztu naiz ikustean jendea ez dagoela zerbaiten zain. Ari dela orain eta hemen dugunaren aurrean jarrera edukitzen (EK-4).*

Kulturagileen partaidetza horrek bestelako helburu bat ere bilatuko luke. Hain zuzen ere, euskal kulturaren minorizazioaren ondorioz, gaur egunera arte euskarazko kulturari behar bezala aitortu ez zaion kultura legitimoaren estatusa ematea, eta euskal kulturaren eta kulturagileen ikusgarritasuna bermatzea, erdal munduko beste kulturagile eta kulturen maila berean. Hain zuzen ere, minorizazioak euskal kulturari eman dion ikusezintasuna gainditzea litzateke estatu berriaren zereginetako bat.

*Euskal kulturari eman behar zaio kulturaltasuna. Ze orain euskaraz idazten duen idazlea ez da idazlea. Bada euskararen alde egiten duen norbait. Eta euskaraz film bat egiten duen zuzendaria, ez da zuzendaria ... Hori da falazia izugarri bat, eta minorizazioaren erakuspen larri bat (...) Momentu honetan euskal kulturagileek nahikoa daukate kultura egitearekin, eta ez dute gutxi egiten. Eta hori guztia egiten dute inolako babesik gabe eta ikusezintasun baten barruan, gainera. Horrek kulturagileei eman ahal die erresistente soslai bat, eta gero hori nabaritzen da (...) botere-guneetatik urrun dabilta ... Baina, estatua lortu ezkerro, lehendabizikoz sortuko litzateke dinamika gaizto hori, Alemaniak edo AEBk daukatena (...) Munduko edozein estatutan kulturagileek indar sinboliko bat daukate, kapital sinbolikoa metatzen dute, eta kapital sinboliko hori ustiatzen duena ez da estatua, nazioa baizik. Gurean hori eten egin da. Gurean sortzaileak bizi dira erabat aparte. Hain zuzen ere, ez dutelako onartu beharko litzaieken lekua bertan. Estatu bat lortu ezkerro, gustatu edo ez gustatu, estatuak paseatu beharko ditu kulturagileak. Askatasun guztiarekin, baina, paseatu beharko ditu (EK-1).*

## Euskararen zentraltasuna lortzeko kultura- eta hizkuntza-politikak

Kulturagileen ikuspegian, estatuaren zereginen artean euskararen berreskurapena eta normalizazioa dira aurrenekoak. Salbuespenen bat kenduta, elkarrizketatuentzat berreskurapen horrek ez du esan nahi elebakartasunaren ezarrea. Bai, ordea, euskararen nagusitasun soziala lortzea. Urteetan zehar normalizazioaren kontzeptua aldatu egin dela nabarmentzen dute batzuek. Azken horien ustetan, "estatu bat, hizkuntza bat" aldarrikatzen zuen lehenagoko eredua orain ez da baliagarria. Hizkuntza bakarra ezin da esparru guztietan eta denetarako erabili gaur egun. Alabaina, aipaturiko euskararen nagusitasun hori modu zehaztugabe erabiltzen da diskurtsoetan. Ildo horretan, bi kontzeptu baliatu dira elkarrizketetan euskarak izan beharko lukeen gailentasuna adierazteko: "zentraltasuna" eta "hegemonia". Edonola ere, kulturagile gehien iritzian azpimarratu da abiapuntuko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, gaztelania edo frantsesa ere hainbat jenderen bizitzarako hizkuntzak izango liratekeela estatua sortu ondoren ere. Hala, haien aburuz, gaztelaniaren (edo frantsesaren) eskubide indibidualak mantenduko lirateke, batez ere administrazioan eta esparru indibidualean. Era berean, kulturagile batzuek gaztelania gizarteko hainbat esparrutan bigarren maila batera baztertzeko premia nabarmentzen dute, ingelesaren mesedetan. Helburu gisa, beraz, euskararen eta ingelesaren erabilera soziala lehenetsi beharko litzateke egoera politiko berrian.

*Nik uste dut mezua izan behar dela elebakarra dela desagertzeko zorian dagoen espezie bat, eta, are gehiago, elebakar inperialista (EK-13).*

*Ikusirik nola gizartea bilakatzen ari den geroz eta anitzagoa, orain niri kostatu egiten zait gehiago irudikatzea Euskal Herri bat non euskara izango den erabateko hegemonikoa, duela 30 urte hizkuntza nazionalak ziren bezala. Hori jada nahikotxo deskartatzen dut. Lehengoan bati esaten nion ez dudala irudikatzen honezkeroko herri bat Euskal Herrian, non populazioaren %100 euskaraz jakingo eta egingo duen. Kostatu egiten zait gure errealitate soziala ikusita (EK-2).*

Oro har, euskara hizkuntza zentral bilakatzeko aukera objektiboak ikusten dira kulturagileen artean. Ildo horretan, azken urteetan egoera soziolinguistikoa aldatu egin dela gogoratzen da. Populazioaren erdiak baino gehiagok ulertzen du euskara dagoeneko EAEn. Hartara, elebidun hartzaileen kopuruak gora egin du. Euskal Estatuak garatu beharreko hizkuntza-politikaren ildo nagusiak euskararen aldeko hegemonia irabaztera bideratuko lirateke: epe luzeko plangintza eginda euskararen ezagutza unibertsal bihurtzeko (20 eta 30 urteko epeak aipatzen dira) eta horretarako neurri lagungarriak abiatuta (irakaskuntzaren doakotasuna, ezinbestean), adituak eta baliabide tekniko eta zientifiko egokiak ipinita helburu horren zerbitzuan, eta gune soziolinguistikoko desberdinak bereizita, gune horietara egokituriko egitasmo espezifikoak garatu ahal izateko. Helburua beti ere hizkuntzari espazio geografikoak eta funtzionalak progresiboki zabaltzea izango litzateke, euskara hizkuntza funtzionala izan dadin eguneroko jardueran, lanean, merkataritzan, administrazioan, kulturen eta abar.

*Nahiko nuke adituek esatea zer egin beharko litzatekeen eszenatoki desberdinetan (EK-9).*

*Euskararentzat hainbat esparru lortu behar dira, euskaraz funtzionatuko dutenak, bai geografikoki (UEMAko udalerriek egiten duten bezala), baina, baita ere, geografikoak izan gabe, esparru funtzionalak direnak (EK-8).*

*Ni Txepetx-ek esandako gauza batzuekin bat nator. Berak esaten zuen UEMAko herrietatik abiatu beharko genukeela, eta adibide bezala hartzen zuen Tolosa, baina izan liteke Markina edo besteren bat. Esaten zuen arnas gune horietatik abiatu beharko litzatekeela (...) Komunitate mailan planteatu beharko da, eta komunitatea euskaldundu beharko da, alegia, espazio sozialak. Tolosa euskaldundu beharko da lehendabizi, Donostia edo Bilbo baino lehen (...) Horrela hasi beharko dugu egunen batean (...) Txepetxen eskema hori aplikatzen hasten bagara, Tolosan [euskarak] funtzio osoa beteko luke, ez bakarrik familian eta etxean, baizik eta industrian, bulegoan eta esparru guztietan (EK-6).*

Euskararen zentraltasunaren ideian adostasuna baldin badago ere, ez dago iritzi bateraturik zentraltasun hori zein egoera juridikotan gauzatu beharko litzatekeen erabakitzeko unean. Hainbat kategoria juridiko agertu dira elkarrizketetan: "benetako" koofizialtasuna bi hizkuntzentzat, estatu-hizkuntzaren estatutua (euskararentzat soilik, edo bi hizkuntzentzat), hizkuntza ofiziala(k)... Aldiz, ofizialtasun formalari garrantzia kendu diote beste batzuek eta adierazi dute, ikusita ofizialtasunak zer nolako ondorioak dituen gaur egungo egoera linguistikoan, hori baino garrantzitsuagoa dela *de facto* garatuko den hizkuntza politika. Bestalde, estatu konfederatuen egokitasuna agertu da, euskal lurralde desberdinen egoera soziolinguistiko askotarikoari erantzuteko aukera politiko moduan, kontuan hartuta hizkuntza nagusiak desberdinak direla Ipar eta Hego Euskal Herrian. Ildo beretik, eskualdekako egitura deszentralizatuak erabiltzeko premia ere azpimarratu da, maiz, lurraldeen eta eskualdeen egoera soziolinguistikoak hizkuntza politika bereziak eskatuko litzatekeelako. Nolanahi ere, onartzen da kultur gileen artean trantsizio garaia konplikatu litzatekeela, estatu berriak kudeaketa gatazkatsua izango lukeela aurrean, eta azpimarratzen da egoera horretan erabateko zentzua hartzen dutela gizarte mobilizatuak eta ekimen sozialak, sostengu eta adostasun sozial aktibo barik goitik beherako euskalduntzea ezinezkoa litzatekeelako. Azkenik, azpimarratzen da estatuaren kultura politika eta hizkuntza politika batzeko beharra ere, eta adierazten da euskal kulturaren aldeko egintzak zeharkakotasuna izan behar duela. Alegia, euskaraz sortu eta egiten dena ere kultura legitimotzat hartu behar dela. Ondorioz, estatua izanda, euskaraz egindako kultura ez litzateke "euskararen atalean" sartuko, gaur egunera arte egin den legez, kulturarenean baizik, erdaretan produzitzen denarekin gaur egun gertatzen den modu berean.

*Hizkuntza politika bat ezarri beharko da administrazioan, eskolan eta abar. Baina, uste dut hanka hori baino inportanteagoa izango litzatekeela hanka soziala. Hau da, sustatu jendartearen atxikimendu hori hizkuntzarekin eta bideak eman indartu dadin. Nolabait esatearren, izan dadila jendartearen administrazioa euskaldunduko duena. Goitik lagundu, noski. Baina, ez pentsatu goitik behera euskaldunduko duzunik; gutxienez, bien arteko elkarlanaren bitartez egin beharko da (EK-2).*

## Sektore estrategikoak estatuaren kultura-ekimenean

Hizkuntza-politikaren esparru estrategikoen identifikazioan ia erabateko akordioa egon da kultur gileen adierazpenetan. Hiru izan dira, batik bat, kultur gileek lehenetsi dituzten esparruak: lehenik, hezkuntza, bigarrenik, hedabideak eta kultura-industriak, eta, azkenik, administrazioa. Hezkuntza esparru estrategikotzat jo da integrazio sozialerako bide bat delako eta belaunaldi berriak euskaraz naturaltasunez haz daitezen aukera eskaintzen duelako. Hizkuntza ereduaren aurrean guraso gehienek orain arte egindako hautuaren norabidea ikusita, kultur gileek ereduaren sistemaren aurka eta "murgiltze" linguistiko eta kulturalaren alde egiten dute, ia aho batez, hezkuntzari dagokionez.

*Nik planteatuko nuke Katalunian egin dutena. Hori ere ez da berria, immertsio linguistiko eraginkor bat, alegia. Kataluniak (...) lortu du 40 urtetan populazioaren %100 katalanezko elkarrizketa bat ulertzea, elebidun pasibo izatea. Beraz, bidea hor dago (...) Orduan, trantsizio horretan hori egin beharko litzateke. Eta ez hori bakarrik; hori, eta inplementatu Flandrian egin zutena aspaldian (...) Bigarren hizkuntza moduan hartu zuten ingeleza zuzenean (EK-1).*

*Egin behar duguna da integrazioerako bideak zabaltzea, argi edukiz hezkuntzak euskaraz izan behar duela. Ez bakarrik hezkuntzak. Esan nahi dut, bai aisialdia, bai komunikabideak, eta estrategikoak diren hainbat arloek euskarazkoak izan beharko lukete. Edo, gutxienez, euskarazkoak ere izan beharko lukete, belaunaldi berriak haz daitezen, eta naturaltasunez bizi dezaten hizkuntza (EK-8).*

Bigarren sektore estrategikoari dagokionez ere adostasun handia dago. Euskal Estatu batek komunikazioaren esparrua eta, zehazkiago, hedabideen jarduna arautu beharko luke, kulturgileen ustetan. Garrantzizkoa izango litzateke komunikazio lizentzien banaketaren kontrola izatea irriati eta telebistetan. Estatuak espazio irriati-elektikoaren kontrola izan ezker, telebista-kate publiko nahiz pribatuek bete beharreko hizkuntza eskakizunak finkatzeko aukera izango luke, haiek euskaraz emititzera behartuta. Neurri hori ez da gehiegizkotzat jotzen, aintzat harturik elebidun hartzaileen kopurua dagoeneko oso esanguratsua dela euskal gizartean. Bestalde, kultura-jario globalak ere erregulatu beharko litzuzke estatuak. Besteak beste, zehaztu beharko luke Europatik eta beste toki batzuetatik zenbat eduki etorriko litzatekeen, eta iragazki-lana egingo luke Euskal Herrian egindako produktuak eta Euskal Herriko tradizio kulturala jario globalen aurrean bultzatzeko eta hobesteko helburuarekin. Oro har, euskal kulturgileen aburuz, euskarazko kulturaren alde herri ekimenez sortutako kultura industriak bultzatu eta babestu beharko litzuzke estatuak, horretarako ezinbestekoak diren politika ekonomikoak eta industrialak abian jarrita.

*Estatuak ez dauka bakarrik ardura, adibidez hedabideen kasuan, bereak diren hedabide publikoen ardura dauka. Esparru radioelektrikoa ere estatuak arautzen du. Orduan, uste dut hor badaukala eskakizun bat, eta izan dezakeela boterea eta eskuduntza hori ere arautzeko. Telebista pribatuek nola emitituko dute? Uste dut Discovery Channel-ek penintsularako bi kate dauzkala. Bat Bartzelonan zegoen ezarrita, eta Espainiarako gazteleraz emititzen du. Eta Portugalera, portugesez. Ez dakit estatuak horrela eskatzen duen, baina, zuk badaukazu gaitasuna nazioarteko kate horiei, gurean, eskatu ahal zaie euskaraz emititzea (...) Beraz, esparru publikoan, bai. Baina, [komunikazioaren] esparru pribatuan ere arautzeko gaitasuna eta beharra dauka. Bestela, uste dut alperrik ari garela. Izan daiteke ingelesez, edo euskarazko azpi-tituluekin ..., eta ea bost edo hamar urtetan espainola %90etik %60ra jaisten den telebistan, eta beste hizkuntzekin orekatzen joaten den (EK-3).*

Azkenik, administrazioaren funtzionamendua euskaraz ere izatea ziurtatu beharko luke estatuak. Oro har, elkarriketetan azpimarratu da administrazioaren maila eta alor guztietan euskarak izan beharko lukeela hizkuntza nagusia, baina, aldi berean, erdaldunen eskubideak errespetatu beharko liratekeela administrazioarekiko harremanetan, harik eta egoera soziolinguistikoa aldatu arte, behinik behin.

*Uste dut hor badagoela klabe garrantzitsu bat, Euskal Estatuak administrazio euskaldun bat izan behar duela. Noski, Konstituzio bat edo estatu bat izateak ez du berehala aldatuko errealitate soziolinguistikoa, eta hor ere estatu bat ezin da bere herritarren kontra joan. Herritarren %60 bada ezagutzen ez duena ..., pertsona horiek eskubideak izan behar dituzte, hori argi dago. Baina, horrek ez du kentzen karril zentrala euskaraz izan behar dela eta, gero, ziur aski, egoeraren arabera jakin beharko da egokitzen herritarren beharretara, argi izanda administrazio orokorrak euskarazko jarduna izan behar duela (...) Alde batetik, administrazioa erabat euskalduna, hau da, administrazioak euskaraz bizi behar du eta, aldi berean, herritar guztiek egokien egiten duten hizkuntza erabili beharko du (EK-3).*

*Zerbitzu bat ezin da kalitatezkoa izan ez badu kontuan hartzen hartzailearen hizkuntza hautua. Uste dut administrazioak hori egin behar duela, baina horretarako plangintza bat egin behar da (EK-13).*

Esparru horien guztien arautzeak lukeen helburua da, kulturgileen ustez, estatuaren lurraldean espazio geografiko, sinboliko eta kognitiboa eratzea euskararen alde, estatuaren eskumenak erabilita. Haatik, estatuak araututako esparruetatik at, aurreikusten da hainbat denboran erabiliko direla sozialki gaztelania eta frantsesa, baita, gero eta gehiago, ingeleza ere.

*Gaztelania hor egongo da luzaro, eta ez dut uste horren kontra egin behar dugunik. Nire ustez, gaztelania aukeratzeko duenari eman ahal zaio aukera gaztelaniaz espresatzeko, hau da, simetria linguistikoa errespetatu behar da. Nik bere hautua onartzen badut, berak ere nirea onartu behar du. Bestela, ez dago bizikidetzarik. Baina, ez dut uste estatu batek derrigortu dezakeenik esparru informalean eta pertsonalean pertsona batek zer hizkuntzatan hitz egingo duen. Ezin da! Bai egin daiteke araututako esparruetan (EK-13).*

## Integrazio linguistikoa ahalbidetu, beldurrak uxatu, herritartasuna eskaini biztanle guztiei

Kulturgile gehienek kezka handia adierazi dute estatu sortu berriak ezarritako hizkuntza politikek eragin zezaketen beldurraren aurrean. Horregatik, sor litezkeen beldurrak eta susmoak uxatzeko premia azpimarratzen dute. Estatuak, argi eta garbi, guztiena eta integratzailea behar luke, diote kulturgileek ia aho batez. Estatuaren hizkuntza politikek euskaldun pasiboak edo hartzaileak

sortuko lituzkete hasieran eta, seguruenik, bizpahiru belaunalditan euskal gizartean erdaldunak egongo lirakeela pentsatu behar da. Ildo horretatik, gehienek uste dute ez direla lotu behar euskararen ezagutza eta herritartasuna, estatuaren erakuntza bera euskal nahiz erdal hitzunez osaturiko gehiengo sozialaren ariketa demokratiko baten ondorio izanda, ez litzatekeelako bidezkoa izango. Hartara, estatua sortzen den unean, bertan bizi diren pertsona guztiak izango lirake herritarrak, eta geroagorako utzi behar litzateke hizkuntzaren ezagutza herritartasuna lortzeko betebeharrak gisa ezartzea. Beste batzuek, aldiz, ezinbestekotzat jotzen dute hizkuntzaren ezagutza herritartasunaren aitortzarako. Bi jarrerak batez ere epeei buruzko iritzietan bereizten dira, hizkuntzaren ezagutza arautzeko premiari buruz daukaten ikuspegiaren baimo gehiengo. Izan ere, beharrezkotzat jotzen da hizkuntzaren ezagutza eta erabilera hainbat alor sozialetan arautzea, eskakizun handiagoarekin edo txikiagoekin, malgutasunarekin edo modu zorrotzean, ezagutza-eskakizun hori zentzu hertsian herritartasunaren aitortzari lotuta ez badago ere.

*Noski arautu behar dela. Estatu guztiek arautzen dute, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago. Baina, arautu denek egiten dute. Gaur egun, Europako Batasunean 28 estatutik uste dut 24k eskatzen dutela hizkuntza ofizialaren ezagutza gutxieneko eskubide batzuk eskuratzeko. Kasu batzuetan da botoa eman ahal izateko, beste batzuetan da erresidentzia eskubidea, beste batzuetan izango da herritartasuna lortzeko, eta abar. Baina, 28tik 24k badute hori araututa. Eta, kasu gehienetan, hori neurtzen da azterketa baten bitartez. Eta, beste batzuetan, azterketa ez dute eskatzen, baina bai ikastaro batera apuntatzea, eta a abar. Eta hemen polemikoa bilakatzen da batzuetan Osakidetzako plaza bat eskuratzeko eskatzea hizkuntza (...) Esan nahi dut hemen politika hori jartzeko unean konplexu asko ditugula, eta moztu egiten gara edo lotsa ematen digu (EK-2).*

Nolanahi ere, behin eta berriro nabarmentzen da adostasunaren eta pertsuasioaren beharra, abiaraziko diren arauak eta politikak traumatikoak izan ez daitezen. Mailaka aurrera egiteak duen garrantzia aipatzen da sarritan elkarriketetan. Hezkuntza euskaraz izateak integrazioarako bide "natural" bat zabaltzen du, belaunaldi berriak naturaltasunez haz daitezen euskaraz. Eta hezkuntzari beste esparru batzuk gehitzen bazaizkio, hala nola komunikabideak, administrazioak, aisialdia eta estrategikoak diren bestelako alorrak, uste da denbora-tarte ez oso luzean euskararen gutxieneko ezagutza bat lor daitekeela. Besteak beste, elebitasun erreala batean bizi ahal izateko. Aprobetxatu egin behar da gizartean euskararen aldeko atxikimendua dagoela, batzuetan nortasunak eragindakoa, beste batzuetan pragmatismoak bultzatutakoa. Atxikimendu hori gaur egun hizkuntza ereduaren hautaketan adierazten da. Hizkuntza politikak ezartzerakoan ere, sostengu sozial hori bilatu behar da. Ezin da euskalduntze prozesua goitik behera soilik abiatu. Gizartearen eta administrazioaren arteko elkarlana bultzatu beharko da. Eta neurri progresiboak jarri abian.

*Askotan aipatzen da alternatiba bezala euskaldunok gure hizkuntzaren egoera hobetzeko eta gizartea euskaldunduz joateko zer erabili behar dugun gizarte horren aurrean: edo sedukzioa edo inposaketa. Eta nik uste dut ezin dugula bata edo bestea aukeratu, baizik eta biak erabili behar ditugula. Hau da, pertsuasioa erabili behar dugu. Eta pertsuasioaren tresnak batzuetan izaten dira goxoki bat, sedukzioa. Baina, beste batzuetan izan beharko lukete tresna eraginkorragoak, legezko behartze bat hezkuntzan edo beste esparruetan. Mila tresna dago horretarako. Baina, noski, gutxiengotasun hori kontuan hartuta, neurri horiek izan beharko lukete beti progresiboak, baina baita ere kontsentsuaren bidez lortutakoak (EK-8).*

*Bilbo aldean eta, eta zer esanik ez beste eremu batzuetan, akaso erreala da jendeak beldur izatea: "Estatu bat badaukat behartuko naute euskara ikastera?", "alde egin beharko dut?" (...) Eta uste dut hor badagoela lan bat hori dena baretzeko eta lasaitzeko, eta esateko horren aurrean estatuak defendatuko zaituela. Estatua guztiona izango da, bertan gauden guztiona izango da. Konpromisoa izan behar du estatuak euskararekin, ze ez dago beste inon. Hau da, hemen ez bada egiten ez da egingo inon (...) Baina, argi izanda bizpahiru belaunalditan oraindik erdaldun jende bat izango dugula, estatuak egin ahalko duela gutxienez euskaldun pasibo bihurtzea herritarren zatirik handiena (EK-3).*

*Lege oso konkretuetan jaso beharko da hizkuntzaren presentzia hori. Eta, bereziki, nola lortuko dugun ezer traumatikorik sortu gabe guztiok hizkuntzaren ezagutza maila bat izatea, gutxienez maila minimo bat. Besteak beste, elebitasun modu batean bizi ahal izateko, alegia, guztiok jakin ditzagun bi, hiru hizkuntza, bakoitzak erabakitzeko zein erabiltzen duen (EK-5).*

*Trantsizioan dago arazoa (E-1).*

*Herritar gehienei mezu positibo, inkluyente, errespetuzko eta demokratiko bat emateko kapazak bagara, hegemonikoak bihurtuko gara epe labur batean (EK-9).*

## Estatu eredugarriak, gaur

Estatu eredurik aipatuena kulturgileen artean Frantzia izan da, nahiz eta eredu horren alde positiboak eta negatiboak adierazi diren (bigarrenen artean, bereziki, kultura bakarraren eta hegemonikoaren ezarrera). Baina, argi eta garbi, estatu horrek frantziar kultura nagusiarri eta frantses hizkuntzari globalizazioaren joera kultural homogeneizatzaileren aurrean ematen dien babesaren eredugarri jo da: bertako kultura-industriak estrategikotzat hartu izanaren ondorioa, hau da, zinemari, antzerkiari eta liburugintzari emandako laguntza eta kulturgileek jasotako sostengua, kulturgileen ahotan egon dira sarri elkarrizketetan zehar. Hizkuntzaren berreskurapenaren eta hizkuntza normalizazioaren jarraibidetzat hartu dira beste estatu batzuetan garaturiko prozesuak ere, hala Finlandian nola Txekiar Errepublikan gauzatutakoak. Islandiako estatua ere, behin baino gehiagotan aipatu izan da. Hiztun gutxi duen estatu-hizkuntza duelako eta, hala ere, globalizazioaren erasoetatik babestu duelako estatuak. Islandiaren adibidea beste arrazoi batzuegatik ere hartu da ispilutzat. Lehenik, islandiera hiztun gutxiko hizkuntza delako, eta estatu hizkuntza izanda, globalizazioaren garaian hizkuntza txiki hori babesteko bide politikoak urratu direlako herrialde hartan. Eta, bigarrenik, bertako estatuak politika deszentralizatuak bultzatzen dituelako kulturaren alorrean, eta, horrenbestez, autogestioaren aukera uzten dielako kulturgileei, aurrekontuak kudeatzeko, besteak beste.

*Merkatuak irentsi egin du kultura. Orduan, enpresa handien esku dago kultura-produkzioaren zati handi bat, banaketa eta abar. Baina, estatuak oraindik ere badituzte tresna batzuk hori, neurri batean, arautzeko. 1995ean, negoziatu zirenean mundu mailako merkataritzaren arau nagusiak, eta Munduko Merkataritza Erakundea sortu zutenean, Frantziak aldarrikatu zuen kulturaren salbuespena. Eta, aldarrikapen horretan esaten zena zen: "Ados. Onartuko dugu mundu mailan kapitalak eta merkantziak libre ibiltzea. Baina, badago arlo bat, non estatuak mantendu behar duen bere ahalmena jario libre hori baldintzatzeko eta, zenbait momentutan, eteteko. Eta hori da kultura. Eta aldarrikapen hori onartu zen garai horietako negoziazioetan, eta 2010ean UNESCOk bere egin zuen aldarrikapen hori. Orduan, nazioartean onartuta dago estatu batek baduela ahalmena kultur jarioa mugatzeko. Igual ezin du ekidin Japoniatik datozen kotxeak sartzeari, edo Bruselatik datorren kapitala sartzeari. Baina, ekidin dezake, adibidez, Hollywoodetik datozen filmak sartzeari, edo sartzeari kuota baten barruan, Frantzian egiten den bezala. (...) Estatu espainolean ez daukagu inolako babesik alde horretatik. Modelo anglosaxoia sartzeari da nahi beste. Ez dago mugarik (...) Orduan, guri, jendarte bezala, zer geratzen zaigu gure kultura sortzeko eta garatzeko? (...) Baldin bagara subjektu bat, subjektu horrek nahi du izan eskubidea bere kultura garatzeko. Eta horrek inplikatzeko du tresna batzuk edukitzea, eta tresna hori kultura-politika da (EK-2).*

## ONDORIOAK

Oinarri moduan, Euskal Estatu baten beharra ez da zalantzan jartzen euskal kulturgintzan eta *Euskalgintzan*. "Estatua bai ala ez" eztabaidarik ez dago. Baina, gaur egun esparru politiko nazionalistan sortu diren proposamenen argitara, auzitan jartzen dira balizko estatu horren helburuak, hura bultzatu beharko lukeen subjektu politikoaren nolakotasuna baita estatu proiektuaren egokitasuna bera ere une honetan.

Oinarri etnikoa duen Euskal Estatu hartzen dute helburu kultur eragileek. Haien ustetan, balizko Euskal Estatu baten zeregin nagusia euskal hizkuntza (euskara) eta kultura berreskuratzea da, estatuaren bestelako eginkizun posible batzuen gainetik.

"Nazio kulturalaren" kontzeptua darabilte kulturgileek eta euskaltzaleek estatu horren oinarria izan beharko lukeen abiaburua izendatzeko. Nazio kulturalaren kontzeptuari ematen dioten adieran, euskal hiztunen komunitateaz mintzo dira. Beren ikuspegian, komunitate horretatik abiatu beharko luke Euskal Estatuaren eraikuntzak, eta komunitate linguistiko hori zabaltzea eta babestea litzateke haren helburu nagusia, hain zuzen ere. Ildo beretik, uste dute komunitate hori kokatzen deneko lurraldea barnean hartu beharko lukeela estatuak.

Aipaturiko abiapuntu horiek elkarrizketaturiko kulturgile guztiek partekatzen dituzten arren, bi diskurtso bereiz daitezke haien adierazpenetan. *Lehenengo* diskurtsoak kutsu politikoagoa dauka eta uztartu egiten ditu, batetik, euskal kulturgileen proiektu linguistiko eta kulturala –eta, hari lotuta, euskal nazio kulturalaz egiten duten defentsa- eta, bestetik, gaur egun sortzen ari diren burujabetzarako proiektu politikoak, nolana hiko delako horien zehaztapena: independentzia, estatua, eta abar. Horrela, ildo horretako iritziek bateragarri ikusten dituzte epe laburrean kulturgileen proiektu linguistikoa, eta independentziaren eta

balizko estatuaren proiektua, edo, bestela adierazita, nazio kulturalaren eraikuntza eta estatu politikoaren eraikuntza. Zeharka eta ñabardurekin baldin bada ere, subjektu demokratikoaren onespén bat dago diskurtso horretan.

*Bigarren diskurtsoaren* arabera, euskararen eta euskal kulturaren berreskurapena eta defentsa goiburu hartuta, euskal nazio kulturalaren eraikuntzari, eta hari soilik, eman behar zaio lehentasuna oraingoz. Hala, nazio kulturalaren eraikuntza lehenesten dute ildo horretako kulturgileek, gaur egun indar politiko abertzale batzuetatik bultzatuta daitezkeen estatugintzaren aurrean. Estatuak, inoiz sortzekotan, nazio baten (nazio euskaldunaren) premiei erantzun behar die. Modu horretan, diskurtso etnolinguistikorik muturrekoenean, nazio kulturalak izan behar du estatu eraikuntzaren subjektu politikoa, eta ez beste hizkuntza batean (edo batzuetan) diharduen gehiengo sozialak. Izan ere, euskal gizartean gaur egun sor litezkeen gehiengoek hizkuntza eta kultura ez diren beste lehentasun batzuetan oinarritu dezakete estatuaren aldeko beren hautua, motibazio ekonomikoetan, adibidez. Baina, egoera ekonomikoa edo soziala hobetzea ez da kulturagileek Euskal Estatuari esleitzen dioten eginkizun nagusia.

Bi diskurtso horiek kulturagileen kokapen kulturei eta politikoei lotuta daude. *Euskalgintzari* dagokionez, esparru periferikoetan (unibertsitatean, esaterako) diharduten kulturagile batzuei dagokie lehen diskurtso-ildoak, baita kulturagintzan aritzeaz gain jarduera "politikoagotan" parte hartzen duten kulturagileei ere (*Gure Esku Dago* ekimenean, adibidez). Aldiz, bigarren diskurtso-ildoan lerratzen diren kulturagileak *Euskalgintzaren* muineko instituzio eta elkarteetan kokatuta daude, eta *Euskalgintzaren* eledun legitimatutzat dituzte beren buruak. Harreman-sare berean jarduten dutenez, trinkotasuna ez ezik erabilitako argudiatze-ereduetan antzekotasun handia ere agertzen du haien diskurtsoak. Diskurtso erradikalago horren bereizgarriak nabarmenak dira: lehenengo diskurtsoa baino askoz ere zurrunagoa da nortasuna ulertzeko moduetan (euskal nortasuna hizkuntzaren gainean oinarriturik ulertzen da, ez beste ezaugarri batzuetan), euskararen zentraltasunaren interpretazioan, eta kulturagintzaren eta egintza politikoaren logikak modu zorrotzean bereizteko eran, besteak beste.

Euskal kultura esparruan nagusitu diren iritziak testuinguru jakin batean kokatu behar dira. Kulturagileen hitzetan, testuinguru hori zirriborrotzen duten faktore batzuk honako hauek izan litezke. Bat: orain arteko hizkuntza politikak agorturik eta sabaia jota ikusten dituzte euskaltzaleek eta, aldi berean, *Euskalgintza* bera ahulduta eta garai berrietara egokitzeko arazoekin ("diskurtso" gabe, diote beren adierazpenetan). Bi: gaur egun euskal esparru politiko abertzaleetik sortzen ari diren estatuaren aldeko proposamenek euskara berreskuratzeko proiektua proiektu politikoaren erdigunetik desplazatu ote duten beldur dira kulturagileak. Eta hiru: jakin badakite gaurko euskal gizartearen egoera soziolinguistikoa eta kulturalak ez dutela, *de facto*, euskal "nazio kulturalaren" gainean egindako estatu-eraikuntza bat ahalbidetzen une honetan. Egitate horiek etsipen-sentimendua zabaldu dute euskal kulturagintzan eta, ondorioz, estatuaren inguruko proiektuei buruzko ikuspegi kritikoa eta eszeptikoa areagotu dute kulturagileen artean.

Garai batean kulturagintzak euskal indar nazionalistekin partekatu zuen euskarari buruzko ikuspegia, alegia, hizkuntzan oinarritutako euskal nazioaren defentsaren lehentasuna, dagoeneko ez dago indarrean gaur egungo erakunde nazionalisten proiektuetan, kulturagileen aburuz. "Nazio kulturalaren" eraikuntzan amore eman izana egozten diete euskal kulturagileek indar nazionalistei (berezi, Ezker Abertzaleari), burujabetza- eta sezesio-proiektu politiko baten mesedetan Ezker Abertzalearen kasuan. *Euskalgintza* isolaturik uzten duen aliantza historiko inplizitu baten haustura moduan interpretatu dute kulturagileek indar nazionalisten aldaketa.

Estatuaren beharra onartu bai, euskara eta euskal kultura garatu ahal izateko haren ezinbestekotasuna berretsi ere bai, baina ez diote euskal kulturagileek lehentasun estrategikorik esleitzen estatuari. Estatu tresna da, ez helburu. Estatu nazio kulturalaren babeserako bitartekotzat hartzen da. Eta ez zaio bestelako zentzurik esleitzen funtzio horretatik at.

Ikuspegi horretatik abiatuta, eta gizartean nahiz kultura esparruan duten kokapenarekin bat eginda, honako ezaugarriak ditu euskal kulturagileek irudikatzen duten balizko estatuak. Bat, estatuak txikia izan behar du. Jarrera anti-instituzionalista nabarmena baitago euskal kulturagintzan barneratua, herri-ekimenean oinarritutako euskararen aldeko borrokaren historiak neurri handi batean azaltzen duena. Bi, ildo berean, estatuak herri ekimenaren osagarri behar luke. Izan ere, kulturagileen ustetan, balizko estatuaren egintzak ez luke bideragarritasunik gizarte mobilizatu baten partaidetzarik gabe, hizkuntza-berreskurapenaren helburuak lortzeko, behinik behin. Hiru, gobernanta-sistemen bitartez edo bestelako partaidetza formulak erabilia, euskal kulturagileek garrantzizko eginkizunak izango lituzkete kultur- eta hizkuntza-politiken diseinuan eta egikaritzean. Lau, euskarak toki zentrala izan beharko luke estatuko gainerako hizkuntzen ondoan. Hala ere, zentraltasun hori ezin izan da zehaztasunez definitu. Modu lauso batean bada ere, egindako adierazpenek iradokitzen dute gaztelarekin (edo, frantsesarekin) nolabaiteko bizikidetzaren aurrekustea dela euskararentzat, azken horren hegemonia nabarmendu ondoren. Bost, Euskal Estatuaren kultura ekimena burutu ahal izateko estrategikotzat identifikaturiko sektoreak hezkuntza sistema, hedabideak eta kultura-industriak, eta administrazioa izan dira, hurrenez hurren.

**AMAIERAKO ONDORIOAK**

Euskal Estatuari buruz jardutea ariketa zaila erakutsi da inkestatutako edo elkarrizketatutako pertsona askorentzat. Tradizionalki Euskal Herriko independentziari buruz hitz egiten izan da, eta esan genezake jendeak ez duela argi ikusten non dagoen bien arteko desberdintasuna. Hau da, orain arte independentziaren gaia modu identitarioan eta politikoan ulertzen izan da, abertzaleei bakarrik zegokiena, eta zailtasuna dago marko horretatik irteten den Euskal Estatuaren gaira egokitzeko. Izan ere, gure ikerketan Euskal Estatuaz hitz egitea hobetsi dugu, uste baitugu gaia independentzia izanik, aurreko eskema tradizionala errepikatuko genukeela, eta horrek eztabaida abertzale sentitzearekin nahastuko lukeela, horixe izan baita hauen helburu klasikoa. Estatuaz hitz eginda, berriz, eragina egitura politikoan jartzen dugu, eta egitura horrek herritarren helburuak (zerbitzuetan, ekonomian, kulturean...) bete litzake edo ez. Estuari baietza edo ezetza emateko arrazoiak helburu horien baloraziotik etorriko litzateke, eta ez aurretiko jarrera ideologiko batetik, independentziarekin gertatzen den bezala.

## Metodologiaz eta subjektu politikoaz

Euskal Herria zer den definitzea ez da kontu erraza. Ikuspuntu abertzale batetik zazpi herrialdetara hedatzen den eremua da, baina ikusi ahal izan dugu jende askorentzat mendebaldeko hiru herrialdeetara (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) mugatzen dela; Euskal Herria = Euskal Autonomia Erkidegoa izango litzateke kasu horretan. Ipar Euskal Herriko jende askorentzat, bestalde, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetara (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) mugatzen da; Euskal Herria = Ipar Euskal Herria, izango litzateke orduan. Hala ere, iritzi nagusiak zazpi herrialdeekin identifikatzen du, Nafarroa Garaian salbu, non edo mendebaldeko herrialdeekin (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin, alegia), edo ondo zehazten ez den *Nafarroarekin* (Nafarroa historikoa? oraingo Nafarroa Garaia?) identifikatzen den. Datuok erakusten dute gure gizarteak Euskal Herria ulertzeko modu asko dituela. Aniztasun hori lotuta dago, neurri on batean, ideologiarekin, baina ez bakarrik, gure ikerketak argi erakutsi duen bezala. Adibidez, adinak ere eragina du: zenbat eta gazteagoa izan, are identifikazio handiagoa zazpi herrialdeekin; edo ikasketa mailak ere eragiten du: zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, are identifikazio handiagoa zazpi herrialdeekin. Eta zer esanik ez, administrazio esparru desberdinek ere eragiten dute nabarmen.

Gure kasuan, zazpi herrialdetako Euskal Herria hartu dugu aztergaitzat, lur eremu horretan agertzen baita nazio proiektu desberdinen arteko gatazka (espainiarra, euskal herritarra eta frantziarra), baina kontziente gara aukerarik hobetsiena zazpi herrialdedun Euskal Herria izanda ere, ez dagoela aukera baten aldeko gehiengo argirik. Hori, noski, kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsu edo funtsezkoa da, estatua lurralde zehatz batean osatzen den subjektu politiko baten baita. Estatu bati buruzko edozein eskaera egiterakoan, beraz, errebendikatutako lurraldearen definizio argia eta zehatza beharko litzateke, eta jasotako datuek erakustera emango lukete gaur egun ez dela hori egiten.

Orain arte Euskal Estatuaz edo Euskal Herriaz esan dugunak zailtasun nabaria ekarri du lana ondo garatzeko eta zedarrizteko momentuan. Nahasmena gerta liteke batzuetan jendeak ez dakielako ondo bereizten jarduera eremua: Euskal Herria terminoa erabilia, batzuek Euskal Autonomia Erkidegoa edo Ipar Euskal Herria adierazi nahi dute; Nafar Estatua edo Euskal Estatua zertan bereizten diren ez dago argi, eta abar. Esan dugunez, zazpi herrialdedun Euskal Herria hartu dugu aztergaitzat, eta uste dugu hauxe dela lehenengo ikerketa marko horretan identitateaz eta politikaz, arlo biak baturik, jarduten duena: zazpi herrialdeetako markoan, noski, lan asko egin dira, eta datu asko ematen dira aldiro aldiro, baina identitatea, etorkizun politikoa eta balizko Euskal Estatu baten inguruan lehenengoz egiten dela uste dugu. Garrantzia eman diogu horrela egiteari, behin baino gehiagotan eremu, denbora eta gai desberdinetako datuak hartu behar izaten baitira, irudi oso bat emate aldera.

Zailtasunak eratorri dira hortik, diogunez, eta gehienak gainditu egin direla uste dugu. Hala ere, bat oso nabaria da gure testuan, Euskal/Nafar Estatuaz hitz egiten dugu eta. Horrela egitea erabaki da, *Euskal Estatura* mugatzeak errealitatea bera mugatzea zekarrela pentsaturik, Nafarroa Garaian batez ere. Hori dela eta, *Nafar Estatura* kategorია ere sartu dugu. Hala ere, emaitzak aztertzeko, eta sinonimo osoak ez diren arren, batera ulertzea erabaki dugu, azken batean garrantzitsuena frantziar edo espainiar estatuetatik alde egiteko desioa islatzen dutela uste dugu eta. Horrela ez egiteak, gainera, euskal nazionalismoaren ildo teoriko nagusiaren alde egitea ekarriko luke, *euskalherrizalea* dena, alegia, jarrera *nafarroazalea* ere badagoela ahaztuta.



## Euskal Estatuaz eta Erabakitze Eskubideaz

Emaiza politikoetara joanda, oso nabaria iruditu zaigu gaur egun garrantzi handia ematen zaiela gai publikoetan parte hartzeari eta erabakietan esku hartu ahal izateari, ea etorkizun politikoaz erabakitze galdeketa egin beharko litzatekeen itaunduta, inkestatuen bi herenek baietz erantzuten du eta. Lurralde administratibo guztietan, adin tarte guztietan eta ikasketa maila guztietan errepikatzen da aldeko jarrera, eta beti gehiago absolutuarekin. Jarrera hori oso ondo islaturik agertzen zaigu antolatu ditugun eztabaida taldeetan, jendeak printzipio demokratiko gisa ulertzen baitu erabakitze eskubidea, Euskal Estatu baten alde egon edo ez. Dena den, printzipio orokor modura ikusita ere, ñabardurak egiten dira bi arlotan: ez da guztiz zehazten nork erabaki behar duen (hau da, nor den erabakiaren subjektu politikoa); eta iritzi desberdinak agertzen dira zeri buruz galdetu behar den zehazterakoan ere (hau da, egitura politiko-administratiboarekin batera, ea beste auzi batzuei buruz ere erabakitze eskubiderik ba ote den).

Aurrekoarekin batera, ikerketaren galdera nagusia izan da ustezko Euskal Estatuarekin dagoen adostasuna eta desadostasuna neurtzea. Galdera zehatza egin nahi izan dugu, horri buruzko erreferenduma bailitzan, eta beste aukera posibleetatik berezita, beste ikerketa batzuetako ohituratik at. Hortaz, Euskal Estatu baten aukera mahai gainean jarrita, jendeari haren alde edo kontra bozkatuko lukeen galdetu zaionean, inkestatutako gehienek alde egingo luketela esan dute (%40,7); askok, berriz, kontra egingo luketela esan dute (%35,3), eta kontuan hartzekoa da lautik batek (%24) ez duela erantzunik ematen edo abstenitu egingo litzatekeela. Kopuru horiek zentzua izango lukete, noski, galdeketa zazpi herrialdeak barruti bakar gisa ulertuta. Bestela, kontuan hartu behar dira hiru lurralde administratiboak, eta beherago ikusiko dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan Euskal Estatuaren aldeko iritziak irabaziko luke; Nafarroa Garaian kontrako iritziak (aldekoa ia parekatuta egonda); eta Ipar Euskal Herrian, kontrako iritziak irabaziko luke, nabarmen.

Aurreko datuak Euskal Estatuaren ingurukoak direla gogoratu behar da, eta ez independentziari buruzkoak. Hasieran esan dugu ez direla gauza bera, eta horrek jarraian hartuko du zentzua, independentziaren alde edo kontra egotea nahiko iritzi finkoa izan ahal bada ere, Euskal Estatuaren alde edo kontra egotea aldakorragoa izan daiteke eta. Kontuan har bedi estatua lurralde batean eraikitzen den egitura politiko gisa ezaugarritu dugula, eta herritarren helburu propioak betetzen diren neurrian, herritarrak asebetetzea erakutsiko diola estatuari, eta ez bestela. Horrek ez du esan nahi herritarrak, nahi duenean, desafekzioa erakutsi ahal diola estatuari (administratiboki), baina bai, kontrako aldetik, estatu berria eraikitzeo, norberaren asebetetze mailaren arabera erantzungo diola herritarrak aukera berriari.

Hori kontuan harturik, jakin nahi izan dugu zelako ziurtasun maila agertzen zuten inkestatuek eta elkarrizketatuek emandako iritzien aurrean. Oro har, agian gaia ez dagoelako oso herritartuta, iritzia aldatzeko joera altua dela esango genuke. Zehatzago, inkestan, aldeko jarrera zuenari esaten zitzaion pentsatzeko estatu berriak egoera okerragora eramango zuela gairen bat (gizarte politikak, euskara, ekonomia...), eta ea kasu horretan aldeko botoa aldatuko lukeen. Eta alderantziz, kontrako jarrera zutenekin (estatu berriak oraingoa baino egoera hobera eramango zuela, alegia). Oro har, inkestatuen hirutik bat (gutxienez lautik bat, eta batzuetan bitik bat) prest agertzen da iritzia aldatzeko arrazoi desberdinak direla eta: Euskarak (batez ere) eta gizarte politikak okerrera egitea estatu berriaren alde zeudenen kasuan; eta gizarte politikak eta demokraziak hobera egitea estatu berriaren kontra zeudenenentzat.

Baina zehaztu ditzagun apur bat iritzi horiek antolatu diren taldeetako datuen bidez, ikerketaren alderdi kualitatiboaren bidez, alegia. Izan ere, Euskal Estatu baten alde edo aurka egoteko iritzi ildo desberdinak nabarmendu dira. Oro har, Euskal Estatu baten alde agertzen dira abertzaleak, hau da, Euskal Herria naziotzat jotzen dutenak. Nagusiki, urrats logikotzat irudikatzen dute estatu batez jabetzea, nazioek eskubide demokratiko hori dutelako. Bestela esanda, batez ere identitateak (*nazio bat gara*) eta demokraziak (*gure eskubidea da*) justifikatzen dute Euskal Estatuaren beharra. Horrez gain, bestelako arrazoiek ere lekua izan dute estatu berri baten aldarrikapenari eusteko, hala nola, euskal kultura bermatzea, justizia soziala bultzatzea edo egitura gardenagoa izatea.

Euskal Estatuaren aurkako iritzietan, berriz, aldaketaren beharrik eza izan da argudio nagusia, modu nabarmenean gainera; hau da, estatu berri bat sortzea arazoekin lotzen da, batez ere ziurgabetasun ekonomikoarekin. Oro har, aurkako iritzietan, ez da Euskal Estatu baterako beharrik ikusten, eta ez da pentsatzen estatu horrek onurarik ekar dezakeenik ere. Aitzitik, Euskal Estatu euskal nazionalisten gai partikulartzat hartzen da, eta ez gizarte osoaren interesei lotua. Horrekin batera, nazionalismoaren eragina iritzi hauetan ere agertzen da –askotan *nazionalismo hutsala* deitu izan denaren formarekin bada ere–, Euskal Estatuaren aurkako iritzia nazio identitate espainiar edo frantziarrean oinarritzen baita batzuetan. Izan ere, jada existitzen den nazio-estatuaren alde egiten duenak ez du haren aldarrikapenik edo jarrera aktiborik hartu behar nahitaez, estatuaren nazio egitasmoa egunerokotasunean edo normaltasunean txertaturik baitago, gehiengoarentzat *nazionalista* gisa agertu gabe. Zentzu horretan uler daiteke Euskal Estatuaren aurka egiteko argudio nazionalista espainiarra edo frantziarra maiz ez agertzea.

Hala eta guztiz ere, azterketa kuantitatibo batek azaleratzen ez dituen ñabardurak atzeman ahal izan dira azterketa kualitatiboan, hirugarren iritzi multzo bat agertzen baita, nolabait jarreraz aldatzeko prest dagoena. Gehienbat Euskal Estatuaren aurkako iritziari eutsi diotenen artean agertu da, eta esan nahi du prest egongo lirakeela iritzia aldatzeko, estatu berriak egoera ekonomiko hobea edo politika sozial eraginkorragoak ekarriko balitu. Hau da, egoera ekonomikoa (eta politika sozialak) argudio garrantzitsu gisa azaleratu dira Euskal Estatuaren aurkako iritzitik aldekorako aldaketa egiteko.

## **Euskal Estatuari buruzko iritzia: alde dauden enpresaburuena eta kultura-eragileena**

Ikusi dugunez, Euskal Estatuaren aurreko iritzia aldatzeko arrazoi nagusiak ongizatea, ekonomia eta euskara eta euskal kultura dira. Zentzu batean edo bestean, herritarren kezka iturri handiak dira. Hori dela eta, gai horietan sakondu nahirik, bi ikerketa osagarri egin ditugu. Alde batetik, askotan entzuten baita Euskal Herriko enpresaburuak ez lirakeela prest egongo Euskal Estatu baten alde egiteko, sakoneko elkarrizketak egin dizkiegu Euskal Estuari baietza emateko prest egongo ziren hainbat enpresabururi. Beste aldetik, abertzaletasunaren eragina hain nabaria izango ez lukeen Euskal Estatu baten aurrean, sakoneko elkarrizketak egin dizkiegu, kasu honetan, Euskal Herriko hainbat kultura-eragileri, euren iritzia jakiteko asmoz. Hona emaitzak.

Herritar askorentzat, Euskal Estatu independente bat ez litzateke izango bideragarria. Ikerketa kualitatiboan, horrela, Euskal Estatuaren aurkako argudio nagusia estatu berria ziurgabetasun ekonomikoarekin lotzea izan da. Baina, beste aldetik, jende asko prest omen dago bere iritzia aldatzeko Euskal Estatuak gizarte politikan eta ekonomian, oro har, ekarriko lituzkeen ondorioen arabera. Euskal Estatuaren alde dauden enpresaburuak, ordea, ez dute zalantzarik Estatu berriaren bideragarritasunaz. Argi dute, gainera, Espainiatik edo Frantziatik bereizteak, batetik, ez liokeela kalte ekonomiko handirik ekarriko Euskal Herriari; eta bestetik, ezta euren negozioei ere. Horretan asko eragiten du gaur eguneko ekonomia globalizatuak, elkarrizketatutako enpresaburu gehienek salmenta ez baitago lotuta Espainiari edo Frantziari, negozioak urrutira eramaten dira, eta horrela jaitsi egiten da lehenago estatuarekin zegoen lotura.

Bideragarritasuna ziurtaturik, eta ekonomia globalaren arrazoi berberengatik, elkarrizketatutako enpresaburuak ez dute uste etekin ekonomiko berezirik jasoko luketenik Euskal Estatu berrian. Hau da, alde dauden enpresaburuak ez diote ematen negozio helbururik Euskal Estatuaren alde egiteari. Zergatik daude, orduan, Euskal Estatuaren alde? Ideologikoki, ikuspuntu abertzalea partekatzen dute, baina horrez gain, uste dute gaur egun posible dela Euskal Estatu eraikitzea, eta estatu horri beste edozein estatuari eska lekioketena eskatzen diote, enpresa propiotik haragoko helburuak, alegia: garapena eta aurrerapena, bizikidetzak, demokrazia hobea, hezkuntza eta formazioan inbertitzea, eta guztiaren gain, komunitatearen iraunkortasuna bermatzea.

Euskara nahiko gai eztabaidatua da Euskal Estuari loturik, arrazoi desberdinengatik. Alde batetik, eginiko inkestan, jaso ahal izan dugu alde daudenek iritzia aldatuko luketela ikusiko balute estatu horrek ez duela nahikorik egiten euskara bultzatzeko eta gizartearen eduki beharko lukeen nagusitasuna eskuratzeko. Baina, beste aldetik, antolatutako talde eta elkarrizketa batzuetan, erdaldun askorentzat haren alde egiteak onartu ezin den egoera sortzen du gizartearen, lanpostuak kentzen baitizkio ondo kualifikatuta dagoen jendeari. Nolabait, oso iritzi desberdinak topatu ditugu ikerketa kualitatiboan: Euskal Estatu batean, euskarari dagokionez, aldaketarik gertatuko ez dela uste zuten batzuek (aldaketa gabekia horren irakurketa positiboa eginez, batzuetan); baina beste batzuek, aipatu bezala, Euskal Estatu batean euskara gehiegi bultzatuko dela eta mesfidantza agertu dute.

Euskal Herriko kultura-eragile euskaltzale batzuen iritzian oinarriturik egin dugun azterketan argi ageri da Euskal Estatu bat sortzeko arrazoi nagusia euskara suspertzea dela, eta ez dutela garbi ikusten hori lortuko denik oraingo joerarekin. Izan ere, euskal kulturgileak Euskal Estatuaren alde agertzen dira, eta euskara eta euskal kultura garatu ahal izateko haren ezinbestekotasuna aitortzen dute, baina gaurko egoeran ez diote lehentasun estrategikorik esleitzen estatu proiektuari. Estatu tresna da haienentzat, ez helburu. Tresna izan beharko luke batez ere euskal hiztunen komunitatea babesteko. Hala, estatuaren beharra bera zalantzan jarri barik ere, gaur egun esparru politiko nazionalistan sortzen ari diren estatu proposamenen argitara, kultura eragileek auzitan jartzen dituzte proiektu horren helburuak, hura bultzatu beharko lukeen subjektu politikoaren nolakotasuna, baita proiektuaren egokitasuna bera ere une honetan.

## Euskal Estatuaz administrazio lurraldeka

Ikerketa honetan kontu handiz hartu behar dira modu orokorrean aurkezten ditugun datuak. Ikuspegi orokorra ematen digute, joera nagusiak, baina ez dute aintzat hartzen gure ikerketarako hiru eremu administratibo desberdin hartu ditugula. Batzuetan, emaitzak edo iritziak antzekoak dira eremu guztietan, baina beti ez da horrela gertatzen, eta ez luke zentzurik izango emaitza horiekin batez bestekoa egitea, administrazio esparru desberdinei buruz ari garelako. Hori dela eta, amaitzeko, esparru bakoitzaren ezaugarriak aurkeztuko ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, nabarmentzekoa da Euskal Herria zer den ulertzeko bi modu nagusi agertzen direla: inkestatueta ia bitik batek Euskal Herria zazpi herrialdeekin lotzen du, baina nahiko hurbil gelditzen dira Euskal Herria EA Erekin berarekin identifikatzen dutenak. Nazio identitatearen aldetik, bestalde, esanguratsua da ia hirutik bat *soilik euskal herritarra* sentitzen dela. Bestalde, nabaritzen da alderdi abertzaleek lurralde horretan izatea euren indarrak handiena, beste lurraldeetan baino gogo handiagoa agertzen baita erabakitze eskubidearen alde, eta Euskal Estatu sortzearen alde ere. Are gehiago, estatuaren kontra daudenen artean ere iritzia aldatzeko alde aurretiko jarrera handiagoa da besteetan baino (eta hortaz, baldintza batzuen pean prest leudeke estatu berriari baietza emateko). Horrez gain, eta estatuaren mailatik at, oso prest daude gainerako herrialdeekin harreman instituzionaletan aritzeko.

Nafarroa Garaia dagokionez, oso esanguratsua da Euskal Herria EA Erekin identifikatzea neurri handi batean. Horretan, uste dugu gaztelaniaz egin den galderak (zer da zure ustez *País Vasco* delakoa) eragina eduki ahal izan duela erantzunetan. Kontuan harturik hirutik batek Euskal Herria zazpi herrialdeekin lotzen duela, pentsa liteke agian Nafarroako jendeak oraingo Nafarroaren lurraldea hartzen duela erreferentzia gisa (emaitza zehatzik ez daukagu, ez baitzen galdera hori egin), baina zalantzarako tarte handia irekitzen du jaso dugun beste datu honek: inkestatutako%1,3k bakarrik hartzen du bere burua *soilik nafartzat*. Nola interpretatzen da hau? Askotan aipatzen da nafarren *nafartasuna*, baina datuak ez dira oso argiak momentuz baieztapenak egin ahal izateko.

Nafarroan, identitate kontuez gain, erabakitze eskubidearen aldeko jarrera argia agertzen da, eta estatu bat osatzeari begira, berriz, oso parekatuta daude aldeko eta kontrako iritziak, kontrakoen alde. Bestalde, EA Erekin eta Ipar Euskal Herriarekin konparatuta, Nafarroan Euskal edo Nafar Estatuaren kontra daudenen artean iritzia aldatzeko alde aurretiko jarrera txikiagoa dago. Estatuaren alde daudenek iritzia aldatzeko duten jarrera, berriz, parekagarria da EAE eta Ipar Euskal Herriarekin. Beste lurraldeen arteko harremanez, oso esanguratsua da Nafarroan gustatuko litzaiekeela EA Erekin harremanak indartzea, baina ez autonomia bakarra osatzea. Hala ere, antolatutako taldeetan ikusi denez, esanguratsua da nolako garrantzia ematen zaion gai honi Euskal Estatuaren aurkako iritzia erakutsi duten taldeetan, beti ere lotura horiek gutxitzeko edota ukatzeko, eta baita Nafarroaren *euskal izaera* ukatzeko. Amaitzeko, eta enpresaren arloan, Nafarroako zenbait enpresaburuk begi onez ikusiko luke Euskal Estatuaren ideia, uste baitute euren negozioa ez litzatekeela kaltetuko, besteak beste, elkarrizketatuetako batzuek lotura handia dutelako gainerako Euskal Herriarekin. Sentsazioa dute estatu berrirako prozesua eta lema EAEk erango duela, eta hori positibotzat jotzen dute.

Ipar Euskal Herria da Euskal Herria zazpi herrialdeekin gehien lotzen duen lurraldea, erdiak baino gehiagok hala egiten baitu, eta horren ondoren, hirutik batek Ipar Euskal Herriarekin berarekin identifikatzen du. Nazio identitatearen aldetik, bestalde, esanguratsua da ia hiru laurden *euskal herritarra bezain frantziarra, frantziarrago euskal herritarra baino*, edo *soilik frantziarra* sentitzen dela. Hau da frantziar sentimendua oso barneratuta dago inkestatuen artean. Horrek eragina du, noski, Euskal Estuari begirako erantzunetan.

Edozein modutan, erabakitze eskubidearen alde daude inkestatuak: bitik bat horren alde agertzen da. Demokrazia ariketa gisa ulertzen omen da, Euskal Estuaz galdeturik, bitik bat ere kontra agertzen da eta. Lautik batek, berriz, aldeko iritzia du. Ohartu behar da, hala ere, Ipar Euskal Herrian gai honetaz galdetzea nahiko arrotz egin zaiela batzuei, eta azterketa kualitatiboan argi ageri denez, bai abertzale direnek eta ez direnek pentsatzen dute oraingoa ez dela une egokia horrelako eztabaidari ekiteko, oinarrizkoagoak diren urrats politikoak gauzatu behar baitira lehenago. Urruntasun hori dela eta agian, iritzia aldatzeko alde aurretiko jarrera nahiko handia da, bai alde eta bai kontrako iritzia dutenen artean ere. Beste lurraldeen arteko harremanez, azkenik, Hego Euskal Herriarekin harreman instituzional handiagoa izatea gustatuko litzaieke. Azterketa kualitatiboan garrantzia ematen zaio horri. Enpresaren arloan, amaitzeko, eta Nafarroan bezala, Euskal Estatuaren ideia ez da bizi beldurrez, nahiz eta kasu batzuetan Frantziako estatu garrantzitsu agertu euren negozioetan. Baina prest leudeke Euskal Estatuaren alde egiteko. Puntu horretan, uste dute EAEn hasi beharko litzatekeela estatu berrirako prozesua, eta pozez hartuko lukete horrela izanda ere.

## ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA. EZTABAIDA TALDEEN FITXA TEKNIKOA

Id	Lekua	Botoa	Euskal Estatuari buruzko jarrera	Sexua	Adina	Lan egoera	Ideologia
1.T	Bilbo (I. fasea)	Abstentzioa		4G + 4E	2-(18-29) 5-(30-65) 2-(+65)	3 Langabezian 3 Enplegu egonkor 3 Enplegu ez egonkor	2 Abstentzioa beti 2 Abstentzioa ez beti 3 Boz aldagarria ez abertzalea 2 Boz aldagarria abertzaleagoa
2.T	Barakaldo (I. fasea)	Ez abertzalea		2G + 2E	4-(30-65)	4 Enplegu egonkor	4 PSOE
3.T	Donostia (I. fasea)	Abertzalea		4G + 3E	3-(18-29) 4-(30-65)		4 Ezkerreko abertzaletasunaren inguruan 3 EAJ ingurua
4.T	Iruñea (I. fasea: hiruko taldea, mistoa)	Ez abertzalea + Abertzalea		2G + 1E	1-(18-29) 2-(30-65)		1 Ezkerra Ez Abertzale 2 Ez abertzale 3 Nabarrista, abertzalea
E.1	Hazparne (I. fasea: elkarrizketa)	Abertzalea		1G			Ezkerreko Abertzalea
6.T	Zarautz (II. fasea:)	Abertzalea	Aldekoa	6G + 2E	1-(18-29) 4-(30-65) 3-(+65)	1 Langabezian 4 Enplegu egonkor 3 Erretiratu	8 Ezker Abertzalea
7.T	Gasteiz (II. fasea)	Mistoa	Aurka Tartekoak	4G + 3E	3-(18-29) 3-(30-65) 1-(+65)	3 Langabezian 3 Enplegu egonkor 1 Erretiratua	1 PSOE 2 EAJ 2 Podemos 2 Boz aldagarria
8.T	Iruñea (II. fasea)		Aurka	6G + 4E	4-(18-29) 4-(30-65) 2-(+65)	5 Langabezian 5 Enplegu egonkor	2 PP 3 PSOE 1 Beste batzuk 4 Boz aldagarria
9.T	Bilbo (II. fasea)		Aurka	5G + 5E	2-(18-29) 6-(30-65) 2-(+65)	7 Langabezian 3 Enplegu egonkor	1 PP 1 PSOE 2 EAJ 2 Besteak: IU 3 Boz aldagarria
10.T	Portugalete (II. fasea:)		Tartekoak	4G + 6E	3-(18-29) 7-(30-65)	6 Langabezian 4 Enplegu egonkor	Jatorria: Gurasoak Euskal Herrian jaiok
11.T	Arrasate (II. fasea)		Tartekoak	5G + 2E	2-(18-29) 5-(30-65)	3 Langabezian 4 Enplegu egonkor	Jatorria: Gurasoak Euskal Herritik at jaiok. Espainako hiri desberdinetan jaiok
12.T	Baiona (II. fasea)		Aldekoak + Aurkakoak	2G + 6E	2-(18-29) 5-(30-65)	6 Enpleguarekin 1 Erretiratua	4 Abertzale 4 Frantziازه
13.T	Kanbo (II. fasea)	Abertzalea	Aldekoak	2G + 3E	1-(18-29) 4-(30-65)	1 Langabezian 3 Enplegu egonkor 1 Erretiratua	5 Ezker Abertzalea
14.T	Bilbo (II. fasea)		Aldekoak + Tartekoak	4G + 4E	3-(18-29) 4-(30-65) 2-(+65)	1 Langabezian 2 Ikasle 2 Erretiratu 3 Enplegu egonkor	5 EAJ-independentistak 3 EAJ autonomistak

## 2. ERANSKINA. NAFARROA GARAIA ETA SUBJEKTU POLITIKOA

Nafarroan inkesta egiteko orduan, "Euskal Estatu" kontzeptuak eragin zezakeen sesgoaz jabetuta, beste aukera bat eskaini zaie elkarrizketatuei, hipotesi gisa. Beste aukera hori "Nafar Estatu" izan da, hainbat herritarren artean Euskal Estatuak baino atxikimendu gehiago izan zezakelakoan. Azken finean, lan honen helburua espainiar estatutik atera eta estatu berri bat sortzearen aldeko jarrera neurtzea da, izan "Euskal" izan "Nafar" estatu berri horren izena. Horrela, Nafarroan oinarritzko inkesta egokitzeko unean bi galdera gako formulatu dira:

Lehenik, inkestatuei Nafarroa nola ulertzen duten galdetu zaie: "Zuretzat zein termino da egokiena Nafarroako Foru Komunitatearentzat?" (eta lau erantzun eskaini zaizkie aukeran)

- Espainiako erregio bat da
- Euskal Herriko herrialde bat da
- Nazio bat da, ez Espainia ez Euskal Herria
- Hiruetatik bat ere ez da

Bigarren galdera batean hiru estatu ezberdinetako herritar izateko aukera eman da (NFK barne duen espainiar estatu, Nafar Estatu independentea edo NFK barne duen Euskal Estatu).

Bi galdera horiei emandako erantzunen arabera egokitu da jarraian dauden galderen formulazioa inkestan. Horrela, lehen galderan "Espainiako erregio bat da" erantzun duten guztiei "Euskal Estatuaz" galdetu ordez, "Nafar Estatuaz" galdetu zaie. "Nafar Estatu independentea" nahi dutela erantzun duten guztiei, berdin. Gainerakoei, "Euskal Estatuaz" galdetu zaie.

Hurrengo taulan ikus daiteke nola geratu den banaketa:

Aukeratu ahalko bazenu zein estatuko herritar izan, hurrengo hiru estatu posibleetatik, zein aukeratuko zenuke:								
			NFK barne duen espainiar estatu	Nafar Estatu independentea	NFK barne duen Euskal Estatu	ED	EE	
EUSKAL	Zuretzat zein termino da egokiena Nafarroako Foru Komunitatearentzat?	Espainiako erregio bat da	7 <sup>1</sup>		8	4	3	
		Euskal Herriko herrialde bat da	6		74	4	1	
		Nazio bat da, ez Espainia ez Euskal Herria	7		13	3	0	
		Hiruretatik bat ere	10		5	5	4	
		Ez daki	2		2	3	0	
		Erantzunik ez	0		0	0	1	
Guztira			32		102	19	9	
NAFAR	Zuretzat zein termino da egokiena Nafarroako Foru komunitatearentzat?	Espainiako erregio bat da	206	14				
		Euskal Herriko herrialde bat da		5				
		Nazio bat da, ez Espainia ez Euskal Herria			16			
		Hiruretatik bat ere			6			
		Ez daki			1			
		Erantzunik ez			1			
Guztira			206	43				

<sup>1</sup> Zazpi horiek inkestak egiten hasteko orduan fitroak ondo ez funtzionatzaren ondorio dira. Berez, "Nafar" bezala izan behar ziren sailkatuak

### 3. ERANSKINA. EUSKAL ESTATUAREN INGURUKO JARRERAK, HAUTEMATEAK ETA IRITZIAK. EUSKAL HERRIA, 2014. GALDERA-SORTA

#### AUKERATU ELKARRIZKETAREN HIZKUNTZA

##### 1. SEXU / GENEROA (IDATZI, EZ GALDETU)

- Emakumezkoa .....1
- Gizonezkoa .....2

##### 2. ZENBAT URTE DITUZU? (BETETAKO URTEAK, LEHENAGO ESAN EZ BADU GALDETU)

#### ELKARRIZKETA HASI

#### IRUDITZEN BAZAIZU ELKARRIZKETAREKIN HASIKO GARA

##### 3. Zein neurritan interesatzen zaizu politika?

- Asko .....1
- Nahikoa .....2
- Gutxi .....3
- Batere ez .....4
- Ez dakit .....88
- Erantzunik ez .....99

##### -- [NFK-1] [NFK soilik] Zuzetzat zein terminoa da egokiena Nafarroako Foru Komunitatearentzat:

- Espainiako erregio bat da .....1
- Euskal Herriko herrialde bat da .....2
- Nazio bat da, ez Espainia ez Euskal Herria .....3
- Hiruretarik bat ere ez .....4
- Ez dakit .....88
- Erantzunik ez .....99

#### SARRERA: IRAILAREN 18AN INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUMA EGIN ZEN ESKOZIAN. AZAROAN KATALUNIAN ERE KONTSULTA BAT EGINGO DA, ETA KATALUNIARREK ESTATU BAT OSATU NAHI DUTEN ALA EZ ERABAKIKO DUTE GALDEKETA HORRETAN

##### 4. Euskal/Nafar gizarteari ere bere etorkizun politikoa erabakitzeke galdeketa egitearen alde edo kontra zaude?

- Alde .....1
- Kontra .....2
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

##### -- [NFK-2] [NFK soilik] Aukeratu ahalko bazenu zein Estatu herritar izan, hurrengo hiru Estatu posibleetatik, zein aukeratu zenuke: NFK barne duen Espainiar Estatu, Nafar Estatu independentea edo NFK barne duen Euskal Estatu?

- NFK barne duen Espainiar Estatu .....1
- Nafar Estatu independentea .....2
- NFK barne duen Euskal Estatu .....3
- Ez daki .....98
- Erantzunik ez .....99

##### -- [NFK-3] [NFK soilik] Demagun NFKn alderdi politiko guztiak edo gehienek adosten dutela Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?

- Alde .....1
- Kontra .....2
- Ez daki .....98
- Erantzunik ez .....99

##### 5. A. [EAEn] Demagun Euskal Herrian alderdi politiko guztiak edo gehienek adosten dutela Euskal Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketa Euskal Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?

##### 5.B. [IEH] Eta demagun, galdeketa edo erreferenduma IEH barne duen Euskal Estatuari buruzkoa dela, hau da, Euskal Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?

- Alde .....1
- Kontra .....2
- Abstentzia .....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

##### 6. Gustatuko litzaidake esatea, 1 eta 5 arteko eskala batean, zein ziurtasun maila duzun aldeko/kontrako bozkarekin. 1ak esan nahi du iritzia aldatu dezakezula eta 5ak esan nahi du iritzia hori ez zenukeela inolaz ere aldatuko.

- 1 .....1
- 2 .....2
- 3 .....3
- 4 .....4
- 5 .....5
- ED .....88
- EE .....99

##### 7. Zein baldintzetan aldatuko zenuke zure iritzia?

-

##### 8. Zein neurritan uste duzu hemengo alderdien gehiengoak adostu dezakeela gure etorkizun politikoa erabakitzeke erreferenduma bat? Oso posible, posible, zail ala oso zail ikusten duzu?

- Oso posible .....1
- Posible .....2
- Zail .....3
- Oso zail .....4
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

##### 9. Orain, imajinatu zer erantzungo zenukeen ondoren aipatzen diren kasuetan:

#### 9.1. Ekonomia

##### A. Euskal/Nafar Estatuaren sorrerak orain Espainiaren (Frantziaren) barruan dagoena baino egoera ekonomikoa hobea ekarriko balu, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?

- Euskal Estatu sortzearen alde .....1
- Euskal Estatu sortzearen kontra .....2
- Abstentzia .....3
- ED .....88
- EE .....99

##### B. Euskal/Nafar Estatuaren sorrerak orain Espainiaren (Frantziaren) barruan dagoenaren antzeko egoera ekonomikoa, edo txarragoa, ekarriko balu, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?

- Euskal Estatu sortzearen alde .....1
- Euskal Estatu sortzearen kontra .....2
- Abstentzia .....3
- ED .....88
- EE .....99

#### 9.2. Europar Batasuna

##### A. Euskal/Nafar Estatuak Europako Batasunaren barruan egoteko aukera izango balu, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?

- Euskal Estatu sortzearen alde .....1
- Euskal Estatu sortzearen kontra .....2
- Abstentzia .....3

- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**B. Euskal/Nafar Estatuak Europako Batasunetik kanpo geratuko balitz, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**9.3. Politika sozialak**

**A. Euskal/Nafar Estatuaren sorrerak gaur egungoak baino politika sozial hobeak ekarriko balitu (hezkuntzan, osasunean, pentsioetan...), ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**B. Euskal/Nafar Estatuaren sorrerak gaur egungoen antzeko politika sozialak, edo mugatuagoak, ekarriko balitu, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**9.4. Hizkuntza**

**A. Euskal/Nafar Estatuak euskara babestuko balu gaztelaniaren (frantsesaren) gainetik, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**B. Euskal/Nafar Estatuak gaztelania(frantsesa) babestuko balu euskararen gainetik, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**C. Euskal/Nafar Estatuak gaztelaniari (frantsesari) eta euskarari babes maila berdina emango balie, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**9.5. Bizikidetzak**

**A. Euskal/Nafar Estatuak gaurkoa baino bizikidetzak maila hobea ziurtatuko balu euskal gizartean, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**B. Euskal/Nafar Estatuak oraingoaren antzeko bizikidetzak maila**

**ziurtatuko balu euskal gizartean, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**9.6. Eredu demokratikoa eta parte hartzea**

**A. Euskal/Nafar Estatuak gaur egungoak baino demokratikoagoak balitz, hau da Espainiakoak (Frantziakoak) baino funtzionamendu gardenagoak eta parte-hartzaileagoak baleuka, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**B. Euskal/Nafar Estatuak gaur egun Espainiako (Frantziako) estatuak daukan antzeko maila demokratikoa izango balu, ZER ERANTZUNGO ZENUKE ERREFERENDUMEAN?**

- Euskal Estatuak sortzearen alde .....1
- Euskal Estatuak sortzearen kontra .....2
- Abstentzia.....3
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**10. Balizko erreferendum edo galdeketa emaitza edozein dela ere, zure ustez emaitza onargarria izateko nahikoa litzateke %50 gaintzea, edo gehiago beharko litzateke?**

- %50etik gora .....1
- Gehiago handiagoa .....2
- Ez daki .....88
- Erantzunik ez .....99

**11. Erreferendum bitartez Euskal/Nafar Estatuak sortzea erabakiko balitz, etorkizunean estatu horren bideragarritasuna zenbaterainokoa izango litzatekeela uste duzu? 1etik 5era, non 1ak batere bideragarria ez esan nahi duen eta 5ak erabat bideragarria.**

- 1 .....1
- 2 .....2
- 3 .....3
- 4 .....4
- 5 .....5
- ED .....88
- EE .....99

**12. Euskal Herritar/Nafar izatearen eta espainiar (frantziar) izatearen artean, nola definituko zenuke zure burua ondorengo aukeren artean? Soilik euskal herritarra sentitzen zara, euskal herritarra espainiarra (frantziarra) baino gehiago, euskal herritarra eta espainiarra (frantziarra) biak berdin, espainiarra (frantziarra) euskal herritarra baino gehiago ala soilik espainiarra (frantziarra) sentitzen zara?**

- Soilik euskal herritarra .....1
- Euskal herritarra espainiarra baino gehiago .....2
- Euskal herritarra bezain espainiarra .....3
- Espainiarra euskal herritarra baino gehiago .....4
- Soilik espainiarra .....5
- [Nafarroa Garaia] Nafarra eta euskal herritarra .....6
- [Nafarroa Garaia] Soilik nafarra .....7
- Beste .....8
- ED .....88
- EE .....99

**13. Euskal Herriaz hitz egiten denean, zer da zure ustez Euskal Herria**

- EAE .....1
- EAE eta NFK .....2
- IEH .....3
- Euskal Herriko zazpi herrialdeak .....4
- Beste .....5

- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

14.A. Euskal/Nafar Estatuaren aukera alde batera utziko bagenu, EAE eta NFKren artean autonomia bakarra (Espainiaren barruan) sortzearen alde ala kontra egongo zinake?

- Alde .....	1
- Kontra .....	2
- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

14.B. EAE eta Nafarroak, betiere orain arte bezala bakoitzak bere autonomia erkidegoan jarraituta, bien artean harreman gehiago izatearen alde ala kontra zaude?

- Alde .....	1
- Kontra .....	2
- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

14.C. EAEk, NFK eta IEHk Europaren barruan Euro-erregio bat osatzearen alde ala kontra zaude?

- Alde .....	1
- Kontra .....	2
- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

15. Euskal/Nafar Estatu baten inguruan erabakitzeko erreferendum bat egiten bada, Espainiako (Frantziako) estatuko herritar guztiei galdetu beharko litzaieke?

- Bai .....	1
- Ez .....	2
- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

16. Aurretik esandakoa laburbilduz, Euskal/Nafar Estatu propioa sortuko balitz, orokorrean, hobeto, berdin edo okerrago biziko ginatkeela uste duzu?

- Hobeto .....	1
- Berdin .....	2
- Okerrago .....	3
- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

GUTXI FALTA DA. ZURE OHITUREN INGURUAN GALDETUKO DIZUT ORAIN

17.A. Azken zazpi egunetan, egunkaririk irakurri duzu (paperezkoa edo online)?

- Bai .....	1
- Ez .....	2
- ED .....	88
- EE .....	99

17.B. Zein egunkari irakurri duzu?

- Diario Vasco-El Correo- Diario de Navarra .....	1
- Noticias de Gipuzkoa-Noticias de Navarra .....	2
- Gara / Naiz .....	3
- Berria .....	4
- Deia .....	5
- El Mundo .....	6
- Publico.es .....	7
- Eldiario.es .....	8
- El País .....	9
- Euskarazko lokalak (Goiena, Pulunpe, Kronika ...) .....	10
- Kazeta .....	11
- Sud-Ouest .....	12
- Figaro .....	13
- Liberation .....	14
- LeMonde .....	15
- Beste .....	16

- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

18.A. Azken zazpi egunetan, telebistatik ikusi duzu?

- Bai .....	1
- Ez .....	2
- ED .....	88
- EE .....	99

18.B. Zein telebista ikusi duzu/dituzu?

- ETB1 .....	1
- ETB2 .....	2
- ETB3 .....	3
- Hamaika TB .....	4
- TVE1 .....	5
- TVE2 .....	6
- T5 .....	7
- A3 .....	8
- Cuatro .....	9
- LaSexta .....	10
- Canal 6 .....	11
- DIGITALAK, OROKORREAN .....	12
- TELEBISTA LOKALAK (Goiena, Vitoria TV, Bizkaia TV...) .....	13
- TF1 .....	14
- FR2 .....	15
- FR3 .....	16
- Arte .....	17
- TVPI .....	18
- Kanaldude .....	19
- Beste .....	20
- ED .....	88
- EE .....	99

19.A. Azken zazpi egunetan, irratia entzun duzu?

- Bai .....	1
- Ez .....	2
- ED .....	88
- EE .....	99

19.B. Zein irratia entzun duzu?

- Euskadi Irratia .....	1
- Radio Euskadi .....	2
- Euskadi Gaztea .....	3
- EITB Irratia .....	4
- Info 7 irratia .....	5
- Onda Vasca .....	6
- Radio Nacional de España .....	7
- Onda Cero .....	8
- SER .....	9
- Euskarazko irratia lokalak (Hala Bedi2, EH irratia, Xorroxin ...) .....	10
- Herri Irratia .....	11
- Euskal Irratiak .....	12
- France BleuPB .....	13
- Lapurdi .....	14
- Inter/Info .....	15
- Europe1 .....	16
- RTL1 .....	17
- Beste .....	18
- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

20. Sare sozialik (twitter, facebook...) erabiltzen duzu informazioa jasotzeko?

- Bai .....	1
- Ez .....	2
- Ez daki .....	88
- Erantzunik ez .....	99

21. Zein sare sozial?

- \_\_\_\_\_



22. Gaiaz aldatuko dugu orain. Politikaz hitz egiterakoan, bada jendea sailkatzeko modu tipiko bat, eskuinekoa eta ezkerrekoa. 0-10 eskala batean (0 eskuinekoa izanik eta 10 ezkerrekoa) non kokatuko zenuke zure burua?

- 0.....	0
- 1.....	1
- 2.....	2
- 3.....	3
- 4.....	4
- 5.....	5
- 6.....	6
- 7.....	7
- 8.....	8
- 9.....	9
- 10.....	10
- ED.....	88
- EE.....	99

23. (EAE) Esango zenidake, mesedez, zein alderdiri edo koaliziori eman zenion botoa 2012. urteko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan?

-

(NFK) Esango zenidake, mesedez, zein alderdiri edo koaliziori eman zenion botoa 2011. urteko Foru hauteskundeetan?

- PP.....	1
- PSE.....	2
- EAJ-PNV.....	3
- EH Bildu.....	4
- Ezker Anitza.....	5
- UPyD.....	6
- Ezker Batua.....	7
- EQUO.....	8
- Beste.....	9
- Abstentzioa.....	10
- Boto zuria.....	11
- Ez zuen bozka emateko adinik.....	12
- Ez du erantzun.....	99

24. (Hego EH) Eta esango zenidake, mesedez, zein alderdiri edo koaliziori eman zenion botoa 2011. urteko Espainiako hauteskunde orokorretan?

- PP.....	1
- PSOE.....	2
- EAJ-PNV.....	3
- Amaiur.....	4

27. Zein lurraldetan jaio zinen zu? Eta zure aita? Eta ama?

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Lapurdi	Baxe Nafarroa	Zuberoa	Espainiako estatua	Beste estatu bat	E/E
Zu	1	2	3	4	5	6	7	8	9	99
Aita	1	2	3	4	5	6	7	8	9	99
Ama	1	2	3	4	5	6	7	8	9	99

27.B. Beste estatu bat, zein?

- \_\_\_\_\_

28. Zenbat denbora daramazu bizitzen hemen?

(Galdetu irekian, eta zeuk koadratu)

- Beti bizi izan naiz hemen.....	1
- 2 urte baino gutxiago.....	2
- 2 eta 5 urte artean.....	3
- 6 eta 10 urte artean.....	4
- 11 eta 15 urte artean.....	5
- 16 eta 30 urte artean.....	6
- 30 urte baino gehiago.....	7
- ED.....	88
- EE.....	99

- Geroa Bai (Naf.).....	5
- UPN.....	6
- IU.....	7
- Izquierda-Ezkerra (Naf.).....	8
- UPyD.....	9
- Besterik.....	10
- Abstentzioa.....	11
- Boto zuria.....	12
- Ez zuen bozkatzeko adinik.....	13
- Erantzunik ez.....	14

25. (IEH) Esango didazu, mesedez, zein alderdiri edo koaliziori eman zenion botoa 2011. urteko Kantonamenduetako hauteskundeetan?

- PS.....	1
- UMP.....	2
- Les Verts.....	3
- EH Bai.....	4
- Modem.....	5
- UDF.....	6
- UDI.....	7
- Front National, FN.....	8
- PNB.....	9
- Front de Gauche.....	10
- NPA.....	11
- Zerrenda irekiak.....	12
- Besterik.....	13
- Ez daki.....	88
- Erantzunik ez.....	99

26. (IEH) Esango didazu, mesedez, zein alderdiri edo koaliziori eman zenion botoa 2012. urteko hauteskunde presidentzialetan?

- PS.....	1
- UMP.....	2
- Europe-Ecologie-Les Verts.....	3
- Modem.....	4
- Front National, FN.....	5
- PNB.....	6
- Front de Gauche (komunistak eta Melenchón barne).....	7
- Besterik.....	8
- Ez daki.....	88
- Erantzunik ez.....	100

29. Eta euskaraz, ulertu eta hitz egiten duzu ondo, hitz egin nekez baina ulertzen duzu edo ez duzu ulertzen?

- Hitz egin eta ulertzen du euskaraz.....	1
- Ulertzen du baina ez du euskaraz hitz egiten.....	2
- Ez du ez hitz egiten ez ulertzen euskaraz.....	3
- ED.....	88
- EE.....	99

30. Mesedez esango zenidake ondorengo eskala honetan zure diru-sarrerak non kokatzen diren?

- Diru sarrerarik ez.....	1
- 1 eta 600 euro artean.....	2
- 601 eta 1.200 euro artean.....	3
- 1.201 eta 1.800 euro artean.....	4
- 1.801 eta 2.400 euro artean.....	5
- 2.400 euro baino gehiago.....	6
- Ez daki.....	88
- Erantzunik ez.....	99

## 31. Ze ikasketak amaitu dituzu?

- Ikasketarik ez, lehenengo mailakoak baina baxuagoak .....1
- Lehenengo mailakoak, oinarrizko batxilergoa, OHO .....2
- Bigarren mailakoak: DBH, LHI, IEE .....3
- Goi-mailako batxilergoa, LH II, BBB, UBI .....4
- Goi-mailakoak (diplomatura, lizentziatura, graduondokoa...) .....5
- ED .....88
- EE .....99

## 32. Zein da zure lan egoera?

- Zure kontura lan egiten duzu .....1
- Soldatapean lan egiten duzu .....2
- Langabetua zara, lehenengo lanaren bila .....3
- Langabetua zara, baina lehenago lan egin duzu.4
- Etxeko lanetan .....5
- Ikaslea zara .....6
- Ikaslea zara, baina lan egiten duzu .....7
- Jubilatua, pentsioduna zara .....8
- Beste egoera bat .....9
- ED .....88
- EE .....99

## 32. B. Zein beste?

- \_\_\_\_\_

## 33. [Lanean daudenak] Eta zein da zure oraingo/azken lan ordaindua? Zertan datza? (Ahalik eta gehien zehaztu)

- \_\_\_\_\_

HAU IZAN DA GUZTIA, GAIAREN INGURUAN ZERBAIT GEHITU NAHI BADUZU ORAIN DUZU AUKERA

- \_\_\_\_\_

## 4. ERANSKINA. ENPRESABURUAK: ELKARRIZKETATUEN SOSLAIA

Id.	Sektorea	Tam.	Enpresaren jabetza	Elkarrizketatuaren Kargua	Hizkuntza
EE-1	Teknologia	+ 50	Soz. Anonimoa	Administrazio Kontseiluko presidentea	Gaztelania
EE-2	Teknologia	+ 50	Korporazioa	Goi kargua	Gaztelania
EE-3	Automobilgintza-1-hornitzaileak	+ 50	Soz. Mugatua	Jabea / Kontseilaria	Euskara
EE-4	Automobilgintza-2-hornitzaileak	+ 50	Soz. Mugatua	Jabea / Goi kargua	Euskara
EE-5	Energia-laguntzaileak	+ 50	Kooperatiba	Goi kargua	Euskara
EE-6	Aholkularitza	+ 6	Soz. Mugatua	Jabea / Goi kargua	Gaztelania
EE-7	Enpresaburuen elkarteak		-----	Kontseilaria	Gaztelania
EE-8	Marketing	+ 50	Soz. Mugatua	Jabea / Goi kargua	Gaztelania
EE-9	Finantzak-1	+ 50	Soz. Anonimoa	Goi kargua	Gaztelania
EE-10	Finantzak-2	+ 50	Soz. Anonimoa	Goi kargua	Gaztelania
EE-11	Ogasuna		Publikoa	Ikuskatzailea	Gaztelania
EE-12	Elikadura-1	+ 6	Enpresa indibiduala	Jabea	Gaztelania
EE-13	Elikadura-2	+ 50	Soz. Anonimoa	Goi kargua	Gaztelania
EE-14	Metala-Laguntzaileak	+ 6	Soz. Anonimoa	Akzioduna / Goi kargua	Gaztelania
EE-15	Ostalaritza	- 6	Enpresa indibiduala	Jabea	Gaztelania
EE-16	Berziklatzea	+ 6	Kooperatiba	Goi kargua	Euskara
EE-17	Altzariak	+ 50	Soz. Anonimoa	Goi kargua	Euskara
EE-18	Laguntzaileak-Mekanika	+ 6	Kooperatiba	Goi kargua	Euskara
EE-19	Injeniaritza	+ 6	Soz. Mugatua	Goi kargua	Euskara
EE-20	Eraikuntza	+ 6	Kooperatiba	Goi kargua	Euskara

## 5. ERANSKINA. EUSKAL KULTURAKO ERAGILEAK: ELKARRIZKETATUEN SOSLAIA

Id.	SEXUA	KULTURA ESPARRUA
E-1	GIZONEZKOA	Literatura, unibertsitatea (UPV/EHU)
E-2	GIZONEZKOA	Komunikazioa, unibertsitatea (UPV/EHU)
E-3	GIZONEZKOA	Komunikazioa, Gure Esku Dago (kultura + politikagintza)
E-4	EMAKUMEZKOA	Euskalgintzako erakundea, unibertsitatea (UPV/EHU)
E-5	EMAKUMEZKOA	Kultura industriak, argitalpenak
E-6	GIZONEZKOA	Euskalgintza
E-7	GIZONEZKOA	Unibertsitatea (UPV/EHU), Gure Esku Dago (kultura + politikagintza)
E-8	GIZONEZKOA	Kultura industriak, argitaletxeak
E-9	GIZONEZKOA	Komunikazioa, kazetaritza
E-10	GIZONEZKOA	Euskalgintza, IKT
E-11	EMAKUMEZKOA	Unibertsitatea (Mondragon), hezkuntza
E-12	GIZONEZKOA	Euskalgintzako erakundeak, unibertsitatea (Mondragon)
E-13	GIZONEZKOA	Euskalgintzako erakundeak, tokiko komunikabideak, Gure Esku Dago, politikagintza (kultura + politikagintza)